


Inaziomari Atxukarro

Irriparrezko printzak

Liburua + CDa



Inaziomari Atxukarro

Irriparrezko printzak

(SENDOA Argitaldaria, 1982)

Auspoa Liburutegia
323

ATXUKARRO, Inazio María (1912-1987)

Irriparrezko printzak : (Sendoa argitaraldia, 1982) / Inaziomari Atxukarro ; edizioa, Joxemari Iriondo. - [S.l.] : Auspoa ; Donostia/San Sebastián : Gipuzkoako Foru Aldundia, Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentua, 2012.

324 or. : argk. ; 20 cm + 1 CD. - (Auspoa Liburutegia ; 323)

Aurkibidea

LG SS 1623-2012. - ISBN 978-84-7907-691-7

I. Iriondo, Joxemari (1938-). II. Gipuzkoa. Departamento de Cultura, Juventud y Deporte. III. Izenburua. IV. Saila.

821.361-3"19"

821.361-1"19"

Berridazketa eta hitzaurrea: Joxemari Iriondo

Grabazioak: Loiolako Herr Irratia eta Joxemari Iriondo

Argazkiak: Sendoa, Zegamako lagunak eta GureGipuzkoa

Edizioa: Joxemari Iriondo

© Edizio honena: AUSPOA Argitaletxea
Gipuzkoako Foru Aldundia

400 aleko tirada

ISBN: 978-84-7907-691-7

Legezko Gordailua: SS-1623/2012

Fotokonposizioa: Imanol Tapia

Inprimaketa: Itxaropena S.A., Zarautz

Inaziomari Atxukarro

Irriparrezko printzak

(SENDOA Argitaldaria, 1982)



Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentua
Departamento de Cultura, Juventud y Deporte

Donostia/San Sebastián, 2012

Atarikoa

Behar haundirik ez zuen izango, agian, baina ez zaizkio gaizki etorriko argi-izpi apal batzuk *Irriparrezko printzak* liburu berrargitaratu honi, irakurleari bidea argitu eta erosotzeko besterik ez bada ere.

Joan zen abuztuaren 26an bete ziren ehun urte Inazio Mari Atxukarro Arruti kontalari aparta jaio zela Errezilen. Eta gaur egunean herriko apaiz-lanak bere gain hartuta dituen Manuel Xegundo Aizpuru jaun urrestildarrak erraztu digu parroki-artxiboko 29. bataio-liburuaren 15 orrialdeak ederki argitzen duen agiria, hitzez hitz jasota:

En la Universidad de Régil, provincia de Guipúzcoa, Obispado de Vitoria, a veintiséis de agosto de mil novecientos doce, yo el infrascrito Presbítero, cura ecónomo de la Iglesia parroquial de San Martin obispo, bauticé solemnemente un niño a quien le puse por nombre Ignacio María. Es hijo legítimo de don Asensio Santiago Achúcarro y Tejería, herrero, y de doña María Eduvigis Arruti, naturales, vecinos y feligreses de ésta. Nació, según declaración del padrino, a las siete y media de la mañana del día de hoy, en Padrene-berri, calle de San Martin, número 22. Son sus abuelos paternos don Jacinto Achucarro y Rezola y doña Úrsula Tejería y Olazabal, naturales de ésta; y la abuela materna, Dña. Escolástica Lucrecia Arruti y Eguiguren, natural de ésta. Fueron padrinos Don Ignacio María Zugasti y Dña. María Fernanda Astiazaran, naturales de ésta, a quienes advertí del parentesco espiritual y obligaciones que contrajeron. Siendo testigos D. Melitón Arruti, sacristán, y Dña. Josefa Ignacia Lazcano, serora, naturales y vecinos de ésta. Y por ser verdad, lo firmo, fecha ut supra. Enmendado – Eduvigis = vale. Entre líneas – María = vale.

Fdo. Ignacio Echeverría

Azentzio eta Edubijisen seme-alabetan seigarrena zen Inazio Mari, eta etxeko txiki-uxkerrumea eta amazuloa, berak aitortzen duen bezala familiari buruz ari dela. Sei urte zituen garaian galdu zuen aita, eta familia erabat sakabanatu zen: “Gure anai zaarrena aitaren sutegian gelditu zan Julian Sarasua nagusi berriarekin mutil. Anai bigarrena, Bidaniko Labaka baserrira morroi. Bi arreba zaarrenak, Tolosara nes-kame. Eta gu, anai-arreba txikiñok, amarekin etxean”.

Hautzaroa, eskola-garaia eta gaztaroaren zati bat jaiote-rrian pasatu bazituen ere, hamasei-hamazazpi urte zituene-rako Herrerara joan zen anaiarekin lanera. Handik aurrerako urteetan, berriz, herritik kanpora bizi izan zen beti, bere sor-terria sarri bisitatu ohi bazuen ere.

Donostiako *Iraola y Berroya* enpresarekin Zegaman hasi zen lanean, herriko Papelera haundia pintatzen. Eta hilabete batzuetan joan-etorri ibili bazen ere, bertan bizitzen gelditzea erabaki zuen berehala, eta berrogeitaka urte egin zituen gero herri honetan bizitzen. Horregatik zeukan beti bere bigarren herrizat Zegama.

Gaixotu eta bere azkenengo hilabeteak Tolosako Yurra-mendi Egoitzan pasatu eta hantxe hil zen, 1987ko abuztua-ren 27an. Baina berak halaxe eskatuta Zegaman hilobiratu zuten abuztuaren 29an, hirurogeita hamabost urte bete eta egun gutxira.

Atxukarroren jaiotzako mendeurrena dela-ta, *Auspoa*-ri zuzen eta legezko iruditu zaio haren *Irriparrezko printzak* li-burua (Sendoa argitaldaria, 1982) berrargitaratzea, aspaldi-txo agortuta baitzegoen Joakin Berasategi zenak ilusio betez argitaratu zuen orduko liburu berdeska apaina.

Oraingo honetan, gainera, liburuaren osagarri ona au-keratu du Auspoak: Loiolako irratian jasotako Atxukarroren zenbait kontakizun bildu baitu CD batean, liburua irakur-tzen duzun horrek Atxukarroren garai bateko hizketa gozo

eta bizia, eta haren umorea entzun eta goza dezazun. Edota, beharbada, gaztea zarelako haren jardunaldiak irratiz entzuteko aukerarik izan ez bazenuen inoiz, zuk ere haren berri izan dezazun bilduma honen bidez.

Gizon kurioa

Atxukarro ezagutu zuen edonork badaki, noski, gizon txukun eta mutilzahar kurioso eta jatorra bezain berezia zela hura. Lagunarteko gizona, umoretsua, gozoa, serio behar zenean serioa, hitz-etorri ederrekoa, gaixo eta zaharren laguntzailea, eta umezale purrkatua –gure mutilen Eguberrietako argazkiak zerrendan gordeta eduki ohi zituen Zegamako bere erakustokian; eta, aldian behin, garai bateko Gipuzkoako Mikelete bibote haundien tarjeta ikusgarriak etxera ekartzen zizkien Josebari eta Aritzi, eta *Txepetxaren* ipuina eskaintzen irratiz–.

Irribarrea ezpainetan zuela ikusiko zenuen beti. 1982ko gaixoaldia baino lehentxeago, Loiolara etorri zen batean, koloreak erabat galduta ikusi eta, “Atxukarro, zure mutur alde hori etzait batere gustatzen. Zu ez zaude ondo. Medikiak ikusi al zaitu aspaldian?” esan genion; eta biziki estimatu zuen bere osasunaz hala kezkatu izana, gero behin baino gehiagotan aitortu zigun bezala: “Zuk antzeman ziandun¹ bai ez nengola ondo...”.

1982ko udazken-neguan makalaldi gogorra izan zuen, eta 1983ko urtarrilaren 8an bere lagun batekin Loiolara heldu zen batean elkarrizketa luzea egin genion, asteroko saioak egiten hasteko ez baitzen gauza artean.

Gutziz eskertsu zegoen bere betiko entzuleei, Eguberri-jaietan eta hainbat eta hainbat mezu-ohar bidali zizkiotelako. Oso sentibera zen Inazio Mari, eta bazekien holakoak eskertzen. Gainera, esan zigun, loteriarik ez baina osasuna eskatu

¹ Antzeman zenidan.

ziola Belengo Jesus Haurri Gabon haietarako. Eta hainbeste eman zionean, gustura.

Lanbide asko probatu zuen bere gazte-garaian, Loiolan egindako elkarrizketan esan zigunez:

Bai, pentsa zazu: Errezillen zerraldoak egiten irabazi nuan nere leenengo soldata koxkorra. Bizar-kentzaile ere ibili nintzan garai batean, Xantiñean, txaponen batzuen truke, bere seme Roman soldarutzara joan zanean. Ume-umetatik auzo gertuko etxeetako enkarguak egiten, baserrietara joan eta lagutzen... Zertan ez giñan gero saiatzen gu? Bearra, badakizu, bearra.

Gure ama Edubijix jostuna ere bazan, besteak beste, eta etxez etxe edo baserri baserri ibili oi zan erropa-josten, eta gu ari laguntzera joaten giñan. Inoiz zirikatu ninduan neu ere josten asi nedin Donostiko sastreri batean. Gustatzen zitzaidan opizio ori, baiña margoketan, pintaketan asi nintzan azkenean. Or Ategorrieta aldeko etxe eta billa oietako neskameak ondo ezagutzen niñuten, eta baita maite ere, mutiko lotsati xamarra ikusten nindutelako edo. Naiko gizajoa, alegia.

Gerra ondorengo gosete-garaian Pasaiko Mendiola baserrian bizi izan nintzan, antxe portu gaiñean. Goseak ez du txantxarik, eta ixilka gauean zekorra jo ta il genduan noizbait, eta kupel aundi batean ondo gorde gaiñera, puskatuta zintzilik. Gosea, ba, eta zerbait egin bear tripazorriak ilko baziran. Soldaduak etorri eta, dan-dan-dan!, kupela jo eta, nola bazterrik etzuan jotzen, utsa zegolakoan martxa egiten zuten. Gure lasaitasuna!

Hala ere, ez zion onik egiten Atxukarrori gerra-garaiko eta ondorengo kontu zaharrak berritzen hasteak. Izan ere, oso gaizki pasatu zuen garai hura, beste askok bezalaxe:

Gerra bukatuta gero ere jende asko erori zan emen. Ikaragarriko gogorkeriak egin zituzten gerra irabazi zutenak gero ere, galtzailleak pertsonak izan ez balira bezela.

Errekisa ere egiten zuten sarri-sarri, eta irin pixka bat, edo aora eramateko bear zenduan edozer etxean bazenduan ere, dana kentzen zuten. Patata eta txerri-puxkak ere ondo ezkuta-

tu bear izaten ziran, bestela ezer gabe uzten zinduzten-da. Guk baiño aukera ohea izango zuten aiek, baiña arrapatzen zuten guztia kentzen zuten. Kalte egin bear ba, al zan kalterik geiena.

Bidebietako tiruan, ranga!, an botatzen zituzten erru aundi-rik gabeko gizon gazte eta zaarrak. Ikusita nago piñudian ezkutatuta sei-zazpi lagun. Joaten zan jesuitaren bat konpesatzera -edo, baina batzuek etzuten nai izaten iñola ere. Etsita zeuden, bizi-poza galduta.

Ez zidan onik egiten egoera ark, baina gero puxkat oitu egin giñan geu ere ikusiaren ikusiz. “Gora Euzkadi!”, batzuek, eta “Viva el comunismo!” besteak; eta, ra!, bertan bota gizonak eta alde soldaduak. Sei edo zortzi gizon ziranean zerbait oiukatzen zuten; baiña bakarra edo bi ziranean zan tristea, tiro egin baiño leen ilda zeuden aiek...

Tristea, ikaragarri tristea izan zan ura, gizona. Baneukake zer kontatua pranko gauza auei buruz, baiña obeko da gauzak ez berritzea, ez degu ezer konponduko-ta.

Soldarutza legea Burgosen egin nuan. Garai artan oso urruti iruditzen zitzaidan errialde ura, baiña antxe egon bear. Amai-ka aldiz bisitatu nuan ango Katedral zoragarria, etxera etortzeko dirurik etzan-da.

Soldarutzatik etorri, eta neure kontura asi nintzan lanean. Bergaran bazkaltzen genduan garai batean, eta jende asko joaten zen bertara, Eibartik eta ola. Ango etxeakoandrea sukaldearen martiria zan, gaixoa, martiri bat. Bazuan alaba bat betebetea etzana, eta bein baten amak gureztat prestatuta zeukan kaxuela lurrera bota zion. Emakumearen estuasuna!

–Zer egingo det nik orain jendeari jaten emateko? Zer esan- go diet bazkaltzera datozenai?

–Zaude lasai, emakumea –esan nion. Lurrean zegoen ba-kaillau guztia bildu, berriz berotu eta antxe jan genduan. Eta etzigan gaitzik egin, bai zera!

Geroztik ere or nabil alde batera eta bestera. Neure jaiote- rri Errezilla askotan joaten naiz, baiña azkenengo urte auetako nere kabia Zegaman daukat. Leenengo lanean ibilli nintzan erri

onetan, eta gero bertan goxo egin eta bizitzen gelditu. Ez nago seguru, baiña 1945/1946 inguru ortan etorri izango nintzan leenengo aldiz Zegamara, Papelera aundia pintatzera. Ementxe bizi naiz geroztik, eta ementxe nai, bizi naizen arte. Zer nai dezu?

Zegama, bigarren herria

Bai, Zegama zen Inazio Mariren egiazko bigarren herria. Urte askoan hantxe bizi izan zen, eta garai bateko *Pension Gerriko* ostatuko iloba Mari Karmen Calvo andreak ondo ezagutu zuen. Ederki laburbildu zigun Atxukarroren zegamartasuna, haren berriak jakin nahita uztailaren 11n (2012) egin genion bisitaldian:

Artean ni oso umea nintzela, 1945-46 inguru hortan edo izango zela uste det, etorri ziren Zegamako Papelera pintatzera Donostiko *Iraola y Berroya* enpresakoak. Inazio haien langile etorri zen.

Esaten zuenez, astea lanean hemen pasatu eta asteburuetan joan egiten omen zen, lehenengotik. Baina Zegamako giroa asko gustatu hari nunbait eta bertantxe gelditu zen bizitzen, gure izeben Pension Gerriko ostatu hortan. Jainkoak bakarrik jakingo du geroztik zenbat etxetako sukalde eta gelak pintatu zituena Inaziok hemen! Margolari ona zen, eta koloreetan eta abar oso ausarta.

Gainera, ba al dakizu, guk ez genuen sekula pentsatu izan hura etxekoa ez zenik. Gabonetan, Eguberrietan eta gure etxeko ospakizun haundi guztietan denok alkarrekin izaten ginen beti. Guk etxekotzat gendukan Inazio –gure Inazio deitu izan genion beti–, eta bera ere etxeko sentitzen zen gurekin.

Gogoan daukat askotan, otordu garaian eta, urduri jartzen ninduela. Oso ogi gutxi jaten zuen, azala bakarrik gainera, eta ogi-mamia behatz artean hartu eta oreka egiten jarduten zuen, eta harekin irudiak egin gero. Artista hutsa zen holako gauzetan ere.

Inazio oso herrikoa zen Zegaman. Hementxe ibiltzen zen herrian batekin hitz egin eta bestearekin berriketan, umoretsu

eta gozo beti. San Bartolometan, San Martiñetan eta Iñauteri-jaietan beti hartzen zuen parte herriko jaiak antolatzen. Eta karroza eder askoak ere prestatu ohi zituen, paperezko zutabe haundiak eginda. Baita erakusketak egin ere, herriko jendeari erakutsiz bilduta zeuzkan tresna zahar, jantzi, oihaal, argazki eta abar. Txukun-txukun jasota eduki ohi zituen, eta nahi zuenari erakusten zizkion. Gero, Gipuzkoako Diputazioak eraman zituela uste det haiek denak. Nunbaitean hor egongo dira.

Oso maitea genuen zegamarrok Inazio, eta gogoan daukat 1985eko azaroaren 10ean, San Martin egunez, omenaldi ederra egin ziola herriak. Hementxe izan ziren Gipuzkoako Aldun nagusi Murua jauna, Xabier Lete kultur diputatua, Prudentzio Larrañaga, zu zeu eta beste jende asko.

Berak halaxe eskatu zidan, eta bere aldamenean exerita egon nintzen saio guztietan. Eta gero esan zidatenez, Larrañaga jauna oso urduri omen zegoen, denak Atxukarro gora eta Atxukarro behera ari zirela, eta bere emaztea iñork ez zutela aipatu ere egiten-eta. Gero esan zioten nunbait ni ez nintzela haren emaztea, bera bizi zen ostatuko iloba baizik, eta lagun ona.

Azkenengo hilabeteetan, gaixotu eta Tolosako Yurramendi egoitzara eraman zuten bere ilobek, eta hantxe hil zen, gizajoa. Baina berak halaxe nahi zuen, eta Zegaman enterratu zuten. Pension Gerriko ostaturaino autoan ekarri zuten gorpua Tolosatik, eta handik elizara lau gizonexkok bizkarrean eraman.

Orain alperrik jardutea da, baina ba al dakizu zeren pena daukadan? Ba, Inazio hil eta berehala Pensión Gerriko ostatuko ganbarako paperak eta zakar guztiak garbitu behar izan genituen, bota egin behar zuten-eta etxe berriak egiteko. Eta beste paper zahar askoren artean, haren eskuidatzi guztiak ere surtara bota genituela. Bere ilobekin hitz egin genuen zerbait jaso nahi al zuten galdetuz, baina inori ez zitzaion ezer interesatu, eta hantxe galdu genituen ostatuan zeuden Inazioren paper guztiak.

Begira, behin batean Belgikako erregina Fabiola Zarautzen bisitatu nahi izan zuen, eta eguzki-lore batzuk eta Idiazabalgo gazta eder bat eraman zizkion. Ez zegon etxean nunbait erregina

egun hartan, eta eskerrak emanez bidali zion karta hauxe baka-
rrik jaso nuen, oso bitxia iruditu zitaidan-eta. Gainerakoak han
galdu ziren.

Badakizu, etxeakoari ez zaio ematen merezi duen inportan-
tziarik inoiz, eta horixe gertatu zitzaigun Inazioarekin ere, zoritxa-
rrez.

Ofizio-afizioak

Ofizioz margolari izan zen, baina etxeetako sukalde, sala eta
logelak ez ezik, hamaika eliza, baseliza eta komentu zahar ere
bisitatu zuen Donostia inguruetan, Goierrin, Urola aldean eta
abar, *“Santu zaar eta aingeru motzei aurpegiak eta kopetak
puxkat txukundu eta puskatutako beatzak konponduaz. Ba-
dakizu, mundu onetan oiekin ondo konpontzea obe izango da
geroko ere ta, orratx!”*.

Bere kontakizunetako batean esaten duenez, *“Opizioa
pranko probatua naiz; danak lardastu eta bat ondo ikasi ez.
Erri koskorretan onela oi da, eguneroko ogia irabazi bear eta
amalau nagusiren mende”*.

Eskolaru txarra omen zen, baina, *“Musikan, marrazkian,
dibujo eta pinturan nuan nere erreztasun guztia. Argizarizko
irudiak poliki zuzentzen nituan. Baiña nun ikasi edo landurik
ez genduan izan”* aitortzen du, penaz.

Alejandro Kabadas balladoliztarra Ostegun Santu egu-
nean Errezilen jarri ohi duten aldare berezia egiten ari zela,
harixe begira egoten zen begirik kendu gabe, bere jolasak utzi-
ta: *“Ura egiten ari zala, margolari jaun orren ondotik ez nuan
aldegingo iñola ere; etzan jolasik nere begiak andik kenduko
zituani. Zer ote da bati berez datorkion adur berezi ori...”*.

Txikitatik zetorkion arterako gogo eta grina. Eta eliza eta
komentuak txukundu ez ezik, edozein ijito edo motxailek hu-
tsaren truke eramaten zituen baserrietako antzinako tresnak
jaso eta gordetzen ahalegin berezia egin zuen: Linaiak, linuak,

ardatzak, txabilak, kardak, mahai eta aulki zaharrak, uzta-
rriak, argazki zaharrak, estanpak, garai bateko Gipuzkoako
Mikeleteen tarjeta koloretsu bitxiak... Eta denak Zegamako
bere erakustokian eduki ohi zituen ikusi nahi zituenaren es-
kueran.

Azkenik, Gipuzkoako Foru Aldundiari eman zion bilduma
osoa, bestela dena galduko zela-ta, edo, okerreanean, inork
ostuko zizkion beldurrez, batez ere.

Irratiko kontalari

Aspaldiko ezaguna eta laguna zen guretzat Inazio Mari Atxu-
karro. Urretxuko Santa Anastasia jaietako Euskal festan, he-
rriko Ederrena pelotalekuko jaialdia aurkezten (1962) ikusi
genuen lehenengo aldiz; eta hurrena, berriz, Ordiziako San
Jose jaietan bertsolarietako gaiak eta oinak ematen (1963), jai-
aldiak eta bertso-saioak ere aurkezten baitzituen. "*Bertso kas-
kar bat baiño geiago moldatzeko ez naiz gauza izan sekula,
eta bestek jarritako gaiak ematen nituan geienetan*", aitortu
ohi ohi zuen.

Atariko honi gustura erantsiko geniokeen, baina ezin izan
dugu ziurtatu noiz, nola eta nork bultzata hasi zen Seguran
bere irratsaioak egiten, askotan entzule izan baginen ere.
Nolanahi dela ere, 1956an apirilaren 2an hasi zen emititzen
Segurako irratia, eta handik laster hasi izango zen han, segu-
ruenik. Hala ere, garai hartako irrati-lege berri baten aginduz,
1964an itxi zuten irratia, eta 1972an hasi berriro. Bigarren
aldi hartan ere Atxukarro han zen, baina gutxi iraun zuen.

Ezin izan dugu orduko bere lanaren lekuko izan zitekeen
grabaziorik eskuratu, ezta garai hartako beste zehaztasunik
ere.

Alabaina, Segurakoa utzi eta gutxira, Loiolako Herri irra-
tian hasi zedin eskatu/zirikatu genuen, 1974an, gurean egin
zitzan bere saioak, lehenengo bide zaharrari jarraituz. Eta bai

hark pozik onartu ere eskaintea, irrikatzen zegoen-eta hain maitea zuen ipuin-kontaktak irratiz egiteko, bere “*entzule zaar, elbarri eta gaixo jendearentzat*”, esan ohi zuenez.

Publizitatea ere grabatu zuen inoiz Loiolako irratian. Garai hartako entzule bat baino gehiago gogoratuko denez, entzute haundiko egin ziren “*Pasquali makiñak... Arri, arri, Paxquali, arri...*”, edo “*Agria makiña, aleman jakintsuek egiña...*” iragarkiak, gure bezeroek halaxe eskatuta berak grabatzen baitzituen behar zenero.

Lehenengo hilabete batzuetan astean behin egin ohi zuen Loiolako saioa, hamabostean behin Zegamatik propio hartaraxe etorri eta aldiko bi saio grabatuz. Gero, ordea, entzuleek gustura hartzen, eta astean bitan hasi zen, baina etorrialdi bakoitzean lau irratsaio grabatuz, joan-etorria erraztu behar-eta. Izan ere, Zegamatik Loiolara bidea luzea zen garai hartan, egun osoko joan-etorria Inazio Marirentzat: Zegama-Beasain bidea autobusez egiten zuen lehenengo; gero, Beasain-Zumarraga, Renfeko trenean; eta Zumarraga-Azpeitirakoa, Urolako trenaz baliatuz, lagunene batekin joan-etorria autoz egiten ez zuenean behintzat.

Hala ere, hutsik egin gabe, zuzen beteko zuen bere egitekoa. Ez dugu gogoan inoiz hutsegin zuenik, gaixoaldiren batean ez izatera behintzat. Grabaketa-ordu eta egunak zuzen zaintzen zituen, bere modura eskuz txukun idatzi eta ondo antolatuta ekarriz grabatu behar zituen ipuinen gidoi antze-koak.

Eguna ondo antolatuz

Bai, ez zuen minutu bat ere alferrik galduko Loiolara zetorrenean. Hamaika berriketaldi gozo egin genuen, irri eta barre, kontu kontari. Udaberrian, San Jose loreren bat, udan edozein kimu berri, edo udazkenean hosto bitxiren bat ezpaintedan hartuta, mutilzahar kurioa etorri ohi zen Loiolara, beti nor zirikatuko.

Askotan, ordea, eliza edo baselizaren batean bere sartu-irrentxoa egingo zuen lehenago, garai bateko margoketa-konponketak gogoratu eta begiraturaz, eta *“Aitagureren bat erreztatu ere bai santu zaar jende orri”*, zioenez. Azpeitiko moja zaharretako elizan ere sartu-irtena egingo zuen inoiz, komentu hartan omen zegoen gaztetako andregaiari bisita txiki bat eginez –berak hola esaten zuen behintzat–, nahiz eta tornu-leihoaren alde banatatik hitz egin behar izaten zuten, errespetu haundiz hala ere. *“Oñ'e neska ederra egongo aiz i”*, zirikatzen omen zuela kontatzen zuen, baina bestek barrutik serio erantzuten: *“Jesus, Maria ta Jose! Aitaren eta semiaren... Ixo, Inazio Mari, ixoo!”*.

Atxukarrok egin zituen irratsaio guztiak grabatu eta gordetzeko behar ziren zintak erosteko nahiko dirurik ez gurean ere eta, zoritxarrez, ezin izan ziren gorde Loiolan egin zituen saio guztiak; baina 1976-1983 arteko ehun da larogeita hiru saio kontserbatu ziren, zorionez. Segura irratiko saiorik, ordea, apenas dagoen bakar bat ere, garai hartako irrati-entzuleren batek entzun ahala jaso eta etxean gordeta ez badauzka behintzat.

Bestalde, guk garaiz jasotako 183 saio horiek Gipuzkoako Foru Aldundiko Koldo Mitxelena Kulturunean² daudela esan dezakegu, gaur edo biharko ere. Eta saio horietako zortzi, liburu honekin batera doan CDan aurkituko ditu irakurleak.

Gizon maitea

Ez dugu zalantzarik gizon maitea, guztiz preziatua zela Atxukarro Euskal Herriko bazter askotan. Gaixoeak, elbarriek eta zahar jendeak bezala maite zuten gazteek ere. Horregatik

2 Loiolako irratiko artxiboa Gipuzkoako Foru Aldundiko (Koldo Mitxelena) Maria Jesus Aranburu kultur diputatuak erosi zuen, 2010ean. Eskerrak garaiz ibili ziren/ginen, bestela dena galtzeko arriskua zegoen-eta.

esan izango zion nonbait Azkoitiko neska gazte hark behin: *"Atxukarro, gero baño gero guapuaue ikusten zaitut"*.

1982ko udazken-neguan gaixoaldi gogorra izan zuen, eta 1983ko urtarrilaren 8an bere lagun batekin Loiolako irratira heldu zenean elkarrizketa egin genion, asteroko saioak egiten hasteko ez baitzen gauza artean. Eta guztiz eskertsu zegoen bere betiko entzuleei, Eguberri jaietan-eta hainbat eta hainbat mezu ohar bidali zizkiotelako, berriro ere Loiolan azkar hasteko animatuz.

Gutztiz gizon argia eta kunplitua zen Atxukarro. 1985ean Karmelo Otaegik Loiolan egindako elkarrizketa batean, besteak beste, eguna zertan pasatzen zuen galdetu zion, eta: *"Gizona, gizona, eguna oso motz egiten zait neri. Erriko zaar, elbarri eta gaixoak bisitatzea gustatzen zait aal dedan bakoitzean, etxean bakartasunean daudenak, naiz gaixoetxeetan daudenak. Ez da izango Zegama alde ortan nik aldiro bisitatxoren bat egiten ez diotan gaixo edo aittona-amona zaarrik. Ondo dakit nik olakoxetan bear izaten dala laguntasunik geiena, eta orixe egiten saiatzen naiz"*, erantzun zion. Dakienak badaki, bai horixe!

Hitz gutxitan esateko, bihotz haundikoa, onbera, gozoa, hurbila, argia, errespetu eta itzal haundiko gizona zen.

Bere kontakizunen edukinari dagokionez, berriz, Joan Mari Lekuona zenak *Irriparrezko printzak* lehenengo argitalpeneko hitzaurrean dioen bezala,

Ametsezko mundua zen berea: Sorgiñak, aztiak, arraioak, ametsezko mundu batetara eramaten gaitu. Eta ukitzen badaki gure barrunbeto ari sentikorak. Eramaten zaitu ipui zaarren mundu fantasiakora: aurtzarora, gazte denboretara. Eta senti-arazten dizu erriko txokoek duten printza eta erreberria. Baita gure orduko gauza txikien maitegarritasuna eta lillura ere: zirkoak, goxokiak, jantziak, erregaliak, festak. Dena oroimen eta goraintzi.

Bere haurtzaroan ama zenari entzundako ipuinak, irratentzuleek inoizka idatzi edo kontatzen zizkietenak, eta berak bere modura moldatzen zituenak kontatzen ahalegintzen zen irratsaioetan.

Omenaldiak

Azkenengo urteetan maite-erakutsiak izan zituen behin baino gehiagotan. Besteak beste, herrietan egindako azkenengo omenaldi xumeak datozkigu burura. Adibidez, 1981eko ekainaren 14an, gorazarre atsegina eskaini zion bere sorterri Errezilek. Udaberriko eguraldi ederra zen egun hartan; eta bazen Errezilen bertsolaria, kirolaria, hizlaria... Bertsolari ofizialak, Basarri eta Joxe Lizaso ziren, baina omenaldian parte hartu nahi izan zuen beste askok ere. Gogoan dugu, eguerdiko meza nagusiarekin hasi eta lagun arteko bazkari eder eta bazkalondo betearekin amaitu, egun bete-betea izan zela hura.

Izan ere, berak harrotasunez esaten duen bezala, *“Ez naiz lekurik txarrenean sortu, jaio eta azia. Txori bakoitzak eder bere kabia; neronek ere maite det nere txoko polita, Erniopeko Errezil sakana”*. Eta sorterriak maitasun hori erakutsi nahi izan zion.

1985eko azaroaren 10ean, San Martin egunez, Zegamak eskaini zion omenaldia ere ondo gogoan dugu. Han ere goizean meza izan zen lehenengo, eta, gero, bertso-saioa herriko parrokiaren bertan, Lazkao txiki, Lasarte, Agirre eta Lopategi bertsoan zirela. Zegamako alkate Eduardo Telleria, Imanol Murua diputatu nagusia, Xabier Lete kultur diputatua, Prudentzio Larrañaga, bere betiko adiskide min Eugenio Agirretxe frantziskotarra eta herritar asko bildu zen Atxukarro agurtu eta goraltzera.

Elizkizuna eta jaialdiaren ostean, berriz, lagun arteko bazkari bikaina antolatuta zuten bere ohorez. Hizlari eta bertsolari asko izan zen bazkaldarren artean ere. Eta gogoan dugu ondoez pittin bat izan zuela bazkaria hasi baino lehentxeago, eta izutu ginela. Baina bere onera etorri, eta gustura pasatu

zuen eguna. Guztiz alai eta eskertsu zegoen San Martin egun hotz baina sentimentuz betetako hartan.

Merezi zuen ondo, eta herriko udala, Aldundia, Loiolako irratia, eta Zegamako eskola-umeen esku-erakutsiek zeharo emozionatu eta beratu zuten bizi zen arte ahaztu ez zuen egun hartan.

Aldaketa txiki batzuk

Atariko luze hau amaitzeko, egin ditugun aldaketa txiki batzuen aitormena ere egin beharko dizugu, Atxukarroren lehengo *Irriparrezko printzak* irakurri zenuen hori berehala ohartuko zara, lehengoa hitzez hitz aldatzen saiatu bagera ere Auspoa sailera, errespetu eta begirunez hartu ditugun lizentzia txikiak, on beharrez bakarrik egin direla aitortu behar dugu, ordea, lehengoan bi eratara idatzita zeuden batzuk berdinu-batuz, baina oinarritzko aldaketarik egin gabe.

Hauexek dira aldaketa txiki horietako batzuk:

- 1) Lehengo argitalpenean *Len/leen, lertu/leertu, ta/eta, goora/gora* bi eratara agertzen dira; oraingoan, aldiz, *leen, leertu, eta gora* bakarrik irakurriko dituzu.
- 2) Lehengoan inoiz edo behin bakarrik ageri diren *amaak, amonaak, alabaak*, oraingoan denak bateratu eta *amak, amonak, alabak* idatzi ditugu.
- 3) Lehengoan ageri diren *amarekiñ, piñ, atsegiñ, baldiñ, jakiñ, trastekeriñ, zediñ* e.a., oraingoan *amarekin, pin, atsegin, baldin, jakin, trastekerin, zedin* idatzi ditugu, azkenengo ñ-ak n bihurtuz, Atxukarroren kontaktak paperean idatzi zituenak berak ere bi eratara erabili zituen-eta.
- 4) Hala ere, Atxukarrok berak idazten³ eta esaten zituen *erabili*-ren ordezeko *ibilli* denak bere hartan utzi ditugu,

³ Bere eskuidatzirik ez badugu ere, gogoan dugu idatzita nola ekartzen zituen Atxukarrok bere gidoiak irratira, handik irakurri-esateko.

entzungo dituzun grabaketetan ere holaxe aurkituko dituzu-eta beti.

- 5) Oraintxe ere Errezilen esaten den *kapea/kapia*, bere horretan utzi dugu. Baita Atxukarrok askotan esan eta idatzi ohi zituen *ermo* (irmo), *beargittea/beargie* (faena, estuasuna, lana), *zionduan, gionduan* eta holakoak ere lehenean utzi ditugu, oin-ohar labur bat erantsiz lehenengoetan, irakurketa errazteko ahal delarik.
- 6) Joakin Berasategik halaxe eskatuta Joan Mari Lekuona idazle, poeta fin eta euskaltzainak egindako hitzaurrea letra bat ere aldatu gabe errespetatzen saiatu gera; eta inoiz aldaketaren bat ikus baleza irakurleak, jakin beza gure akatsa dela eta ez besterik.
- 7) Puntu, koma eta kaketx batzuk kendu-erantsi-aldatu ditugu inoiz, kontalariaren diskurtsoak horrela eskatzen zuela irudituta, on beharrez beti ere.

Eranskina


Lehenagoak eskuratu ezinez, edo hobetu beharrez sartutako zenbait argazki berri, eta liburuaren azkenengo orrietan irakurriko dituzun Segundo Kalonje bertso-jartzailearen aipamenak eta aitormenak eranskin onak direla uste dugu, eta Atxukarroren omen eta gorazarre, honako hau bezalaxe:

Apal ta gizalegez nai du errespeta
antziñako asaben euskaldun izketa.
Txit komeni dan gauza derizkiot-eta,
ez dakianarentzat zer erakusketa!

Hala ere, Atxukarro gogoratzeko, edota ezagutzeko biderik erosoena eskaintzen dizu AUSPOAk gaur: bere IRRIPARREZKO PRINTZAK liburu berrargitaratua, eta liburuarekin batera Loiolako irratian aspaldi grabatutako kontakizun batzuk metatzen dituen CD^a, batez ere.

Holaxe goraldu eta gogoratu nahi dugu Inazio Mari Atxukarro lagun ahaztezin hura berriro, merezi duela uste dugu-eta.

Joxemari Iriondo
2012ko uda



Inazio M. Atxukarro

Aurkezpen bat egin asmoz

Gustagarria bezain jakingarria ere badugu Inazio Mari Atxukaroren liburu au. Gustagarria leenik, jendearen gozamerako idatzirik dagoelako. Eta jakingarria ere badela esan bear, erri-literaturako balioez ondo orniturik datorkigulako; erri-literaturako balioez eta erri-izkuntzaren balioez ere bai, arraioak ez badu!

Azkenaldi onetan –batez ere A. Zavalaren eraginpean–, gero eta geiago sortzen ari zaizkigu, emen eta an, kontu-kontari taxututako idazlan bikaiñak. Auetako batzuek kontu zaarrez osaturiko bilduma-eittea dakarte. Eta beste batzuek kreazio-lanetik geiago dute, bizitz kondaira, eleberri eta orain-tzapen-liburu gertatzen direla.

Liburugintza onen sail-barruan, Atxukaroren idazlanak bereizkuntza naiko jakiñak eskaintzen dizkigu. Ez da bilduma uts, naiz-eta bere oroipen-kutxa ongi ornitua eta obeto erabillia duen. Ez da ere historia matazatzen ari, Uztapidek bere bizitzako kondairan egiten duenez.

Gero kreazio-lanetan ari bazaigu ere, ez du eleberri baten bizkarrezurrik idazlan bikain onek, baizik-eta kontakizun solteak edo ditugu, pieza llabur eta bakunak, beren arteko lotura ari sotil batez bakarrik lortzen dela. Gai multzoak ikusten dira, edo urteko egutegiari, edo egillearen bizitzari, edo errian garai artan aoz-ao zebillen kontakizun-altxorrari atxikiak. Kontaera motx eta bizi-biziak dira, osotasun baten barruan eskaiñiak, egilleak berak, eta lekuak eta garaiak lotura bat ematen dietela.

Liburu baliotsu onen aurkezpena eta balioztatze bat egin asmoz, iru alderdi auek kontuan edukiko ditugu: 1. Egillea eta bere mundua; 2. Idazlanaren literatur alderdia; 3. Izkuntzaren zenbait xeetasun estimagarri.

Sail auek axaletik bederen arrotuz gero, egiña legoke liburu umoretsu onen aurkezpena, eta berari buruzko balioztatze leena.

1. Egillea eta bere mundua

Inazio Mari Atxukarro berez da aparta kontu-kontari aritze-ko. Edozein xoxotuta uzten du bere izketa lilluragarriak. Eta berezko doaiez gaiñera, irratsaioen bidez oso entzuna dugu bera, batez ere Egoaldeko Euskal-errian. Eta ofizio onetan luzaz aritu izanak izen bat eta nortasun bat eman diote kontalarien munduan: oso ezaguna da, eskarmentu eder baten jabe egin da kontalaritzan, eta kontaera-multzo zabal bat bildu eta lantzera iritsi zaigu. Trebakuntza oneko egillea dugu, onarpen abegitsua duena, aozko kontaera-munduko testigu, eredu eta altxor bizia.

Atxukarroren nortasunaz ari galararik, bistan da, aoz-ao jarduten duten artistek zerbait berea galtzen dutela irratia-
ren edota liburuen bidez iristen zaizkigunean. Orregatik, Inazio Mariren irratiko iarduerak irudiaren lillura galtzen zuten: bere gorputz-espresaera, begiz, eskuz, irrifarrez, milla igidura eta keiñadez antziruditua. Baiña salbatzen zen entzumenaren emankizuna. Emen, ordea, liburuaren emankizun sorrean, ez zaigu iristen aoskerak dakarren komunikaziorik ere. Eta guzti onek egillearen nortasuna zertxobait ezkuta dezakeen arren, eta zenbait kontaeren grazia auldu –bertsolariekin ere gertatu oi den bezalatsu– norberak beretik jarri dezakeenaz gaiñera, idazkera utsak ere naikoa nabari-arazten du kontagaien adieraztasuna, egillearen gaitasuna eta erri-literaturaren kontaerazko luze-zabala.

Atxukarroren iardunalditan au da geien nabaritzen dena: antzerki komikoaren eitea duela bere kontularitzak. Ala esaten digu liburuan: “egunero antzoki biurtzen zen Errezilko eliz aldea”. Eta antzoki orretan “trujaman” bat bezala agertzen zaigu Atxukarro. Bere eskutik datoz antzeslekura pertsonaia

erriko eta tolesdura azkarrekoak. Berak darama kontaeren aria. Berak tartekatzen ditu zelebrequeriak, algara sortzen duten sake bizi eta etorri beteko ateraldiak.

Ala ere, bizitzatik sortzen den umorea dakarrenez, komikotasuna ez ezik bizitzaren beste alderdi asko azaltzen zaizkigu. Gai unkgarririk badu, batez ere familiaren eta adiskideen inguru. Giza lege ederrik ere aipatzen da –"ama zanaren baliotasuna"– ispillatzen dela beti. Gauza askori buruz esplikaziorik ematen da eta argibiderik; eta leengo oitura zaarren berri ere or gelditzen da etorkizunerako. Sinistu-eziñezkorik ere aipatzen zaigu, egillea asmakizunean datorrigularik. Gero, izkirimiri eta txistek abundo, orduko gizon-emakumeen umore paketsua, gaurko burukomiñik gabe bizi zirenen barne-giroa.

Nondik datorzkio Atxukarrori jaioterriaren aurrean artzen dituen jarrera eta jokabide auek? Ezbairik gabe etxetik. Familia jator batek, ondasun gutxi eduki arren, izpiritu errotu baten poderioz, bizitzari buruz lortzen duen irakurkera maitale eta onargarria dugu. Penek elkartuago egiten ditu etxean. Ezeukitasunak zoriontsu biurtzen ditu gauzarik txikiena ere eskuratzean. Berez neketsu den auzolana egun zoriontsu eta festa-giro gertatzen zaie askotan. Eta jendea ezagutzeko egokiera ere bai; eta inguru artako gora-beerak ezagutzeko bidea; eta tripa betetzeko modua... Etxeko ondarea du Inazio Marik agertzen digun gogo-tankera ain berezia.

Bigarren apioa –apio sendoa–, errian artzen du. Eliza, taberna, denda, lantegi, pelotaleku eta abarretan dabillen kalekumea testigu ona da erriko kontakizunen berri jakiteko. Gure egillea oso sarturik dago erakunde orietan eta kale-txoko guttietan. Errezillen oroipen kolektiboak gordetzen zituen kontae-rak, an-artan errepikatzen ziren zelebrequeriak, menditar eta elizgizonen pertsonaia ertenak, gazterien apustu-griña eta indar-sobrea, orduko historiatxoak eta gertakariak; arrobi bat da Atxukarrentzat erriak dakarkion kontagaizko altxorra.

Liburu onek ez dario ez inongo garraztasunik, ez inorenzato destainarik. Iturri gozotiko umorea da; eta denek errespetzuko tratua dute orrialde auetan. Atxukarrok ez du farra egiten erriaren bizkarretik, erriarekin batera baizik. Eta bere irria erri-jakinduria da, portaera jatorraren adierazpena. Broma gozoko umore ezia.

2. Literatur alderdia

Aozko literaturaren barrutikoa dugu idazlan au. Eta erri-literaturari dagokionez, ez du liburuak egitura landu eta naasirik, ez dagerkigu eraikuntza konplikaturik. Baiña gauza llaburren bilduma dugun arren, pieza bakoitza landua duzu eta aukerakoa, arlanduzko txapitelen gisan. Grazia aundikoa, idazlan txukun eta jantzia pusketa bakoitza.

Gaien aldetik begiratuta, berriz, naasian datoz kontaera-mota desberdiñak, beti ots berria lortu-asmoz jazarriak: historiatsuak, ipuiak, izkirimiriak, sake eta ateraldiak, zelebrenkeriak, bizi-izpiak. Milla modutako argazki biziak dira.

Idazlanaren elburua ez da pedagogikoa, dibertigarri izatea baizik. Idatz-motari bagagozkio, ez da epikoa, dramatikoa baizik, eta komikaren aldetik eramana, unkiagarritasuna eta ezkutuko moraltasun bat ere barne dituala.

Xeetasun teknikoak ematerik ez daukadanez, egilleak erabiltzen dituen literatur baliabidez zerbait aipatuko dugu. Leenik, baliabide zabalen aipamena egingo dugu; gero xeeagoena. Eta orrela zertxobait ager daiteke non oiñarritzen den Atxukaroren prosa gustagarria.

2.1. Balibide zabalak

Atxukaroren itzlauzko iarduerak doai bereziak ditu. Iritzi onen tinkarri bezala, adierazpen auek bereziko genituzke, besteak beste:

Deskribaketak: Laburrak eta maisuki egiñak. Lekuen eta pertsonaien aipamen zeatzak, kontaera kokatzeko, pertso-

naiak irudikatzen, ibillerak lekutzeko ezarriak. Dena senti-beratasun aundiz marraztua dator, pintzelkada zuur, fin eta zeatzez markatua.

Dramatizazioa: Antzerkitik asko dute emengo orrialdeek. Pieza askok, ardatz eta joskera bezala, teatrogintza dakarte. Pertsonaiak ugariak dira, galeria errikoi bat osatuz. Kontaera askotan leku zabala eta funtsezkoa dute elkarrizketek. Eta bistan da, kontalariak antzes ditzan idatziak dirala. Geiago oraindik: egoera barregarriak tartekatzen ere iaioa dugu Inazio Mari. An prantatuko dizu illari ere barre eragin-araziko dion zelebrekeria; gauza serioen artean kirtenkeriak, gauza naturalen artean askakizun biurriak, giza bizitzako alderdi barregarrien aipamen umoretsua... Teatro komikoari loturik agertzen zaizkigu bai kontalaria eta bai bere kontaerak.

Ironia: Ironia fiña darabilkiela gauza nabarmena du idazlanak. Orrialde auek irakurtzerakoan, beti gozo eta gustora aurkituko zera, geienetan irrifartsu, eta gutxitan bukatuko duzu kontaera algara zaratatsuren bat atera gabe. Ironia gozoa ere bada. Kaikuenari ere barkatzen diozu, santuenari ere artaburukeriaren bat aurkituko diozu, neke-penei ere begirada abegitsua egingo diezu. Bizitzaren garrantza baiño zabala-goko biotzondoa duenaren ikuspuntua.

Azken komentario labur zorrotzak: Kontaeraren dinamikak azken bat eskatzen du. Erremate bat. Eta bertsolariek egiten dutenez, Atxukarrok ere maisuki ezartzen du azken-esaera: komentariotxo, errepin filosofikoa, esaera zaarra, kontsiderazio laburra. Beti neurri justu eta beteko esaera. Gaiari emandako azken ikuitua.

2.2. Baliabide xeeak

Orrelako idazlan batetan asko eta asko egon bear. Ala ere, Atxukaroren prosari bereizkuntza bat ematen dioten baliabiderik adierazgarrienak aipatzekotan, auek adieraz daitezke, besteak beste:

–*Esaldi-esaerak*: Au xeekeiago aipatuko dugu izkuntzari buruz mintzatzerakoan. Atsotitzen, eta batez ere lokuzioen eta esaeren liburu bat dirudi. Gauza bakoitzak badu usarioz dagokion itz egokia eta aukerakoa. Ezin obeto uztartu erreallitatea eta hitza.

–*Anomatopeiak*: Itz-otsen bidez gauzak eta ekintzak aditzera ematen dizkigu. Eta itz-otsen eskemarekin nolarebait antziruditzen digu aditzera eman nai duen mugimendua: “Kanpaiak dulun eta dalan”, “mixkili-muxkulu zer asma”, “ezker eskubi kis-kas”, “firin forun aurrera”, “riin-riin negartiti”, “ango trepete artean estropuzuka” eta abar. Onomatopeia auek zerikusi aundia dute Atxukarrok ain gutxik bezala erabiltzen duen izkera magiko eta azti-mintzoan.

–*Ametsezko mundua*: Sorgiñak, aztiak, arraioak, ametsezko mundu batetara eramaten gaitu. Eta ukitzen badaki gure barrunbeko ari sentikorrak. Eramaten zaitu ipui zaarren mundu fantasiakora: aurtzarora, gazte denboretara. Eta senti-arazten dizu erriko txokoek duten printza eta erreberria. Baita gure orduko gauza txikien maitegarritasuna eta lilura ere: zirkoak, goxokiak, jantziak, erregaliak, festak. Dena oroimen eta goraintzi.

–*Efektu komikoak*: Iztegi zaarren zerrendak, karikatura utsezko konparaketak, izengoitiak eta abar. Beti agertuko digu itzaren umoretasuna, iztegiaren erabilkera zelebreak dakarren irrintzarako suspertasuna.

Milla baliabide xee alde batera utziz, gutxi auek aukeratu ditugu. Berauek zerbait ikus-arazi dezaigukete zergatik den ain berezia eta gustagarria Atxukarroren izakera. Magia kutsuko izketa da, itza esan utsarekin erreallitatea ere berez-kotasun batean ematen zaigula. Amets eragin-arazten duen izkuntza, otin zaarreko ots-joa. Orregatik, Inazio Marik senti-arazi egiten du txiki-txikintandik gugan daramagun mundo ederra.

3. Izkuntzaren zenbait xeetasun

Gaur darabilgun euskara ona dela eta txarra dela ari giñelarik, onela esan zidaten bein: “Nik etzekiat, baiña emen jendeak gustoen Atxukarro entzuten dik. Eta nere solas-lagunarentzat ezin-aaztuzko eredu bat zen Inazio Marik eta bere sailleko zenbaitzuk egiten duten izkera.

Arazo sakona nere solas-lagunak gogoeta-gai jartzen zue-na. Izan ere, euskara zeaztu bearrak, teknikat u bearrak eta nazionaldu bearrak eraman du literaturgillea izkera kortsia-tu eta pedagogiko batetara. Eta idazleak berreskuratu bearra dauka izkuntzaren grazia eta bizitasuna.

Eta literatur kontzientzia esnatu bear onetan, estimagarrria derizkiogu Atxukaroren norabideari. Ez, ordea, berak egin duena orpoz-orpo egiteko; berak bere munduarekin egin duena idazleek ere beren gaurko munduarekin egin aal izateko baizik. Tradizioan gordetzen den urre gorria bildu, eta gaurko mintzamoldean urtu eta irudikatu. –Euskara zaarberritu egin bear dugu, guganaiaño eldu diren apurretan oiñarriturik– (K. Izagirre).

Ugariak ditu atsotitzak, eta egoki erabilliak. Baiña agian, estimagarriago gertatzen da esaeren edo lokuzioen altxorra eta berauek erabiltzeko trebetasuna. Pentsamentuzko edo sentipenezko ñabardurarik txikienak ere esaera betea eta neurrikoa dute Inazio Mariren itzetan eta esaldietan. Usariozko mintzaera dugu: errian beti errepikatu diren moldeak, eta errian bein eta berriz entzunaz eta erabilliz odolaren mintzoa egin zaizkigun esaldi-esaerak.

4. Azkena

Liburu onen egillearen jaioterriko ipui eta kontaerak eskaintzen dizkigu. Ez da, ordea, bilduma uts, ez da kondaira, ez da ere egitura naasizko eleberri. Kreazio-lanen bidez sorturiko kontaeren aukera bat dugu.

Ofiziozko kontalaria da izan liburugillea, irratiaren bidez entzulego zabal eta jaierratsu baten jabe dena. Eta gogo-tan-kerak finkatu bear bagenu, agian au litzateke nabariena: an-terki komikoaren eittea dutela bere kontakizunek. Ala ere, esan bearra dago liburuan badagoela gai unki-garririk, gogoe-ta zentzuzkorik, eta batez ere portaera giza-legezkorik.

Literaturaren aldetik, aoz-aozko kontalaritzan agertu di-ren beste liburuekin alderatuta, magia-kutsuko izkuntza eskaintzen digu, gure sentipenen eta sentikarien giñar fiña dardaratuz. Eta zer esanik ez dakarren izkuntzaren ederra, atsoitzez eta lokuzioz ornitua, usuario landu baten ispillu ger-tatzeraiño.

Atxukarroren liburu au pozgarria da guztientzat: irrati-entzuleentzat, aditu izan dituzten saio gustagarriak berriro aogozatzeko egokiera izango dutelako, testuak eskuartean edukiz. Oro ar, euskal irakurlearentzat, eta bereziki erri-lite-raturaren zale direnentzat; aozko literaturan erabili oi diren gaiak eta baliabideak aurkitu, ulertu eta estimatu ditzaketee-lako liburu berrian. Eta izkera landuaz arduratzen direnen-tzat ere bai, gurea den literatur idazkera jatorra aurkituko dutelako orrialde auetan.

Aintzin-solas au amaituxe nuenean, Inazio Mari klinikan dagoela jakin dut: leenbaitleen bizkortu dedilla opa diot; eta izan dezala, baita ere, liburuaren arrakasta gozatzeko eta beste idazlan berriak eskaintzeko grazia.

Juan Mari Lekuona

Atxukarriori bertsoak

Errezillen jaio zaigu ta
ume garaian or bizi;
mutil gaztetxo egin ziñanean
Donosti aldera jauzi.
Bazterrik bazter lana egiñaz
ogi saria irabazi.
Orain Zegaman emen daukagu
bere trepete ta guzi.
Gizon au nor dan bertso oetan
nai nizuke adierazi.

Aspalditxoan ezagutzen det,
gorputzez aundi xamarra;
burua ere soiltzen asia,
laster du txapel bearra.
Betaurrekoak badauzka baiña
begiratua pizkorra.
Irurogei bat urtetik gora,
baiña gizon txit ederra.
Aukera pranko izango zuan,
oraindik da mutilzarra

Egun batean galdetu nion
andregairik izan zuan;
irripar batez erantzun zidan:
“Bakarren bat izan nuan.
Baiña geiegi pentsatu nuan,
tartean urteak juan.
Nik sakon samar maite nuana
or dago beste munduan.
Orain guziak kuttunak ditut
praille on baten moduan”.

Gizon bulartsu eta leiala,
euskaldun benetakoa;
izkuntza eta lurraren alde
lan pranko egindakoa.
Euskera xamur ona egiñaz,
gure zarren legekua,
ikasi nai duten askori
on erakutsitakoa.
Bene benetan, barruz esanda,
gutxi diranetakoa.

Ipuia pranko esana badu,
alaitasuna sortuaz,
lagun artean parra ugari
eragin ere mintzuaz.
Kaskalkeriak alde batera,
arrokerik baztertuaz.
Gazte ta zarren premi aundiak
bildur gabe aztertuaz,
Loiola Erri irrati bidez
danon biotzak poztuaz.

Au entzutean esango dezu
nor ote dan gizon ori,
poza ematen jarduten dana
danai edo geieneri.
Udaberriko txorrotxioak
gogoraziaz danoiri,
belea, bidegarro ta xoxo,
kuku, txepetx, txantangorri...
Apellidua Atxukarro du,
izena Iñaxio Mari.

Ume umetan gelditu ziran
aita gabe amarekin,
baiña amatxok jokatu zuan
beste askok bezela pin.
Sendi gaztea ateratzeko
Edubijixek alegin.
Zenbat naigabe ta egun goibel
pasa zituan nork jakin...
Iñaxio Mari eman zigunak
Jainkoan beza atsegin.

Lan klase asko probatu ditu
aditzera daukadanez:
Akolito, morroi, ta kantore,
irakaskintza, apaizez.
Lorategi-zai ta basarritar,
inguraturik landarez.
Iruditxoak egiten ditu
argizari ta kolorez.
Danen gaiñetik margolari da,
on xamarra dirudiñez.


Eliz askotan irudi onen
konponketan da jarduten,
itxura ona galdu dutenei
zuten kutsua ematen.
Zerbait autsita daukateneri
maitetasunez eransten.
Ixil ixillik egiten ditu,
askok ez dute jakiten.
Baiña artista ortxe daukagu
ikasbideak ematen.

Mendi aldera sarri joaten da
utzirik etxe ta kale.
Eguzkilorek ekartzen ditu
giro onaren eskale.
Ainbat maite du lore usaia,
ain igali eldu zale...
Zuaitz gaiñetik zoramena du
jatea bat edo bi ale,
baiña inoiz ez nagusiari
jango duan esan gabe.

Bere bizian beti izan da
zuzentasunaren eske,
danen gaiñetik beti jarri du
osasuna eta pake.
Euskalerriko oitura onak
gordetzen du naiko neke:
Liburu, zapi, tresna ta eltze
antziñakoak badauzke.
Nai dezunean erakusteko
berak emango lizuke.

Egun batean jakin-miñen bat
onetaz badaukazute,
Zegaman bertan Atxukarrota
galde egin daitezute.
Bakarren batek orren berririk
ematen ez badizute,
ez da izango Zegamakua,
kontuan egon zaitezte.
Gerrikonean, erri sarreran
ber-bertan ortxe dezute.

Iñaxio Mari lagun zar kuttun,
lan bat egiteko dizut.
Ainbat kontu, ipui, ixtori
irratiz entzuten ditut,
bilduma baten idatzi eta
irakurri nai dizkizut.
Nere antzeko asko daude ta,
ni ausartzen natzaizkizut:
Ume, gazte, zar, euskaldunontzat
idazten ikus nai zaitut.



Elizatik plazara, dantzariak arkua eginez. Zegama, 1985-11-10

Sarrera

Itzaurre idazlan apain onen ondoren nola asi bear det nik idazlan ontan? Egia esan, ez naiz oso iaio-iaio oietakoa ezertan, eta gutxiago idazketan. Beraz, ez arritu, irakurle maite, nere akats eta trakeskeriekin.

Nere azikera eta ezikera irakurtzen badituzu, ez arritu, gure ama zanaren baliotasuna agertzearren izango da. Nere jaioterria eta bertako gertaera eta ipuiak agertzearren izango da nere idazlan kaxkar au. Eta naiko aspergarri izan liteke, eta orrela bada, barka zaidazula eskatzen dizut.

Baserrietako sukaldetan, batez ere nere kirakoen artean, atsegin izan liteke, eta erritarren artean ere bai, baiña oso lan txarra artu dedala derizkiot gaurko egunerako. Ainbeste idazlari trebe lanean ari diran garai giro ontan ausarta bear du izan batek; baiña nere tankerako asko geran ezkerro euskaldunon artean, zerbait balioko dualakoan eltzen diot lanari. Oso gogo onez artzen ez badet ere, ikara nagusi dala, borondate onez dijoa, eta goazen oker edo zuzen aurrera.

Or aseran esan dedan bezela, eskuan luma artze auxe ez det batere gogoko. Baiña itza eman ezkerro, gizalegea danez, bete bearra dago. Lagunak, adiskideak bultza didaten ezkerro, ekin egin bear lanari. Egia esan, neretzako egiten ez dan lanari.

Irakurle, zuk irratiz entzutea, aditzea izango dezu bear bada, alegia nere berrikeretazaz, ipui eta abar. Beraz, etzera arrituko nere idazlan edo lardasketa onetzaz.

Ez naiz liburuetan aditz, itz polit berrien billa ibili, ez. Nere traketsean idatziak izango dira nere bizi-izpi, gertaera eta ipuiak irratian esaten ditudan bezelaxe, buruak eman ala aurrera. Baiña itz egitea eta idaztea ez dira berdiñak eta, ira-

kurle jator, bildur naiz naiko aspergarri gertatuko ote zaizun nere lanketa au.

Nere lan onetan euskera ez dezu billatuko landua, apaindua. Ez, enetxo, ez. Erriak, erri xeeak itz egiten duana baizik. Azoka, peri, joku, apustu, erromeri, baserri-sukalde eta sagardotegietan mintzatzen dan euskera. Jatorrizko Errezilko kutsua galdu gabe Zegamako euskerarekin uztartua, apur bat lotua, alegia. Eta esango nuke ez dirala ain gaizki ezkonzen, orra.

Ez naiz eskolaru argia bein ere izan, kaskagogor xamarra bait naiz. Eta orain begietara lauso gandua iritsi zaidanean, zer egin?

Idazketarako arrobi kaxkarra dago emen. Ezer ikasi bear dan garaian ondeo-atxurrean besteren mendean jardunda ez da pianoa jotzen ikasten. Dana dala, goi Jaunak adimen argi puxka bat ematen didan bitartean zerbait lardaskatuko al degu, eta goazen gure barrutira.

Nere bizitzako gertakizunak ez dira ispillu disdiratsuak, baiña guzitik bear da. Goguan ditugun artean ipiñi ditzagun gure aletxoak, batez ere, aurtzaro-gaztarakoak. Ezer gutxi erakutsi dezaket, baiña diran apurrak egi-egiak.

Erria, sendia, izurdia

Ez naiz lekurik txarrenean sortu, jaio eta azia. Txori bakoi-tzak eder bere kabia; neronek ere maite det nere txoko polita, Erniopeko Errezil sakana.

Nere azitze eta ezitzeak etziran amukoz⁴ bilduak. Etziran ain leunak, baiña bai sakonak. Bizitza txiro bezain alaia, ori bai, eta alaia bezain tristea ere bai.

Etxeko txikia nintzalarik, ez nintzan etxeko une garratz beltz aietzaz jabetu. Laztanduen ere txikiena izaten da, eta txiro bagin ere zoriontsu ginan. Katuak umeak egin dituala, eta pesta. Txita txikiak jaiotzen asi dirala, eta ura poza! Neretzat dana zan pesta. Artean odoi beltzik ez bait nuan ikusten, baiña geroa zegon ikuskizun.

Goazen bada sorterri-jaioterrira, Errezil sakanera. Azi ere geientsuena bertan egiña naizela esan bear det.

Gipuzku lurraren erdian tinko jaikitzen da Erniomendi arkaitz zurixka. Orretxen magal sakonean, ain zuzen ere, pagadiz, ariztiz, gaztaiñadiz, sagastiz, lizardiz, intxaurdiz eta abar orniturik arkitzen da Errezil mardula. Lurtsua, maldata-sua, mendiz inguratua. Belardi, garadi, soro, txara, osin eta erreka garbiz osatua.

Badu ibar luzerik ere Erniope onek berekin. Bai laiotz zokorik ere; baiña geien bat egutera gozoa, babesa.

Eta orratx, irakurle jator, iñoiz, again, egongo ziñan begiak zabal dituzula Trintxera gaiñetik, Erniotik edo Urrakitik begira. Or-emenka baserri zuri zabalak; guzien erdian, etxe mordoska orren erdian, aundi-aundi eliza nagusia bere torre txukun eta egokia tinko zerurantz jaikitzen dala.

4 Linu mataza

Etxe mordoska ortan billatuko dezu, irakurle, Padrene-berri edo Intxaurrondo deritzon etxe kaskar bat, ezizenez Exkerrania. Aitonagandik datorkio izengoiti ori. Aita ere exkerra zan. Guztiak degu artan edo ontan exker kutsu ori. Etxeaundi-beeko errementari, aizkolgille entzutetsuetatik datorkigu Exkerra ezizen ori Atxukarrotarro.

Nork ez ditu ezagutzen aizkolgille eta erakustaille iaioak? Gure aita ere errementari, perratzaille eta aizkolgille iaioa zala diote zaarrak. Atxur eta laia-muturrak berritzen eta zorrozten gutxik eramango ziotena, bizia gizona.

Ain txikia nintzala zerura eraman zuan Jaunak. Ez gure etxean bere premirik ez zegolako, ez, enetxo, ez.

Aita, ama eta sei seme-alaba ogi eske. Zortzi jateko eta aita bakarrik ogia irabazteko. Eta orra ezbear zoritxarra.

Onako 1918garren urteko izurdi-gaitz, gripe lapur gaizto arek eraman zigun aita, sasoiko gizon ura.

Bildurgarria izan zan izurdi-aize kutsu txarreko ura. Irakurle batek baiño geiagok goguan izango dute oraindik erri guztietara zabaldu zan gaitz txar ura. Europa osoa jipoitu zuan, goibeltasuna eta negarra zabalduaz.

Sei urte inguru nituan aita il zanean. Gauza batzuk oso goguan badauzkat ere, ez naiz asko oroitzen aita zanaz. Gogoratzen naiz nola sutegiko auspo aundia, gora eta beera eragiñaz aizea sar zedin, talak, talak! egiñaz erabiltzen genduala. Baita ere laia-mutur gorituak surtatik atera eta txingude-gaiñean maillu aundiarekin jotzean zer txinparta-izar apañak banatzen zituan inguru guztian.

Eta, batez ere, auxe beti betirako begien aurrean gelditu zitzaidana: aita ainbat gaizkitu zanean, alegia eriotz-une larria iritsi zitzaionean, berak eskatuta, amak lepoan artu eta gelako ateraiño eraman ninduala, eta aitak eskua jaso eta esan zidan: – Banetxeak zerura, Iñaxio Mari, banetxeak!– Nik, ijijiii, parre.

Neretzako pesta zan une beltz ura. Ez nekian asko aitak betirako joan bear zuanik. Ezta ere ez nekian zer ondorio, etorkizun beltz zetorkigun. Geroak erakutsi zizkigun, azten giñoazan bezela, erri, etxe eta sendi askotan gertatu ziran eriotz negargarri eta une garratz aien ondorioak.

Baziran baserriak bi eta iru il ziranak ere. Egurbide base-
rritik iru gurdian jatsi zituzten kanposantuko estalpera. Ate eta leioak itxita. Etzegon dolumin-bixitarik, ez illetarik eta ez onrarik. Il ordukoxe bildu maindiran eta gurdi edo karretillan artu eta illerrira. Ezkilla aundia, din-dan, il-kanpaia maiz. Erriko bi txurrutalari gorputz karretoan, pattarra edan eta baratxuriak jan. Aiei etzitzaien izurdi gaitzik itsatsi.

Gertakizun latza esan oi zuten Mutrikun gertatua. Gizona il zan, ustez, eta artu eta eraman zuten beste gorputzen ondora, depositora, noski. Gauean pasa zaio nunbait lo-atake ura, eta jaiki eta or dijoa izaran bilduta etxera ate-joka. Bere emaztea ateratzen zaio, eta orra sustoz andrea zerraldo lurre-ra eta il. Gizona bizirik eta andrea ilda. Ez da gutxiagarako.

Ernio-tontorrean ezagutu nuan gizon ura mutil koskorra nintzala. Jendeak esaten zuan: "Orixe da, orixe da!". Mutri-kuko gizon misteriozkoari begira ez giñan aspertzen, Ernioko gurutze zaarreko uztaiak pasa eta pasa, argizaria sutan zuala kalbarioak zintzo egiten zituanean.

1918garren urteko izurdi edo peste itsaskorraren gertaki-zun trixteak ez dira aaztekoak.

San Martiñak ziran, Errezilko zaindari-jaiak, orratx. Eta au ere kontatzekoa dala deritzot. Gaitza sartu berria zan. Ziotenez, San Martin irugarrena, txistu-txanbolin soñua. Gaztedia dantza-soka dantzatzen goiko plazan. Berri tristea. Il-kanpaia, danga, danga, Axintxio Exkerra il dala... Ixildu soñua, gelditu dantza-soka, eta norbaitek Exker zanaren alde Aitagurea otoi-tza errezatu omen zuan begirune aundiz, gure aita zanaren alde, "Zeruan ikusi dezagula!" esanez. Bazan odoia, trumoia, tximista eta txingorra, kanpai-otsa eta tristura.

Atariko atean katu-zulotik sartzen ziguten ogia malkoz bustia jango zuten nik ez beste danak. Umea, ume. Ikusten ez duan begiak negarrik ez.

Odoi, trumoi, tximista eta txingor eraso, negarra eta kurrintza bazan gure sukaldean aita eraman zuten garaian. Etzan maindira utsarekin lurperatu gure aita, amak ondotxo jantzita ipiñi zuan. Errian iltzen ziran guztiak berak jazten bait zituan, eta bai aita ere. Ama bedeinkatu ura sei seme-alabekin bakar-bakarrik gelditu zan atea itxita.

Seme zaarrena, au da, gure anai zaarrena aitaren sute-gian gelditu zan Julian Sarasua nagusi berriarekin mutil. Anai bigarrena, Bidaniko Labaka baserrira morroi. Bi arreba zaarrenak, Tolosara neskame. Eta gu, anai-arreba txikiñok, amarekin etxean.



Sutegiko auspo zaarra



Exkerrania

Ama

Jostuna zan gure ama, eta baserriz baserri ibili oi zan josten, adabaketan, lastaira, oazal eta buruko. Eta ama nora, gu ara. Txilborra betetzen ziguten bapo, eltzeko, sagardo, talo eta esne. Eskerrak aiei. Kanean etzegon ezer orduan, etzegon subsidiorik eta punturik.

Illuntzero ipuiak esan oi zizkigun amak, ain zan alaia. Muatsen bertsoak ere kantatu oi zizkigun; baita Santa Genobebaren kantak eta ixtori osoa kontatu ere. Gu alaitzearren egingo zuan zeledon. Fratsesez ere kantatu oi zuan “*xante, xante, Mabelo, xante, xante tuxur*”⁵. Gure poza! Orra txirota-sun gorria, orra or ama baten ixtillu larria.

Baiña ain zoriontsu giñan, zeru biurtzen genduan gure sukalde xaarra. Galde eiezu Errezilko zaarrei ia nor zan Exkerraneko Edubijix. Erantzungo dizute santa alai eta biotz zabal bat zala.

Ama guztiak dira onak, baiña Edubijixek berekin zuan adur berezi ura ez dute dozenan amairuk izango. Parisen urte batzuk egiña, gaztea zala; frantsesez ere ondo zekian, ziotenez. Ango Notre Dame, Sacre Coeur, Montmatre eta ango teatroen berriak esaten asten zanean, janari gutxi bagenduan ere mantendu egiten giñan, orratx.

Gauza asko asmatu oi zuan gertatu baiño leen. Igarle-kutsu izpiren bat ere bazuala esango nuke.

Ni nintzan etxeko amazuloa, bularrak agortu arren beti titi eske. Aiei zurkatu batzuk eman ezkeru, konporme. Gu etzegon apartatzerik, eztaaa...

5 Ah! Chantez, chantez, ma belle,/ chantez, chantez toujours! /Chantez, ma belle, chantez toujours!

Serenade (Lullaby) – Charles Gounod – Victor Marie Hugo)

Irakurle maite, bildur naiz orrenbeste kontu triste irakur-
tzen aspertuko ote zeran. Barka zaidazula eskatzen dizut, ge-
rora alaituko gera ipuiekin-eta. Ar zazu pazientzi apur bat.



Gure ama Edubijix



Gure aita Axintxio
aurrarekin

Gabonak

Urte beltz artako Gabonak neretzat etziran izan tristeak.

Bai, iritsi ziran Gabon dontsu aiek ere. “Artzai buru txuri bi, Antton eta Peru...” abesten erakutsi zigun amak.

Arratsean mutil taldeak atez-ate zebiltzan Gabon-kantak abestuaz. Esku-soiñu eta pandero, gu txikion poza. Amak ez dakit zer nabaituko zuan gure atarira iritsi ziranean.

Oitura zan bezela, inor il berria zanean, otoitz egingo zan etxe artan. Eta orra gure atarian, da! ixildu eta gabon-eskale guztiak auxe egin zuten: Txapelak kendu eta Aitagurea errezatu. Ama txakur aundi batekin joango zitzaien atera. Etzan erreal bat etxean egongo. Eta orra mutillen esker ona: “Ez, Edubijix, ez; guk eman bear dizugu limosna, guk”. Eta atzaparra bete txanpon eman zioten amari. Orra Gabon zeru biurtu. Apari goxoa prantatuko zuan amak. Aukera ederrik egongo zan jaki eta edarietan gure armario xaarretan...

Dana dala, oitura zan bezela, ipiñiko zituan olio-aza, lukainka-muturra, konpota... Alajaiña! Aza-eltzeak etzuan su artuko olio-zipriztin irakiñarekin. Urdai-gantzarren batzuk sartu eta aurrera. Gaztaiña eta sagar erreak baldin baziran, zein printzipe eta errege zan gu baiño aundiago? Bai giñala paketsu, alkar-maite eta zoriontsu, bai orixe!

Ain zan alaia gure ama! Guri poz ematearren kantatuko zizkigun Gabon-kantak: “Artzai buru txuri bi, Antton eta Peru/ Belengo portalera etorri zaizkigu...”. Umea beti jakin-min izaten da eta zer ekarri ote zioten Jesusi galdezka. Eta jarraitzen zuan: “Sartu dira barrena Manueltxogana/ presente egin zioten arkumetxo bana...”. Aupi! Gure poza, tortoloxari zer egingo ote zioten gure kezka. Gero, “Olentzero begi gorri” kantatu eta oera. Otoitzak eta ipuia. Txapelean sartu anakak bero-bero eta aingruekin amaren galtzarpe banatan lo.

Nekatua bazegon ere, ama ixil-ixillik jaiki eta ara zer egingo zigun: sukaldean jaiotza ipiñi. Etzan zillar txintxilakario-litsik, ez urrezko izarrik. Baiña bai polit eta zoragarri naximentu uraxe.

Danerako jaioa zan mundu ontan gure ama dontsu ura. Eskuz oso zan artetsua. Berealaxe ikusiko dezu, irakurle, buruz ara zer eta nola ipiñi zuan sukaldeko suilla egoten zan apala txokoan jaiotza. Bururatzea bera ere...

Amak zer etzuan egingo izan ere txikioi poza emanaz, lurbira osoan ospatzen dan gau zoragarria goralduez? Gure biotz poxpoletan bizi guztirako maitasuna txertatuaz, fedearen sustraiak itsasten zizkigula? Orratx nun ipiñi zigun Jesus aurtxoa: Arrantzaleak kaian oiñetan jantzita ibiltzen zituzten zurezko eskalapoi zeritzan oiñetako oietako batean, lasto-izpi batzuen gaiñean. Egutegi bat guraizez ebaki eta antxe, besoak zabalik Mesias. Migel Angel ospetsuak berak ere etzuan irudi ederragorik egingo gure begientzat. Ingurua untzez eta paperezko lorez apaindua, lau argizari-mutur sutan, txintxarri txiki bat aritik tira eta txilin-txilinka, izar zuri bat gaiñean. Lau intxaur ale, poxpolin eta urrak, bi sagar eta gaztaiñak, artzaiak apalean eskeintza bezela Jesusi ipiñiak, amak esan zigunez.

San Prantxiskok leenengo aldiz egin zuan naximentuaren antzik ez ote zuan izango gure sukalde xaarreko jaiotza txiki ark?

Eguberri eguna

Goizean oso goiz asi dira eliz-torreko kanpaiak dulun eta dala. Esnatu gaituzte danak.

–Ama, amatxo, zer gertatzen da?

–Jesus jaio dala diote kanpaiak.

–Nun, ama?

–Belenen, eta gure sukaldean ere bai, enetxook.

–Gure sukaldean?

–Bai bada, bai

Beso banatan artu gaitu eta or garamazki. Leenengo, leiora: Goietan elurra, atarian ez bazegon ere etzan urruti.

–Ara, ara zenbat argi

Ene, lasta-zuzi piztuak astinduz datoz baserri guztieta-tik seiretako meza aundira. Erne zeuden gure begi txikiak. Zer mundu polita izan ere bi koxkorrontzako.

Errezil sakana zan mundua. Etzan kanpai-soiñu ederragorik Erroman ere izango. Gure mundu zoragarria uraxe zan, eta kitto!

Maiz oiñutsik eta amilatxo, zapi xaarretan bilduak egon arren gure gorputz ergeltxoak, ala ere etzan soiñeko apaiñagorik Parisko moda-zakueta izango.

Ondoren eraman gaitu sukaldera amak, argitxoak piztuta zegon apalatxoko jaiotza erakutsiz. Txintxarritxo txilinka ots polita joaz. Ene, zer zarradea egin zigun gure barruak! Zer zan ura? Ene, bai polita izarra ere!

–Ikusi, ikusi. Orra Jesus jaio berria gure etxean! –dio gure amak, bularretan estutuaz.

Egi-egia diozut, irakurle, atzo zala iruditzen zait Eguberri goiz otz, txiro ura. Baina bai aundia, ikusi eta beroa nabaitzen dedala. Ezin dezaket adierazi une zoragarri aren berri.

Aitonen esaerak

Nik ez nituan ezagutu ez alde bateko eta ez besteko aitona-amonak. Il ziran ni ezagueran sartzerako.

Aitonak esan oi omen zuan nola Erromako gudariak itsaso-
soz etorri eta Iturriotzen barrena Errezilko neskatx ederren bi-
lla Zelatunaiño iritsi zirala. Baiña Oiartzungo Lartaun gizon
gudari trebea buruzagi artu eta, zerbaiten susmurra jakin on-
doren, Errezildar mutillak lizar makillaz armatu eta Zelatungo
gaiñean itxoin zietela, Ernioko arkaitzetan gordeta. –Emen dit-
tuk, emen dittuk. Mutillak, erne! –Arkaitzetatik, rau! salto egin
eta lizar makillaz ia erromatar danak garbitu omen zituztela.

Zuazketa Petrikillo zaarrak esan oi zigun gerora ixtori au.
Eta gu pozik egon oi giñan entzuten. Gure galderak:

–Aizu, Juan Anton, eta zertarako zituzten bada Errezilko
nexkak Erroman?

–Zea, ez beintzat seroretarako! An gizon aundi zerri asko
uan garai artan eta aien jostailu eraman nai zizkiten. Mun-
duan ziran nexkarik ederrenen pama zien Errezilko nexkak.
Eta zerri aiek bai jakin ere. Baiña etzien kutixi ori betetzen
lanik izan, zikin arraiok! Erromatarrak burniz armatuak eto-
rri bazituan ere, jo eta lizar makillaz eatxi zizkiten. Motellak,
ez uan giro izango! Tripa parean ere burnizko tresnak omen
zeamazkiten, baiña Lartaunek ori ikusirik esan omen zeaten
bere mutillei: –Mutillak, txilborretikan, txilborretikan... Bee-
tik gora, mutillak, makilla oiek!–. Eta alaxe, sist eta sast!, ia
danak bertan garbitu omen zizkiten. Nexka billa Errezilla? Ez
leku txarrera, madarikatu zikin oiek!

Urtezaarrak ere bere ikutua izan zuan

Ez genduan izan bixiguaren buruan ezur txurizko Ama Bir-
jiña billatzen lanik. Ez Malagako ardo goxorik irentsitzen ere.
Eltzekoa eta aia. Ai-makilla ondo zupatu, sabelo bero, eta lo.

Erregenak

Asko ez bazan ere, errege zuzmurra jakinda geunden. Zapata xaarrak txistuz igurtziaz egunetan garbitzen jardun giñan. Amak lanik asko bazuan, ezer jartzeko ez eta zapata xaarrak zerbaitekin bete bear. Ipiñiko zituan lau piko melatu, paxientxi aleren batzuk, berak eskuz oialez egindako andere politen bat, eta txakur belarri aundiren bat, begietan botoiak josita; koxkabillo txikiren bat erantsiko zion, jostuna zan da. Eta gaiñera, ain zan artetsu edozein gauza egiten gure ama don-tsu ura...

Iritsi zan Errege-bezpera gaua. Ezin lorik egin.

–Ama, ama, zaldi-otsa da.

–Ixo, ixooo...

Oazalaren barrura sartu eta larri goiza iritsi arte.

–Jesus, Jesus, zenbat gauza ipiñi dizkiguten iru errege aberats oiek! Ene, ene, gozoak, anderea eta ttottoa...

Ez giñan asarre geure erregaloekin. Etzan munduan erregekumerik orduantxe gu baiño aundiago eta zoriontsuagorik, ez orixe.

Ilbeltza

Izena duanez, il beltza, eta jan egin bear.

–Gaur nora goaz, ama?

–Errekondo-beekora.

–Aufiii.

Manuel Mari, Joakiña eta jolas-lagunak:

–Aufiii...

Ama josten, raka, raka, makinaz eta eskuz.

Naiko taloa eta esnea jango genduan, eta gu bapo.

Antxe giñala, bein, ume txikia jaio zan Errekondo-beeko baserri ortan. Sendagillea geienez kanpoan oi zan, eta aurgintzatan eta laguntzen gure ama ibiltzen zan. Egun artan antxe egokitu eta, laster egiñak zituzten patripilioak.

Jesus, gure ixtiluak bada! Bertako lau ume eta gu bi, sei.

Ume ori garbitu zuten sutondoan. Guk jan bear degula.

Amonak:

–Zaudete atzean...

Ia zeiniek ekarri zuan, ia nundik ekarri zuten galdezka. Amorra erazi diogu amonari. Zerbait esan bear eta esan digu azaburutik ekartzen dirala umeak. Mekasuen, artu igitaia eta or goaz ume danok, goiko eta beeko, eta baratzako azaburu danak krixkillatu ditugu ume billa. Azaburu danak askatu, eta umerik ez.

Gero ziran kontuak. Aitona asarretu zan, ia baratzan nungo astoa ibili zan... Gu, beatzak sartu aoan eta ixillik. Noiz-bait aitortu genduan ume billa puskatu giñuzela. Bai batzuk jipondu ere. Gu, berriz, leen aiñean gelditu giñan.

Amari etxerakoan galdezka ia nundik ekarri zuten ume txiki politt ura. Eta amak:

-Paristik...

Eta ekartzeko bada, guk ere bear genduala-ta. Urruti zezon ordea Paris, eta gaiñera diru asko bear zala. Guk ere nai eta nai ez ume txiki bat bear. Zer nai dezu?

Gero bataioa eta martopilla; dana genduan pesta. Zoriona bada, ura zoriona!



Argizariz egindako nere eskulanak

San Blas

San Blas eguna ere iritsi zan. Oitura on eta ermoari jarraituaz, jakiak bedeinkatzera meza entzunez joan bear zan. Egin zuan pardeltxoia amak: sagar bi, txermen tximelen bat, ogi-koskor gogorra intxaur ale batzuekin, eta or goaz elizara. Etxeaundiko dendan erosi ditu amak iru txakur txikin pikuak eta txakur aundi baten paxientxik. Gure etxeko txanpon danak aiek izango ziran.

Sartu gera elizan, eskeiñi dizkio San Blasi jakiak. An ari da ama txistua irentsitzeko astirik gabe erreguka, osasun eske San Blasi, izan ere maiz izaten zuan gure artean laguntza luzatu bearra obispo santu motx orrek. Beti bagenduan eztarriko zuloan zeartuta zerbait. Titarea, txanpona edo botoia, beti zerbaiten traba. Bein baiño geiagotan esan oi zuan:

–San Blas, lagundu zaiguzu.

San Blas, ito arte arnas, esan oi zuan sakristau zaarrak.

Arrapatzen genduan guztia, izan ere, beti aorako izaten genduan, beti gozo billa. Orduan etzan gaur ainbat txikle, libito eta milindrario ere, eta jango genduan akerraren adarra ere, gozo-zantzurik berekin baldin bazuan.

An gaude mezetan elizan. Pardeltxoia lurrean zeukan gure amak. Ni pikua jango nukeanean. Errezatu eta errezatu ari da ama. Inpernuko txikito ez dago beñere lo eta bultzatzen dio nere beso igarrari. Gora begiratuaz sartu da pardelean nere eskutxoia eta or datoz iru piko-ale. Sartu ditut ixillik aoran eta an ari naiz mirrixki-marraxka jaten. Txurtenen bat edo joan zait kontrako eztarrira nunbait, eta asten naiz eztulka eta oiuka, ito bear dedala. Izutu da ama:

–Zer du ordea ume onek, San Blas?

Aztorako dira eliz-barruko emakume guztiak. Batek bizkarrean jo, besteak ipur gaiña igurtzi, ankaz gora jarri, eta ni ia itoan.

–Ene, txutxurrutxu eztula bear luke. Anjiñak izango ditu.

Eta ni ixillik. San Blas, ito arte arnas. Ixtillu batean danak. Sakristau zaarrak aldaretik:

–Zer arraio zabiltzate? Ixooo!

Azkenean, Euleneke Praixka zaarrak zurezko kotxara-kirtena eztitan busti eta eztarrian sartu zidan. San Blasen laguntzaz eta Praixkaren ziriari esker, eztarria garbitu eta piku-txurtena pikutara joan zan.

Esan nionean amari iru piku jan nituala eta txurtena zala eztarrian gelditu zana:

–Jesus, Maria eta Jose. Ume deabru ok!

Naiko parre egin genduan gero.

Errekondo

Gure goiko Jaun altsuak argitu digu egun berria. Aita zerutik begira zegola eta mototsak ondo orraztu, otoitzak egin txintxo eta Jaunari eskerrak emanaz mantenu billa irten bear.

Aldi askotan esan oi zuan gure amak:

–Jaungokoa beti ematen zegok.

Eta or agertuko zan baserriko andrearen bat, txaala jaio dala edo txerria il dutela, eta esnea eta odolki-xolomo.

–Gaur Errekondo-goikora.

Aitona Domingok oso maiteak giñuzen; bai guk ere bera. Txerri txikiak eta txaal beltza erakusten zizkigun.

Amandre Ana Marik egiten zizkigun talo arro goxoak. In-txaurrak ere askotan izan oi ziran Errekondo-goiko atari-inguruan eta aitonak etxerakoan poltsikoak bete oi zizkigun. Gure poza!

Orrelaxe ia egunero, batean edo bestean mantentzen giñan. Dirurik ez genduan ikusten. Amak lana diru truke etzuan egin oi; baserritarrak ere etxeko gauzekin errexago ordaintzen zuten, eta danok ondo.

Aipatu degun baserri onek 1575garren urteko armarria dauka, eskudo zaarra. Gudari eunkari ospetsuak eta trebeak bai omen ziran, diotenez, armarri ori jarri ondoren; oien artean, batez ere, R. Ganboa eta Rekondotar Pedro eta Nikolas, Napolesko gudateetan ibiliak.

Gaztelu tankera du etxe onek, orma lodi, arri landuzko leio eta ate-ertzak. Sarrerako atea orrela: Arku mutur-zorro-tza, gotikoa edo orrelakoa, gaur atea zabaltzeko kendua.

Arri landuz egiña da alboko errekan zubi dotorea, bide-galtzada zaarra igaro zedin, gizaldi aietan jaso. Esan oi zan sorgiñak beren billera eta pestak zubi onen eta Astazuloko zubipean ospatu oi zituztela.

Errira iristen ziran eskale guztiak arratsalderako Errekondora joko zuten. Ankamotza bazan, txangua, erdi itsua, eta zerrepelduta bazetorren ere an zeukan ostatu. Artazopa, talo-esne eta etzauntza, eskaleen babes gozoa.

Jainkoaren izenekoa esan oi gionduan⁶ ate-ondora otoi-tzak marmartuaz zetorren eskaleari.

Gure txiki-garaiko eskale ezagunak auek ziran: Traillu, Antzuela, Orioko atso mozkorra. Geroxeago, Karmen beltza, Ijitoa, bere amona atzapar beltza eta familia. Babarrun goxorik eta oillo bikaiñik jaten zuten aiek.

Ebarixto zan beste eskale belarri motza. Ari amorra eragiten genion txurrut egiten zuanean. Zaku-morralla gorde oi genion zokoren batean. Gero makilka eta maldizioka ibili oi zan morral billa; ondoren aitortu egiten genduan oker ori, bai bada, birao aiek guk jaulki arazi genizkion eta gure biurrian gaiztakeria ezagutzen.

Bein eskale berri bat agertu zan, aitona moztaka bat. Anka-motza, adaki-zurezko ankaduna. Alako pestarik! Guk sekula ez genduan ikusi alako ankadunik. Ume danak bere ondoren. –Ara, ara, zelebria dek; zer zeukak orrek or?– Amorra arazi genion. Izan ere, nai eta naiez anka ari ikutu bear; ia bota genduan, gizajoa. Beste ankea nun zuan galdetzen genion. Maleducados!, esaten zigun.

Gure ama orrek Errekondo urruti zegola eta etxera ekarri zuan anka-motz ori. Amak iru izkuntza zekizkian eta ondo konpondu ziran. Trenak moztu omen zion anka. Ia nun utzi zuan, eta... gu zeñek ixildu? Dana zan arrigarri guretzat.

6 Gionduan = genion

Ibarzabal

Ibarzabal baserria patxada-patxadan arkitzen zan, kamiño-azpian, malda baten oiñetan. Sendi zintzoa benetan bertan bizi zana.

Artilea jo eta koltxoiak josten jarduten zan an ama, eta gu atzetik. Balerio aitajaun zabala oso zan bromakua. Arta-zopa gozorik jaten zan Ibarzabalgo sutondoan, txukun asko. Zizellu-maia jatsiko zuan amandreak, eta

–Tira, jan naikoa, gazteak buruan ere esteak izaten dizkik -eta –eta txilborra bete oi zigun.

Amandre bedeinkatu arek ezbear izugarri bat izan zuan. Ni oso txikia nintzala, auzoko San Antonioren ermitan txukunketan ari zala, solairua disdiratsu jartzeko, argizaria urtu eta aguarras nasterakoan su artu kaldera zabal arek eta andre dontsuaren jantziak, eta itsumustuan lasterka, karraxika erre kara bere burua uretara itzuli zuan. Bidean erre zan geiena, eta gero gorriak ikusi ondoren il zan, gaixoa.

Eta gure ateraldiak: Ia zergatik San Antoniok etzion itzaltzen lagundu, beti bera apaintzen jarduten zan andre ari? Erantzun gabeko galdera.

Gero, andik urteetara, au da 1953garren urtean ain zuzen, Gabon-bezpera egunez, eurite izugarri batek etxaburuko aldapa lurtsuetan luizia egin, lurrak eten eta bat-batean azpian artu zuan Ibarzabal baserria, soro zelaian aurrera loiak etxearekin batera ganadu eta kristauak eramana. Bertan il zan ama bi semerekin. Ara zer Gabon-Eguberriak sortu ziran gure erriko baserri jator artan.

Auzolanez eta Aldundi-Diputazioaren laguntzaz eta abar jaso zan Ibarzabal berria. Gaurko etxe koandrea zakar artean bere aurtxoa besoetan zuala bizirik aurkitu zuten. Mirari bat, orratx.

Auzoan, errian eta Euskalerra eta auzo-baillara guztietan bildu zan laguntza Ibarzabal berririo jaso zedin, eta bizirik gelditu ziranak giza-bizitzan aurrera egiteko poz-laguntza izan zezaten.

Umeen galderak askotan zebreak oi dira, eta gu ez giñan ortan amutsak. Amaika aldiz esan zigun gure amak:

–Zaudete ixillik. Inbiri partitu zanean an ziñaten bai zuek, demontreok.

–Nun partitu zuten bada inbiri, ama?

–Zerean partituko zien, Ibarzabalgo soroan.

–Ara, ara! Eta jende asko al zan an?

–Bai, soroa aruzko errekaraiño betea.

–Iufi! Eta nola partitu zuten, bada, ama?

–Katilluetan.

–Eta gu an al giñan, ama?

–Bai, aurreko muturrean gaiñera!

¡Amorra erazten giøndunean⁷, sarri esango zuan:

–Ixillik ez bazaudete, jo eta botako zaituztet Lakuntzako pertzeraíño.

–Nun dago, ba, Lakuntzako pertza?

–Zerean zegok, joanda bertan.

Eta magalean artu eta Lakuntza eta Aralarko ipuiak esango zizkigun.

7 Genionean

Oitura zaarrak

Armendi baserri zabalak iru bizitza zituan. Bat gure garairako ustua zan. Errian dan zaarrena, dirudienez eta diotenez.

Arriz, ladrillu gorritz eta geienbat zurez jaso. Teillatu eta ertz mardulak, balkoi zoragarriak, barruan esi-lokatzazko ormak. Komun-zuloak etxe-azpira, asko moduzko otzarekin ipurdia bapo preskatzeko eran egiñak. Etzuten an gaitz-kutsu txarrik eta moxorrorik bilduko, ez arraioa. Txuikiña oi zan paper orde z orduan atzea garbitzeko. Dana sanoa, orratx!

Bizitza batekoak Pipitarrak ziran, ezizenez alegia. Pipi xaarra oso zan aittona kaskatxuri argia, beti bere pipia ez-paiñetan zupaka zuala. Txapelaren azpian piztu oi zuan, rasta, rasta, metxa luzea.

Bi bizitzetan oso maitea zuten gure ama. Norbait gaixo zala, edo, babarrun-biltze eta arta-zuritzea zala, eta ama antxe, eta gu ere ez oso urruti.

Ondo atsegingarri zitzaigun arta-zuritzea. Ganbaran artopilla aundiaren inguruan exeriko giñan ango illunpea argi-mutillak kentzen zigula. Alako erromeri politik! Ango zirriki-zarraka otsa txuikin pillan. Artaburu galantak ganbaratxora.

Bi bizitzatakoak alkartu eta errosarioa esango zan. Misterioero bere bertso kantua:

Abe Marian amarrekoa,
Aitagureaz batean,
Birjiña eder maite berari
esaten asi gaitean.

Gogo guztiaz esango degu
lenenengo misterioa.
Zuzen gaitzazu zerura beti,
Birjiña biotzekoa.

Eta orrelaxe bertso asko abestuko ziran, eguneroko erro-sarioari zegokion eran. Azkenean, “Jaungoiko santua, Jaungoiko indartsua, Jaungoiko illezkorra, gaitz guztietatik aska gaitzazu, Jauna”.

Ziñatu ondoren ipuiak eta sorgin-kontuak.

Katarrak mirri-miauka; ikuilluko beiak orroika, gure abestiekin batuaz.

Gaur telebista omen da polita; ez ura baiña zoragarriagoa.

Muatsen bertsoak, “Markesaren alaba” eta “Joana Bixenta Olaberenak”. Gero, aita zanak perratokian kantatu oi zituan bertsoak abestuko zizkigun gure amak. San Martin errementarien patroia zanez, onela zioten:

Aita San Martin, barkazioa eskatzen dizut zerorri,
komeni ez diran itzen batzuek baldin bazaizkit erori.
Zuk erregutu guregatikan Jaungoiko gure Jaunari,
orren bitartez betiko ditzak gaitzan guztiok estali.

Geiago ere baziran, baiña ez dauzkat goguan.

Beste au Armendiko amonak abestu oi zuan:

Agure zar-zar batek lengo arrats batian
dantzan erabili nau belaunen gaiñian.
Belaunen gaiñian eta beretzat ustian;
ez nauk arrapatuko datorren astian.


Erderaz ere kantatu oi zuten zenbait neskak:

Si quieres vivir alegre,
cásate con un herrero.
Trampa arriba y trampa bajo,
nunca te faltará dinero.

Au esango nuke biarko aulku edo ejemplo bezela: Armen-di baserri ontan eguneroko errosarioaz gaiñera akto fedeko luzeak esan oi zirala, bi bizitzetako sukaldeetan eta, gaiñera, urteko arrats guztietan dotriña zatika-zatika berrituaz.

Sukalde bi oiek erdibitzeko esizko armo-erdika bat zan,
au da, goia libre zala, zizelluak alde banatan zirala.

Ara bi sendiak nola banaka bizi ziran bat egiñik.



Armendi, Errezilgo etxerik zaarrenetakoa

Oilarra eta sugelingara

Armendikoa zan Patxiko eskola-laguna. Ibili oi zituan bere poltsikoak betean urrak, intxaurrak, poxpoliñak plottean jokatzeo... Aren patrikak ibili zuten makiña bat tresna: tortoloxak, kanikak, tiragomak, auspo-iltze eta alanbre-muturrak. *Patxiko zikin* esaten gionduan⁸. Gure aldean ausarta zan, azkarra; bai biurria ere. Ara bein zer egin zuan.

Amari zion:

–Ama, biar nere eguna da eta oilarra jan bear degu.

–Ire eguna dala eta oilarra jan? Etzegok gaizki, alajaiña. Txuri egingo diagu.

–Bai eta bai –dio mutillak.

–Ixillik ez ba ago!

–Bada, nik akatu egingo det.

–Ez dik onik egingo. Auzoan dan oillarrik onena jan? Berrogeita zazpi urte bazeuzkeagu, baiña gure urtebetetze-egunez ez diagu oraindik txita bat ere jan.

–Berealaxe garbituko det.

–Jesukristok argi egingo dik orraatik...

An zebillen Patxiko biurria mixkili-maxkulu zer asma. Artale batzuk artu ditu patrikan eta or dijoa sagastira, puurra, puuurra... Ttaka-ttaka oilarra artaleak jatera. Rau!, eldu dio lepa-zintzurretik eta or darama etxeordeko sapaira. Artu ankartean oillar indartsua eta lotzen dizkio zatar-zirrindaraz anak eta mokua. Rit eta rat, ateratzen dizkio luma danak senperrak erakutsiaz oillar gizajoari. Larrugorrian jarri du, eta artzen du galtzarpean otzak dardaraz. Ama pin asko ariko zan sukaldeko lanetan; gutxiena bururatu zitzaion eraman bear zuan estuasuna. Deika dio:

8 Genion

–Patxiko, nun aiz? Orain ere ariko aiz gauza onen batean...

Iritsi da sukaldeko atera mutilla; askatu dizkio anak eta muturra oillarrari, eta katu-zulotik sartzen du sukaldera. Biliblitsik, anka aundi aiekin, ttaka-ttaka, or dioja, gandor gorria blisti-blasta duala sukalde erdira. Amak zer ote dan begiratzten dio. Jesus, Maria eta Jose, izutu da zer adrazu⁹ ote dan sukaldera sartu dana gudari erromatarren antzera, antzarrak baiño lepo zuriagoarekin. Ama zalapartaka leiotik irten eta igesi etxekoneko eta auzokoei deadarka, etortzeko azkar, onezkoa ez dan pistiren bat edo sartu dala sukaldera-ta. Artu adaki eta sokor-mazoak eta or datoz gizonak korrika.

–Nun da?

–Or, or...

–Mekasuen, zer madarikatu pisti da au?

Batek kolpe eta besteak kolpe, ez dutela joko pistirik. Alako batean zizellupean sartu eta egin du egundoko kukurru-kua. Orduantxe ezagutu zuan amak etxeko oillar gorria zala.

–Jesus, Jesus, au da beargittea!¹⁰ Apustu egingo nuke gure Patxikoren lana dala. Ez dek ba au jaten lanik izango!

Arrapatu zuten oillarra, zatar zaarrean bildu berotu zedin, eta ixkin-tokian sartuta ipiñi zuan andreak.

Patxiko ango istilluaz izututa, sapaian ezkutatu zan. Illundu eta etzan ageri mutilla. Ama deadarka:

–Ator, Patxiko, ez aut jiponduko-ta...

Ala azaldu zan, burua makur zuala.

Txamarra eta praka gorriak jantzi zizkioten oztu etzedin oillar orri. Alako mikeleterik! Gandor gorria zutik zuala irten zan belardira jantzi berriekin. Eta oillo danak mozorro aren

9 Adrazu, elementu

10 Behargeia? Burubidea, faena

igesi. Alargun egon zan puxka batean. Zer parreak egin zian jendeak ura ikusirik! Udaberrian lumaberritu zan eta bere damatxoak inguratu zitzaizkion gerora.

Beste baten, geroago, sugelingarea kajatxo batean sartu eta eskolara eraman zuan. Zuzena izateko asko palta bait zuan. Maixua lokuluxkan zegola, bizkarrean poliki-poliki ipiñi zion; eta jakiña, joan zaio kolkotik barrura. Maixu orren istilluak eta trikitiak. Dana erantzi bear izan zuan zomorro lardats ura aterako bazuan. Maixu ori erdalduna zan, eta asi zaio deadarka:

–¿Quién ha sido el bala que ha traido este bicho?

–Zer esaten dik orrek?

Gorosti makilla artu eta ekiten dio ezker-eskubi, kisk eta kask. Patxikoren okerra danok ordaindu genduan, eta in-txaurrak buruan giñuzela irten giñan andik. Aker biurtu ez giñanean...

Neskazaarrak

Etxe kaskar batean iru aizpatxo neskazaar bizi omen ziran. Naiko mixerian iñolaz ere. Sutondoan suari zotz batzuk emanaz gaztetako ametsak gogora. Aizpa batek besteari omen zion:

–Ik dittun kulpak. Nik ezkontzeko aukera izan niñan, eta ik ez idanan utzi.

–Nik?

–Bai, eorrek euki ez eta besteri utzi ez, purtzil orrek. Orain ikusten den, ez gizonik eta ez umerik ere...

–Aizan, umea egin eta azi orren aixa egiten dala uste al den? A, gaixua! Ortxe zeukan Errotako Ilarik batere gizonik gabe egiña...

Sudurraren puntan tantoa txintxilika zutela omen zeuden, eta aizpa gazteenak:

–Jass, iriñik etzeukenagu; esnea bagendukake, auzotik pertza ekarri eta aia egingo genduken.

Osaturik zeuden, gaixoak. Negu luzea, eta aizpa zaarrena il zaie. Bigarrenak orduan:

–Jesusss, il egin al aiz? Errexena egin den, txolin orrek. Auek dittun lanak ipiñi dizkigunana. Jasss, au den burubi-dea! Negar egin bearko diñagu, besteak ala egiten diñe-ta...

Orrela, kurrintza saio bat egin omen zuten. Bi aizpak mal-korik ez, ain legortuak omen zeuden koittaduak.

Sorgiñak

Arta-zuritzekoan kontatu oi zituzten istori oek.

Zuazketa baserrian bildu oi omen ziran goru eta ardazketan emakume taldea. Arilkai, amuko eta liñaiak zeïnek baiño zeïnek apaiñagoak. Argimutilla kinkatxoarekin erdian zutela, aria egin eta aria egin, gero eunezko izara, ator, alkandora, oial eta milla gauzetarako etxean bear ziran zapi, jantzi eta abar eta abar oiek egiteko.

Liñaiek muturreko toxa edo zorrotxoak oso apaiñak oi zituzten.

Zelatariak ere baziran:

–Alako atso ugenduz igurtzi abiatzerakoan eta joaten omen den “Laiño guztien azpitik eta sasi guztien gaiñetik” esan eta tximiñi-zuloan gora. Eta akelarren billera egin eta etxeratu.

Zelatan egongo zan atso sorgin batek entzun ori eta, arrats batez igurtzi da ugenduz zearo, eta esan du, “Laiño guztien gaiñetik eta sasi guztien azpitik”, eta erratza ankar-tean artu eta abiatu da. Ke-zuloan gora irten eta sartu da sasi artean...

Gau guztian sasipean ibili ondoren etxeratu omen zan atsoa, dana erabat urratuta. Oker esan bait zuan. “Laiño guztien azpitik” esan bearrean, “laiño guztien gaiñetik eta sasi guztien azpitik”.

Zuazketako Juan Antonek, leenago aipatuak, gu gaztetxo giñala esan oi zizkigun egundoko sorgin-kontuak.

–Aizu, Juan Anton, zuk ikusten al dituzu sorgiñak?

–Ikusiko ez dizkiat, ba? Astazuloko zubipean aritzen dituk gauez ota-jotzen, lixiba-jotzen, ukenduak egiten. Errezoak eta dantzak ere egiten dizkitek.

Gu sorgin-pestak ziralakoan egoten giñan.

Antziña, bikariuak ere antzekoa esan omen zuan kurpittotik, zorrotz esan ere, sorginkerietan eta aztikerietan sinisten zuanak etzeukala salbaziorik. Sorgiñik etzala, sorgiñak zirala zorra egin eta ordaintzen etzutenak. Oiek zirala zor egiñak, ez sorgiñak. Oso gogor eta asarre egin ere sermoia.

Kantzelean entzuten zeuden mutillak:

–Zer esan dik orrek? Sorgiñik ez dala? Ez dik esango berriz; igarri bear zio, arraiok ezpaittu. Probatu eraziko zioagu bada sorgiñik dan ala ez dan. Amorratuk ez baittu, larri ibili bear dik.

Arrats batez arrapatu dute mutil talde batek bikario jaun ori. Sasoiko mutillak zer asma, indarra eta gaiztakerirako gogo. Artu dute bizkarrean, laukoan, tximistak arturik ton-torrik tontor. Bruxaz estali aurpegiak eta iñun diran otaki, sarde, sardango eta erratzez bazter guztiak txikitu bearrean, oiuka eta irrintzika:

–Ez gerala baiña bagaittuk, zazpi milla eta bosteun emen gaittuk...

Egunduko brinkoak egiñaz soro, erreka eta langak airean pasatuaz; Mutxategitik barrena leer egiteraiño ibili ondoren, utzi zuten apaiz nagusia atariko ateari lotuta. Aren larriak, bada.

–Ez gerala baiña bagaittuk, zazpi milla eta bosteun emen gaittuk –oiukatuz ibili eta gero, naiko mazpilduta gelditu omen zan.

–Esatea zeukak berriz! –mutilak pestan.

Astea makal xamar igaro ondoren, igandean berriro meze-tan apaizak:

–Bai, kristauok, joan zan igandean sorgiñik etzala esan nuan. Esan banuan, esan nuan, gorriak erakutsi dizkida-te leengo arratsean. Murumenditik, Akelarren barrena ibilli naute gau osoan aldean artuta. Leer egiteraiño ibili ere.

Mutillak kantzelian parrez:

–Ez dik gaur ez diranik esango.

Eta apaizak sermoian:

–Bada, nik diot gaur emen, Jainkoaren aurrean: Sorgiñak badira, eta asko gaiñera. Asko, millaka...


Eta andrezkoak:

–Jesus, zer esaten ari da ori?

Eta apaizak:

–Eta ondo janak gaiñera sorgiñak, indartsuak. Illunpixta¹¹ ezkeru ez zaitez tela etxetik irten...

Bikario jaunak ez omen zuan geiago sorgiñik aipatu.



Bikario Txikiri omenaldia. Maria Dolores, Atxukarro eta Baserri

¹¹ Illunpixta, illunabarra, illunsentia.

Santu ipuia

Bazan agure bat oso elizkoia etzana, eta apaizak zion:

–Zu etzaittu elizak azpian arrapatuko!

–Iruditzen al zaizu?

–Etzera zu bereala santu egingo.

–Santu? Ezta nai ere.

–Zer bada?

–Elizako paretan zintzilik egoteko? Danak eske, eta ezer ez emateko; atzera ezin egin, aurrera begiratu eta salto ika-ragarria... Otza bada edo beroa bada, antxe egon bear. Mixeri aundiagorik zer nai dezu?

Eztaia-Añoi

Añoi baserriko amandrearekin ez naiz ainbat gogoratzen, il berria edo... Baiña bai oroitzen naizela bertako aittajaunarekin. Ezur zabala zan, gorputz izugarri aundia, euskal-gizona, basajauna. Ura zan gizon atsegiña, uraxe biotz biguiñeko aitona.

Auxe det begi-buruetan ezarria:

Egun batean eraman ninduan karobi zaarrera. Antxe, arantza-torto baten ertzean, mokoia xabal-xabalik zuala zegoen kukukumea, txantxangorriaren kabitxoan kabitua eziñik.

Guztiok dakizute, noski, kukuak ez duala kabirik egiten, baizik martxoan etortzen danean txantxangorriaren kabira zuzentzen dala; onen arrautzatxoak jan eta kukuak arrautza bat jartzen du. Txori papargorri, zintzo eta ongille orrek berotzen du arrautza ori, eta jaiotzen da umetxo berria. Txori sortu berria aundia danez, txantxangorri gaixoak ibili oi du lanik asko kukukume au azten.

Añoi zaarrak sukaldeko leioan alea ipintzen zion, txoritxo onek kuku berria lasaiago azi zezan.

Kuku alperra, esan oi da, eta izan ere alaxe da. Baiña ain zaigu alai eta atsegingarri kukua... Kuku, kuku, doiñu ots polita, udaberriko poza. Beraz, guztia barkatzen diogu kukuari. Baita ere esker ona agertu txantxangorri maiteari.

Aspaldi erakutsi ziguten etzala txori ori arrika ibiltzekoa. Gaur egun, gaztetxoak tiragoma eta arriaz, eta gizonak berak ere tiroz bota oi du goian arrasto gabe banatuaz. Ori da axiua, ori! Nun ote da gizatasuna? Orrelakoxeak gera.

Añoi baserri ortan ere oso zuten etxeko gure ama. Gogoan det ondo nolako arreo ederra tajutu zuan, oker ez banago Berriki deritzan baseritik Añoira andre gazte berria bear ziran

gauza guztiekin sartu zedin. Brijida zala esango nuke erraiña, errain berri ori. Andre bedeinkatua.

Arreo-gurdi apaiña osatu zuten. Ainbeste izara, maindira, oazal, buruko, oegaiñeko lits txintxilikariodunak, musu-oialak, atorrak, elizakoetarako oiala, ofrenda-zapi, manta bero-garri, artillezko etzauntza bigungarri... Ori guztia, oe, armario eta bear diran tramankulu gaiñean antolatuta, galartzu-zinta urdin eta parpailla zuriz apaindua. Guztien gain, goru-ardatza, oi zan bezela, eta Ama Birjiñaren irudi bat larrosaz josita.

Oso goiz egiten ziran elizako ezkontza-lanak.

Gero bidean soiñu eta pandero, suziri eta tiro... Ateero ardo aundia galletakin eman oi zitzaien eztaizale guztieri. Erromeri polita oi zan oso, itzez esan ezin ditekeenatakoa.

Erri guztia naasten zan eztaizale oietan: sendiko, auzoko, aide, leengusu edo izter-leengusu, lagun edo adiskide, eta ikusmirara bilduak. Danak izan oi ziran eztaizale erdikide. Danon pesta oi zan eztaia.

Berrikin, au da, andre berriaren etxean, gosari galanta. Eguerdi aldera irtengo ziran oiuka, soiñu, irrintzi, salto eta dantza, gizon berriaren etxera. Bidean, Otegitxon, arrantxoak. Nagusiak etxaburuan armaz, dun, dun!, tiro bi gora. Firin-forun, aurrera.

Izagirre-saletxen Dominikak, amaihetakoa.

–Tira, artu, ezkonberriak zorionduaz. Artu...

Etxeko nagusi Danielek, dun, dun!, tiroak.

Or dator atzetik gurdi apaiña, riin riiinn, negarti. Ardatzak irrintzi berezia atera bear zuan. Idiak, gaiñeko manta barratsu eta borla gorridun kopetakoz dotoretuak, lepoa bete zintzarri txilin-txilinka zituztela

Etxean ilko ziran txekor, ardi, zikiro, txerri eta oillo. Egunetan ganbara bete eztaizale jan-edanean lasai. Kutxa-

gaiñean, soiñu-joleak. Abe-gaiñetan igota mutillak bertsoan. Emakumeak ere ez daude geldirik egoteko. Zeiñek eutsi! Nolako dantza-saioak! Zaar aurkiak pattar puxka bat edan eta marmar batean, erdi-kantu, oiur eta lokuluxka...

–Bota zan, bota txuritik mama goxua!

Arreoa eta jendea mandioko atetik sartuko ziran; ezkonberriak, berriz, atariko atetik. Agurtuko zuten alkar etxe-koandre biak. Eta mantal-muturrari elduaz:

–Emen al zerate? Ongi etorri, ongi etorri. Pasa, pasa sukaldera.

Amari eskeiñiko zion ator berria, aitari alkandora edo zer-bait berria; guztiak eunezkoak, eskuz egiñak.

Arta-ganbaran arreo-gurdia sartzen zanean, arreoa antolatatu zuan jostunak deadar egingo zuan, banan-banan erakutsiaz:

–Ona emen amar izara. Orra zortzi oazal. Ara emen amar buruko luze eta sei motz; orra sei oe-gaiñeko, amabi esku-oiak, zortzi eskuzatar, eliz-zapi, galtzerdi, abarka, buruko eta lepoko. Onatx oiak, ara amario, kutxa eta laia bi. Esku-utsik ez datorrela esan genezake etxeko abe berria. Ara emen toxa ere, urre bi eta lau zillar...

Danak txaloka.

Gero azi xamartu nintzan garaian Errezillen ezagutu nituan beste ezta batzuk. Iru eguneko jan-edan eta pesta eten-gabekoa.

Loita-azpi baserrian ospatu zituzten ezta oiek. Muingo Manuela neska berdingabe ura Loita-azpira etorri edo ezkondu zanezkoak, alegia.

Jostundegitik oso ezaguna bait genduan neskatx etxekoi ura.

Arbi-soroan barrena, dantza-soka luzea, oiulariak irrintziz zirala. Tobera-joleak ere arratsean mandioko ateetan,

din-dilin, galartzu-zinta apaiñez dotoretuta jardun oi ziran palanka eta arrobietako burni-ziriz soiñu mota, ezkil antzera, tobera deritzan doiñua jotzen. Urdalleta eta Idoiagan barrera arreo-gurdia negarti, eztaizalez inguratuta. Dultziña, soiñu eta pandero-jole. Ura pesta.

Etzan ezkondu ondoren bazterrik bazter joan bearrik; dana etxean, eta kitto.

Geroztik Errezillen azkenengo eztaiak Lizarreta baserrian ospatuko zituzten, aita Zabala praillearen jaiotetxean.

Otegitxon

Otegitxo baserria genduan geiena izaten giñan etxea. An ere gure kirako ume asko, eta ondo konpondu oi giñan; senideak ez giñanik ezin esan.

Lagunik maiteena Eujenio nuan, gaur aita Agirretxe prantziskotarra¹², sermoilari bikain eta gartsua dan orixe berbera. Ganbarako arta-korda zintzilikatu astun aien artean amaika jolas kiriketetan eta arrapaketan egiñak gera. Gaur ere ez daukagu alkar saltzeko. Nere gaixoaldian etorri zitzaidan Eujenio txikitako jolasak aipatuaz poza eskeintzera.

Ama Joxepa, berriz, biozbera utsa zan, xamurra benetan. Amaika lukainka-mutur eta talo jandakoak gera sukalde epel artantxe.

Gure ama eta Eujeniorena bat ziran. Negar ere biak batera egin oi zuten, bearrak eraginda, noski.

Bein txori-izugarria¹³ egin genduan aitonaren galtza eta alkandora zaarrak lastoz eta belarrez beteaz. Burua eltze gorriaz egin genduan, lasto-txapela lotuaz.

Egiten ari giñala ere parrez, eta geroz parregarriago gertatu giñan. Txoriak alkandora-kolkuan kabia egin zuan. Artaxori moko-motz lotsagabe oietako bat zala esango nuke.

Gari-soroa zaitzeko jarri izugarria eta bertatik naikoa jan zuten. Esaera zaarrak egia diola dirudi:

Katua, baratz zaitua.

Txori-izugarri, soro galgarri.

12 1920an Errezilen jaio, eta 2005ean Bermeon hila.

13 Txorimaloa

San Jose bezpera

–Tira, jaiki zaitezte, Arabe aldeko San Jose apaindu bear degu-ta...

Gure poza ain maitea genduan txabola artako santu begibizi ura apaintzeko. Ala, joan San Josea eta ipiñi genion ostro eta lorez egindako koroa; kandela-muturra ere bai, esker onez piztuta.

San Jose eguna.

Meza nagusia eta bazkari polita. Etzan arkume-tortolararik apartatzen lanik izan gure etxean, baiña aia egin zigun amak, eta bapo.

Biaramonez, egunero bezela, don Pernando apaizak zeuzkan txerri koxkor bi zaintzera joan nintzan.

San Jose deritzan estalpera bidean Belamendiko morroi Laureanok zerrama aundi bat amairu txerrikume inguruan zituala, eta nik topo egin genduan geren txerriekin. Zerrama zaarra asarretu da erabat nere txerritxoekin. Burrukaldian bota ditu nere txerriak Arabeko soro-goenean dagon ormatik beera.

Bazan kurrintza otsa! Izan ere, batek iztarra autsi zuan zalapartaka ortan. Bizkarrean eraman bear izan nuan Belamendiraiño.

Zuazketako Juan Anton petrikilloa antxe egokitu zan, eta egur eta zatarrez izterra lotu zion. Egurra urdaiz gaitz-osatu nunbait eta urdaiazpikoan egur pusketa azaldu zan gero. Urdaiazpiko giarratsua!

Il-jantziak

Orratx prankotan bezela, danga-danga, il-ezkillia, agoni-kanpaia. Nor ote da? Zeruan gerta dedin Aitagurea erri osoan. Laster ziran ate-joka gizon bi.

–Gabon, Edubijix. Urdailleta-saletxeko aittona il da. Gorputza jaztera joango baziñake...

–Bai, berealaxe naiz zuekin.

An joango zan gure ama, gu bakar-bakarrrik etxean utzita. Goizaldera azalduko zan, otzez. Guk oean gurekin sartzerik ez genduan nai, gaitza erantsiko zigun bildurrez. Petroleoz igurtzi bere esku eta gorputzik geiena eta oeratuko zan gure ama, buru-ukazale sufritu ura.

Errezillen etxe, baserri edo basetxerik bai ote da gure ama zerbaitetara iritsi edo sartu etzanik? Joskintza, konponketa edo pasaraketa ez bazan, babarrun-biltzea izango zan. Gai-xoa nun, Edubijix an. Aurgintza, eta sendagillea errian ez, eta gure ama. Tisiko zegola edo minbizia zeukala, ordubiko bidean joan bear bazan ere an joango zan. Zauria garbitu eta kura egin, illea moztu eta iñoiz zorriak kendu ere.

Iltzen ziran aingerutxoak jantzi eta apaintzen zan aparta. Gazte eta zaar, bakoitzari zegokian eran, txukun bizarra kendu edo apainduta zerura bidean jarriko zuan.

Nik uste det bere urkoari lagundu bear orrek amari bere negar eta premi aundiak aaztu arazi egiten zizkiola.

Gazume aldeko minak

Ernio alboko Gazume egalean baziran meatz edo minazuloak.

Etxe kaskar batean bizi ziran Frantziatik etorritako sendi bi. Minako Bizar-aundi eta Atso-aundi deitzen zitzaienak bitzita batean. Minako Atso-txiki eta Martzel, bestean.

Zulo oietan edo saletxean iltzen bazan langile gizajoren bat, artu aita zanaren jantziak eta ama an izango zan. Txukundu eta jantziko zuan. Gaixorik bazan ere, berdin.

Geurok izan erriko beartsuenak, eta urkoari lagundu gabeko onik ez.



Armendiko aittona Pipi

Eskolan eta akolito

Koxkortzen ari giñan bezela eskolara ere asi bearra zegon. Au lana, gogorik ez! Izan ere, beti amaren ondoren, berari itsatsita oituak.

Maixua bibotedun bat, erdelduna eta gaiñera kaskarrak ondo berotzen zekiana. Zeiñek eraman ni ara! Aiek marruak, malko eta mukiak legortu eziñik. Noizbait oitu nintzan, Xebaxtian, Xixilio eta Pelaiorekin batean.

Zer ikasiko genduan ba? Batetik burugogorrak, bestetik maixu belarri-motxa. Alako komeririk... Esaten bazigun “Venga aquí”, gu aruntz; “Vaya a su sitio” esaten zigunean, gu atera joaten giñan. Ezer ezin ulertu eta ezin ezer asmatu.

–A ver la tabla –eta danok batera istillu batean: –Dos por dos, ocho; cinco por cinco, veinte...

Zuzen ezer ere ez. Ta, ta!, makillaz maia.

–A ver, Sebastián Azurmendi, ¿cinco por cinco?

–Veinticinco.

–Bien. Rafael Cincunegui, ¿seis por seis?

–Cuarenta y dos.

–Bien.

Auek aundi xamarak ziran.

–A ver, Rufino, ¿seis y seis?

–Dieciocho.

–Idiota –eta kaska buruan–. Doce!

–Iriota esan ziok...

Gure ardailla.

–Silencio!

–Ixillenzio esan dik.

Amorra arazten genion eta gero kaskarrekoak. Gu erru-karri: Euskeraz egiterik ez eta erderaz jakin ez. Ez ote zan guretzat Euskalerrian euskeraz zekian maixurik?

Azkenean berak euskera lardaskatzen ikasi zuan; guk, ez erdera eta ez eskola. Egur-astinketaren ondorioak ondo eza-gutzen giñuzen.

Meza laguntzen asteko introitoak amak erakutsi zizkidan. Eskolarik ezin kaskarrean sartu eta latinezko itzak ikasi bear. Bai ikasi ere, amak euskeraz lagunduaz ordea.

–Ori ez dek orrela: Ad Deum qui laetificat juventutem meam.

Etzegon makillaz kaskarra berotu bearrik, idiota! esanaz bildurtuta ibili bearrik ere. Ikasi nuan meza laguntzen. Gaiñera, nerez zetorkidan elizarako gogo sutua, eskolarako gogo izpirik ez nuan bezelaxe. Elizarako, kanturako eta solfeoa ikasteko gogo izugarria sortzen zitzaidan. Orrela asi nintzan bikario jaunari meza laguntzen, txintxo. Bearko xuxen eta garbi ibili arekin. Gutxienez zazpi urtean bere akolito izan nintzan. Iru txakur txikitik asi eta erreal bateraiño izan nuan eguneroko meza laguntze-saria. Ala ere txanponak gordetzen nituan amak xentimorik etzuan garai edo uneetan azaltzeko.

Min aundia eman oi zidan Etxeaundiko Joxepa Antonirengana ontza bi kape eta laurden bat azukreren billa bidaltzen ninduanean urrengoan ordaintzekotan; lotsa ematen bait zidan orretzek. Eta esango nion amari:

–Nik badauzkat txanponak, ama.

–Gizajo! –esanaz estutuko ninduan bular gaiñean.

Orrela ikasi genduan zintzoak eta gauza gutxirekin aberats izaten.

Tiple ere berealaxe asi nintzan, Perossiren meza aundietan bakar-abesti edo soloak kantatzen. Abots polita neukala zioten, indar gutxikoa bazan ere.

Bikario txikia

Don Inazio bikario jaunak astegunetan bere etxera eramaten ninduan, berarekin bazkaltzera. Jai eta igandetan etxera joaten nintzan.

Bikario txikii esaten zioten. Oso edeslari piña zan. Gauza guztiak tente, garbi eta egoki gustatzen zitzaizkion... Elizako gauzetan berari eramango zion elizgizonik etzan egongo. Asko esatea izango da, baiña ezta Erroman bertan ere.

Txorrotxegia zala esaten zan. Ori baliteke; ortarako, ordea, bera zan bere buruarekin zuzena eta txorrotxa; eta bes-teekin izateko eskubidea zeukan. Bearra ere bai askotan, eta dana dala...

Nere aitaordeko izan zan. Kanturakoan beti poltsikotik atera eta azukre-koxkorra emango zidan, zaldunak bere zaldiari bezelaxe. Belarriak biurritu eta atximurkada zitalak egiten ere etzan amutsa. Akats aundirik gabeko gurasoak estutzen ere bazekian.

Bazkalaurreko nere lana, bikarioarenean, auxe zan: maia ipiñi txukun, iturritik ur preskua ekarri, amabietan puntuan atariko atea itxi. Jaterakoan eta jan ondoren zutik jarrita egingo zan otoitza.

Sermoi zorrotzegiak egingo zituan, agian, ori bai. Liburu txarrak, zineak eta Iñauteri pekatuzkoak astintzen zituan.

Zinea zer zan ez genekigun, liburu txarrik ez genduan ezagutzen.

Bein, komeriante titiritero oietakoak etorri ziran. Kontsejupean egin zuten puntzioa. Antxe ikusi genduan leenengo zinea. Orman jarri zuten zapi zuri bat, eta kataleju bezelako zulo batetik otsa zeriola irtetzen zan argi-erraiñu luze bat. Zapi ortan irudiak ibilli egiten ziran. Jesusss, alakorik ikusi!

Sorgiñak zirala ere esan zan; pekatu izango zala ere... Automobil muturluze bat zetorren onuntza; gure larriak! Leku egin genion trepetetzarrari. Kastordun gizon begi beltz bibotedun bat gaiñean zetorren, emakume lodi apaiña alboan zuala. Minako Atso-aundi zala, baietz eta ezetz. Aurreko bi kurpillak irten zitzaizkion eta ango zilipurdian atso ori ipurdiz gora gelditu zan, eta iztarra agertu. Ura zan ango pekatua.

Jendea gozatu zan ango xelebrequeriaz. Kastordun gizon anka-xabal bota aundi ura, bastoi edo makulua bueltaka zuala, kurpil billa. Gure parreak, bada. Gerora jantzi giñan Txarlot artista zelebrequera ura zala.

Aitortu ere egin genduan gero andre lumadunaren iztarra ikusi genduala.

Gaurko eguneko bizikera, azikera eta eziketarekin ez dago batere alderik...

Nik nere baitan gizon bi auek onela ikusten ditut:

Bikariua, bere jakintasun aundiz, Erromako Kontzilio-bileratan egon bearreko gizona; eta bere argitasun eta zuzentasunez zer esanik ez.

Txarlot, berriz, nere iritzi-botoz, santu egitea eskatuko nuke, munduari eskeiñi dizkion irripar eta alaitasun gozoagatik. Antxe, aldarean, bere bonbin, bastoi, bota baldar, erloju aundi eta bibotearekin. Orratx santu, Sante Txarles Txaplin.

Elizakoak

Iñor gaizkitzen zanean, kanpaia jo eta elizakoak eraman oi ziran, parola piztu eta txintzarriak joaz. Apaizak “sobrepeliz” txuria jantziko zuan Jauna eramateko.

Gaixoaren etxean auzoko andreak bilduko ziran argizariak piztuta eskuetan zituztela. Etxeetan leiotara argiak atera oi zituzten Jauna igarotzerakoan.

Eule Zaarra gaizkitu zan. Illuntze batez, ezkillia.

–Elizakoak nora ote dijoaz?

–Eule Zaarrarengana.

Sartu giñan gu ere ia oiaren azpiraiño. Ikusi egin bear naitanaiez dana. Eman zion Jauna bikarioak; bai artu ere aittona zaarrak, errezo-marmarrean artu ere.

–Pasa al da? –galdetu zion bikario jaunak.

–Baai, apenas traba aundirik billatu duan –erantzun zion Eule Zaarrak.

Gose antzean egon ura... Jendeak irripar egin zuan.

Beste bein Padreneko gure etxekoneko Martxeliña gaizkitu zan. Neskaxaar txiki bat zan, iñuxente xamarra. An ere ez giñan atzera gelditu.

Artu zuan Jauna Martxeliñak. Andik laster ateraldia:

–Andrea zer moduz? –galdetu zion apaizari, bikario txikiri alegia. Alako parrerik! Jesus, Jesussss...

Meliton eta emaztea

Sakristau xaarrak txurrut egin oi zuan, eta askotan okerreko kanpai-sokari eldu oi zion: Animena jo bearrean, egoni-kanpaia, danga danga...

–Zein ote da? Zeruan gerta dedin otoitza.

–Bai zera, Meliton koloka xamar ezpada...

–Aizu, animena da gaur –eta marmar.

Bein, gau-eskolaru kankailluak, askotan bezela, zirikatu zuten sakristau xaarra. Azkenik Sarako koskara igo eta burutik beera txixa egin zion mutillen batek, eta zirikaka inguruan zebillela, elizako ateko giltza aundiarekin jo bekaiñean eta zaurituta utzi zuan mutilla.

Sakristauak:

–Alu zikiña...

Ala ere seko bertan utzi etzuanean... Gero agertu edo jakin zan nor zegon kaskarrekoa sendatzen.

Andreari ere gogozko zitzaion salda beltza. Botilla illuna ustutze aldera asarretu oi ziran biak.

Guk ate-zirriztotik zelatatzen giñuzen, miau, miau!, egiñaz. Ark, xapi! eta aspo zaarrarekin kolpe. Ez dakit zeri.

Gu ate-zirriztotik berriz ere xixtaka eta miauka.

–Katu zikin auek!

Oso asarre zeuden bein, supazterrean, ia alkarri kopetak erantsian, aurrera-karga xamar. Gure pesta! Orrela xuxperetzen ziranean alkarrizketa zelebria egiten zuten. Gizonak andreari:

–I etorri itzanan gure etxera, zatar ori, bazter guztiak naastera!

Eta andreak:

–Aizak, erorri joan intzan nere billa, txatxu ori...

Aien marmarra!

Euleneko teillatutik pasatzen giñan sakristauneko teillatura eta ke-zulo tximitik beera elatzean egosten zeukaten esne-pertzera plist!, tipula koxkorrak sartzen giñuzen. Sor-giñak zebiltzala tximiniko zuloan esan oi zuten.



Etumetako Zaku baserria

Eliz-gríña

Solfeoa ikasten ere naiko komeri ibili oi genduan. Don Faustino Sarasola erriko sekretarioa genduan erakusle.

Noizko sartu gure kaskarrean nota mordo ura! Bateko “blanca”, besteko “negra”, “corchea” eta “semicorchea”, amai-ka belarrondoko artuak giñan. Illaran amalau mutiko, kon-pasa ere danok batera zuzen ezin eraman, eta irakaslea ain zan estua... Putreak aiñako atzaparrak zabaldu oi zituan, eta –Astaixpillu, buru-gogor arraioak–, esanaz leenengo zegon mutikoari eransten zion belarrondokoaz amalau buruak alkar joko zuten.

Zer zan ura alako gizona! Beti musikan eta entsaiotan. Izan ere mezarik ospetsuenak abestu oi ziran jaiegun aundietan.

Goenetxeko Juan Joxe, Donostiko Orfeoiko tenorrik onena zan garai aietan. Ura etortzen zanean erri guztia pozez joaten zan meza nagusia entzutera.

Belamendiko Joxe Migel zan bajuetan onena.

Eliz-kantuz eta musikaz poliki jantzi giñan, naiko aaztu bazaizkigu ere oraintxe.

Marrazki, dibujo eta pinturan nuan nere erreztasun guztia. Argizarizko irudiak ere poliki zuzentzen nituan; baina nun ikasi edo landurik ez genduan izan.

Agirretar Maria Dolores¹⁴, Errezilko alaba, Donostiko andereño-irakasle, antzerki-egille ospetsu eta gaur egun irrastian lan aundia egiten duan andere euskalzale orrek Donostira eraman nai izan ninduan, zerbait ikasiaz eta zer edo zertan lana egiñaz. Baiña ama eta ni etzegon banatzerik. Ura ni gabe ezin bizi eta ni amazulo utsa. Orra bertan okerra.

14 Errezil, 1903 – Donostia, 1997.

Andre orrixer zor diot ugari, bai orixe.

Don Migel Oa apaiza zegoen garai artan Errezillen koadjutore. Ura apaiza! Donostiarra berez; eta aretxek ikusten zidan zerbait, elizarako gaia ote neukan edo... Oso kuttuna ninduan. Lezio-erakusketa batzuk eman ondoren, Seminariako bidea neretzat zuzendu nai izan zuan. Baiña gure etxean erreal bat etzegen, eta arek alegiñak egin arren, guk, leen esan bezela, etxetik irtetzeko gogo gutxi. Apaiz piña uraxe. Eskerrak zor dizkiot berari.



Gurutz-bidea

Irure-aundin

Ikasle ona ez nintzan ezkeru, eskulan gogorrari eldu bear, gure aurrekoak bezelaxe.

Irure-aundiko sagastia patata egiteko luberri antolatzen izotza zotalpian sartuz jarduten nintzan bakar-bakarrik, on-deo-atxur orpo aundia jaso eziñik. Landu, karetu, simaurtu, naastu eta gozatu... Patata asko egin oi zan Irure-aundiko sailletan; bai artasoro bikaiña ere, artaburu galantak, zenbat babarrun-zaku...

Bai, ondo ikasia nintzan baratzako lan, artajorra eta abarretan. Ori dana gorputz-besoetan indarra egin baiño leenago.

Don Axintxio apaiza nuan nagusi. Gogor xamarra zan, mundukoa; bein ere ez asko edo geiegi egindakorik; gosegia zan. Azkenean ase gabe il zan beste asko bezelaxe, eta sasoirik onenean.

Bere izeba alargunduaren baserria eta bere lurrak erabiltzen giñuzen. Zaldia ere bazuan. Oillo-sail izugarria, usoak eta konejuak. Oiek danak nere kontura egoten ziran, eta naiko nekatua etxeratzen nintzan. Jan ondoegi egiten zan etxe artan. Izeba zaarrak oso maitea ninduan, eta asteko saria zillarretan eman oi zidan.

–Otsok, gizajo orri, zuen etxean ondo etorriko dituk-eta.
–Nere poza!

Etxe osoari anka-eskobillaz brillua ateratzen nion maki-llaz argizaritu ondoren. Lan neketsua ondo indartu gabeko mutikoarentzat.

Kutxetan eduki oi zituan arto-gariak, izebaren maizterrak ekarrita. Naiko garia zabaltzen nien oilloei atarian, puuurra! esanez, palaz kutxatik artuta.

Arrautzak bein Tolosako azokan dozenak bost pezeta egin omen zuan. Jesus, ura zan mauka! Garesti oso. Gustora etorriak ziran saltzailleak.

Gelatan banaturik sagar pilla izugarriak zeuden. Aldika ustelak kendu eta lekuz aldatzen jarduten nintzan. San Juanetan Errezil-sagarren billa etorri oi ziran, eta Irure-aundin bazeuden orduan ere.

Lehenengo jaunartzea eta arrebak

Nere aurreko arreba Maria Rita Belamendin zegon baserri-lanetan lagundu eta umeak zainduaz.

Bi arreba zaarrenak, Martxeliña eta Anita, Tolosan; Jose Caballero jaunaren etxean zemazkiten urteak. Etxepe artan bertan, azpiko bizitzan Urkiolatarrak bizi ziran, eta aruntzako bidea eman zioten Maria Ritari, ume-zaintzarako.

Onek ere erderaz tutik ez. Badijoa Tolosako kalean barrena umea kotxean duala, eta bi neska gaztek, urbilduaz:

–Oi, ¡qué criatura más hermosa! –edo esanaz galdetzen diote Belamenditik jatsitako neskari:

–Es nena?

Eta onek:

–Kee? Nena, no; neno –mutilla zala, alegia.

Zer parreak gero.

Arrebatxo au nere aldean ausarta zan; elduko zion sugedorriari ere. Ni bildurtiagoa izan naiz beti, eta txikitik izandako kutsu arek ez du zearo uzten.

Komunio txikia eta aundia, edo leenengoa eta nagusia oi ziran (leenengoa sei urterekin, eta nagusia amabi urte inguruan). Dotriña trenaren martxan ikasi ondoren, amak ontza bana txokolate sartu oi zizkigun poltsikoan, jaunartze-ondoren jateko. Baiña zein egoten zan ikutu eta beatza zupatu gabe?

Gure nexka onek, Maria Ritak alegia, ez du, ba, dana jan-marraskatu, ezpain bazterrak dana txokolate-pitsaz zikinduaz? Jauna artzeko garaia eldu zan eta aurpegi zikin arekin ikusi zutenean ziran istilluak!

–Ezin al intzanan egon Jauna artu arte, matraka ori?

Ala gertatu zan egun artan komunio txikia egin gabe; etxean amak jipondu ere. Orra gure egun alaia ondatu.

Beti gozo jateko amorratzen egoten giñan biok. Atez-ate joango giñan enkargurik bai ote zegon edo. Goxo gabe ezin etsi. Somatu du gezurra eta...

–Aimaria!

–Zer da?

–Zea, Txikito Iñaxio il dala...

–Jesus! Torizue paxientxi batzuk.

–Aufi! Aurrera...

Etxeberrira eldu eta:

–Aimaria.

–Zer nai dezute?

–Txikito Iñaxio il dala.

–Ene, Maria eta Jose! Emen pikuak...

Ondo zijoan negozioa. Borondegira:

–Aimaria purixima! Txikito Iñaxio il dala...

Eta Leandrak:

–Noiz il den ba, oraintxe uanan emen pattarra edatenda?

Agur. Agoni-ezkil otsik ez. Eta or dator Txikito Iñaxio atxurra bizkarrean duala, bide zaarrean gora. Zulo-egillea zan bera.

–Il dala eta, ara or nun datorren...

Jakin zan gezurra banatu genduala, eta atzealdea berotu zigun ederki gure amak, neri gutxiago, baiña.

Txerri-odolkiak partitzen ere ibilli oi giñan, auzoan umerik etzeukaten sendietan. Otarratxoan ipiñiko zituzten aza-ostro biren erdian odolki, urdai eta xolomo pusketak.

–Aimaria. Txerri-pusketak probatzeko; gutxi dala, baina ez uzteko...

–Pasa, pasa.

Ardo goxoa, gailletak eta gaiñera txanponak.

Atez-ate txerri-pusketak eramatean ondotxo artzen ginduzten etxekoandre biotz zabal aiek.

Txerri-kurrintza ia goizero oi zan neguan. Eta ez giñan urruti izango zerri aundia erretzerako. Kenduko zizkioten, oitura zan bezela, azkazalak zerriari eta guk jaso; serora zaarri eramaten genizkion. Onek elizan sepulturetan zeuden kandelak itzaltzeko ibilli oi zituan txerri-azkazalak.

Eguberritan Iñuxente eguna etortzeko pozez egoten giñan, alkarri iñuxente eragiteko. Norbaiti atzean zintzilikatzeke bilduko genduan zerbait. Ura pesta!

Kamiñeruaneko Petra xaarrari xagua ipiñi genion bein to-killita muturrean zintzilik orratzarekin. Sartu zan elizan eta jendea parrez; gu zelatan. Norbaitek esan zion xagua zeukala bizkarrean, eta amaaa!, esanaz asten da saltoka izututa. Eskandalo ederra jarri genduan elizan.

Pentsatu du gure arreba matraka orrek gozoak jateko era. Ekarri ditu aza-ostro bi baratztatik, sartu ditu alpargata zar batean bilduta, eta egin pardela. Iñuxente goizez, ogeita zortzian alegia, sartu kanpaxo xaarrean eta or goaz biok beti bezela alkarri eskutik elduta Etxeaundira:

–Aimaria.

–Zer dezute? –eskil goenetik Joxepa Antonik.

–Txerri txikiaren odolkiak ditugula...

–Atozte, atozte gora...

Ardo aundia eta bixkotxoak atera orduko, artu danak eta “Iñuxente, iñuxente!”, esanaz or goaz igesi.

–Ume demontreok! Gaur izan ere iñuxente eguna...

Xantiñean

Xanti sakristau zaarraren semea, eta au ere sakristau, gaiñera txistulari, ille eta bizar-kentzaillea zan.

Bizartegi ortan jardun bearra izan nuan neuk ere, bizar-beratzen eta abar, txanponen batzuen truke, bere seme Roman soldaduzkan egon zan bitartean. Onek ere aitaren oitura eta laneri jator jarraitu zien gero.

Ari naiz Xanti onekin zerbait ikasten, eta sartzan da egun batez Garratz zeritzan Santos indartsua, beti bezela ia illabete inguruko bizar zikiñaz. Zeiñek busti ura, zeñiek beratu! Aparra gorri-gorri zikin-kolorez egin eta onela zion:

–Saka, motell, saka! Busti eta beratu...

Leenengo bizar-labanaren arrastadea edo ebakia bere aurpegian egin nuan egun artantxe.

Garratza au, erronka-apustulari xamarra zan; Sansonek ainbat indar zakar ere ortxe-ortxe izango zuan. Borrokaldi batzuk ere... Baiña biotz oneko, alai eta umoretsua zan. Odol-joeraren batek emanda edo gaizkigu zan.

Urteak ere aurrera zijoazkion eta estu gizona. Iritsi da apaiza, eta bere aitortza egin ondoren, apaizak esan izango dio:

–Apustu-lagun gorrotatu oieri deneri barkatzen al diezu, Santos?

Eta Garratzak:

–Barkatu? Bereala il bear baldin badet bai, baiña bestela ez.

Nolanai ere etzien barkatu izango, gaizkialdi artan ez bait zan il. Geroagoko berririk ez dakigu.

Kabadas

Errezilko elizan Ostegun Santurako jarri oi dan aldare berezia ez da nolanaikoa: zurez antolatua, baiña lientzo edo oial margotuz estalia. Azken-apariko zati bat goi-goian du, oso egoki egiña. Gotiko itxuran margotua da, zeru urdin eta aingeruz an jasotzen dan oialezko aldare eder ori.

Alejandro Kabadas balladoliztarrak egiña da. Ura egiten ari zala, margolari jaun orren ondotik ez nuan aldegingo iñola ere; etzan jolasik nere begiak andik kenduko zituanik. Zer ote da bati berez datorkion adur berezi ori?

Gauzak ara nola izaten diran. Andik ogei urtera, ustez ustekabe alkarrekin lanean gertatu giñan. Ogi-billa lanean Donostian ari baigiñan biok, Prim kaleko *Iraola eta Berroia* izeneko margo edo pintura-lantokian.

Izketatu giñan, edo nere erdera lardatsez errezildarra nintzala adierazi nion. Bera ere Errezillen aspalditxo lanean jarduna zala esan zidan. Bai ni ere laster oartu Ostegun Santu egunerako ipintzen dan oial aundi aren margotzaillea zala. Nere txikitako berari begiratu bearra adierazi nion. Geroztik alkarrekin lan asko egin genduan elizetan eta abar. Bestela ez det uste elizara joaten zanik, baiña begirune aundia zion Jainkoaren etxeari. Birao bat beiñere ez nion entzun margolari jator atsegin ari.

Puzkarrak su

Kontu zaarrak esaten asten ziranean, tertulietan, istori edo kondaira pranko esan oi zuten Maria aundi, Petra eta Joxepa Ontxakok. Azkeneko au sukaldari ona zan oso. Martopillak, eztai-bazkari eta abar prantatzen ibilli oi zan. Janari sendo eta goxuak jarri oi zituan Joxepa Ontxakok. Josten ere iaioa zan, artu galtzarpean eskuz eragiten zitzaion makinatxoia eta etxerik-etxe joango zan; oso andre moztaka bizkorra.

Bein baiño geiagotan entzun nien auxe: Arkaitzaundi sagardotegia omen zan gaur ogitegia dagon etxe eder orren orroietan, Errezillen alegia. Sagardotegi ontan ez dakit zein gizon potroillok apustu egin omen zuan, alegia, ark botatzen zuan puzkarrak su egin baietz.

Bildu omen zan izugarritzko jendetza illuntze batez. Zurruero galanta izan bear zuan agure ura, edan ditu nunbait ixpiritu utsezko edariak, zilbor aundia bete du pattarrez, eta pillatu ditu aize guztiak barruan. Iritsi omen zan ordua, eta danak su ori ikusteko zai. Alako zirkurik!

Igo omen zan mai baten gaiñera agure ori, ipurdia luzatu kandela piztuaren parera eta jaregin dio izugarritzko aize-laiñoari, egundoko puzkar luzea egiñaz. Eta bai kandelak su artu eta bizkarrean gora urdin-urdin sua joan ere. Ango txalo, oiua eta parreak!

Jende guztia arriturik gelditu omen zan. Gure amak ere ikusi zuala esan oi zuan. Errezilko zaarrak ez dizute ori gezurra danik esango. Eta nik ere sinistekoa dala esango nuke. Ixpirituak su artu bear.

Eskerrak etzan leenago leertu agure ura, bestela esku-bonbak baiño oker aundiagoak egingo zituan.

Neskatx illa

Beste askoren artean au ere esaten zuten ba.

Ez dakit nungo neska bat gazterik il omen zan. Il-kutxa edo kaja zurian, Mariaren Alaba zala eta, zinta urdiñez orniturik gorputza agirian, au da, kaja estali gabe omen zekarkiten mutillak beren sorbaldetan. Apaiza aurretik, akolito laguntzaillea gurutzea eskuan artuta alboan zuala; sendi eta auzotarrak atzetik or datoz sagastian barrena.

Sagar-adar batek eltzen dio gerrian zeraman zinta urdiñetik eta adarrean txintxilika gelditu omen zitzaien neska ori. An omen ziran istilluak. Apaizak laster jaso omen zituan anak; bai akolitoak ere, gurutzea eta ixipua galduta.

Mutillak ere kaja utsa lurreratu eta igesi. Atzetik zetortzenak, zalaparta artan batzuk zauritu, beste batzuk mintxuria egin eta zerraldo. Neskatxa piztu zala eta iñork ez omen zuan inguratu nai.

Gure belarri txikiak erne, eta ametsa pranko egiñaz egoten giñan, gauetan piztutakoa ikusiz.

Argindarra

Neguko illuntze luzeetan erdi illunpetan pozik egon oi giñan sutondoan gure amaren ipui egokiak entzuten.

Petroleo kinkatxoa ezagutu genduan leenengo; gero jarri ziguten argindarrezko bonbilla koxkorra, ari bakarra biurtu eta barruan zuan ipurtargia.

Baiña argi izugarria iruditzen zitzaigun sorgin-argi ura. Gure etxerako apainduri aunditxoa zala eta jarri nai ezta ibilli zan gure ama. Ez argi mardulagorik ikusi gabe zegolako, ez. Paris aldean izango ziran bonbilla gizentxeagoak gure sukalde-erdian txintxilika zegona baiño. Argitsuagorik izango zan.

Belamendiko turbinatik zetorkion indarra. Soro-lanetan eta abar ordaintzen genduen gure etxeko ipurtargia.

Azken-azkena Altamiran jarri zuten elektrika-argia. Zaararak ez omen zuten nai, tximista erakartzen zuala eta, etxea kixkalduko zitzaiea eta...

Orregatik ere noizbait ipiñi zuten eta amandreak beko-kian eskua jarri eta itzala egiñaz begiratzen omen zion argi-bonbilla orri. Onezkoa zanik ere...

Askaurreko majera-zulotatik lepoa atera eta orroi egiten omen zioten beiak argiari.

Okerrak ere gertatu oi ziran indar onekin, bai. Ikuillatxurraz jo zuala eta txispa gaiztoa egin, eta ankaz gora; lasto-alanbrea erantsi luzatzeko eta dirdiri txarrak jo eta seko gel-ditu, eta...

Oso gogoan daukat Alkizako elizan gertatua. Meza berria zuten gaiñean. Garai aietan meza berria gertaera aundia oi zan. Elizkizun ortarako apainketan argia jartzen ari zirala, indarraren zartaldiaz norbait il omen zan. Ez dakit sakris-taua bazan ere.

Etxeak ia urtero erre oi ziran. Itukiña, aizea edo tximista zala eta berealaxe su-sagarra. 1920 aldean ipintzen asi ziran Bergman deritzan ari-estalki ura.



Artzai-mutila. 1944. (Pascual Marin)

Bildain – Landarrain – Mendiola

Bildain baserri zabala. Iñoiz iñoizka joan oi giñan soro-zelai eder oietara; babarrun-leka bikaiñik bildu ere.

Nere amaponteko Maria baserri ontakoa zan.

Bildaiñen jaioa zan Domingo Ibañez Erkizia ere, 1591garren urtean. Donostiko San Telmon sartu zan erlijioso dominikotarretara. Gero, Felipinas ugarteetan urte askoan mihiolari ibilli ondoren Japona joan zan. Lurralde aietan beste lagun askorekin batean Kristoren alde bizia eman zuan. Kristo ez ukatzearren, olio irakiñetan buruz beera pixkana-pixkana erreaz sartu zuten eta onela martiri egin zan. Bera doatsu aitortua dago gaur. Aspalditik genduan Zoriontsu Domingo Erkizia.

Bera Zoriontsu aipatu zan egun ortan jaialdi izugarria egin zan Errezillen gure mutiko-garaian; egun ortarako bere izenean ereserki ederra sortu zuan don Juan Maria Ugarte musikagille ixil eta pin arek, apaiza bera.

Gogoan daukat baserri au erre zala ere, eta bertan zegon Domingo Erkiziaren irudiz margotutako koadro aundi ura ere erre egin zan.

Gaur Bildain berria daukagu. Ortxe bizi da bere sendiarekin aizkolari ospetsu Arria bigarrena.

Landarrain errotara ere iritsi izan giñan. An bazan zuaitz izugarria. Intxaur mardulagorik... Lau metro pasatxo iritsi zuan bere gerriak. Intxaur ikusgarria. Bere besoak bidea eta erreka pasa eta soroan aurrera sartzen ziran. Zer zan ura!

Egurzaleren batzuk edo, gauez daatuluaz zulatu zuten, txirbillean nolako gaia barruan ote zeukan ikustearren. Gero, etxeoak, aizeak puskatu edo etxearen gaiñera itzuli etzedin, saldu egin zuten. Diruak egin zituan, ziotenez.

Mendiola Azpikoa zuan oso gogoko gure amak, Joxepa beintzat. Migel Anton etxeko nagusia, andrea il eta amar seme-alabekin gelditu zan. Gu ere sarritan an giñan.

Ezkondu zan berriz Migel Anton, Zepaiko ama alargun batekin. Onak ere aur asko zituan berekin. Senarra lanean zebillela argindarrez erre zitzaion. Bi alargunak ezkondu eta ogei ume inguru ziran etxe artan, eta, gaiñera, beste iru edo lau ekarri. Alargun biak zoriontsu.

Sakabanatzen asi ziran alde guztietara: Ameriketara, jesuita, lekaima, txoper, ostalari... Danetik zan Mendiolan.

Migel Anton ere ezbearrez il zan gerora. Donostitik Tolosara zetorrela leengo tranbi zaratsu oietako batetik jaisten asi eta tranbiak arrapatu zuan, eta il Migel Anton gizajoa, ogeita lau seme-alaben aita.

Joxepa Antoni berrero alargundu zan. Emakume ederra, dotorea, iztun garbia, Zepaiko alaba. Zepai bertsolariaren arreba zan. Orratx.

Erriko zurgin edo arotzak

Joxe Ezamaun zan teillatuetan eta arotzerian ibiltzen zan oie-tako bat. Lera, gurdi, asto-kako, kartolak-eta egin oi zituana. Oso tajutsua zan edozer gauzetan. Pauliño Uzkudun¹⁵ mutur-jokalari trebe eta ospetsuaren lagunik aundiena, eta bere burruka-zuzendaria luzaroan.

Nikaxio Kuleto zan, berriz, tornu-lanak egiten zituana; gurziri, ardatz, laia-kirten, oi-adar eta aulki biribildun doto-reak.

Pozik jarduten giñan tornu-egurrari ankaz eragiten; txirbil-ziprizitiñak belarri-ertzak berotu oi zizkigun. Utzi oi zigun trinx-txa artu eta ardatzeri ezpalak kentzen ere; ura egur-usai gozoa! Kuleto au iñor zirikatzen eta sesiua jartzen ere pijua zan.

Santos zan gauza dotoreak egiten oso iaioa; arotz piñeta-koa Santos Seneko Santos...

Beste arotz egokietakoa Andres zan. Onek ere tornu-lan piñak egin oi zituan, kanporako ere bai. Garai artan landu-tako armario, oe, mai, oi-adarren koskor apaiñak tornu-lan asko oi zuten. Aren esanak sarritan egin bear izaten nituan:

–To amar xentimokua eta ekarri eidak zigarro-txorta.

Ezpaiñetan beti erdi errean zigarroa eta sudur luzearen puntan muki tantoa txintxilika euki oi zuan.

Seaskak eta oso politak egiten zituan Andresek; baita ere zizelu, eskintoki, gatzontzi, boliñero, argizaiola eta abar. Guztiz artetsua zan arotz xaar iar ura. Bai eiztari amorratua eta iaioa ere.

Goenetxeko Manuel ere zurgina zan, eskulan asko egiña. Baxili bere emaztea eta alabak, berriz, joskiñak, oso jostun

15 Errezil 1899 – Madrid 1985

onak. Errezilko neskarik etzan geldituko oien joskintzako erakutsi onak ikasi gabe. Orduko jantziak urteetarako egin oi ziran, ez gaur bezela bereala baztertzeko.

Leen aitatu degun Juan Joxe abeslaria, Manuel onen semea zan. *Katuska* eta *Txanton Piperrri* eta orrelako opera ederrak Donostiko Victoria Eugenia antzokian abesten zituana, eta Eusko Abesbatza eta Orfeon Donostiarrako ardatza.

Tailler edo lantokirik aundiena goiko plazan zan, Sara etxepean. Etxeaundiko Joxe zan bertako nagusia. Arotzeri, oial-eraste eta abar, il-kutzak, au da il-kajak, bertan egin oi zituzten: aingerutxoentzat, zuriak; gazte gazteentzat ere bai. Larri eta zaarrentzat, beltzak. Oialez estaltzen zan zura.

Pozik jardun oi nintzan aspo-iltzez oial eta galartzu-zintak josten, kiski eta kaska. Baita barruan sartu, etzan eta tapa edo estalkia jarrita probak egin ere.

Joakin Uzkudun ere arotza zan, eta an jardun oi giñan alkarrekin; askotan estu, gorputza gogortu baiño leen sartu nai zutela-ta...

Joxe Etxeaundi maixu artetsu eta lan-egokia zan oso.

Eta nola aitatu gabe utzi Elurreko Alejandro milla opizio-ko gizon ura? Noiznai ikusiko zenduan teillatuan, kanpantorean, argin, igeltsero, arotz... Gazi-kutxa, txerraska, arraska, lixiba-arri, lixaska, oremai, tiña, imiko, lakari eta zer tresna etzuan egin ark?

Opizioa pranko probatua naiz; danak lardastu eta bat ondo ikasi ez. Erri koskorretan onela oi da, ogi-koskorra irabazi bear eta amalau nagusiren mende.

Oetako jergoi edo muelleak berritzen ere Joxerekin ikasi nuan. Amak eta biok egin oi genduan askatze, soka-berritze eta berriro jostea, baserririk baserri mokadu goxoak lan-truke irabaziaz.

Nikaxio anaia

Anai zaarrena, leen esan dedan bezela, errementaritzan jarduten zan, zerbait ikasiaz.

Soldaduzkara joan zitzaigun Zaragozara. Berealaxe il zan, gizajua. Este sobrante edo apendizze zuala eta ebakuntza egin zioten. Ondo atera zala eta, bi arreba zaarrenak illabetean egon ziran bera zaintzen.

Obeto zijoalakoan, ebakia gaiztotu eta etzan geiago amaren ondora etorri. Zer naigabea, ura biotzondokua leen larri dabillen ama batentzako!

Ordurako nik ere ikasi nuan laiño beltzak zer ziran eta negar egiten ere. Aingeru guardakoz il zan, au da, epaillaren leenengo egunean. Nik dakit nolako garizuma zan urte artakoa.

Baiña Jaungoiko Altsua beartsuekin zegon eta ez giñuzen eskutik utzi; negar-saio eta pozaldiak naastuaz aurrera jarraitzen lagundu zigun.

Erdoizta baillara

San Isidrotan joaten giñan Erdoiztara ni, Xanti eta don Pedro Egibar apaiza. Gu, meza abestera; Xantik, gaiñera, txanbolina jo bear zuan.

Etzegon gaurko biderik, ez autorik. Oarretik, Otsano deritzan gaztaiñadi illunean barrena, Bearraitz arkaitzean ebakita zegon bidea Azketa eta Erdoiztara, bide oso arriskugarria.

Meza nagusia, suziriak eta txuntxuna, orra pesta. Ondoren, bazkaria Joxe Manuelenian, mami eta guzti.

Bi ordu bear ziran joaten, eta beste bi etortzen. Ala ere pozik bide oietako txori, zozo, birigarro eta kukuaren abesti-otsak entzunaz. Lanbroa sartzen ere bazkien olakotan.

Urte batez Etumetan gelditu giñan lotan. Ango zintzarri eta orroi-otsa, arkume saillak, ura usai berezia. Bai mami gozua ere.

Iru Etumeta ziran: Zaku-enea, Benta eta Kupela.

Kuttunentxoena, edo geiena izaten giñana, Zaku-enea genduan, bertako Pantaleon, amona eta Luixa ikusiaz.

Esan oi da Etumetan barrena zala Bizkai, Araba naiz Gaztel-lurretara bidea. Nik ez dakit kondairaren berririk, entzuna baizik. Loiolako Inazio deunak Kataluiñatik etxerantza zetorrela Iturriotzen lo egin, eta taloa eta esnea Etumetako Bentan jan zituala; eta bere zakutoa bizkarrean artu eta Loio-la-bideari eldu ziola.

Gure artean maiz aitatu eta oso sonatua da Etumetako Basajaun aundia.

Itsasontzi aundiena

Urtero ekarriko zuan eguneroko paperak 1912ko gertaera au. Goizero eguneroko berriak jakiteko izparringi edo periodikoa-
ren zai egon oi zan Joxe Etxeaundi. Paneoko Roman, Santos
eta apaiza ere inguruan izango ziran; gu ere gauza berriren
baten jakin-min. Geienean koxkan exerita jarduten zan Ro-
man. Gu aldamenetik entzuten.

Or nunbait, itsaso zabal, sakon eta izotz-toki edo leku-
ren batean izugarria gertatu zala: Titanic izenez txanpainaz
bataiatutako itsasontzi aundi eta apain ura ondatu zala. Ots
aundiak aurretik izan zituan ontzi ikusgarri orrek: munduko
aundiena zala zioten misteriozko Titanic ori.

Ontzi au itsasoratu zutenean berealdiko pestak omen zi-
ran, soiñu, dantza, suziri eta jendearen emana... Onela omen
zioten: "Ontzi au ezin lezake ondatu ez ekaitzak eta ezta
Jaungoikoak berak ere".

Itsasoan barrena zijoala, Izeberg deritzan izotz-mendi oie-
tako orma bat jo eta muturra puskatu. Berealaxe ura sartzen
asi eta itsasoak irentsi omen zuan.

Milla eta bosteun gizon-emakume aberats, ustez usteka-
bean an ito omen ziran. Ara leenengo irtenaldi eta ibillialdi
ospetsu arrokerizko artan dana ondatu.

Ango urre, zillar, pitxi eta dotoreziak urpean dira, diote-
nez. Gorputzak arraiak jango zituzten, baiña ango apaingarri
eta pitxi aberats aiek etzituzten jango.

Orra arrokerizko asera eta negargarrizko bukaera.

Irratia – Pauliño

Urte aietantxe sartu edo iritsi zan errira radio irrati-otsa. Urrutizkin edo telefono bat bazegon Madrillesa zeritzan etxean. Egurrezko kirten aundi bati tarra-tarra eragin eta noizbait baten batek esaten zuan: *Diga, diga, digaaa!*

Nik leenengo aldiz Tolosara itz egin nuan, neskame zeuden arrebeekin. Imutu antzeko tuturutua burutik belarrietara zaldiari bezela erantsi, eta ura dardara gorputz guztian! Gaur illargira edo Martera lasaitxeago itz egingo nukela uste det.

Telefono ari-alanbre oiek eskolatik eskolara katiatuaz erri batetik bestera ipiñi zituztenean ez omen zuten sinisten, alegia, ari aren barruan itzak joan bear zuanik, oiek sorginkeriak zirala zioten.

Andretxo bi beren astotxoakin Tolosako azokara zijoazen, oiñez, jakiña. Alanbre oieri begira jarri eta, batek omen zion:

–Aizu, Praixka, onako ari orrek erdian zuloa bear ko du...

–Zerbait bear ko du kontuak korrituko badu

Arri, astua!, eta konporme.

Fonografo-soiñu aiek ere garaitsu aietan ezagutu ginduan. Kamiñeruaneko Petra ikaratu egin oi zan soiñu oiekin, gizonik ageri ez iñun eta imutu oien barruan zer sorgin ote zeuden.

–Bai, zuek parre egiten dezute, baiña ots orrek batere etzidan onik egiten. Ikaratu egiten naun, orratx! Ixildu itzazute or ari diran oiek, eta punttuan egin bear diñagu. Utikan!

Mai-azpian ere begiratu zuan, nun ote zeuden abeslariak.

Don Pedro apaizak ekarri zuan leenengo radio-trepete sastar bat. Ari eta ixtribilluz beterik, txandan-txandan belarri zuloetan sartu ziri batzuk eta zerbait entzuten zan urrutira. Jesusss!, beste mundua zala iruditzen zaitzaigun.

Ain zuzen, Pauliño Uzkudunen ukabilketa edo burruka zala, Exmelin edo Expalakin jotzen zuala Bartzelonako zezenplazan eta ango orrua eta itillua. Petra ez eze, gu ere ikaratu giñan leenengo artan. Jo eta eratsi zuala; lau, bost, sei, zazpi, zortzi... kontatu eta altxa ez. Pauliño irabazle.

Gau artan etzegon lorik. Suziriak pin eta pun; Iraola, Age-re eta Gurutzeagatik ere etengabe bere senideak dinbi! eta, danba!, Pauliñok irabazi zuala adierazten. Erriko zakur guz-tiak zaunkaka, oillo danak kakarakaz, oillarrak kukurrukuka erabat aztoratuta. Gure gau paketsuak zalaparta biurtu ziran.

Andik aurrera Pauliñok jokutzen zuan bakoitzean radio-txanda zai egoten giñan. Gofrei eta Primo Karnera eta aundiak izan arren geienak erasten zituan Pauliñok. Errian iñausketan, baso-mutil eta etxeko lanaz gaiñera aizkoran eta burrukan nagusi zan.

Gogoan det jaiegun batez erronkazko burruka aundia egin zutela Zelatunen Pauliñok eta Iraolaberrik. Giro otza zegon, baiña burrukalariai bero. Gu txiki xamarrak artean eta, negua zanez, etziguten utzi joaten; burruka-asarre ura ikusi gabe gelditu giñan. Jendea barra-barra igo zan Zelatungo zelaira. Eltzen ere ez omen zion utzi Pauliñok, eta burruka erabaki gabe gelditu zala otsa izan zan.

Gero Donostira joan zan igeltsero-mutil. Bizkarka igo bear izaten ziran igeltso-zaku eta ladrillu edo lanerako gaiak. Beste langilleak aldiko zaku banakin naikoa izaten zuten, eta bost edo seigarren bizitzara iristerako naikoa egin ere. Pauliñok iru edo lau zaku jasotzen zituan batera, eta gero exerita egon lasai, txanda berriz etorri arte zai.

Nagusiak ikusi nola zegon, eta:

–Lan-otsean, ontara etorri al zera?

–Nagusi, nik lau zaku batera jaso dittut, eta nere txanda eldu zai nago.

Andik asi zan mutur-joka, eta azkar ezagutu zan probintzian, Espainian eta Frantzian. *El púgil de Régil* deitzen zioten. Geroxeago Europan, eta gero Ameriketara ibilli zan. Ango mutur-beltz jendea ere larri ibilli zuan; baiña urrutitxokoa zan dolarrak eta ango maltzur jendea menderatzeko. Esaten zuten, Pauliño iñork ez omen zuan lurreratu.

Gu gaztetxoak pozik egon oi giñan Pauliño errira etortzeko. Zetorren bakoitzean automobil berriarekin etortzen zan, eta guk ibilli egin nai.

–Tira, sartu –esango zigun, eta rau!, tximistak arturik batekorik besteko eramango ginduan. Ez genduan ikusten ez esola, ez zuaitz, ezta etxerik ere. Ura zan txistua! Batzutan arnasik gabe gelditzen giñan, gaiñetik irekiak bait ziran. Bazuan zillar koloreko Hispano indartsu oietako bat ere.

Bere jaiotetxea erriaz beetik berealaxe zegoen; bide ona ez baiña ark, ringi eta ranga, ateraiño eramango zuan bere tramankulu ori. Ama Joakiña irtengo zitzaion atera:

–Emen al aiz? Nundik nora abil, gizajo ori?

Illoba-jende izugarria zegoen Gurutzeagan. Ikulluan sartuko zuan automobilla, txikiei esanaz:

–Onek biar goizerako umea egingo dik.

Istilluak jarri zituan gau artan. Ezin lorik egin ume-jende arek, beiak txaala bezela umea egingo zualakoan. Goizean etzegoen ordea Auto-Hispanokumerik, eta danak arrantzaka leenaz gaiñera guda bizia etxean.

Erriko lagunak etzioten eskurik eman nai izaten. Estutu eta txikitu bear, izan ere asto ark. Arritu bear zuan batek bruxakin joan eta kastor, jantzi dotore eta goantekin etxera etortzen zan mutil burrukalari indartsu arekin. Baserritar bat izan eta bazirudian amalau...

Erderaz tutik etzekiala joan zan, baiña erderaz ez ezik frantses eta batez ere ingeles eta yankiz ikasi zuan. Urte gutxi barru naiko mirari egin zuan mutil ark.

Ainbeste pesta, arrera eta omenaldi egin zitzaion bere jaioterrian, baiña etzigun bein ere gozoki bat eraman; legor xamarra zan bai zaar eta bai umeekin. Etzitzai jaiotzen bere barruan zoramen eta poza sortzen duten gauzatxo oietakorik ekartzea. Etzan arritzekoa, ezerezetik igo zan eta aundikeria bakarrik ikusten zuan. Izan ere, alako ospe, diru eta sariak itsutu bear ba...

Baserria apaindu zuten, poliki jarri ere. Jendetza aundia zetorren Errezilko errira bere jaiotetxea ezagutzera. Izen aundia eman zion Errezilli bere burruka-saio oieri esker.

Donostiko elkarte edo soziedade geienak omendu zuten Pauliño, eta, batez ere, *Amaikak-Bat* elkarteak. Auek noiznai etortzen ziran eguna igaroaz Errezilla.

Atzerritarrak ere autobusak betean zetortzen; Gipuzkoako itsas-bazterretan dauden ainbeste erri polit, eder, zoragarri oiek ikusiaz etortzen ziran, Loiolatiok barrena Errezilleraíño. Emen keratxoa, bazterrak ikusiaz.

Errege Alpontxo

Bi aldiz igaro zan errege Alpontxo XIII motor-gaiñean Azpeititik Errezillen gora. Mikelete bibote aundi bat apain jantzia iritsiko zan aurretik, alegia, bideak garbituaz eta irakasleei eta erritarrei errege zetorrela adieraziaz, alegiña txukuntzeko eta illaran bi bide-ertzetan arrera ona egiñaz jartzeko.

Gure zoramena errege zer tankeratakoa ote zan ikusteko! Atso-jendea ere mototsak zuzenduaz irtengo zan atarira. Mai-xuak txalo jotzeko esan zigun errege iristen zanean.

Or dator mikelete asarrea, tur-tur-tur, motor aundi baten gaiñean:

–Errege dator eta berriketa gutxi!

Bereala Alpontxo eta beste mikelete bat atzetik, eta kitto. Guri ezta txalo jotzerik bururatu ere; astirik eman al zuten gero?

Andre batzuek Txilibixtoren antza eman zioten Alpontxori; Agapitak, txoteko bastoia zirudiela esan zuan.

Zepaiko Akiliño eta bere algunak apustua errege gelditu baietz eta ezetz.

Zepai bertsolaria baso-mutil zebillen, Azpeitiko Zerrari txiki eta beste irurekin. Bost mutil lana latz egiñaz, sasoia ere baita... Edozer gauzagatik apustua oi zan or Errezildik Landetara bitarte ortan; an apustu, joku edo burrukarik ez bazan, munduan beste iñun etzan.

Or dabilta idi-pareaz Artañolan enbor-trongoak erantsi eta tarrastaka dituztela, aida! eta, ooo! Badator mikelete bat. Rast, gelditu motorra eta dio itzaiari:

–Zu gizon, errege laster da emen eta bidea txukun eta garbi utzi bear dezu, aittu?

Eta, tur-tur-tur-tur joan zan mikeletea bideak irekiaz aurrera. Or datoz mutillak:

–Errege datorrela? Mekasuen, ikusi bear diagu ba zer gi-zamodu dan.

Itzaiak:

–Jokatuko dizuet arroa erdi bat ardo nik emen errege gelditu arazi baietz.

–Ixillik ago, ixillik. Ibilli adi berriketan eta ikusiko dek. Errege errege dek gero...

–Baietz nik gelditu arazi eta erregearekin itz egin.

–Ezetz! –besteak.

Gorde dira baso-mutillak murkatzean eta asi da itzaia idiekin; bidean zearkatu ditu enbor aundi bat erantsita.

–Emen dek, emen dek. Ixooo...

Itzaia orruka, izarditan pats dabil zalaparta batean, aida!, eta esti! –Onera gorria, aidaaaa!– akuillua astinduaz, egundo-ko itxurak egiten. Raka, iritsi da Alpontxo. Gelditu? Gelditu bearko, eta ia amar miñutuan egon ere motorra geldituta.

–Irabazi ziguk apustua; errekoioño, errege gure inguruan egon bear zuanik ere...

–Esti, onaaaa...

Eta erregek:

–Tranquilo, tranquilo, buen hombre...

Erregearen atzetik mikeletea kiñuka, kentzeko aguro andik...

Itzaiak:

–Esto tronco mutxo karga y ganau poco puertza.

Parrez errege dala, ireki dio bidea, eta itzaiari esku eman, esanaz:

–Gracias, hombre, gracias...

Izardia legortuaz:

–Casero siempre trajoo grande...

–Si, si...

Eta duro zillarra eman zion erregeak, eta adioska agurtuaz joan zan. Itzaiaren oiua eta poza:

–Ikusten al dezute? –mutillei orruka. –Zer uste zenduten bada, alu arraiok! Nik duro zillarra eta, gaiñera, *gracias* esanaz esku eman zidak.

–Errejudas, ez genduan uste erregea orrelakua izango zanik. Goazik aguro Zurruntzolarara, idiak askatu eta gaurko lanak egin zituagu-ta; edan bear diagu naiko ardoa gaur...

Gero bai omen zan an bertsoa, oiua, alkarri eldu bearra eta indarrak neurtu bearra. Aien sasoia!

Gerora Zepai zanari esan arazi nion bein baiño geiagotan errege kontu auxe.

Ostatu

Txillarramendi eta Etumetako ume eta andreak sartetxea gure etxea zuten. Aste Santu zala eta, bi edo iru egunerako etorriko ziran. Elizkizun aundi eta luzeak oi ziran egunero ordu biko bidean oiñez ibiltzeko. Gure etxe kaxkarra zuten osatu. Edubijixekin oso pozik egon oi ziran; gu ere bai aiekin. Etziran esku-utsean azalduko, ez, naiz bi orduko bidean etorri. Onek esnea, ark lukainka, urdai eta saieski, urra eta intxaurra... Gure eztaia! Aberats giñan, arranetan.

Mixioak ziranean, txandatuaz ibilliko ziran, “Atoz pekartaria, atoz elizara/, Jaungoikoaren itza gogoz aditzera” abestuaz sortzen zan alakoxe giro xamur bat. Sermoi aundi zaratatsu aiek ain gogoko giñuzen guztiok. Garaian garaiko giroak bada, garaiko giroak.

Animenetan ibilli oi zuten ogia, kandela eta argizaria gurdi-ka. Illeta eta ondratarako bi orduko bidean bizkarrean txandatuaz ekarriko zituzten Beama, Erdoizta, Txillarramendi baillara eta Etumetatik; ez da txantxa. Gaur ikara ematen du; jasa eta euri, elur, izotz, sargori edo bero, ibilli egin bear zan.

Ezkontzak ere goizeko seiretan izaten ziran, goiz oso.

Goiz ekaiztsu bat daukat gogoan. Txillarramendi baillaratik zetortzen. Antxiturbikoa izan bear zuan andregai. Dana dala, ogeikoren bat izango ziran. Udazkeneko goiz garratz artan eguna zabaltzerako ate-joka ziran gure etxean ezkontzazaleak. Tximu-tximu eginda iritsi ere, aizeak, euriak eta txingorrak bidean zearo bustita. Edubijixek zotz-zarbakin su galanta egin eta txandan-txandan sutondoan, batzuek erantzita eta besteak suaren inguruan jira-biraka gonak jaso eta azpiak legortzen, edo beintzat gozatzen.

Goizeko lau eta erdietan etxetik irten eta naiko lanakin. Andregaiak etzuan eramango atzeko buztan-sare zuririk arras-

taka. Ezkongaiak baraurik bezperatik; naiko egiten zuten zutik egotea ere. Beste andre eta gizon jendeak pozik artu zuten kape beroa, bai anix-pattarra ere astindu zuten. Erdi legortuan joan ziran elizara, ondotxo kostatako uztarketa artara. Gure sukaldeak, abarka, mantar, zaku eta txano, azoka edo peria zirudindin.

Dotriña ikasi eta jaunartzeak gure etxetik egiten zituzten Etumetako umeak; berdin Zepai, Zubitxo, Munoaundi, Antxiturbi eta basetxetako ume guztiak. Egunetan egon oi ziran komunio txiki eta aundia biak egiteko prestatzen. Akiliño Zepai eta Txapel ere gure sartetxe ortan egonak, edo jaunartzeak Edubijixenetik egiñak ziran, amak zionez.

Zepaiko sendia eta ama Kattalin etzan aaztua gure etxean; emakume gozoagorik... Eta ain genduan kolkokua bere alaba Joxepa Iñaxi ere! Nik, egia esan, ez det euskal-andre ona ez danik ezagutu; batez ere garai aietan ain bizimodu zailla igarotzen zuten... Zeru-goi oietan santuentzat lekurik baldin bazan, oiek danak toki ederrean egon bear, ez bazterrean. Ez orixe!

Gizonak gizon, euskal-amak izan dira emen gure euskera, gure izakera, oitura eta fede biziaren iturburuak. Amak bezala amonak, izeba eta gaiñontzeko guztiak.

Aitona aitajaun fedetsu aien belaunetan ikasi izan ditu euskal-umeak leenengo ziñatzen, otoitz, abesti, bertso eta ipuiak, euskera gartsu eta garbian. Mukiak zinztuaz leen pausoeekin batera, biotz poxpola landuaz xamurkiro azitzen, ezitzen eta gizon egiten lagundu oi zuten aitona on zuzen aiek.

Errizala edo aguazilla

Errezilko errizaia edo agoazilla gizon prestu eta dotorea zan. Jai aundietan eta, jantzi urdin botoi oriz jantziko zan, bere kastor eta makillaz.

Bruno izango zuan bere izena, baiña erri guztiak Burruno deitu oi genion. Gu eskola gabe igesi eta okerrean genbiltzanean ondo berotu oi zizkigun zigorrez anka-zaiñak.

Emen dek, emen dek Burruno

–Arrane demontreok, arrapatuko zaittuztet, bai... –Gero ederrak eman ere...

–Ago, ago! –deadar egin oi zuan txermen-arrapatzen edo ikusten giñuzenean. Erria zaintzen bazekian gizon ark, baiña guk amorru gogorra genion berari.

Txerri-iltzea bazan, amaika puxketa goxo jan oi zan etxe artan. Zerriaren buztana beti beretzat. Rast!, labanaz epai aundia ebakiko zion buztanarekin urdai-zati galanta kenduaz. Bein zerri batek, kakoa sartzerakoan, orzka egin zion zankotik, eta gaizki egon zan. Gure poza, dana zerriak jan izan baldin balu ere guk ez genduan negarrik egingo. Bere bizi guztirako erren gelditu zan, eta gero ezin arrapatu. Maki-lla indar guztiz bota oi zigun.

Gero eskolan agertzen bazan, guk egungorri; batetik mai-xuak, zart!, eta bestetik onek balarriak eteteraiño biurritu oi zizkigun.

Bere andrea eztaibazkari, martopillak eta otordu goxo prantatzaillea zan, sukaldari ona; bai kontu-biltzaille eta zabaltzaille bapua ere.

–Aizu, aidanean, olako eta alako omen da beiñepein...

Ala bazan edo ez bazan, zabalduko zan kontua, naaske-ria; ez iñori esatekotan, danari esan ixil-ixillean. Sorgiñetik

ere bazuan bere zatia. Bein illuntze ezkerero, Agapita leioz-leio zelatan ibilli oi zan, zer adituko eta txirristutik zer ikusiko, gero bazterrik bazter kontatzeko.

Bein senarrak, au da, Burrunok, gau-eskolan zebiltzen mutil kankalluei esan zien:

–Nere andre orri astindu bat eman bear diozue; or zebillek zelatan eta ia ikaritzen dan...

–Mekasuen –mutillen poza. –Bai, bai; izutuko dizugu, amorratuk ezpaittu...

Pauliño tartean zala, mutil taldea zer soma. Jokua, burrukak, apustua, irrintzia eta oiua ibilli oi zuten. Gau batez, zelatan zegola, arrapatzen dute atso ori; bruxak burutik artu eta illunpean eldu diote. Airean sasi, langa, pendiz eta murkatz-gaiñetik karraxika negarrez erabilli ondoren, elizako atean dagon ur bedeinkatu ontzian ipurdia sartuta utzi zuten.

Asten da deadar eta oiuka, laguntza eske. Mutillak bazterrean parrez. Bildu ziran Eule eta Santos.

–Jatsi nazazute emendik...

–Nola arraio igo zera orraiño?

–Zea bezela... Au da ezurretako miña...

Deitu diote Burrunori etortzeko azkar, Agapita kotan da-gola-ta. Ark bazekian:

–Zer gogok emanda zabilta goi ortan, sorgin ori?

–Mutillak ibilli naute Sastondon barrena...

–Ederki egin dizute, egote asko zenduan etxian; besterik etzenduan merezi.

Andik aurrera ez omen zuan illundu ezkerero etxetik irteten andre ark.

Mutilleri esan omen zien Burrunok:

–Mesede ederra egin zionduen gure atso orri izutuaz. Ipur-di preskatzeak on egin zioan...

Mutillen indar sasoa

Bein apustu egin dute beren artean mutil-talde batek. Beti adarra jotzeko zai, eta sekretarioa tente eta txorrotxa zanez, zirikatu egin nai. Onela zioten:

–Kristiña, sekretarioaren alaba bizkarrean eraman eta aitaren aurrean ipiñi ezetz.

Baietz eta etzetz, treberen bat izan bear zuan apustu egin nai zuana. Eliz-atarian ezkutatuta jarri dira lagunak nola eramaten duan ikusteko. Bestea zai. Irten da neska Etxeberritik; bruxaz burua estali eta eltzen dio neskatx orri poliki-poliki lepoan artuaz... Jesus, onen ostikoak eta zalapartak.

–Ez diñat ezer egingo, Kristiña; apustu egin diñat etxera airean eraman baietz; ago ixillik, ederki eramango aunat-eta... Baiña, baiña... ixo ba!

Iritsi dira ate-kantoirra eta, dan, dan!, aldabia.

–Aitari otsegin, apustu orrela egin diñat-eta.

–Aitta, aitta...

Or dator aita biboteak zutik dituala. Rak, atea zabaldu orduko, danga! ipintzen dio aurreko aldean aitari alaba. Joo, goxua jarri izango zan, ba, sekretario jauna.

–Zein zan ori? Zigortu egin bear da ondo –asarre osoz.

Kristiñak:

–Ez aitta, oso ederki ekarri nau, apustu egin omen du-ta.

–Zer apustu gero! Zein zan astaixpillu ori, zein?

–Amorratue, irabazi ziguk apustua...

Orduko jolasak onelaxe ziran.

* * *

Apaizaren balkoian astoa arrantzaka. Mutillen gau-pestata.

Borondegin, leengo Erriko etxean bizi zan don Fernando apaiza. Egoaize aldietan eta ezagun oi zitzaion, pixka bat aztoratuta ibili oi zan apaiz ori.

Jai-gau batez gaiztoaldian zeuden erriko mutillak, esaera dan bezela, zer egingo eta ura egingo.

Ekarri dute Armendiko astarra kalera. Somatua zeukaten berebiziko pesta mutillak, Pauliño buru zala.

Etxe-aurrean egundoko balkoia du Borondegik, eta artu asto ori, lau anakak lotu asta-sokaz eta abar, eta jaso dute gora, balkoian sartuaz, alegiña ixilka. Lurretik goitxoan dago balkoi luze ori, baiña indarra eta gogua nagusi, eta edozer gauza parre egiteagatik. Ipiñi diote besakada bat pagotx eta astoa bapo zegon mokaru goxua janaz.

Mutillak gozatzen, zer atarramentu aterako ote zuan azkenian astarrak. Uda-giroa zan, bero oso, eta leioa erdi zabalik utzia zuan apaizaren neskame zaarrak.

–Zer egingo ote dik? –mutil deabruak zai–. Barrura sartzen bada, giro izango dek! Ara, ara, bazijoak.

Jakiña, astoa aspertu zan balkoian eta muturraz bultza leio-ateari eta sartzen da gela aundira; argizariz legundua zegon zorua, eta ez dala zutik egongo astoa... Aren trikiti eta zalapartak. Bota ditu ango aulki, lore-ontzi, tresna eta trepeteak; pianoraiñoko guztiak airean dabilzki, erabat izututa.

Esnatu da don Fernando, eta bai neskamea ere, lurrikara dalakuan igesi karraxika. Ango istilluak, bada.

Beeko ostatukoak ere ikaratu dira. Manueltxo eskopetea artu eta lapur billa edo, zer madarikatu ote dan etxean.

Neskamearen deadarretara bildu dira auzoko gizonak. Ezkutuan zeuden mutillak parrez leer egiten...

–Errekoño, au dek pesta!

Ikusi dute naiko bildurrez zer arraio ote dabillen goiko gelan: astoa zutik egon eziñik, jo ara eta jo ona, ango trepete artean estrapuzuka...

–Ara, ara, au Armendiko astoa dek...

Beera jatsi bear astoa eta ezin jatsi, batek tira eta bestak bultza, ez dala jatsiko. Azkenean amilduak izan bear zuten eskailleratan beera asto eta gizonak.

Senperrak ikusi zituzten gau artan beeko plaza aldean.



Musda artzaiari astoa amildu zitzaion tokia

Pauliño Uzkudunen indar neurketa bere aitarekin

Burruka asko egin zuan Pauliñok bere lagun, anai eta erritar indartsuenekin. Baiña bat zeukan neurtzeko eta pozik neurtuko zuenian, oso pozik ere. Bere aita zan ori.

Baiña nola burrukaz neurtu aita? Izugarritzko begirune eta errespetoa bait zien gurasoei.

Indar-sasoi garratza zeukan aitak ere, eta nola arraio ekin neurketari?

Ixil-ixillik, onelaxe eratu zuan indar-neurketa bere aitarekin, iñolaz ere ez bait zion miñik eman nai. Maitasuna urratu gabe, lapur-itxuran azaldu nai zuan bera nor zan aitak eza-gutu etzezan.

Aitak txaal zekorra saldu zuan Azpeitira, bikaiña gaiñera txaal. Aren diruak toxa berdean sartu eta zilbor-barrenean zekartzan. Pauliñok ondo zekian nun ibiltzen zuan diru-toxa.

Arratsean aita bazetorren Azpeititik, taka-taka, lasai.

Mutilla zai jarri da ortxe Intxausti-Astazulo inguruan. Illun dago oso, oso illun. Abarka otsak...

–Emen dek aitta –Pauliñok.

Semea dardaraz dago, baiña ez atzera egiteko. Iritsi da aita mutillaren parera, eta onek, rau!, eltzen dio gerri-besoe-tatik. Rik, rak!, aitak askatu ere... Gerrikoari elduaz indarrak gogortzen ditu mutillak; bai aitak ere. Eltzen diote alkarri eta ango irristi-arrasta, abarka eta arri-otsa; biak ermo¹⁶, itzik egin gabe, indarra biak eta ezin alkar lurreratu. Burruka luzatuaz nekatu samartu du aita; artzen du azpian alegiña

16 Irmo

miñik eman gabe; indarraldietan bai jaiki ere aita. Arnasa otsa; mendean dauka semeak, ez errezegei baiña...

Burrukaria lapurra dala aitak sinis dezan, kentzen dio diru-toxa. Penatxo du aitak dirua kentzea, baiña naigabe izugarria eman diona Uzkudun kasta iñork menderatzea da. Belaunaldiak, gizaldiak zear ermo eusten zitzaion indar nagusitza galtzeak amorru eman dio.

Altxa da aita, eta badator etxera. Mutilla ere, aita zaituaz, sartu da etxean, eta oera ixil-ixillik.

Ez txapel eta ez diru, illun sartu da aita ere buru zaarra azkatuaz.

–Zein arraio izan ote zitekean burrukari lapur indartsu ori?

Damutxo du zaarrak iñork menderatzea. Gaua joan eta goiz-lanetan asi dira: bei-jaizten, iñaurkiñaz azpiak egiten... Ama Joakiña ere an ari da gosaria gertutzen.

Anai zaarrak dio Pauliñori:

–Gaur gure aitta oso burumakur eta goibel zebillek.

–Ez dek arritzeko.

–Zer ba?

–Txaalaren diruak nik zeuzkeat-eta...

–Ik?

–Bai, nik. Ez bereala, baiña bart burrukaldi latza egin ondoren, lapur-itxura egitearren kendu nioan toxa.

–Ik aittari diruak kendu? Ez diat sinisten. Ik aitta menderatu? Gezurrak irten dik!

–Ixo, emen dek-eta.

Ama oska:

–Tira, bildu zaitetzte gosaltzeko.

Maira inguratu dira aita-semeak. Animen alde otoitz egin ondoren, danak ixillik. Amak ez daki ezer: mutillak kiñu alkarri.

Seme zaarrenak:

–Orixe da burumakur zaudena gaur, aitta.

–Burumakur? Arrazoirik asko badedala uste diat goibel egoteko...

–Zer dezu, ba? Zuk esango dezu...

–Guriak egin dik.

–Ze ba! –dio Pauliñok.

–Bart oso gaizki ibilli natxiak norbaitek. Ez errez, baiña txaalaren diruak ere kendu zizkidak burrukan egin ondoren. Diruak etzidak penarik ematen, Uzkudun kasta menderatzeak ematen zidak min!

–Ez estutu, aitta, gu ere emen gaude-ta.

–Zuek, zuek... Zuek baiño kementsuagoa uan lapur burrukari ura; ez uan alde autatakoa, ez amorratu...

–Eta zu menderatu zinduan, aitta?

–Baai, menderatu bezela. Lotsa ematen zidak esateak ere. Gure aittak, aittaren aittonak eta aren aitta eta aittonak be-launaldietan zear eutsi dioten nagusitza nik ukatu bearra diat amorrumin.

Pauliñok, dardaraz, ateratzen du txaal diru-toxa maira:

–Au al da, aitta?

–Baai! Nun billatu dek?

–Ez det billatu. Ez nuke nai asarretzerik, baiña nik kendu nizun bart. Barkazioa eskatzen dizut.

–Zeer? Ik neri kendu idala poltsa au? Ez dek kemenik ori neri kentzeko...

–Baietz, ba, aitta; zu neurtu nai ziñutan indarrez, eta ez asarretu. Astazulo aldean nik kendu nizun, eta bai burruka gogorra egin ere. Ez nizun miñik eman nai, eta orrelaxe kendu nizun.

–Ik ainbeste indar? Goazen karrerara nik sinistea nai badek.

Eldu eta, rau!, biak irrist eta arrats. Biak gogorrak.

–Zer dezute? –dio Joakiñak–; zaudete geldi. Jesus, Jesusss!

Ia lurreratu du aitta, alegiña poliki.

–Naikoa degu, aitta.

Rau!, altxatu da eta lepotik elduaz, dio:

–Oraintxe sinisten diat eu intzala; ez ago pattala, motell. Ez dek ezer ala ere Uzkudun kasta aurrerako danean; barenngoan ba... Emen etzegok gure kasta menderatuko duan barrabildunik, eta beajondaikala!

–Txapela teillatuan gelditzen da berriz ere, aitta.

–Esan al dezakek... Ez dek ala ere ezer. Joakiña, il zazu oillo zaar bat, ipiñi bazkari ona, gaur jai egin bear degu-ta.

–Zer dezute, ordea?

–Ixo, ixo! Indarra etxean degu, Joakiña! –aitaren poza.

–Barkatzen al didazu, aitta? –Pauliñok.

–Ago ixillik! Zer barkatu gero...

Ango oiu, aupada eta bertsoak! Illuntzerako beste neurketaren bat ez ote zan gero izango...

Gurutzeagako aitona

Gurutzeagako aitona zaarrak ezergatik ikaratzen etzana izan bear zuan. Etzuan ezerk izutuko; eta aurretik zetorkion indar -kutsu kementsua berekin zuanez, iñork menderatu bildurrik ere etzuan. *Kuutzea zaarra* deitzen zioten.

Eskuetako beatz aundiak txalekoaren beso-zuloetan sartu eta lasai ibilli oi omen zan peri-azoketan. Erronkarik bazan, edo pakeak egin bear, baita iñor eratsi bear bazan ere, erne *Kuutzea* zaarrarekin.

Animen egun inguru ortan, egin dute apustu mutil talde bik, auek aittona ori izutu edo bildurtu baietz, eta beste taldekoak, ezetz.

–Bazijoak arroa bat ardo; bota seiñaleak.

Somatu dute agure ori ikaratzeko era. Illerri edo kanposantua dago Gurutzeaga baserri orren ondoan. Maindira zuriz eta argi gorritz, kate zaar batzuk tarraka dituztela, bi mutil.

–Bai, gaur ikaratu bear diagu aittona au.

Beste mutillak arta-soro barrenean ezkutatuta daude apustua zaintzen. Borondegí ostatutik irten eta or dator agurea.

–Emen dek, emen dek...

Bertso-kantu marmarrean dator, riki, raka, arriak ondoren dituala, lasai. Kanposantura inguratu danean, izaran zuri-zuri bilduta bi mutillek orma gaiñetik salto egiten dute. Ranba!, kate-otsa eta argi trixtea. Aittona gelditu da:

–Zer, zer madarikatu da emen! –dio.

Mutil bat inguruan jira-biraka, kateak arrastaka dituala. Ots trixteak.

–Purgatorioko anima naizela... Purgatorioko anima naizela...

–Zer, zer bear dek –dio aittonak asarre.

–Meza baten paltan nagola... Meza baten paltan nagola...

–Dirurik ba al dek?

–Purgatorioan ez dala dirurik... Purgatorioan ez dala dirurik...

–Dirurik ez badek, badaukak puxkateko tratua; Errezilko apaizak ez die utsean mezarik ateratzen, eta joan aikek etorri aizen lekura.

Atzaparrak luzatuaz:

–Nik eltzen badiat anka batetik, ikusiko dek zer atarramentu eramango dekan; mekasuen sots gero!

Asi da zalapartaka: ango abarka eta arri-otsa! Ikaratu ditu animak ez ezik soro-barrenean zeudenak ere...

–Ori ikaratu! Etzeok leku txarrean.

Animak an joan omen ziran Sastondon barrena izututa. Beste mutillen poza, apustua irabazita; baiña izututa, belarriak erne. Ark danei lepezamarretik eldu izan balie, aterako zizkien zirikagureak.

Lasai sartu zan etxean agurea. Sukaldeko leioan zegon esne-pertza glinkatuaz egundoko oiua egin omen zituan, orroka:

–Txoro arraiok! Datorrela Santson, datorrela Matusalen, datorrela deabru. Ikusiko diagu zein dan nagusi emen, txaxu demontreok!

Mutillak kaletik:

–Joo, gozoa zeok ori! Ori ikaratu? Ezta inpernuko etsai guztiak etorrira ere.

Orra Kuutzea zaarra, Uzkuuntarren kemenezko ixtoria.

Apustu-griñak

Gizonari noiz eta nunai datorzkio joera, galda edo griñak. Ara emen euskal-gizonen arteko ermoenetako¹⁷ bat: joku, apustu -griña.

Onatx noraiño sartzen dan gure artean zain ori. Gaitz aundikoa ez dalarik, jokuak baditu bere maratillak: gorrotoa nagusi, askotan; arrokeria beste batzuetan, tranpa edo ziria ere ez gutxitan; eta, batez ere, negarra etxean. Jokua ez dala errenta esan zuanak bazekian zerbait.

Esan oi zuten ez dakit zein baserritako gizona il zala. Eta etxe artako danak joku-apustu zaleak. Zoroaldiak oi zituzten irabazle ziranean; bai zakarraldi galantak ere galtzen zutenean.

Aita il zaie, eta bere illetan elizan seme bi zaarrenak, proguko murgil, bekozko illun. Etsaia ez dago beñere lo eta... Aldameneko aldaretan, oitura zan bezela, *atienpoko* mezak ematen ari ziran apaiz bi. Zirikaldia ba... Seme zaarrenak dio bigarrenari, aopean:

–I, Iñixio, nai al dek apustu egin or ezkerreko apaiz moz-kote orrek eskubikoari bost miñutu kendu baietz.

–Zeer?

–Orrek bost miñutu leenago eman baietz meza! Amasei txakur aundi!

–Motell, ixillik ago, elizan gaudek-eta.

Zirika berriz ere, ixilka:

–Ez al dek jokatu nai?

–Bazijok, bi pezetako zillarra! –beste anaiak.

Erlojuari begira amorratzen biak.

17 Irmoenetakoa

–Amorratue, irea dek, irabazi dek –dio zaarrenak.

Zer arreta elizan aitaren illeta baterako. Nolako griña! Aita zerbait bazan ere, semeak etziran gutxiago. Jokua beti joku.

Emakumeak ere ezagutu izan ditut jokulari porrokatuak, bai orixe.

Andoingo Bazkardon idi sonatuak eduki oi zituzten garai artan. Eta idi-proba zan, ez dakit zeinekin edo nola.

Eliz-aurreko Elizondo zeritzan ardandegian geundela, enparantzan aurrera zijoan emakume matraka antzeko bat. An ezagutzen zuten andre ori, eta ardandegitik deadar egin diote:

–Aizu, plaza erdi bat jan baietz besteak Bazkardori.

Sartzen da andre ori ostatuan, kolkotik atera dirua eta, zarta! mai-gaiñean ipiñiaz artzen du trabesa, eta badijoa. Adarjotzeko zeuden gizon aietako batek dio:

–Bota beste ogei duro!

Etzeukan nunbait kolkuan beste dirurik, eta or dijoa zalapartaka etxera. Dirua ekarri eta jaso du bigarren apustua ere.

–Au dek atsua, au! –zioten.

Ez dakit geroko berririk, nork irabazi zuan, alegia.

Bere gizona ez omen zan apustuzalea. Ganbarako leio-tik begira egoten omen zan zer ardaillatan ote zebillen bere emazte prakaduna.

Irabazten zuanean, gizonari poltsa erakutsiaz:

–Au ikusten dezu, au? Txapela galanta zuk, emen etxean sartuta...

Aizea eta arrokeria bai orduan; galtzen zuanean kon-tuak.

Irabaztean, pastelak maian; galtzean, sardiña zaarrak surtan.

Sega apustua

Iturriozko sega-apustua ikustera joan giñan bein iru mutiko. Iturriotzen graziosa edateko aiña diru izango genduan-eta, gaseosa alegia.

An ere ikusi zan apustuaren itsumena eta arrokeria. Bata Lokate zan; eta bestea, Aiako Argindegi. Ango belar ebakitzea, ango pixatu bearra, orrua, aupadea eta oiua!

Argindegik irabazi zuala eta ango suziri, txalo eta saltoak. Bizkarrean eraman zuten Iturriozko estatura. Bazan arrokeria.

Pauliño Uzkudun ere kastor eta guzti dotore zan apustu ortan. Argindegiren alde zan bera ere.

Lokate ia itoan Muatsa eraman zuten. Oe gaiñean nola ikusi genduan goibel asko goguan daukat ondo.

Belarra pixatzen ari zirala gero ere bazan Errezilko agure sudurkakodun bat “Eun bati!”, otsegiten zuana. Eun duro bati, alegia. Ori da zoro itsua izatea.

Ez genion artu, dirurik ez gendukelako; merezi bai ark arriskatzea, baiña...

Noizbait bukatu zuten belar-pixatzea. Zer gertatuko eta, irabazi zuala uste zana galtzaille gertatu zan, eta Muatsen ain burumakur eta bakarrik arkitzen zan galtzaille ustekoa, irabazle. Orra guzia azpikoz gain jarri. Ango iskanbilla, tranpa egin zana, txixa belarrari egin eta ura bota ziotena, eta nik ez dakit zer...

Pasara ederra artuak baziran an ere. Neronek ikusi izan ez banu, ez nuan sinistuko ango laiñeza, amorrua eta itsumena.

Txikuri eta Korreo zarra

Txikurik begiak irtenak zituan, anpolai izugarriak. Korreuak, berriz, sudurra zuan izugarri aundia.

Korreuak ardo eta pentsutegia zeuzkan, eta bai zaldi-karroa ere. Txikuri argindar turbinaren zaitzaillea zan. Bruxa luzea eta txapela txorroa eginda ibilli oi zuan... Azpeitiko izketia egiten zuan. Nik Errezillen ezagutu nuan beti, baiña Urrestil kasta izan bear zuan.

Goiko iturrian ari zan, blist eta blast, kupela aundiak garbitzen Korreua; eta Txikuri begi aundia datorkio esanaz:

–Ari al aiz garbiketean?

–Bai, aurten bete ere egingo dizkiagu-ta. Napar alde ortan ire begiak aiñeko maats-aleak bai omen zeudek-eta...

–Aizak, nere begiak aiñeko aleak baldin bazeudek, ire sudurra aiñeko imutua bear ko dek ontzi ori beteko badek.

Beste bein, Korreo ori karroan dator Azpeititik gora. Besa-motza bera, eta artaldea ikustean,

–Ooo, moro –zaldiari esanaz gelditu da.

Ardi errenak atzetik oi dira artaldean, eta artzaiari:

–Ik artzai ona izateko ardi erren geitxo dauzkak artaldean.

–Aizak, eorrek ere lauankan ibili bear baukake, erren bapua egingo uke...

–Iaaa, arri, moro –eta aurrera.

Ernio

Gu mutil koskorrak giñala Ernion irailleko jai-igandero izan oi giñan amarekin. Galartzu-zintak saldu eta kalbarioak errezatu eta... Argizariak erre eta argizari-opillak egin eta Etxeaundira saldu...

Diru apur baten billa bada, orratx.

Kalbarioak edo gurutz-bidea egin oi zan, batzuek gerrian argizariak bilduta, besteak eskuetan piztuta zutela, beeko gurutze zaarrearasi eta goiko gurutze aundian amaitzen zala. Arkaitz eta gurutzeari muin egiñaz, beetik gora.

Burnizko uztaiak iru aldiz pasatuko ziran, erregutuaz, buru, beso, iztar eta lepo, gorputz osoan, erreuma gaitz guztiak uxatu zitzan goiko Jaunak.

Garai aietan etzan iñortxo geldituko gurutz-bidea egin gabe, arkaitz leun zorrotz aietan belaunikatuaz.

Ernio gaiñean txabola kaskar bi dira. Salda egin, eta edariak saldu eta... Txabola bat Kuletok eduki oi zuan, Maria Aundikin; eta bestea, berriz, Txikurik, Arroxa bere andrearekin, alegia.

Beti alkar nundik izurratuko, asarre. Agureak beti alkarri tripak ateratzeko zorian, labana aundiak artuta. Atso biak mototsetik eldu eta tximak atera bearrean.

Urik ez da Ernio, eta salda egiteko jaso egin bear izaten zan Zelatundik gora. Lan neketsua uraxe. Pontxeak egiteko ere ura bear. Eta aurreko egunetan bete oi zituzten urez kupelatxoak.

Bein, arratsean ez dio ba Txikuri orrek petroleua sartu kupelatxoan Kuletori. Jesus, iñork ezin edan! Eta ezertarako etzala utzi zion ontzi ura. Ene, alako ixkanbilla eta burrukarik! Nik ez dakit nola etzuten alkar il. Erromatarrak Zelatu-

nen makillaz burrukatu zituztela, bada Ernion ontzi, eltze, makilla eta burnizko guda izan zan egun artan. Ango karra-xi, negar, kurrintza eta zapalarta, bada!

Ez salda, ez pontxe eta ez beste gelditu ziran biak. Gu gazteok pozik, ango ixkanbillari begira. Leengo limonada botilla kanikadun aietxek bakarrik gelditu ziran osorik, lodiak ziralako. Batzuk guk ustu giñuzen, izorrai! Guretzat ondo etorri zan ango txikiketa.

Beste bein astoa amildu zitzaion Txikuriri. Ernio tontorre-gure aurretik zijoan Txikuri astotxo limonada eta ardoz zamatuta zuala, "Arre, potx! Arre, potx" esanaz.

Gogoan daukat astoari gelditzeko esan oi zion erretolika:

-Iso, potxorno, dontzeillo, torre garai, illun-griss...

Aldaparik aundienean amiltzen zaio asto ori, eta or dijoa gain beera Santiago barrutiraiño asto gizajoa, ardo eta limonada-botillak atzetik arkaitzetan puskatzen ziralako. Deitzen zion larri goitik:

-Iso, potxorno, dontzeillo...

Baiña txistu aunditxo zeraman astoak. Negar egin zuan Txikuri begi aundi ark. Aiek malkoak, gizajoak.

Gure amak goxatu zuan alegiña lagunduaz. Esaten zion:

-Astua berriz ere izango da, eta limonadak ere bai. Zerorri osorik zeranean egin zindezke pozik.

-Bai, bai; eskerrik asko, Edubijix.

Ala igo giñan kalbarioak errezatzera. "Aita Eternoa, Jainko Todopoderoso...". Gure ardailla, bada. Eta gu deadarka:

-Ara zintak eta medaillak!

Ankamotz bat ere jaiero igo oi zan Erniora medailla eta gurutzeak saltzera. Gu koxkorrontzako dana zan polita.

Beste bein ekaitz izugarria sortu zan bat-batean. Alako tximist-trumoirik! Danok errezoan: Santa Barbara, ora pro-

nobix... Txaboletan kabitzen ez eta arkaitz-zuloetan sartuta larri egon giñan. Tximu-tximu eginda etxeratu giñan umil asko danok ere.

Beste batian, donostiarrak zirala edo, mutil eta neska, goiko gurutze ondoan soiñua jo eta baltsian etziran ba asi, alkandorak erantzita bizkarra bistan zutela? Guk ez genduan artean dantza lotu-baltseorik ikusi.

Ernataizko Euxebi eta Muskako Juxta eta andre batzuk an zeuden:

–Lotsagarri zikiñok! Ernioko gurutzera etorri eta larrugorrian baltsian! Likixkariok! Petrolioz igurtzi eta su eman gabe...

Aiek baltsian asi ziranean gure amak mantalez burua estali eta Orio aldera begira jarri ninduan. Zer ari ote ziran alkarri elduta neska-mutillak? Eta ni burua estalita... Gauza onik ezin bururatu.

Zer garai eta giroak ezagutu ditugun!

Andoaingo Bazkardon leenengo automobil karrera Ernio-tik ikusi genduan, katalajuekin. Bertan balebiltza bezela otsa sartzen zan; alako burrundada otsik!

Txiron, Karazioli, Nubolari eta karrera-gizon tximistazko aien izenak goguan gelditu zitzaizkigun Lasarteko karrera ospetsu aietan.

Donostiko estropadak ere Ernio-tik zerbait ikusten ziran. Lekutan zegon Kontxa, baiña gu pozik.

Ernio alde ortatik txanpona pranko inguratu genduan etxe aldera: pezta zillar, errealbiko txiki, txapon beltzak... Etxeratzen giñan bezin laster kontatu eta iru mordoxkatan jarriko giñuzen.

Egun berean xentimo gabe geldituko giñan. Danak amak artzen zituan, eta bai laster zabaldu ere: Etxeandira, Kobreuanera, Paneokora, meza bi ateratzeko... Eta gu beti pol-

tsikoan ezer gabe. Ain estu ziran Eliza eta beste mundu ortako gauzak!

Amak esan oi zigun, gu azitzen egindako zor danak ordaindu arte etzala aita Purgatoriotik irtengo. Eta orratx gu beti esku-utsean. Ainbeste neke artu eta pozik ez. Aita zeruratuko zan poza, orixe bai. Baiña noiz eta nola jakin?

Egia esan, gure ama dontsu ark zorra besterik etzuan mundu ontan. Ez det uste zeru-goi oietan bazterrean aaztuta egongo danik.

Jostuna zanez, beti josketak bukatu eziñik ibiltzen zan, beste lanez gaiñera egin bear eta jaiegunetan ere jostorrazari eldu bear. Baiña bi orduko baimena ematen zuan Elizak lanerako, eta aiek zalapartak! Ezin amaitu. Ordu bi oiek betetzen ziran une berean utziko zuan lana.

Pekatu, bada, pekatu. Ogia jateko izan, eta pekatu.

Bein baiño geiagotan negar egin zuan, jabea jantzi billa eta ematekorik ezta. Eta iñor ez lasaitzeko. Apaizak estu artu gaiñera! Bizi eziñean dabillena eta markesa ez det uste berdintzekoak diranik.

Jaiegunetan meza bat utsegin baiño leenago alkar jo eta kixkaliko ziran Ernio eta Izarraitz. Ain estu artzen zituan gauzak. Ori ama oso-osoa zalarik. Etzan txonta, ez.

Bidaniko San Bartolomeak

Txikiak giñala arrebatxoa eta ni San Bartolome egunez Bidanira joan oi giñan. Auzo-erriko pestak ere pozgarri oi dira...

Anai bigarrena, Meliton, morroi zegon Bidaniko Labaka baserrian, Pantaleon nagusi on aren eta etxeakoandre Joxepa Juana ama maratz¹⁸ aren mende. Etxeko, oso etxeako; maite zuten mutilla, eta soldarutzara arte antxe bizi izan zan Meliton auzo-errian.

Gure poza egun aiek urbiltzean:

–Ama, zenbat lo eginda da San Bartolome?

–Beste bost lo eginda...

Etzan guk nai bezin laster etorriko pesta-egun ori.

Goiz irtengo giñan anai-arrebok alkarri eskua emanda, taka-taka, Leasaspén Sakamantekas irten bildurrez. Iturburuk lapur-sona zuan, berriz, eta or guaz meza nagusirako Bidanira.

Gotzai edo obispo jauna, urtero bezelaxe, Muñoatarren jauregian arkitzen zan udara igarotzen, eta meza ikusgarria eman oi zuan. Koru piña, tiple onak...

Aurrekoetxeke nagusia, Toki-Alaiko Antonio aundia, Zaldibarren ere agian an izango zan kantuan. Roke beltza, Parisko Lukas eta Zapatero eta oiek ziran erriko gizon ezagunak.

Lisoain jauregian ere sendia bildu oi zan.

Urte askotan txistulari iaioenetakoak izan oi ziran Bidanin San Bartolometan: Azpeitiko Txokolo iru anaiak oso oker ez banago. Bai, iru txanbolin-jole. Soiñu berdin eta gozoagorik...

Orduan egunez egin oi zan dantzan, pestak egunez. Dan-

18 langile, arduratsu

tza-soka ere beti ateratzen zan Bidaniko enparantzan. Gure anai Meliton aurrelari izaten zan geienetan.

Urte aietan pelota-joku onak ere jartzen zituzten.

Mateo Mujika gotzaia ikustera eta berari eraztunean muin egitera joaten giñan urtero. Gaur Aita Santuari ematea aiña bazan garai artan. Noizko ikusten zenduan bada gotzaia? Sendotza etzala, etzan azaldu oi iñun. Beraz, orduko San Bartolomeak gotzaiarekin Bidanin gaur Aita Santua Erromatik etorrita aiñetxeakoak oi ziran.

Labakako bazkari poza

Ganbaran lizar-adar ostroekin euliak uxatuaz, barbantzuk txitxiakin, oilloa eta esne-arroza kanela txotxakin, gaiñean auts gozoa zuala. Alako eztairik!

–Jan, jan –esango zigun Joxepa Juanak–, gaztea este bakarrekoa izaten dek-eta.

Txilborra bete-bete eginda etorri oi giñan illuntzerako etxera, zer bazkari egin genduan amari esatera, erroskilla-sorta txiki bat eskuan artu eta erromeri-usaian.

Joxe Mari eta Juana Mari ere oso ezagunak giñuzen Labakan, eta gaur ere alaxe gera.

Ondorengo urteetan Aitz-Aundieta baserrira joan izan gera, eta orain ere jarraitzen degu. Arreba Martxeliñaren senarra baserri ortako semea izanik, artu-eman aundia degu bertako sendi gaztearekin. Zaarrak il ziran, baiña beraien erakutsi onak eta oitura jatorrai eutsiaz, ondotxo gordetzen dituzte euskal kristau bezela jokatuaz baserri ermo¹⁹ orretan.

Gizon ermo eta zabalak ziran aipatutako Toki-Alaiko Antonio, Zaldibarrengo nagusia eta Aurreko etxekoa. Perraburu, Larrañaga, Usarraga eta...

19 Irmo

Rokek iseka egin oi zigun errezildarroi: “Arraiokeri, aker arraiok...”. Eta guk, Bidanitarren sinua: “Opoon, oso-osoon...”.

Ari batek bestea luzatzen du, eta goazen berriz Errezilla.

Nik nere bizitzan ezagutu dedan gizonik aundi, zabal eta lodiena Learralde baserrian ezagutu nuan. Iztun egokia ala ere. Erritik ia bi orduko bidea zegon oiñez; Erkizitik gora al-dapa bapua ere... Amarekin aruntz joan eta egun bi igaro giñuzen, oetako lastai zaarren ordezt muellez egindako jer-goia sokaberritu eta konpontzen. Auspo-iltzea pranko sartu nuan antxe.

Learralde zeritzan baserri ortako nagusia, au da, gizon izugarri aundi ori il zan. *Learralde zaarra* esaten zitzaion errian. Ura sartuko zan il-kutxarik etzan iñun izango, eta Etxeaundiko Joxeren obraduran egin zan. Azpia ool lodiz, beste bi egur gurutzatuaz, bidean egurrak askatu eta irten etzedin. Zaparrateko ederra aterako zuan bestela.

Gurdia bete-betekoa zan il-kutxa ura. Baserritik lera jatsi zuten Erkizira. Andik errira, mutil eta gizonak seiñaka txandatuaz. Eta eliz-atarira iritsi ziranerako sorbaldak urratuak zituzten, bapo nekatu ondoren.

Erdoizta baillaran iltzen ziranak errira ekartzeko, Azketa aldetik edo Zelatundik ekarri bear izaten zituzten. Orduak bear ziran gorputz illak errira ekartzeko.

Antziña esan oi zuten, Beama baillaran amona bat il eta egundoko elurtea zala. Iñundik ekarri ezin, eta egun eta gau askotan etxean eduki omen zutela, presko-presko, kandela-argitan.

Bearko. Elurak meetzean ekarri omen zuten amonatxo ori errira, zazpi milla errosario errezatu eta inguru artako pattar guztiak agortu ondoren.

Erdoizta baillara ortan degu ere Granada deritzan baserria. Amorraierderrik izan oi da inguruko errekatxoan. Baserri ortantxe sortua da BASARRI idazle eta bertsolari ospetsua.

Baillara berean degu Barrenso baserria ere. Tomas Agirre olerkari, euskal idazle iaioak bere idazlanetan erabili oi duan gezur-izen edo izengoitia, Barrenso.

Inguru xamarrean, Txillarramendi baillaran degu Antxiturbi basetxea, Txapel bertsolari sakonaren jaiotetxea. Urruti gabe, Zepai, izen auxe daraman bertsolari biziaren teillapea. Gertuan, leenago aipatutako Etumeta iru baserri ospetsu oiek, Basajaun aundiaren pagadi baso bikaiñez inguratuta-koak. Gaur Azpeitian il berria degun *Jainko errena* ere pago-azpi ortakoa zan; alaia gizona.

Badu kondairarik asko Etumeta gaiñak.



Erdoiztako basiliza

Erkizia baserri bikaiña

Errezillen dan baserririk zaarrenetakoa eta onenetakoa zan. Entzun izan nien zaarrei, norbait diru paltan edo zerbaiten bearrean zanean, Erkizira jotzen zuala. Gaur egun ia erorian arkitzen da etxe zabal ermo ontako zati bat.

Perratoki, bolatoki eta ez nago ziur errota ere ez ote zan. *Erkiziko Amo* deitzen zioten antziña nagusi zaarrari.

Apustu-gizonik ere izan da Erkizin. Txirringulari bizkorra ere Erkiziko Batixta; bere sasoiak lanak eman oi zituan aldapa oietan. Gaur Astigarragan bizi da txirringulari zaarra.

Neska bikaiñik ere sortu eta azia zan etxe ortan. Erkiziko Erroxario, Parisen eta or urrutietan goi-maillako serbitzari izandua da, eta Pauliño Uzkuñunen andregai sonatua garai aietan. Ederra eta egokia emakumea! Kaxilda, bere aizpa bikaiña auxe ere. Euskeraz gartsu itzak jaulkiko dizkigu.

Beroien osaba gizon dotorea, urte askoan Errezillen alkatte izana, Amo, alegia.

Ezagunak

Lizarreta baserria da aita Zabala frantziskotarraren jaiote-txea. Nork ez du ezagutu bere sasoian erriz-erri itzaldi mar-dulak egiñaz ibilli oi zan praille ospetsu ura?

Basabe-goeneko praillea or degu ere argindar, txispa eta tximista guztien berri dakiana, burua eta eskuak berekin di-tuan elizgizona. Oraindik illargia baiño goraxeago joan liteke-netakoa.

Eta gaur gaurkoz sermoilari bikaiñenetakoa degun aita Beristain, Arantzazuko koruan zuzendaritza bere gain dau-kan praille gaztea.

Eta orra or bere anaia, Beristain pelotari bikaiña ere.

Or degu ere Arabeko praille bikaiña, abeslari trebe eta go-zoa, neskatx prankoren begiak luzatu eragindakoa.

Ezagutu dituk Errezillen aizkolari bizkorrak: Mendiola, Napoleon, Pauliño... Eta gaur ere or dezu Arregi, indartsu bezin egokia dan Nemexio aizkolari au.

Bertsolari egokiak ere ezagutu ditut gure erri ontan: Loi-disaletxe, Artañola eta Iparraldean *Errexil*²⁰ deitzen diotena. Saran ezagutu nuan.

20 Juan Joxe Eizmendi *Errezil*, Errezil 1917 - Urruña 1965

Gozokiak

Etxeaundiko gozotegian egin oi zituzten gozoki txikiak, konpittak, turroia, aingerak, txokolate eta gozozko bolaruak. Ura poza ondarrak miazteko Joxek deitzen zigunean.

Mantal aundia jantzita ibilli oi zan konpittero Joxe ori. Txokolate-orea edo masa egiteko astoa muturra estali eta jira-biraka ibiltzen zan, ardatzari eragiñaz. Itsu ipiñita ibilli oi zan asto gizajoa txorabiatuko ez bazan.

Eguberri jaietarako apainduta ipiñi oi zuten leio aundi ura gozo-erakusketarako, turroi-kaja borobilla, aingira doto-rea begi bizi-biziakin zala. Leioa jan bearrean ibiltzen giñan gu. Amaika aldiz bai sudurreko kandelak erantsiaz kristala estaltzeraiño. Egun guztian txandan zai ume danak bildu eta alkarri leku eman eziñik, turroi dontsu aiei begira, kristalla lurrinduaz, danak zupa eta zupa, kanpotik turroia jaten. Gure gozo gosea, izan ere, izugarria zan.

Urteberri egunean turroi borobil orren zozketa egingo zan Etxeaundiko atarian. Ortarako txartelak amar xentimoan salduko ziran. Urte batean gure amak esaten dio Nikaxio seme zaarrenari:

–Otso txakur aundi bat, eta ekartzak zozketarako *zortzi* ipintzen duan txartela.

Alaxe ekarri ere.

Iritsi da Urteberri eguerdia eta danok “Te Deum laudamus” elizan abestu ondoren, or goaz zozketa pozgarri ortara. Zakutxotik atera du umetxo batek txartela, eta Jauna etzegon gutzaz aaztua: *Zortzi* zeukan txartel ark. Zer zan ura! Gure etxerako Etxeaundiko turroi borobilla. Alako salto eta pozik...

Nikaxiok artu du kaja aundi borobilla eta Kanuaneko Moixesek ardo gozozko botillak, eta lasterka etxera.

Etxeko eskilleratan erori anai zaarrena eta irten zaizkio zirriztutik almendra zuri eta konpitta gorriak aingera-kaja orri. Bai guk azkar azkar guztiak jan ere... Eta gure amak:

–Esaten nian nik *zortzi* bear nuala, eta orra orain guk turroia.

Ez genduan jaten lan aundirik izan, egia esan. Eskerrak gauean amak lo artu zuanean saiatu giñan apur bat.

Pusketatxo bat eman zigun Urteberri egunean, baiña guk dana egun berean jango... Logelako koprean gorde zuan amak turroi begi aundi ura.

Oeratu giñan amarekin, bere albo banatan gu txikiok giñala. Errezoan ari zala lo artu zuan amak. Sagutxoak etzeuden ordea lo. Poliki-poliki jaiki gera, eta beso iarra kopre-zirriztuan zan bereala. Bai beste besoa ere. Biok kaja biribilla billatu degu:

–Ik bein eta nik beste bein...

Illun bazegon ere billatzen zuten atxaparrak ango paper apaingarria. Txermen gozatu eta muturra jan genion geienbat. Eta gure amak goizean:

–Zer ibilli zerate emen? Muturra zeñek jan dio? Begi bat ere palta dik onek. Nun dezute?

Kristalezkoa zan begi ori, eta ezin bada jan.

–Ara emen, ama.

–Ezin al ziñaten egon amak eman arte? Arraneok!

Atera zuan kopretik turroi-aingera burumotza. Asi zan labanaz partiketan:

–Au Padrenerako! –eta puxketa bildu paperean, txerri-odolki ordez. –Au Etxeaundirako; au, Etxeberrirako; au, Maria Aundiñerako; au, Xantiñerako...

Kitto gure turroia.

–Eta etxerako ez al da, ama?

–Jan dezute bart, arraneok. Danak txerri-odolkiak ekarzen dizkigutenak, eta guk txerririk ez diagu iltzen, eta turroia ordainetan.

Txanponak eman zizkiguten, baiña guk ez genduan kaja borobil zoragarri ura utsik etxean ikusi nai. Amak berak etzuan apurtxo bat ere proatu. Orra gure *zortziak* ekarri zigun turroiaren bukaera. Eskerrak amaren loa zaitu genduanari.

Zorioneko eman bearra. Kajea ondo miaztua izan zan, ala ere.

Ara zer gertatu zan urrengo urtean: Urteberritako turroi aundia aldameneko etxera, au da, Padrenera irori zala zozketa ortan. Eta ikusi al zenduan Jesukristo jaiotzen? Ez, jauna. Ez guk ere ez genduan ikusi turroi aren pusketarik, ez muturrik eta ez buztanik. Orra or esker ona.

Auxe esaten ez naiz izutuko beiñere. Mintxo eman zigun guri. Ama orrelako jipoiak jasotzen oitua egongo zan, baiña gu ez. Ori aaztu? Eztaaa...

Arbi-lora garaia, Garizuma deuna

Iñauteriak garizuma sorreran ospatu oi ziran orain bezelaxe. Mutillak zamorro-txantxo jantzi oi ziran egun oietan, amonen gona, txanbra, zaku eta abar. Txori-izugarrien antzera praka zaar, lastozko txapel eta orrela, parregarri.

Eskusoiñu, pandero, aoko soiñu eta adarra joaz baserri-rik-baserri ibilliko ziran, batean lukainka, bestean arrautza eta abar bilduaz, apari on bat egiteko. Parregarri, alaigarri. Zeintzuk ote ziran zamorro jantzitako aiek jakin-miñ oi ziran etxeoandre eta, batez ere neskatxak.

Gu txikiok ere zamorro edo mozorro lardaskan ibilli oi giñan. Guzia pesta zan. Gero Pazkoak arte etzegon ez soiñurik, ez dantzarik eta ez eztairik; guzia illa.

Elizan iñaute-garaian sermoi eta puntzioak oi ziran, mundu guztia pekatuan zebillela-ta. Gu bakarrik giñan aingeru ludi guztian, ala zirudin beintzat. Beste lekuetan zer demon-tre ote zebiltzan, alako buruausterik.

Iritsiko zan Austerre Eguna. Elizan ezarriko ziguten bekokian autsa esanaz “Auts zera eta auts biurtuko zera”. Itz garratzak, iñork uka eziñeko itzak. Egi aundiagorik billatzen ez da errez.

Lazaro deritzan eguna ere etorriko zan. Eliza beltz eta morez jantziko zan Pazko arte. Santu eta Kristoren irudi guztiak zapiz estaliak... Erramu-egunez asiko ziran ebanjelio luzeak abesten. Erramu-adar aundiak eraman oi ziran meza nagusira, bedeinkatzera, usai gozoa banatuaz. Eta urte guzirako erramu bedeinkatua etxean izango zan.

Norbait iltzen bazan, ur bedeinkatuarekin gorputz illaren ondoan adartxo bat ipiñiko zan, bakoitzak “Pater Noster” zipriztiñak ixuri zitzan.

Ekaitza zala eta erramua sutan ipiñiko zan.

Santi Kutz egunez erramu-egur orrekin etxeko nagusiak gurutzetxoak egingo zituan ate, leio eta soroetan ipintzeko. Oitura on eta zaarrei jarraituaz gauzak egiten zittuzten, eta gaur gizon askok ere, jator jokatuaz, auxe ber-bera egin oi dute.

Egundoko itzaldi, mixioak oi ziran Euskal errietan. Sermoi garratzak egin oi zituzten, batez ere praille batzuek. Aita Laskibar bat etzan amutsa, gogortxo ere egin oi zuan. Pekatari aundia dardaratuko zuan ark; pekatari txikia izutu, ikaratu ere.

Barkaziozko eguna izaten zan bildurgarriena. Sudur-ots ederra, zotiña ipiñi oi zuten emakumeen artean. Malko eta muki kentzen izaten zan lana.

Gizonak kaskarra igurtziaz, eztulak egiñaz, lixibak egosi eta jo ere baapo. Aspaldian zokoan pillan zeuden zatar zaarrak astindu oi zituzten.

Alaxe oituta geunden, eta aste bateko mixio “ja eta keak” on egin oi ziguten.

Egunsetian, izotzetan bazan, euritan bazan, “Agur, Maria” eta “Santa Maria”, Aste Deunerako giroan jartzen giñan danok, “Damu det, Jauna” eta abar abestuaz.

Ostegun, Ostiral, Larunbat deunak

Egun oek bene-benetan eta begirune aundiz igaro oi ziran gure artean. Ostegun Santu eguerditik asi eta Larunbat Santu arte etzan ganadurik uztartuko, etzan beirik lanerako lotuko.

Ibildeunerako kandela-atxa aundiak piztuko zituzten gizonak. Etixerik ez atxa gabekorik. Amabi apostolu, peregrino edo erromes, makilla eta kurkubita urdiñez jantziak. Ango makilla-otsa. Lau linternerero, maillu, tenaza, iltze eta eskillara. Zortzi aingeru oso soñeko antziñakoz jantziak. Oien zuzendari Mikel Goi-Aingerua luma ugaridun buruko, ego eta guzi.

Artzuriagako Bixente urte askoan jantzi zan aingeru, Mikel Deunaren irudiz, guztiz jantzi apaiñez. Eskuan ezpata luzea, otsa krask-krask ateratzen zuten zapata zuri urredunak; bide guztian salto, dantza ariña egiñaz nekatzeraiño ibilli oi zan Mikel Goi-Aingeru dotore ura.

Ostiral Santu arratsaldeko itzaldi gartsua izango zan Kristoren nekaldi, zigorketa, gurutzeko eriotza, Zazpi Itzak gogoratuaz.

“Sitio, egarri daukat. Beazunez naastutako ardoa eman zioten, kristau maiteok, Kristori”, deadarka pipi-autsak atera oi zizkion zenbait praillek kurpittoari. “Consumatum est, il da Jesus”. “Miserere mei, Deus” abestuez ibildeuna egingo zan. Oso bikaiña egin ere zamorro eta guzi, Gurutze Santuan barrera, Ama Doloretako musu-txuri negarrez samindua Kristo illaren ondoren zala.

Tinieblak abestu oi ziran, Barrabas eta deabrua izutzeko. Matraka, aulki-dantza, zalapartaka izugarriak, ango maillu eta egur-otsa. Zarata orren barruan ikusita nago emakumeen gona luzeak auspo-iltzez zoruari josten, altxatzean tirri-tarra ots aundiagoa atera zezaten.

Elizkizun ondoren, ardo goxo Loidi gailletakin izan oi genduan, eta naiko burua artuta balantzaka antzean gaiztotu ere. Goguan oi dira olako gauzak.

Mixio sermoian, bein, ardo zurruta astindu zuan prai-leak, eta sermoi ondoren eliz-atarian gizon oillo-jale batek dio edaleari:

–Jooo, gaur aitu dittuk ederrak!

Eta berak:

–Bai, gaurko sermoia mozkorrena uan, biarkua lapurrena izango dek, egon daikek erne.

Eta oillo-lapurra aurpegia luzatuta lotsaz geratu zan, ixilik. Zozuak beliari ipurbeltz. Ark ere obe zuan bereari begiratu izan baldin balio besteari eraso baiño leen.

Iritsiko zan Larunbat Deuna. Su bedeinkatua artzera joango giñan, ardagai mardulak makillei erantsita zirala. Ardagai-puxketa txikiak poltsikuan giñuzela su berriaren eskean joango giñan etxez-etxe, ardagai-zati txikia aundiaren ertz batetik etxe bakoitzean piztuaz.

Gu beti zerbait eraman eta biltzeko gertu:

Aimaria... Su bedeinkatuaren eskia...

–Aaa, i al intzan?

Artuko zuan ardagai bedeinkatuaren sua etxekoandreak eta zerbait marmartuaz etxeکو suari puxketa botako zion.

–Otso –esango zuan, eta intxaurrak eta txanponak eman–. Aufiii!

Egun guztian su bedeinkatua eramaten urrutienetako baserrietaraiño. Gauzaz gaiñezka iritsiko giñan etxera. Ura zoriona!

–Ama, ama, begira zenbat gauza...

–Zeiñek eman dik lukainka ori?

–Erausiko Mariak.

–Baiña, baiña... Zuek egiteko ez dek aundia!

Bein Xebaxtian eta biok Lizarreta-errotako belar-zuatz ipurdian diru kontatzen asi giñan, eta ardagaiak gu oartzeko rako sua erantsi zion zuatzari. Por-por eta zar-zar, sua gora. Larri giñan.

Gizonak bildu ziran eta bereala itzali zuten. Eskerrak erreka gertuan zegoen. Barrura etzan erre, azaletik bakarrik, baiña ango su-garrez aldameneko saletxeak ia-ia su artu zuan. Su bedeinkatuak ia oker aundia egin zuan.

Ur berriak bedeinkatzea

Egun berean suarekin batean bedeinkatu oi zan ur berria ere, Pazko-ur berria. Nere aurreko arreba Maria Ritak artu puskatzen etzan txarro mutur luze bat, bete ur bedeinkatuz eta suarekin bezelaxe etxez-etxe, baserriz- baserri ur bedeinkatu eskean ia egun guztian, ura zabaltzen. Amak esan zion:

–Neska, pitxar ur orixe ez uanan motza.

–Ustutzen zanean errekan betetzen nuan berriro ontzia.

–Jesus, Maria eta Jose! Intentzioak balioko al din...

Mototsetik eldu eta esan zion:

–Zein etxetara eraman den erreka ura?

–Etxe askotara.

Naiko kezka sortu zion gure amari bere ur-partitzearekin. Bati baiño geiagori esan ere etzala bedeinkatua matraka arek eraman zuan ura.

Azkenean don Kandido apaizak lasaitu zuan ama, esanaz, ur tanto batek milla bedeinkatzen zituala. Amen.

Sendotza

Maiatza iritsi zan. Orduko eginkizunik nagusiena loreetara²¹ joatea izaten genduan. Jaietan bezperak, aurreko puntatik azkeneko muturreraino abestu bear izaten giñuzen ume, mutil eta neska danok.

Gotzaia zetorrela umeak konpirmatzera eta ura zan ix-tillua. Amabost egun aurretik asi giñan eliza garbitzen eta apaintzen, gotzaiak zoko guztiak maixiatzen eta begiratzen zituala-ta. Baita aitorlekuak ere.

Argizariz-eta garbitu ondoren, usai gozoa ipiñi, arnasa, izardi eta puzkar usaiak kentzeko. Bikario jauna dardaraz, apaiz guztiak bildurrez gotzaia zetorrela-ta... Ongi etorria egiteko zubi-arkua untzez, ostroz eta lorez apaindua. Elurreko Alejandro lan guztietan ibilli oi zan Joxe Ezamaunekin, eta bai dotore egin ere arkua *Ongi etorri* lorez idatziaz.

Erri guzia entsaiuan “Veni Creator Spiritus” gotzaiari abesteko. Don Axintxio Belamendiko apaizak Gunod-en “Ave Maria” abestu zuan elizan. Tenor ona zanez, ondo abestu ere, eta gustatu, orratx.

Amar urtetik edo etorri oi zan garai aietan gotzaia sendotza edo konpirmazioa ematera. Ume asko zeuden konpirmatzeko. Gaur bezela etzegon bidezabalik, ez berebil edo autorik; eta etxe, baserri askotatik zortzi, bederatzi edo amar ume errira ekarri bear ziran, alajaiña, danak batera.

Asta-saski, gurdi eta aal zan bezela ekarriko zan ume eta aurtxo mordo ura. Bazirudian Errezilko kaleak Zumarragako Santa Lutzi peri-azoka. Alako gurdi, lera, asto-arrantza, marmar, ume-karraxi, marru, negar eta ixkanbilla.

Gure etxean bildu ziran Zepai eta Etumeta aldeko ume

21 Maitzean Andre Mariari eskainitako elizkizuna

sailla. Ordu biko bidean lepuan eta asto-gaiñean ekarri zituzten umetxoak.

Danok elizan sartu giñanean, atea itxi zituzten eta etzegon irtetzerik. Alako marru-otsik... Orduan, gaiñera, umeak negartiak oi ziran: batzuek titi eske, besteak izututa larri, zeinek ixildu? Egia esan, bildurra ematen zuan barru ark.

Oialetan porru-kirten bezela paxez eta pixa-oialez bilduta, txilborreko niñez, aizatuta eta anixa emanez... Etzait aaztuko beñere zorioneko puntzio ura. Ango kakabera, lerdea eta pixa. Eliza alde txukuna gelditu zan! Etziran alperrik angore eta usai gozuak.

Bi orduko presondegia izan zan elizkizun ura. Eguerdi bitartean egin zan dana; eta arratsaldean Beizaman egin zan beste peria. Ez dakit nola etzan zoratu gotzai ura.

Tiple taldean gu ere Beizamara eraman gintuzten karruan sartuta. Eta an ere berdin: ume jaio berrietaraiñoko guztiak elizan sartu eta preso. Alako orkestarik.

Abestu genduan "Veni Creator Spiritus"; arrantxo goxua eman ziguten eta, zein gu baiño aundiago?

Azentzio ipuia

Oso gazterik baso-lanetan mendian zebillen mutilla. Azentzio eguna jai aundia dala eta goizean goiz dator bere baserrira. Ate-ondoko txakurren zaunka intziriak... Ongi etorria entzun amak eta dio:

–Manuel Mari gure mutilla emen dek.

Rank, atea:

–Egun on...

–Emen al aiz, gizajo ori? Tira, garbitu eta aldatu adi azkar, eta ua, elizako lanak egin itzak, aspaldian izan gabe ago-eta. Gosari ona prantatuko diat atorrenerako... Ua, ua, Pazko-garaia dek-eta, ondo egin gauzak. Dendan erosi itzak abarketa berriak eta tira...

Or dioa mutilla abarkak jantzita. Erosi ditu ezpartin zu-riak eta ez da asarre mutilla.

Elizan sartu danean, sorbaldan zintzilik zeramazkian abarkak eliz barrenean gurutzean josita zegoen Kristori oiñeta-ko iltzean txintxillik ipintzen dizkio, elizako lanak egin arte.

An ari da kokotea azkatuaz, esamiña egiten pin asko. Alako batean sartzen da kurtiñapean aurrera lepua luzatuaz auzko bazterreraiño.

–Noraiño ua, motell? –dio apaizak.

Au eta ura eta bestea, esan dizkio okerrak apaizari.

–Ba, badakik egun aundia dala zero-lurretan gaur, Jesu-kristo zerura igotzen dala...

–Eee? Mekasuen! Egon bedi apur batean –esanaz, rau! irten da kaxernatik eta or dioa itsumustuan eliz-barrenera. Apaizak, gerriz gora irten eta oska:

–Nora ua, motell, ez diagu oraindik bukatu-ta?

Zoratu ote dan ere... Kentzen dizkio Jesukristori abarkak oiñetako iltzetik, eta gora begira dio:

–Orain joan zindezke nai badezu zerura, Kristo.

Eta artu berriro sorbaldan abarkak zintzilika eta or dator-kio.

–Nora joan aiz, motell?

–Zea, Kristo zerura dijoala esan du eta abarkak neuzkan Kristoren anketan txintzilika, eta orixe egin bear nuan, abarka gabe gelditu...

Parrez dio aitorleak:

–Motell, orren bildur al aiz? Or dagon Jesukristo ori or egongo dek gero ere. Zerura joan uan joatekoa...

–Aaa!

–Lasai Jauna artzak eta gosaldu zak ondo.

Pozez mutilla, zuzen asko gauzak eginda.

* * *

Azentzio aurreko eskari, errogatibak zirala eta, letani luzeak abestuaz ibilli oi giñan: Santa Gerbasi et Protaxi, orate pro nobis; Sante Simon, ora pro nobis; Santa Andrea, ora pro nobis. Ik neri eta ark ari, liberanos Domine...

San Esteban bidean, goizeko intza, eguzki disdirak, txori-kantu, lore-usai gozua, erle-burrundada otsa, soro-lanetan eta arto-ereintzetan ari ziranen deadarrak, "aida gorri, ooo, esti!", asto-arrantza, erreka-otsa, kukua kuku eta kuku. Iza-diaren ederra, laiño zuri mordoak.

Zoriontasun orren barruan iru egunetan egingo ziran errogatibak, letani abeste, meza eta puntzioak.

Bai gizonak erantzun ere ondo.

Azentzio eguna

Kristau-ikasbidearen sustraiak sakondu ondoren, jaunartze nagusia oi zan Azentzio egunez.

Elizan, jaunartze ondoren, larri izaten ziran danak irtetzeko eta ausnarrean asteko.

Egun ontan berrogei kredo ere esan bear izaten ziran, eta danok egun guztian kredo esaten eta ezin osatu. Izan ere, zertan ari dan aaztu gabe berrogei kredo zeñek esaten ditu? Obe da bai bat tajuz eta ondo esatea, ez irurogei lardaskatzea. Jesukristo bateko il zala, besteko zerura igo zala, inpernura jatsi zala, linboan ere izan zala... Zoratu bear gora eta beera Jesukristo arratserako. Oeratzean ere artean osatuko etziran bildurrez kredo esaten. Nazkatuko giñuzen guk orgoi oietako Aita eternua eta santuak.

Gure aita zanaren eguna oi zan Azentzio egunez, Axentxio zandada. Egun guztian aita garbitokitik irten eta zerura igo zedin otoitzean, eta gaiñera, leen esan bezela, berrogei kredo esan bear salbatuko bagiñan.

Oiek orrela dirala, amak aia egingo zigun pertzean zotz batez eragiñaz. Ezin giñan egon ondo egosi edo egin arte, eta makilla atera eta miaztu bear izaten genduan. Bai mingain-ezpaiñak berotu eta erre ere...

Amak:

–Erre al zerate? Ondo egin zaizute, egote asko zenduten atera eta oztu arte.

Gero, pertza miazten katuekin batera an jardungo giñan lurrean etzanda. Dana gozua guretzat orduan.

Egazkiñak

Orain dala irurogeita amar bat urte azaldu izango zan leenengo egazkiña. Bleriot, Delagrang, Dumont eta beste batzuek izan ziran asera eman ziotenak egazkiñari, baiña 1911n, Azentzio egunez agertu edo igaro omen ziran Euskalerrian egazkiñak.

Leenengo aldiz zetortzen, Paristik irten eta Madril aldera. Tresna xeibre aien barruan gizon edo gidariak zijozen. Batean Bedrines, bigarrenan Garros eta bestean Guilbert.

Jende guztia mendi-gaiñetara igo zala diote zaarrak. Igaro bear zuten mendi-gain guztietan suak piztuta omen zeuden, kea piloto oientzat gidari izan zedin.

Irun aldetik, San Markos inguruan beera, Uzturre, Larraitz, Santa Barbara, Saadar, Otzaurten barrena Altsasuraino. Olaztin erori omen zan bat; Burgos aldean jatsi zala diote bestea; Madrilera urrengo egunean iritsi omen zan irugarrena.

Esaten dute egun artan erri askotako meza nagusiak aurreratu egin zituztela, jendeak goiko tresna oiek ikusi zitzan.

Diotenez, larrean zebiltzan auntz, ardi eta abereak aztortu eta marruka igesi joan ziran; egaztiak, jakiña, pisti izugarri aiekin izututa.

Egun gogoangarria esan oi zuten Azentzio egun uraxe.

Azken-epaia

Aeroplano sastar bat Etumeta gainean barrena azaldu zan. Azken-juizioa ote zan ere...

Zer sapelaitz edo putre arraio ote zan... Asten dira abere eta egazki guztiak aztoratuta igesi. Ango ixtillua, noski. Ez da arritzekoa ere. Etzekiten Errezil aldean gizonak egazkin tresna au asmatu zuanik, eta lasai ari ziran beren lanetan kristauak. Bai larrean zebiltzen abereak ere, lasai zebiltzen.

Artean etzan irratirik, telebistarik gutxiago. Etzan eguneroko paper berri-emailerik. Igandeetan eta azoka edo periegunetan jakiten zutena zan dana. Zeruan bizi ziran, beraz: lana, jana, otoitza, ipuiak eta lo lasai. Orra zoriontsu bizi.

Or, Intxusa eta Eperzelaieta basetxe bi oiek Errezildik Azpeitira bitarteko sakan batean arkitzen dira; paketsu arkitu ere. Gaur ustauak, agian.

Eguerdi-inguruan, eguzkiak udaberriko intza jate aldera, birigarro, xoxo eta txori-otsa. Basetxe bietako kristauak beren lanetan astiro ari ziran; batzuek bei zai, besteak artajorran.

Alako batean nun azaltzen dan Etumeta gainean barrena sapelaitzaren antzeko zerbait. Izutu dira oillo eta oillarrak; gutxiena uste zuten gainera zetorkien pisti besozabal zarata-tsu ura gizona barruan zuan tresna zanik, txori-kantu, kukuruku eta asto-arrantza besterik entzuten etzan mendiarte artan. Alako zalapartarik! Ikaratu dira danak. Ez dala gauza onik, azken-juizioa dala eta danak etxera.

Goiko gaztaiñadian larrean zebiltzen asto ama-umeak gain beera zalapartaka, atzeko anak burua baiño aurrerago zituztela, lepoa austeko zorian. Alako tronpeta-otsik asto oiek... Beiak zearka gora begirada izututa, bazter guztiak txi-

kitu bearrean marruka. Beizaia eta bi auntzak karobi zaarre-
ra ezkutatu eta larri.

Arta-jorrazaleak atxurak bota eta zilipurdika etxera, azken-juizioa dala-ta negar batean, salbamen eske. Mixio-sermoi zorrotz aietan askotan entzunda zeukaten ango kristauak, alegia, Jaungoikoa besoak zabalik burrundada dariola etorriko dala biziak eta illak epaitzera. Eta orra, aientzako Jaungoikoa zan an goian zetorrena.

Sermoian esan bezela “Mendiak alkar joko dute, sutu eta kixkaliko dira; illak beren lur-zuloetatik irten edo jaikiko, zeruan dauden santuak ere bildur diote egun orri!”.

Etzan an berriketarik; azken-juizioa zan, eta kitto!

Etxeratu ziran etxe bietako kristauak, zaarrak arnaska batean. Ango erregutu bearra eta damu otsa; “Ni pekataria” eta “Nere Jesukristo jauna”, zartadak bularretan emanaz, barkamen eske.

Erremua erre eta kandela piztu. Gurutze xaar bat, batek bear eta besteak bear, eskubi aldean gerta zitezen etxeko danak.

Amona, lau umerekin kutxan sartuta, bildurrez, deabruak eraman ez zitzaizkion artuta.

Beste baserrikoak sukaldean jira-biraka, belaunak urratzeraino gurutz-bidea egiten, zeruan sar zitezen...

Seme zaarrena mandioko atetik deadarka beste baserri-
ra:

–Zuen oillarrari atxurrez jo eta lepoa nik moztu nion. Barkatu!

–Baaiii –beste mandiotik.

–Baita zuen asta-soka eta gurtedea ere gure etxean daude arrapatuta ekarrita. Barkatu, arren!

–Baaiii, barkatuta dago –aitorketa alkarri urrutira.

Ume eta ikuilluko ganaduak danak marruka.

Ran-raan-raaan burundada otsa dariola aurrera dioa Jaungoikoa. Josapateko zelaira joan izango zan.

Etzekian asko an goiko tresna sortuberri artan zijoan gizon ark azpi artan zer ixtillu eta estuasunetan zebiltzen, Erniok eta Izarraitzek noiz alkar joko eta kixkalduko, mundu guztia noiz txikituko.

–Inpernurik ez bada, Jauna, arren! Ume errukior auekin batean zeruan, bada, Jauna, zeruan...

Ixildu zan dana, ezeren arrastorik ez eta leio-zuloetatik begirada.

–Jaungoikoa ezkutatu da...

Illuntze aldera asi ziran galdezka:

–Bizi al zerate?

–Bai; eta zuek?

–Gu ere bai. Zer ote zan?

–Ba al dakigu? Etzan mundu ontakoa, ez da beraz izango azken-juizioa.

–Ez dirudi, baiña ala ere gure larriak...

–Eta gureak? Aitona oraindik lastairan sartuta dago, ze-
ro bildurtuta.

–Gure zaarra oraindik akto fedekok esaten ari da.

Etzituan ixkanbilla txarrak jarri trepete ark. Azpeitiko azokara joan ziranean jabetu ziran areoplanoa zala, eta gizona omen zijoala an goi artan, sapelaitzaren antzeko tresna artan.

Larri omen ziran Etumetan ere, zer adrazu²² ote zan an igaro zan burundada ots ura.

Eta diot: Gaur parre egiten degu, eta geurok nola gabil-tza? Ainbat gauza ikusi arren, ovnik edo, or beste lurralde-

22 Adrezu – instrumento, ingenio

tatik sateliteetatik etortzen diran *platinos volantes* deritzan eta argi ikaragarriak ixurtzen omen dituzten gauza oiekin? Geroak egingo dio gureari irri eta parra.

Etzan arritzeko ez mendiarte paketsu babes artan larritzea. Aixa zaarren gain parre egin izan degu, eta egiten da, baiña oraingo aurrerapen oien zuztarra leendik ez ote dator-kigu? Ondo oldozten badegu, geiena ez da gero gaur goizean asmatua.

Ardatza noiz sortua ote da?

Txingar sua? Indarra?

Or dago kakua, or.



Erkizi baserria, Errezilgo etxe nagusienetakoa

Kaletar eiztaria

Oraindik urte gutxi dala gertatu zitzaion kaletar eiztari bati. Badijoa su-iskillua edo arma eskuetan duala eizera. Amets gozoz, ortxe, bide-ertz batean iruditu zaio erbia sartu ote dan sastraka artean.

Erne belarriak. Ttuk-ttuk-ttuk, otsa. Sartu da langaz beste aldera; barrutian beiak larrean eta aiek zaintzeko maki-llatxoan gainean zelai-ertzean aria zegon ipiñita, indarra alegia. Beiak bazekiten ari ark muturraz ikutu ezker ote egiten zuan, baiña eiztariak ez.

Ttuk-ttuk-ttuk ots orrek eraman du gizona sasi-zokora, zer arraio ote dagon. Ikusi du zillarrezko marmitta baten antzeko ontzi soiñudun ori. Mekasuen!, izutu da illargitik jatsitako pusketaren bat ote dan, platillo edo olako zerbait lur ontakoa ez dana. Etorri da antxintxika errira esanaz satellite oietako bat alako zelai-bazterretan geldituta dagola.

Ain larri ikusi dute gizona, sinistu eta or dijoaz ertzaiña eta olako guazetan aurrena ibilli bear izaten duten batzuk.

–Ixo, ixo... –sartu dira langaz barrura.

–Nun dek bada?

–Poliki, ixo, ixo... Or, oor nun dagon

–Au demonio eltzekondo, ori platilloa? Ori satellitea? Ez ago i satellite txarra.

–Zer da ba, zer da?

–Ori zer dan eztakiala?

–Zer da ba?

–Galdetuiok orri.

Orduantxe zetorren baserriko nagusia, eta:

–Zer madarikatu zabiltzate emen?


–Zea, onek emen beste mundu oietatik jatsitako platillo bolante bat dagola esan digu, eta ikustera etorri gera.

–Eta au zer dan ez dakiala?

–Nik ez.

–Motell, au gure morroia dek, onek zaintzen dizkik beiak, demonio kitolix! Zeuon denbora guztian baserritarrei parre besterik ez diozute egin, kaletar lepagorriok, eta orain arrapazak zapua buztanetik.

Eiztaria zearo lotsatuta joan omen zan.



Mateo paxiegua bere eize-zakurrarekin

Josetxo

Ibarbia baillara-egian mutil koxkor biurri bat bizi omen zan; ez gaiztoa zalako, ez, berez zetorkion okerrerako griña. Beti burrukan, mutur-joka eta zer soma zebillen, baiña biotz on baten jabe zan.

Aitona maite zuan erruz; bai aitonak mutilla ere.

Aitak okerra egiten ikusten zuan bakoitzean jipondu egiten zuan. Geitxo ere bai, noski, eta aitonak ezin eraman:

–Utziok umeari pakean, orrengandik oraindik gizona ikusi bear diagu-ta.

An joango zitzaion jipoia artu ondoren marruka; malkoz eta mukiz, iztarretik eldu eta basituko²³ zizkion galtzak aitonari:

–Zer egin die, gizajo orri? Okerra egingo uan? –eta aitonak gozo-gozo artuko zuan, begiak malkoz betetzen zitzaizkiola.

Dotriña ere geientsuena aitonak erakutsi zion. Leenengo jaunartze-garaia iritsi zanean, amak Azpeitiko azokatik zapata berriak ekarri dizkio. Ondo zeuzkan ikusteko jantzi orduko aitonari erakutsi bear, ba, eta or dijoa. Goiko barrutian bei zai egon aitona, murkatzean eserita.

–Aittona, aittona –dio–, begira amatxok zer ekarri dizkidan.

–Zer dituk bada? –gerturatu zai dago aitona. –Joju! Politak ez badittuk gero...

–Bai orixe, aufiii! –moxal egiñik mutikoa saltoka pozez. Aitona bera ere moxal biurtu da. Ekin dio anka biurrika:

–Au dek geldi egon eziña daukadana, motell!

–Aufiii! –ta biok saltoka.

23 Basitu - busti

Aitonak onela zion:

–Nik ire sasoian, eta geroxeago ere, bi anak kokotian jarri oi nizkian aixa, eta sarritan gaiñera.

–Ara, ara! Kokotian?

–Bai, motell; baita gaur ere, ezurak gogorak zeuzkeat baiña oraintxe anka bat kokoteratuko nukela iruditzen zaidak.

–Ia, ia nola egiten dezun.

Asi da pendiz-murkatz gaiñean aitona bere anka-zaiñak bigunduaz. Eeeup! eta eup!, biribildu da; anka bat jaso du bururaino, baiña ezin kokoteraino eraman.

–Ia bultza egiok apur bat, Josetxo.

Eupada batean jaso dute anka oker ori kokotera.

–Ikusten dek? Bestea ere jasoko nikek!

Onen poza eta mutikoaren begiak. Laster ziran estuasunez:

–Itotzea natxeak... –Anka ori ez duala berriro ekarriko bere lekura–. Iltzera nuala!

Zilipurdika eziñean dabillega, amildu da murkatzean beerra. Bola bat egiñik or dioa aitona ori belardian beerra marru trixteak egiñaz, barreneko sasi artean gelditu dan arte.

Bertan zegon erbi gorriak laster anak jaso zituan ango zirripi-zarrapa otsez izaturik. Or dioa tximistak arturik, eta bere anka motxez, ta-ta! lurra joaz ezkututzen da.

Josetxori erbia ikustean jarri zaio buruan aitona il eta bere anima gorri-gorriak iges egin duala... Jesusss, izutu eta or dioa karraxi batean etxera:

–Amaaa, aittaaa...

–Zer dek, Josetxo?

–Zea, zea... Aittona piririka erori da, eta sasian il da.

–Baina zer dio ume onek?

–Bai, baaaiii, aittona il da eta bere anima gorri-gorria barrutian gora joan da. Anka motx-motxak eta buztana ere motx-motxa...

–Goazen aguro; ez degu gauza onik.

–Bai, kokotean anka jarri eta...

–Nun dek bada?

–Or, or nun dagon sasian.

An zegon aitona sasian antsika, arnasa ia itoan.

–Aska nazazute azkar...

–Jesus, Maria eta Jose! Zer gertatu zaizu, aitta, orrela ka-tramillatuta erortzeko?

Ez leenengoan, baiña nolabait askatu diote anka ori. Naiko malgotua etxera eramanez izango zuten bizkarrean artuta, gizajoa. Bere onera etorri zanean esan zituan bere anka-biurketa kontuak.

–Aittona ez dek il, Josetxo!

–Ez, baiña anima zerura joan da...

–Zer anima gero?

Aitonak esan zienean erbi gorria irten zala sasitik, orduan jantzi ziran Josetxok ikusitako anima dontsua pisti uraxe zala.

Baina Josetxorentzat anima zeruan zan eta kitto, bere anka motx, buztan eta guzti.

Naiko parrea egin zuten etxe artan gerotxo ere. Eta pin asko egin zuan leenengo jaunartzea Josetxok.

Danak bereziki maite zuten, geien-geiena aitonak. Lo ere aitonarekin egiten zuan, eta galdetu oi zion oerakoan ia anima etorri al zan.

–Bai, motell, bai –erantzun oi zion–, emen zegok barruan eta egon adi lasai.

Otoitzak eta lo baapo.

Gu ere ixtori orixe entzunaz amaika aldiz loak artu ginduan. Esne gaiñean apar eskasa bazan ere, loak mantentzen giñuzen, orratx.



Goiko Iturria

Talo gozoa

Beste mutiko bat, oso burugorria eta motela omen zan. Ako-teikoa edo zala esan oi zigun amak... Ez *a*, *e*, *i*, *o*, *u*, eta ez *a*, *b*, *c*..., ez eskola eta ez dotriña ikasten etzuan oietakoa.

Alegintzen ziran, bada, etxekoak dotriña erakusten, baiña alperrik. Daatuluarekin zuloa buruan eginda ere etzegon ari ezer erakusterik. Lurreraiñoko anakak azi eta gero ere amaren magalean egon bear izaten zuan, titi eske. Bearko eman...

Goiz batez amak:

–Otso talo erdi bat, eta ua beiak zaintzera...

–Ez, ez naiz joango.

–Ez aizeala joango?

–Ez.

–Ia, ua azkar.

–Ez eta ez.

–Aittari esango zioat, aittu? Jiponduko au...

Kaskaillutzarra berean.

–Ua ba...

–Titii emandakoan bai...

–Motell, aitta aiña aundi egin eta titi eske? Ez al aiz lotsatzen? Otso, otso, eta ua leenbaileen.

Titia eman zegon lekuan eta zurkada batzuk egin ondoren, or dijoa mutilla txistutan, esku biak patrikan eta makilla galtzarpean duala.

Bei zai zegola bela bat kroak-kroak egiñaz jarri omen zan langa albo ondoko esola gaiñean. Mutillak, uxa, uxa! esanaz akuilluaz bialdu zuan pisti beltza. Eta ura egon zan esola-muturrean talo erdi ori igurtzi eta jan omen zuan. Gero amari:

–Ama, ama; taloa belea egon dan esolan bustita jan det, eta bai gozoa zegola...

–Baiña, motell, ori ere egin al dek? Jesus milla bider! Gaur bijili dek, eta ua bruxa garbia jantzita azkar aitortzera, pekatu egin dek-eta.

Ala konpesatu izango zuan aragi-kutsuzko pekatu ori.

Zeiñen fede estua! Garaiko kontuak.



Juan Mari Ugarte organua jotzen

Bi begibakarrek alkar jo

Auzo-etxea genduan Sagastilluts. Bere izen jatorra orrela bazuan ere, Korreuania deitzen zitzaion, eta alaxe da gaur ere: Korreuania.

Guk ezagutu genduanetik korreo-lanak etxe onek daramazki.

Bete-beteko etxea, sendiz eta lanez: denda, janari, ardo eta pentsuz ondo osatua, gure koskor-garaian batez ere.

Baserri ermo eta mardulak dituanez, Errezillek kaskar batzuk ere baditu tartean, nola ez? Soro aldapatsuak badira ere, landu oi dira, leen laiaz eta gaur goldaz.

Abere eta ganadu ugariz, esnea, txekorrei emanaz gainera, erriko esnetegira ekarri oi zuten. Neurtu, berotu, makina-tu, gazura kendu eta landuaz, mantekilla egin oi zan.

Etxe ortan ataria bete asto bilduko zan goiz aldetik. Alako ostiko, ipursalto eta arrantza otsik... Astarrak aztoratzen ziran emeen usaira, eta bein baiño geiagotan eteten zituzten beren lokarriak, eta ango igo bearrak eta istilluak! Esne-ontziak mazpildu ere, esneak airean zirala. Isoo!, eta potx! esan arren, alperrik. Alako tronpeta-pestarik. Noizko otsandu?

Joxe zan esne-lanetan aritzen zana. *Mantekilla Ernio* sonatua zan ingurumari artan. Zestuako baiño-etxe eta ostatuetan erruz bear izaten zuten janari au uda-garaian. Makiñatxo bat ontzi-garbitze egiña naiz Joxeren inguruan.

Zakartzen zanean belarrondokoren bat emango zidan, baiña Eustaxi ama on ark gozatuko ninduan katillu aundia bete kapesne ederra emanaz. Uraxe amona xamurra, eta uraxe gosari gozua!

Begibakarra zan Joxe, etxeko seme zaarrena. Ume-garaian jolasean edo galdua zuan beste begia.

Txirrinduan eraman oi zituan mantekilla-kajak Azpeitira. Eta orratx nola gertatzen dan alkar jotze ori.

Bikario jauna ere begibakarra zan. Zaartuta gero ate-kris-
ketia illunpetan jo eta galdua zuan begi ori. Intxausti aldean
bere makillatxoarekin egurasten goraka zetorrela, azaltzen
zaio Astazulon Joxe txirrinduan goitik beera bere esnekiak
atzean dituala. Ikusirik biak alkar, asi dira alkarren igesi
onuntz eta aruntz, eta ara or biak nun, danba!, erdi-erdian
alkar jotzen duten. Biak zilipurdika lurrean. Bi begibakarrak
trik! egin eta kopetako ederra artu ere.

Ala ere, beste begiak osorik zituztenean biak pozik.

–Zeer, nora begira ijoan, motell?

–Ni nere eskutik netorren, zerorri asi zera biurrika, eta
ara or zer egin degun...

Biak armonin... Laster jakin zan errian aari-apustuaren
berri. Orrelako kaskarreko batzuk ondo etortzen ziran parre
apur bat besteren kontura egiteko.

Ardia eta intxaurreak

Basoan ikazkintzan-eta, au da, baso-lanetan zebiltzen mutil birek jai erdia zuten. Erri ingurura jatsi eta batek besteari:

–I, Eztoan, nunbaitetik janaldi bat inguratu bear diagu, beti baba utsean erdi gosean ezin ibilliko gaituk. Zer derizkiok, Eztoan?

–Aizak, etzeok gaizki pentsatua. Oraintxe jango nikek aari bat adar eta guzti...

–Nik bazekiat intxaur-zaku erdi bat txintilika nun dagon, eta gaztaia ere bai.

–Joño, ardi erren bat inguratuko bagendu, ijara-zulo auek puxka bat berdinduaz aste polita botako gendukek.

–Ba, motell, goazen billa. Zotz egin dezagun zein ardi billa joan eta zein intxaurretara.

Eztoanek artu ditu esku batean zotz luzea eta bestean motza.

–Luzea ateratzen duana, ardi billa; eta zotz motza, intxaur billa.

–Konporme!

Eskuak atzera eramanaz, rasta!

–Ara, i ardi billa eta ni intxaur billa.

–Goazen.

Gero eliz-atarian biltzekotan joan dira biak. Bat laster zan an, bere gazta eta intxaurrekin. Elizpe-zuloan otz xamar nunbait, eta ikusten du elizako atea zirriztuakin dagola, itxi gabe alegia. Kirriiik atea, eta naiko bildurrez baiña eliz-barruan babesten da, illun bait zegon.

Ezin egon laguna etorri arte, eta asten da intxurak jaten, krisk eta krask; ura etorri bitartean intxaur jaten ari da bapo.

Leenengo loaldia egin ondoren, sakristaua oartzen da elizako atea itxi gabe utzi duala, eta galtzak jantziaz or dioa. Eliza-aurrera iritsi orduko:

–Ixo... –krisk eta krask otsa. Izutu da zer arraio ote dan elizan krisk eta krask, argizaiolez dink eta dank, gogorrenak puskatzen.

Jaso ditu anak sakristauak; iruditu zaio animak burrukan dabilzala. Alako ezur-otsik! Bai, bada, garai aietan elizbarruan lurperatzen zituzten gorputz illak, eta iruditu zaio danak irtenda dabilzala.

Mekasuen, laster zan erretorearen etxean, dan-dan, ate-joka. Neskame zaarrak:

–Zer da?

–Ireki zazu aguro; don Juan aguro.

–Badakizu oean gaixo dagola.

–Zer gaixo gero! Jaiki dedilla azkar!

Gelara sartuaz dio apaizari:

–Elizan ikaragarritzko ezur-otsa dago, eta danak lurpetik irtenda burrukan dabilza. Goazen azkar eta kojuru, errespontsu edo zerbait egin bearke da...

–Ni nola joango nauk, ba? Ez al dek ikusten erreumak jota naukala?

–Baaa, nola edo ala joan bearra dago.

Eta oazal zurian bildu apaiza, artu bizkarrean eta or daramaki.

–Bildurtzen nauk, motell.

–Bai ni ere.

Gerturatu dira, eta intxaur-jaleak ikusirik zuri-zuri bizkarrean dakarrela, laguna ardiarekin dalakoan oju egiten dio:

–I, gizena al zegok?

Mekasuen, sakristaua, aditu ordukoxe, rasta!, lurrean utzi erretorea eta or dijoa igesi!

Antsika eta orruka apaiza lurrean ikustean, izutu da zearo intxaur-jalea eta or dijoa zalapartaka mendi aldera anima erraturen bat dalakoan.

Or dator laguna ardia bizkarrean duala; onek ere eliz-ertzean topo apaizarekin. Zatar zuriak zintzilika dituala dea-darka ikusi du apaiz errena. Eta ardiari jaregin²⁴ eta ekin dio igesi... Alkar ikaratu, zearo bildurtu, intxaurrak elizan, ardia igesi, eta apaizari arras zearo errena sendatu...

Noizbait alkar billatuko zuten mutillak ere. Orra or naiko miraria.

24 Ardiari jaregin – ardia askatu

Zepairen ateraldi batzuk

Txillarramendi baillara inguruan egurretan zebiltzen mutilak. Akiliño Zepai gaztetxo baso-mutillen laguntzaille zebillela, ur billa bialdu omen zuten goi xamarrean zegon iturri batera.

Bidean denbora askotxo igaro eta, iturria ere agortu xamarra eta... urarekin etorri zanean, batek:

–Zeer, urik gelditu al dek?

Eta Zepaik:

–Ez, badijoa.

Bertsolari-txingarra ernetzen asia izan ark.

* * *

Akiliño Tolosako gaixotxean zegola joan zitzaion bere illoba Euxebio ikustaldi bat egitera.

–Zer ziotek Zepai aldean?

–Donostian dira gaur osaba-izebak.

–Zer bada?

–Zea, zaardadea iristeko paperak egitera edo joanak izan bear dute...

–Zaardadea? Esaiek ez ezertan ibiltzeko, zaardadea billa ibilli gabe iritsia daukatela-ta...

* * *

Zepai bere jaiotetxera, au da Zepai baserrira iritsi zan batean etxeko anai zaarrenak esan omen zion:

–Au ia ustu dek... Laster baillara ontan iltzen dana eramateko inor ez dek izango.

Eta Zepaik:

–Inor izango al dek eramateko?²⁵

* * *

Bertsotan asia zan Zepai bere koiñado Txapel bertsolari iaioarekin.

Azketa baserrian ere bazan mutilzaar bat bertsotan apur bat jardun oi zana. Egun batez, Errezilko San Martiñetan, bertso au bota zion Akiliñok Azketari:

Edozer gauza esaten du orrek
jartzen bazaio kasketan;
Aprika aldeko moruak aiña
oraindik ez daki izketan.
Errespeto geiago ez badaukazu
zure erriko pestetan,
plazara geio atera gabe
egon zindezke Azketan.

* * *

Akiliñok amasei-amazazpi urte zituala Loiolako Aizpuru baserrian denboraldi bat igaro zuan baserri-mutil. Soro-lanetan zebillela, Azpeitiko eiztari talde bat zazpi-zortzi zakurrekin soro-goenean zijoan. Zepairi galde:

–I, gazte, erbirik ikusi al dek?

Eta Zepaik bertso onekin erantzun zien:

25 Inor izango al dek iltzeko?

Erbiak irten dizute
beko pendizetik,
bera aurrean joan da ta
zakurrak atzetik.
Zazpi tiro tira ta
ala ere zutik.
Mendi gaiñean gora
ankak jaso zetik.

Apaiz batek Zepairi puntua:

Zuek parrandan eta
gu berriz elizan...

Eta Zepaik:

Obra onak egiña
damurik ez izan.
Jesukristo're leno
mundun ibilli zan;
gu salbatzeagatik
gurutzian il zan.

* * *

Egun batez, Itsaso legorreko emakume batek bere errira
joateko autobusa nun zegoan jakin nairik, au galdetu zion
Zepairi, Billaprankan:

–Aizu, gizon, bai al dakizu Itsasorako autobusa nun arki-
tzen dan?

Eta Zepaik:

–Bai, Pasaiko portuan.

Joiok orri adarra.

Loidisaletxe bertsolariak Zepairi puntu au jarri zion ta-berna batean:

Ardiak goiz ateratzen
ditut nik arteitik...

Zepaik:

Artzaia izango zera
zere jatorritik.
Ojuka ta orruaz
beti urrutitik,
baiña nekez bialdu
besten barrutitik.



Zepai eta Uztapide. Lagun minak

Euxebio Eizmendi TXAPEL

Antonio donearen eguna

Errezildarrontzat auxe bai dala jai alai eta berezia. Errekondo aldeko ermita txukun eta politean meza asko eskeiñi oi da urte barruan, osasun eske, andre edo senargai eske, eta apustulariak ez gutxi.

Bederatziurrena egin oi da, San Antonio egunez amaitzen dala. Meza-garaian izan oi da argizari eta kandela ugari sutan. Egun ontarako sermoilaria, apaiz edo prailleren bat.

Bein etorri zan sermoia egitera oso ezaguna eta ospetsua zan apaiz aundi eta ikaragarri bat. Don Juan Artadiko apaiz indartsua nork etzuan ezagutzen, batez ere itsas-ertzeko erri oietan? Bere biziko indarrak berekin zituan Artadiko apaiz ark.

Ura pesta jarri ziguna Errekondo aldean! Garai aietan ermita-aurreko lizar beso ermoetan katiatu oi zan guztiz kurrupito polita izlariarentzat. Eskillaratxo bat igotzeko, eta guztia ostroz apaindua.

Meza nagusia ermitatxoan ari da. Entzuleak barru eta atarian gaiñezka. Or dijoa apaiz kankaillua meza ematen ari dan bikario jaunarengana. Itzaldi-aurreko onesprenak arturik, eskillaratxoan gora, rauka, rauka... Alako giza puska igotzean asten dira lizar-adarrak zaguka, kirrik eta karrak, ankapeko egurrak. Azpian babestuaz itzalean zeuden gizon eta mutil koskorrak igesi dijoaz, trepete ura irauliko dan bildurrez.

Ozta-ozta sartu da apaiz ale ori kaxerna ortan. Bazidin zozua sartu zala txantxangorriaren kabian.

–Seguru ote nago? –deadar egin zuan, lizar zugaitzak indartsu astinduaz.

Guztiak parrez. Eta asi zan atzaparrak luzatuaz:

–Erroma gaiztoa, Zesar maltzurra, Napoleon prantses burrukari, guda-gizon gaizto ura... Emen ere badezute Napoleon, aizkolari trebea; ori ez, ori ez, beste Napoleon arro bat zan. Ez dakit zeiniek eta nun, mandoaren matrail-ezurrez amalau gizon garbitu zituana... –orru egiñaz.

Alako sermoi zelebrerik inork egundo etzuan egingo. San Antonio ez beste guztiak aipatu zituan apaiz aundi ark. Aldamenean zegon agure batek zion:

–Nundik nora zebillek au? Orrek aterako zizkiguk eltzetik babak.

Gozatu zan antxe jendea. Aldare alboko eskabel-aulkian zeuden iru apaizak ere kur-kur-kur, parre egiñaz. Eta, zalea ez bazan ere, bikario jaunari ere parreak irten zion.

Antonio Donea ere parrez egongo zala esango nuke.

Ezur-makilla aundi aiek osorik jatsi ziran lizar gaiñetik.

Gerora entzun nuan Ernataitz, Artxiola, Ezamaun eta Zorroztaingo sukaldeetatik ondo entzun omen zala Artadiko apaizaren itzaldia.

Meza ondoren, erlikia.

Irtendakoan, Kuletok, pagapean, ardo txuria, errossilla eta pontxea zotzaz eragiñaz; Mari Aundik pipar-opillen zozketa. –Batari, biari, iruari, lauari... Zaldunarentzat! –, amar kartetatik bat ateratzen zuala.

Bitartean an ariko zan ttunttuna jotzen Aangun, erromeria piztu naian. Gero, Errekondo eta Ibarzabalgo izar bateko salda, eta kaixo, motell.

Leen aipatutako apaiz aundi onek itsaso asarreak ia iren-tsian arkaitz-artean zebiltzen gizonak bein baiño geiagotan itsasoaren palastada zakarrak burrukatuaz atera omen zituan.

Esan oi da berak eta bere aitak zaagi ardoa eskumuturrean zintzilika zutela orman idazten zutela.

Beste batean indar-probaketa izugarria egin omen zuten Artadiko apaiz onek eta Usurbillen bikario zegon gizon indartu batek. Lagun aundiak biak, eta sasoi-indarra. Alkar probatzearren egungoko burrukaldia egiña izango zuten Usurbilgo sakristian. Bata baiño bestea kementsuago inñolaz ere, eta alkar menderatu gabe gelditu izango ziran. Ez nago ziur.

Eskerrak gelditu ziran, bestela amiltzen dute Usurbilgo torre dotorea. Polita izango zan alako apaiz ale biren burruka. Bai arraioa!



San Antonio basiliza

San Juanak

San Juan bezpera ere iritsiko zan. Eulene aldeko kanpaia jira-biraka asi ezker, jai aundia oi zan.

San Juan bezpera-arratsean antziñako oitura alaia guzientzako, San Juan-suaren piztea. Belaunaldiak zear dator-kigun su-pesta. Larrak, zakarrak, perratokiko bei-azkazal eta zikin danak pillan ipiñiko ziran gero su emateko pozean.

Esola edo zurkaitz luze xamarren bat pilla orren erdian zutituko genduan; eta muturrean zintzilikatuko genion trapu-zatarrez egindako andere buru aundiren bat, eta kaixo, motell. Illundu zai, su eman eta saltoka eta irrintzika asteko.

Tximak erreak edo anka-zaiñen bat berotua izango zan. Etzan arritzeko ere.

Sua ia itzali zan garaian, txixa egin oi genion, ondo itzali zedin. Gero ametsetan oean beste parraxtara bat...

San Juan egunez goizeko intzetan oiñutsik joango giñan lizar-adarrak eta elorri-arantzak ekartzera, ate-ertzetan ipintzeko.

Meza nagusira lore-sorta lodi lodiak eramango ziran, arto, babarrun eta barazki-landare batzuk tartean zituztela, millu-usai gozoa banatuaz. Amak, amonak, izebak neskatxa txikiak eskutik.

Etzan etxerik geldituko San Juanetan lorerik bedeinkatu gabe. Ximeltzen ziran etxean eta jasota egongo ziran. Gorputz illik bazan, garbitu jazterako eta San Juan-lore bedeinkatuaz igurtziko zan. Nik orrela ezagutu det.

Deun Pedro eta Paulo eguna gaiñean. Beizamako pestak

Urte batez, don Axintxio apaizarekin meza abestera joan giñan lau tiple. Gure poza, abestera alajaiña! Amaiketakua, Loidi ardo goxua pastelakin. Gero, bazkaria don Ramon bikario jaunaren etxean, eta gu baapo.

Egun artan izugarritzko arri-jasada egin zuan. Ekaitz motxa, baiña bildurgarria. Arri-koskor aundiak ixuri zituan odoi zalapartatsu ark. Egazti, txori eta abere txiki asko galdu zan arri-laiñoa igaro zan lekuan.

Don Ramon bikarioa maite genduan; eskuzabala zan. Errezilla ondra edo elizkizunen batera etortzen zanean danok bere meza-laguntzaille izan nai izaten genduan, errealebiko txikia ematen bait zuan, beti errealebiko zillarra.

Eiztaria zanez, don Ramonek eize-txakurra eduki oi zuan. Gorrixta bat bazuan izena *Zeiñek* zuana. Iñork galdetzean:

–Don Ramon, orixe da txakur ederra daukazuna; zer izen du?

–Zeiñek –esaten zuan, eta...

–Txakurrak.... –zioten.

–Zeiñek duala, bada, izena txakurrak.

Noizko jantzi izen orretzaz...

Errezilko eliz-jiran ziran txakurren izenak datorzkit burura: Britz, Toloxa, Pittin, Pintto, Kaixer, Milor, Sultan, Txiki, Poxpol, Bat, Gorri, Lau, Linda, Beltxa...

Kamiñerua eta bere emaztea

Manuel Kamiñerua zan auzoko gizon lasai bat; Erlojua esan oi gionduan. Amaiakak jo orduko artuko zuan bizkarrean kamiñero-atxur zabala eta amaiketarako bere emazte Petraren ondoan izango zan.

Maian exeri eta Angelus errezatuko zuten; bai bazkari goxua Petrak azkar maian ipiñi ere. Biak oso umoretsuak ziran. Etzuten umerik.

Esango zion gizonari:

–Manuel, ez dakizula zer daukadan eltze gorri ontan?

–Ez dakit ba, Petra, izokiren bat edo...

–Demorrio! Ez dizut ba esango!

–Tira, tira, tira... Goseak nago-ta, Petra...

Kokotean igurtziaz:

–Aai, zuri, zuri... –eta aterako zion eoskari goxua bere jaki eta guzi.

Tragotxo ederrak maiz egiñaz eta kontutxoak esanaz kape-patarrak artuko zituzten gero.

–Oraintxe gu baiño obeto dagonik ba ote da, Manuel?

Amaika moku goxo janaz bizi izan ziran senar-emazte aiek. Ain alkar-maite eta zoriontsu bizi izan danik billatzen ez da errez izango. Jaunak seme-alabarik eman ez bazien ere, ez ziran aiek maitasunez auldu.

San Jose eta Pazkotan arkumea sukaldeko leioan txintxilika izango zan. Bixigu garaian, bixigua. Bi laguntxo etxean, eta urteko txerri bat iltzen zuten. Jan-usai gozoa pranko zabaldu oi zuan Petrak. Sarritan esango zidan leio-txulotik:

–Inixio Mari, etorri adi –eta emango zidan puxketa goxoren bat. Bai ardoa ere.

Esaten nion:

–Arkume tortoloxak gorde, e, Petra?

–Bai motell, bai.

Egunero meza entzungo zuan Petrak; bai Jauna artu ere. Pozik egon oi nintzan aren mingain-paletia ikusteko. Zakurrak aiña luzeko mingaiña atera oi zuan bandeja jotzeraiño. Kaska, bandejaz okozpean joko nuan. Begiratuko zidan erdi lotan dagon katu zaarraren antzeko begi apal aiekin.

Berotuko zuan arek Jesukristo azkar. Etxera joan zala-partaka eta katillukada kapea, erdia baiño geiago pattarra zuala, glink, glink! zurrutatuko zuan. Sudurraren gaiñeraiño atera mingain luze ura eta miaztuko zuan sudurra begietaraiño.

Kantatu ere egin oi genduan, “Altza, Felipe, trunlalai, trunlalai...”. Zagu batzuk ere izan oi ziran sarritan, baiña etziran beñere erori oi.

Asarretu? Ezta sekula ere. Oskarbi zanean atariko koxkan exeri eta zeruan ñir-ñir zeuden izarrak kontatzen jardun oi giñan. Esango zidan:

–Ara or Irukua; ara an Bostailua; begira, begira Santiago kamiñua...

Eta iñoiz oi dan bezela, izarren bat zearkatzen bazan, esango zigun:

–Ara, izar buztanduna...

Ernioko leize-zuloa

Ernio mendiko egalean, gurutzera iritsi baiño leentxeago arkitzen da leize-zulo baten sarrera. Gaur arri aundiak zearka-tuaz itxita dago, gizonentzat eta, batez ere, abereentzat arrisku aundikoa zalako.

Bein baiño geiagotan arri-konkorrak bota izan giñuzen zulo artan beera, eta luzaroan entzuten zan, kulun-kuluun arri ark ateratzen zuan ots-oiartzuna.

Gure zaarrendandik aoz-ao datorren gertaera au txikitan jasoa det:

Ardi bat sartu edo erori omen zan eztarri-zulo ortan, eta arrastorik ez. Andik denboretara, Errekondo-beeko ikuilluan oso ots larriak entzuten omen zituzten, nundik zetortzen arrasto gabeko otsak. Orma barrutik zetorren ots larri ori. Anima erraturen bat izango zala edo, ganadutaiñoko guztiak izututa, aztoratuta.

Kojuroak ateratzera ekarri dute apaiza, eta orduantxe ere aiuma trixteak. Danak igesi. Gizonak larri, emakumeak sukaldean oliozko argi txikia piztu eta errezo batean. Apaiza ere bedeinkazioa botatzeko asti gabe, ixipua galdu eta anak txixa-potzuan sartuaz, zipriztiñak dariola igesi...

Erabaki dute orma zaarreko arri batzuk ateratzea. Auzoak bildu eta an ari dira, rik eta rak, arri aundiak ormatik naiko bildurrez ateratzen. Alako batean, buru zuria zulotik ateraz indar gabeko orroi trixte bat egiten die ardi zaarrak. Uraxe zan estuasuna! Noizbait antzeman diote ardia dala. Eta bizerik atera omen zuten Ernioko leizean erori zan ardi zaarra.

Lekutan dago Erniotik Errekondo baserria!

Beste bein, diotenez, artzaiari Erniomendin gaztaiak iges egin omen zion maldan beera piririka. Gure atari aurrean pasa eta bikarioaren ateetan gelditu omen zan. Ark ere bazekian nora jo.

Mateo Txistu

Amaika aldiz entzun genduan Mateo Txistu esaera. Eiztari amorratua omen zan apaiz bat, beti bere zakur gorriarekin batera eta bestera ibiltzen zana.

Goiz batez ermita baten meza eman bear zuan eta, eiztari purrukatua zanez, gero eizera joateko asmotan zakurra eta su-iskillua artuta joan omen zan.

Meza ematen ari dala nun asten dan zakurra erbi-arras-toan zaunkaka. Meza aurrera dijoan bezela, zaunka-otsa gero eta gertuago. Ortxe meza erdikoan, zakurra ito zorian erbia-ren atzetik ermita-ondoko zelaian zear.

Apaiza, eize-grñak suturik, rau!, zegona zegon lekuan utzi eta sakristian zeukan su-iskillua artu eta irten da itsu-mustuan elizatxotik eta zakurraren ondoren lasterka asi eta oraindik ez omen da gelditu, eta ez omen da geldituko ere lurra lur dan arte. Zakurra ere berekin omen dabil, zaunkaz, laukoan lasterka. Erbia ere aurretik izango da...

Jainkoak jarritako zigorra eten eziñik omen dabil, meza erdi emanean utzi zualako, jo batera eta jo bestera.

Esan oi zuten Mateo Txistu inguruan igarotzen zanean egundoko aize-zurrunbilloak sortzen zituala bazter guztiak astinduaz, eta erriko zakur guztiak zaunkaz.

Ikusi ez genduan egingo baiña nabaitu eta bildurtu bai beintzat.

Errezilko aizkora apustua

Zuazketako Joan Anton Uzkudun aitona indartsuaren gertaera bat azaldu nai det, Zuazketa Zaarraren apustu bat, alegia.

Joan Anton bere biziko sasoiari zegoen inñolaz ere egin zuana egiteko. Gizaldi onen aurren aldera, 1903garren urte inguruan izan bear zuan, diotenez. Milla erreal bota omen zituzten alde bakoitzetik. Dirua jartzeko, kaletarrak alde batetik eta bera bakarrik bestetik. Baserritarrak omen zeuden bere alde, eta Nikaxio Kuleto bakarrik kaletarren artean.

Apustua onelatsu zan: Goizeko seiretatik arratsaldeko seirak bitartean, au da, amabi orduan, lan au egin bear zuan: Etxeaundi-beeko Atxukarroarren sutegitik jasota zeuzkan burni eta galtzairu-pusketetatik kaleko sutegian, au da, Axintxio Exkerraren sutegian, berak bakarrik aizkora egin bear zuan. Sua piztu, auspoari eragin, burnia goritu, landu, begia edo kirten-zuloa atera, galtzairua erantsi, dezteran zorroztu, kirtena sartu... Guztia berak egin bear zuan; eta ondoren kakanako egurra ebaki.

Kirtenarentzat begi-zuloa egiteko burnia luzatu eta gorigori okertzen zuan, taka taka, txingude-gaiñean. Baiña erantsi edo osatu eziñik zebillen kirten-zulo ori. Gure aitak, gosaltsen ari zala, sukaldeko ool-zirriztutik ikusi nola zebillen erantsi eziñik, eta:

–Poliki poliki jo zak, zearka xamar.

Bai jo eta erantsi ere. Eun aldiz gorituko zuan burni-koskor ura; baita noizbait aizkora buruaundi galanta egin ere. Atxukarro-beekoan ixilka ikasirik izango zuan zerbait, Antonio Atxukarro maixu zuala.

Eguerdi aurretik aizkora puskat zorroztu eta kirtena tajutu ondoren, or dijoa lasterka goiko plazara, jende talde aun-

dia marmarrean atzetik duala. Igo enbor gaiñera eta aizkoran asterako bota galtzak beera eta alkandora luzearen muturrak ankartean ondo bildu, jaso galtzak, gerrikoz lotu estu, eta ziñatu ondoren, eraso dio lanari, atzaparrerri txistua emanaz.

Ango aupadak leenengo ezpalak atera zizkionean Ernio atzetik ekarritako pago aundi zakar ari!

Bereala, amabietako ezkillak, danga-danga. Angelusa.

Zutitzen da Joan Anton, txapela erantzi eta Aitaren egiñaz, lasai otoitza egiten du erriak erantzuten diola, oitura jatorrari jarraituaz.

Berriro jo eta jo, izardi-pats, ebaki du enbor lodia. Iru ordu eskasian ebaki ere, eta orra or beste iru ordu gelditu oraindik.

Ikusten danez apustua aixa irabazi zuan gure gizon ermoak. Kaletarren aize eta laiñezak otsanduak izango ziran.

Ezertxo ere aoran sartu gabe egin omen zuan lan guztia. Kuletoren saltoak eta kaletarren larriak! Xantosenian saltoka sartu omen zan Joan Anton, goiko iturrian burua ondo busti ondoren. Katarro izugarria arrapatu omen zuan busti arekin. Baiña bai ark sendatu ere azkar, petrikilloa izan ere eta...

Zillarrezko duro bi eman omen zizkion Antonio Atxukarriori aurreko egunetan aizkolgintzan zerbait erakutsi ziolako. Xantoseneko Euxtakik arrantxo gozua emanik izango zien irabazleeri.

Kaletarrak, galtzaille ziranez, apustu-dirua osatu eziñik ibilli omen ziran. Ekarrizuten egurra ordaindu gabe, eta egur-jabea gero artzekotan.

Muatseko gertara

Or, Iturriotz aldean, Errezilko muga gertuan arkitzen da Aia-ko Muats deritzan baserria.

Diotenez, Muatseko zaarrak etxera ezkonduetako semearen esku utzirik zeuzkan baserriko diru artu-emanak, zerbait berari ematekotan. 1893garren urtean, aita zaarra artajorran ari zala, bazterreko sasi-atzetik tiroz bota zuan bere seme Jose Tejeriak.

Urte eta erdira seme ori Azpeitin urkatua izan zan.

Iturriozko Bentatik garijotzen ari ziranak entzun omen zuten tiro-otsa. Illunabarra zan. Begiratzean, gizon bat ikusi zuten lasterka bere burua ezkutatu naian. Illunaren magalpean babesturik ezin ezagutu izan zuten gizon ura.

Urreratu ziran, eta Muatseko etxeko nagusi zaarra ilzorion, azkenetan aurkitu zuten. Iltzailleak iltzat utzi arren, artean bizirik jaso zuten; eta berak salatu zuan esanaz:

–Semeak galdu nau, semeak galdu nau...

Semea Donostira joan zan garai bateko Sebastopol zertizan ostatura. Eriotza bera kanpoan zan bitartean gertatu zala adierazi nai bait zuan. Etxekoandreari onela esan omen zion:

–Nere galdez inor baldin badator, esaiozu nik egun bi daramazkidala emen.

Etxekoandreak onela erantzun omen zion:

–Inori ortik kalterik ez badatorkio, bai.

Baiña alako batean guardia zibillak ostatuan sartu eta baitu zuten, Azpeitira eramana.

Juez edo epaillea galdezka asi zitzaion, eta Tejeriak gogoz ukatu ere. Berean luzaroan egon ondoren, gezurrari ezin eutsirik, dana gertatu bezelaxe aitortu bearrean arkitu zan.

Azpeitiko espetxean zegola, jatekoa etxeoak eramaten zioten. Gau batez, espetxe-zaiak, espetzeko buru egiten zuanak, ots berezi xamarrek entzuten zituan, rri-rra, rri-rra... Asi zan gelaz-gela zelatan eta Jose Tejeria lanean arrapatu zuan, leioko burniak limaz ebakitzen, eta geienak ebakita ordurako. Lima ori arto erretako baten barruan andreak eramana omen zuan.

Bitartean, irtengo zuan ustean, zaldi batekin zai zeuden etxeoak bide-gurutze batean, kartzelatik bosteun bat metro Loiola alderago, garai baten antxe zegon Santutxo baten inguruan.

Ondoren, Azpeititik Donostira eraman zuten. Ango auzitegiko epaia urte eta erdi barruan bizia kentzekoa izan zan, gizajoarentzat.

1900garrenean, ilbeltzaren amalauan, illundu ondoren Tejeria ori lau gizonek sartu kotxe batean eta Azpeiti aldera abiatu ziran. Donostian espetxean egon zan denbora guztian zintzo ibilli zalako etzioten eskuko atz aundiak besterik kendu.

Goizeko bost eta erdiak inguruan iritsi ziran. Tejeriak lo artu zuan, baiña andik ordubetera esnatu eta epaia irakurri zioten: Urrengo goizeko zortziretan urkatu bear zutela, eta danen aurrean urkatu ere.

Arrezkeroztik ogeita lau orduan *kapillan* egon zan, eta iltzen laguntzeko aita Aizpuru eskatu zuan. Onekin aitortu eta iltzeko gertutu zan.

Bitartean, berri samin au Gipuzkoako bazter guztietaraiño zabaldu zan, eta izugarritzko jendetza inguratu zan auzitoki aurrera. Sei bat milla lagun bazirala esaten dute. Inguruko zelai eta soroak ere bete-beterik omen zeuden jendez. Geienak oiñez etorriak izango ziran. Euria gogotik ari zuan, baiña, ala ere, iñor etzan andik aldendu dana bukatu arte.

Urkamendiko eskillarak igotzerakoan mintxuria egin zitzaion, eta bi gizonek besondotik eldu eta eutsi omen zioten.

Gertaera oni buruz, Juan Maria Zubizarretak bertso be-reziak atera zituan. Goguan det nola atez-ate etortzen ziran bertsoak abestuaz, orritxoak saltzera.

Onela zioten:

Jose Tejeria da
au nere grazia,
Gipuzkoako Aian
jaio ta azia.
Tiroz aita il nuen,
orra desgrazia.
Publikatzera noa
asunto guzia.

Deabruak animua
eman biotzera,
tiroz atrebitua
nere aita iltzera.
Donostiara gero
zerbait ekartzera,
egin nuan okerra
diximulatzer.

Gizonak altxa zuten
aita bizkarrian,
"O, semeak galdu nau!"
berak esanikan.
Gurasoak etzuen
esan gezurrikan.
Gorputza il ta anima
joan mundutikan.

Paperian jarria
alde aurretikan,
aitari zenbat eman
seiñalaturikan.
Eske ari zan beti
aldamenetikan.
Gure endredo danak
sortuak ortikan.

Aitak eskatzen zidan
legez eta bidez.
Egiten niona da
agindu ta eman ez.
Buru dana betia
pentsamentu txarrez,
tirua eman nion
diruaren ordez

Soldadu armadunak
lotu kurioso,
baita eraman ere
Azpeitira preso.
Deklarazio txarrak
egiña ni oso;
libratutzeko bear
gezurra prexixo.

Aurrena egon nintzan
uka fuertian,
salatzaillea pranko
bazan bitartian.
Gero aitortu nuen
egunen batian.
Gezur guztiak ziran
neretzat kaltian.

Azpeitiatik joan
Donosti aldera
Gipuzkoako buru
dan Tribunalera.
Akusatua nintzan
Judasen legera.
Gezurak balio ez,
neretzat galera.

Andriak eta biok
emandako itzak
konprenditzeko ere
oso dira gaitzak.
Oiek guztiak ziran
gezurrezko saltsak,
aitari ezarriaz
etzituen mantxak.

Gaizki egin nuela
ondo damutzen zat;
au eskarmenturako
beste guztientzat.
Munduan ez da izan,
oraindikan beintzat,
ume bat txarragorik
gurasoarentzat.

Donostian artua
nintzan albistia
posible etzala neri
bizirik uztia.
Ai, ura orduko
lastima tristia!
Etzan alegratuko
nere emaztia.

Donostiatik giñan
Azpeitira etorri,
bost guardiarekin
kotxian ekarri.
Kartzelan sartu eta
an nengoen larri.
Sententzia tristia
zuten irakurri.

Zuzen ta garbi egin
dute justizia;
badakit nuela nik
ondo merezia.
Ilbeltzaren amaseirako
nere sententzia:
goizeko zortziretan
kentzeko bizia.

Gaiztua izan banaiz
orra sujetatu,
sententzia orrek zidan
biotza erdibitu.
Aita Aizpurrekin
gogoz konfesatu,
egindako okerrak
danak akusatu.

Pauso bat ezin eman
nuen ezergatik.
Bi lagun banituan
beso banatatik.
Urkamendira joan
giñan kartzelatik.
Borrerua begira
zegoan atzetik.

Urkamendian nintzan
eserita jarri.
Nere entrañak zeuden
estu eta larri.
Bizia eman bear
oso lotsagarri.
Au beste guztientzat
eskarmentagarri.

Barkaziua nuen
azkena eskatu,
zergatik egin nuen
lenago pekatu.
Orregatik bear det
orain nik urkatu.
Jaungoikoari arren
nitzaz erregutu.

Don Kandido apaiza

Nik ezagutu nuanerako baldartu xamarra zegon apaiz alai, on eta xelebrea ura, Berastegiko semea.

Elizako lanetan zuzena zan, ziotenez. Baratza-lanetan, zuaitz, igali eta loretegi txukunak eukitzen oso arduratsua. Baratzen askak zeuzkan arrai txiki eta aundiz beteak. Ezkalu, amorrai eta aingirak uretan jolasean.

Don Kandidok itz egiten zien, San Prantxiskok bezelaxe, arraiei; eta ziur nago, esango nuke berari entzun egiten ziotela. Ateak, krak!, ireki eta urrutitik asten zan *mirri, mirri, mirri...* esanaz. Eta txondar baten antzera biltzen ziran arraitxo guztiak, gora begira.

Txitxare, muskil txiki eta abar jana emanaz, egundoko kontuak esaten zizkien, eta ulertzen zutela esan ziteken... Uraxe bai ikusteko polita.

Mokaru goxoa pranko jan oi zuan ark; bai kupira gabe eman ere. Esku zabalekoa zan oso, zuanean. Inoiz arrebak ekartzen zionean, txokolatea emango zigun. Ain ezaguna, lukainka-itxurakoa zan, eta arria baiño gogorragoa Berastegiko txokolote luze ura.

Eiztari saiatua bere sasoiaren, noski. Gerora naastu egin zan. Naparroako salda beltzak menderatu zuan, gizajoa. Eliz-arazoei ere utzi egin zien. Parregarritzko itzaldi eta errosarioak esaten zituan azkenerako.

Gure don Kandiko kurpittora igotzean bi eskuak jasoaz asiko zan beatzekin Agur Mariak kontatzen, errosarioan. Gu, parrez...

Itzaldian Ebanjelioko zerbait aipatzen zuanean, esango nuan:

–Eskritura Sagraduan dauden itzak dira, ez dira nik as-

matuak. Nai badezute sinistu, nai ez badezute ez sinistu, or konpon!

Egundoko latĩnazoak jaulki oi zituan, bera ere parrez asten zala:

–Altis montis kantabis kuku, suge arrastrarum kukulumbea, eta nere baratzako marrubiak jatera etortzen dana jipondua izango dala...

Ark jartzen zuan pesta. Tragotxoa bear izaten zuan sarri.

Naiz batere jotzen jakin ez, bazuan piano zaar-zaar bat. Belarriko miña egiten zuan trepete oni bi atzaparrakin, rik!, eta, rak! ateratzen zizkion kurrintzak, berealdiko oiua eta abestiak egiñaz.

Ni geienez ondoan bear izaten ninduan. Beti leiotik oskazan:

–Etorri adi, Iñixio Mari; jo zak pianoa.

Ume guztiak bildu barruan eta pianoa astindu.

Pianoak barruan zeuzkan ariak edo notak jotzeko maillu burutxuri aiek sorgiñak zirala esan oi zigun. Azkenerako zearo puskatu genduan piano zaar ura. Alako alanbre otsik... An etzan gelditu ez teklarik eta ez sorgiñik.

Eta esango zigun:

–Arraienezko txitxareak bildu itzatzute, eta jan naikoa txerrena eta pikua!

Oso ume maitea zan, eta guk ere maite genduan don Kandido, bai orixe! Atxur koskorren bat atzaparretan zuanean, ranga, ranga!, pianoa joaz abestu oi zuan deadar batean:

Ardua edanda mozkortzen naiz,
pipia artuta txoratzen naiz,
pasiatziaz lotsatzen naiz;
nola demontre biziko naiz?

Oiu eta olu, erri guztia alaitzen zuala, lo artu arte jardungo zan apaiz ospetsu ura.

Bein Muskaga artzaia ardi-esnea saltzera astoa zamatuta errira jatsi zan, mamia egiteko esnea saltzera, alegia. Xantiñeneko bizartegi ondoan lotu zuan astoa, esneak saldu ondoren.

Xantirekin kontu batzuk esanaz eta ola, Muskaga orri ilea moztu ondoren, baxo erditxo bana edatera dijoaz biak. Arrizko eskillaratan beera abittu dira astoa ere eurekin batera dutela, eta, jakiña, astoa armailetan nola jatsiko zan bada? Amildu zaie bere esne-ontzi eta trepete guztiekin asto gizajoa. Don Kandido leioan egundoko parreak egiñaz. Adarra jotzearren onako Xepelarren bertso zaar zati au abestu zion Muskagari:

Oitura txar oiek utzi,
bestela ezurak autsi.
Gizalegia nola biar dan
ezin erakutsi...

Zer asma egoten zan, eta baratzeko orma-ertzera agertzen zanean, udare eta muxikak artu eta botako zizkien neskatxei, esanaz:

–Eup, aiba, aiba! Badago emen gauzea, erremolatxa eta patatea. Dirue palta, dirue...

Baratz-ertzetik auxe abestu oi zuan:

Errege batek bialdu du
Madriletikan ordena,
arditean saltzeko
emakumerik onena...

Egunero antzoki biurtzen zan Errezilko elizalde guztia. Alaitzen ziran an ingurukoak. Txurrutalari asko zan garai artan. Urdai-azal, gantxarra jan oi zan maiz, eta bixigarri oiek jan ondoren barruak eskatu egiten.

Don Kandidok goizeko bostetan eman oi zuan meza geienetan, prankotan baita lauretan ere. Luze egiten zitzaion gauerditik goizera bitartekoa; orregatik ematen zuan meza orren goiz. Baraua autsi arteko onik ez, aizez betetzen zitzaion barrua eta Jesukristoren odola edan arte gaizki egon oi zan.

Goizeko ibillera otz txarra pranko egin eta eragin zuan gijajo ark. Gure ama eta Kabuaneko Matea izan oi ziran meza presko artan. Ni ere atera oitik eta negarrez eramane oi ninduan meza laguntzera. Sakristauari zorabioa egiten zitzaioa, eta ni beti jipondua.

Apaiz ark etzeukan meza eman bearrik, gaixo zegonda, baiña esan oi zuan, alegia, meza ematen ez bazuan, zazpi pekatu astun egiten zituala; ziñez eta benetan esan ere.

Gure ama Edubijixek esango zion:

–Don Kandido, atzo txurrut geitxo egin zenduan. Ori ez al da pekatu?

Gozua jartzen zan ba!

–Nik ez niñan ezaguerarik galdu, eta ori galtzen ez dan bitartean etzeon pekatu rik. Ba al dakin?

Ipui asko esan oi zigun. Berastegikoa zanez, oso gogoko zituan bere erriko ipuiak.

Ipua

Berastegiko atso bat bere asto urdiñarekin Tolosako azokara etorri omen zan bein.

Jarri ditu salgaiak aurrean, eta saski-arrautza alboan. Eta orra, bera oartzera inguruan zegon txerriak muturra-ekin uxartu dio saski ori. Eta jakiña, arrautzak puskatu... Goxoa prantatu zan ba atsoa, aren jarduna!

–Ori ez dek orrela geldituko –esanaz, norabait jo bear eta udaletxeko agintariak nun dauden galdezka, billatu du toki ori. Eta or dijoa oillo pareá eskuan zintzilik duala.

Erdeldun prestu bat arkitu zuan udaletxe ortan. Jaun bi-botedun aren aurrean jarririk dio:

–Señor errejidor, justicia a mi proar. En Zerkausi txerriak muturrakin jo eta saski-arrautza autsi.

–Qué dices, loca? –dio jaun orrek.

–Loka? Ez, jauna, ez daude loka. Atzo ere arrautza egin zuten, eta gaur ere puntta-punttan daukate. Entendemos alkar, aittu?

–Pero, ¿qué estás diciendo, loca?

–I egongo aiz loka.

Artu oilloak eta ipurdia erakutsiaz:

–Mira, karraskala, karraskala.

–Vete de quí, loca más que loca!

–Tu mucho bibote, pero poco pulamentu!

* * *

Bein koruan “Magnificat anima mea dominum” abesten ari zala, aulki zaarrean lo artu zuan don Kandidok. Ezpain aundi ura luze-luze eginda seko lo. Zatar xamarra zanez, orrela jartzen zanean gu txikiok begira pozik egon oi giñan. Ala abesten ari dirala, Moisesek belarriko zuloan dio, esna-tzearren:

–Umilitate ancille sue...

Esnatu eta deadarka berak:

–Sue, sue! Nun da sue?

Aren zalapartak. Beeko emakume danak altxatu eta sue itzaltzera, su ori nun ote zan...

Abestu oi zuan ere:

Don don Zeledon,
Zeledoneko baratzan
iru atso dantzan.
Irurak, irurak ez daukate
ardit bat poltsan...

Aufiii!

Ardoa oso maitea zuan, maiz esango zuan:

Goizean on, arratsean on,
maatsaren zumoa beti dek on.

San Anton, bedeinka la mula.

Aita San Antoniok bedeinka dezala ardo au ekarri zuan
mando zaarra.

Ipuia

Berastegiko apaiz jaunak egundoko ametsa egin omen zuan, izututa gelditzeraiñokoa, noski. Zerura igo omen zan amets ortan eta Aita Jaungoikoak jipondu egin omen zuan apaiz ori. Berastegitik oraindik etzala iñor zerura iritsi eta asarre Jaungoikoa.

Sakristauari esaten dio:

–I, Tiburtzio, bart ametsetan gaizki ibilli nauk.

–Zer bada, jauna?

–Ara, motell, zeruan izan nauk eta Berastegitar bat ba-karrik ere etzegok an, eta Aita betikoak pasara ederra eman zidak. Eta ez nitek esango amets au gezurra danik. Jende biurria eta gaiztoa zegok erri ontan, eta zerbait asmatu bearrean gaudek. Bildurra nola edo ala sartu bearra zegok eliztar kaskal auei.

–Ori zerorrek ikusiko dezu...

–Ba, datorren iganderako erri guztia elizan sartzeko era egin bearra zeukagu. Joitzak ezkil guztiak eta esan igandean danak elizara etortzeko; azken-juizio otsak dirala eta damu -barkazio eguna izango dala-ta.

Erri guztia gora begira bildurtuta jarri dute.

–Bai al dakik nola ikaratuko dittugun? I jarriko aiz eliz -ganbaran, txopetia bete ikatzi su emanda. Nik suzko euria Jaungoikoari eskatzean, ik zulotik beera su apur bat ixuri bear dek. Aittu al dek?

–Bai, jauna.

Igandean gaineztu da eliza. Asi du itzaldia, gurutzea es-
kuan duala:

–Zeruan izan naiz leenguan, eta bai al dakizute beraste-
gitar bat bakarrik ere ez dagola zeruan? Aita Jaungoikoa go-
xoa zegon! Nik artu nituan artzekoak. Sinisten dezute ori?
Iñor ere ez zeruan Berastegitik, ezta Bixenta txiki ere ez dago
an. Jende gaiztoa dago erri ontan eta Jauna geiago asarre-
tu baiño leen eman emen itza ondu eta zuzenduko zeratela;
eska barkazioa!

Izutu dira eliztarrak. Atsoak negarrez ipiñi ditu. Sakris-
taua zai dago sua itzultzeko noiz entzungo.

–Jaun errukiorrak erri onek merezi duan zigorra ixu-
ri beza, baita zulotik beera sua bear baldin badu ere. Bota,
bota! –dio apaizak deadarka.

Prasta, prasta sua goitik beera. Ango negarra eta kurrin-
tza.

–Bota, bota! –dio berriz ere.

Eta sakristauak zulotik:

–Aittu da ba, jauna; ez daukat ikatzik...

Ara dana ondatu. Elizkizun bildurgarritzko ura sakris-
tauak ondatu eta bukatu zuan.

Ipui au amaitzean guk txalo egin oi genduan.

* * *

Au ere ari entzuna det.

Erri txiki batean apaiz baldar bat omen zegon. Egunero meza eman ondoren gosaldu eta zumitzez otarra egiten asten omen zan, egunean otarra bat egiten zuala. Sei otarra egiten zituanean, jai; alegia, igandea zala bazekian.

Aste barruan neskameak otarra bat saldu omen zuan, apaizari esan gabe.

Igande goizean goizago meza eman eta otarra egiten asi omen zan, gizajoa. Elizatxoa bete zuten eliztarrak eta apaiza ageri ez; neskamea ere bere lanetan. Ate-joka etorri ziran apaiza nun zan galdez, meza-garaia aspaldi igarota bait zegon.

Apaiz asarre ark bost otarra zeuzkala egiñak eta egun artan ez baiña urrengoan zala igandea esan omen zien. Ezetz eta baietz, joan dira elizara. Neskamea, buruari elduta larri, barkazio eske, berak saldu zuala otarra bat-eta...

Eliztar guztien pekatuak bere gain zituala eta neskameari errietan apaiza. Neskamea elizan negarrez dala or dijoa kurpitora apaiza:

–Oker aundia gertatu da gure neskame zatar au dala eta ez dala. Aste barruan otarra bat saldu ez dit bada sorgin orrek! Eta nik bost otarra kontatzen nituan... Zuek ez dezute gaurko mezaren erantzukizunik izango, ez nik ere. Orrek, orrek ditu guztion pekatuak bere gain. Esan dezagun errosario santua bai, eta gauza guztien gain Ama Birjiña maitatu beti. Au izango da nere sermontoa, balioko duana mezatoa. Zoazte etxera, Amen!

* * *

Beste bein, ni meza laguntzen asi berria nintzala, bikarioak errietan eman zion don Kandidori, sakristian. Erderaz egin oi zuten apaizak alkarrekin, eta an ari ziran biak:

–Vergüenza –esaten zion bikarioak. –Escándalo! –eta orrela.

Nik ez nuan ulertzen erderarik, baiña zuzmurra bai atera.

Baratzan ari ziranean, galtzak agerian zituala sotana gerrian bilduta jardun oi zan udareak iñausi edo soiltzen eta beste lanetan. Geienak arritu egiten ziran; askok, gaiñera, gonakin ibiltzen zirala uste zuten, eta apaiza galtzak agerian... Jesus, Jesus!

Orrelako zerbaitegatik gogor artu zuan bikarioak.

Asarretu ziran biak. Don Kandidok, beeko ezpaina luze -luze zintzilikatuaz esaten dio bikarioari:

–Vaya qué bizcocho que es usted!

Eta bikarioak:

–Vaya qué vinagre que es usted...

Bikarioa Azkoitiko Bizkotxotarretakoa izaki; don Kandido, berriz, Berastegiko ozpindegikoa. Bat ozpiña eta besta bizkotxo.

Ni, aaztu baiño leen, amari aditutakoa esatera joan nintzan.

–Ixillik egon adi, edozeiñek aittuta ere...–zion gure amak, parre gozo egiñaz.

Erle maitea izan zan bizi guztian; arraitxoeri bezelaxe itz egiten zien. Eztia kendu ere bai. Gu ere ezti-usai ortara inguratzen giñan. Bai erleak eldu eta arpegia bikain azita joan ere. Don Kandidori, berriz, ongi etorria bezela egiten zioten.

Il eta lurperatzera zeramatela, zerraldoa erlez inguratuta joan omen zan, diotenez. Azken agurra egitera nunbait.

Mikeleteak

Gizon prestuak oi ziran mikeleteak. Gorputzez bikaiñak, jantzi dotoreak, gizon aukeratuak, eskolaz ere poliki jantziak eta, batez ere, gizatasunez ermoak, zintzoak, euskaldun garbiak.

Probintzi batetik bestera eraman bear ziranak zaitu oi zituzten. Ordainketa egin bear izaten zan mikeleteen mugatxeetan.

Bein batean garrapoikada pattarra dakarki Otsobiagako Joxe Marik basoan zear, txarakadi eta sastraka artean babesten dala, iñork ez ikustearren.

Bai mikeleteak konturatu ere... Or datoz atzetik.

Etxean sartu orduko amonak:

–Motell, motell, atzetik dituk. Ezkutatu dezagun azkar.

Jarri da amona sukaldean erdi-erdian exerita, zabal-zabal, babarrun aletzen, garrapoi pattarra gonapean duala.

Bereala mikeleteak kontrabandoaren galdez. Billa, bazter guztietan begira, nun dan galdez.

An ez dagola kontrabandorik. Eztabaida luzean baietz eta ezetz jardun dira. Amona lasai, pattarra gonapean epel-epel duala, oillalokak txitak euki oi dituan bezelaxe.

Aspertu eta alde egin dute mikelete oiek. Bai tragotxo ederak egin ere amonak eta etxeko danak,

–Etzegok gaizki, oieri eman zuek erakutsiak, baita guk ere geren kiki-makoak.

* * *

Beste bein, mutilzaar sudurgorri bat zetorren illunabarean sorotik etxe aldera, etxeko semeak soldadutzatik eka-

rritako alkandora zaar bat soiñean zuala. Atzetik astoa arbiz zamatuta.

Mikeleteak, illunpixta izanik, ondo ikusten ez eta zer kontrabandista ote zan:

–Alto, ¿quién vive?

Lasai besteak:

–Astoa eta ni.

–De qué regimiento?

–Arbie karreto.

Parrez dijoaz mikeleteak.

* * *

Bidanin zeukaten nere koskor-garaian kuartela mikeleteak. Sarri oi ziran Errezillen.

Gau batez mutillak gaiztoaldian, erronda-garaia. Ardan-degitik onean nai ez eta bultzaka eta makilka atera dituzte.

Mutillak sasoia gaiñezka dutela. Etxera joateko goiz nunbait, eta zerbait egin bear. Beti bezela apustua, oiua eta zala-parta.

Etxeaundiko atarian exerlekutzat zeuden arriak atera eta arri-jasotzen. Eup! gora eta, eup! beera, taldeka. Berotu dira, azkenerako burruka. Alako orpo-otsik... arnaska, orrua eta istillua!


Norbaitek deitu zuan urrutizkiñez Bidanira ardailla izugarria zebilkitela erri guztian eta mikeleteak pakeak egitera etortzeko.

Tur-tur-tur, automobil xaxtar batian agertu ziran bi mikelete. Bai mutillak ikusi ere Iturbe aldean beera nola zetortzen.

Adiskidetu dira, danak alkar artu dute, eta gorde dira bolaleku ondoan. Irten dira mikeleteak berebilletik, armadun ir-

ten ere. Rau!, mutillak eldu, kendu su-iskilluak, uel, gerriko, txamarra eta galtzak eta plazaren erdian erantzita, soillean utzi zituzten mikelete biak. Jantziak Maria Patxaren balkoian jarri zituzten.

Arpegiak brucez estaliak zituztenez, etzuten jakin zeintzuk ziran Barrabas aiek. Ondorenean zer esana bazan Errezil eta Bidani aldean.



Mikeleteak (Atxukarroren tarjeta bat)

San Inaziok

Pozik egon oi giñan San Inazio pestak iristeko. Azpeitiko zezenak ospe aundia zuten inguru guzian. Ipar alderaiño iritsiko zan Azpeitiko xexenketa oien otsa.

Batez ere Frantzitik eunka auto, motor eta autokar dotore iritsi oi ziran zezenketara, itsaz-bazter polita ikusiaz. Eta nola utzi ikusi gabe Loiolako eliz eder, aundi eta ikusgarri ura?

Garai aietarako etzan txantxa ainbeste berebil ikustea Azpeiti, Loiola eta Errezillen zear... Amak umeei eusten naiko lan izaten zuten.

Esan oi zan egun oietan Ondarre baserrian sukaldeko maiaren ankari lotuta eukitzen zituztela umeak, gurpillean autoak arrapatuko zituzten bildurez.

San Inazio bigarrenez, goizean goiz jaiki eta gu, anai-arrebok amaren eskutik taka-taka oiñez joango giñan Loiolako prozesio edo ibildeun aundia ikustera. Eta meza nagusi ederra entzun oi genduan.

Garai artan itzaldi dana erderaz egin oi zan Loiolan. Izaten zan an gotzai eta eliztar aundizkirik. Aberats eta kastordunak, asko.

Ni, itzaldirik ulertzen ez nuan ezkerro, kastor luze eta andre abanikudun apain aieri begira egoten nintzan.

Katalangan artu oi genduan oillo-salda ederra. Gero, angu zugazti bikain artan pardela askatu eta gantxarra arrautzaz naastuta jan, ugatza edanaz, eta kaixo, motell.

Euria bazan edo eguzki beroa bazan, taka-taka berriro etxera, pozik ala ere. Gaur Parisen izanda baiño poz aundiagoa.

Jai batez, San Inazio irugarrenean, Juan Joxe Korreuak eramán giñuzen bere zalpurdi edo karroan Moixto, Permiña, Xixilio eta ni, danok auzo-etxeokak.

Geurekin ozta-ozta lau txanpon besterik ez bagiñuzen ere, gozatu giñan. Zirkua zegon zezen-plazan. Alako gizonik munduan zanik ere... Pailaso sudur aundi, musu zuri, anka aundiak alanbre-gaiñean txirrinduan, txakurrak iñude jantzi eta ume zai, zaldi nabar barradunak dantzan, artza anka biren gaiñean, ganbeluak, tximuak deabrukeriak egiten... Guk ez genduan ikusi beiñere alako zirku eta abererik. Ekarri genduan zer esana etxera.

Leenengo aldiz antxe ezagutu nuan gero urte askoan gure artean, batez ere Tolosa, Donosti eta erri aundi xamarretan deadarka ikusiko genduan Leon Salvador, itz-jario, berritsu, gizon beltz ura. Jende ugari bildu oi zuan ark bere inguruan.

Egun gogoangarri artan leenengo aldiz ibilli giñan perietan zegon tresna borobil batean, *Tio bibo* deitzen zioten. Zaburu antzeko kate aietan exeri eta txintxilika jira-biraka. Alako soiñu eta kurruxka-otsik! Ura zan bildurra an goian, mundu guzia jira-biraka, ezer etzan ikusten, arnasa artzen ere zailla. Ura txilbor-barreneko azkurea! Batzuek larriarekin txixak iges eginda. Neska bati zapatak iges egin zion eta gu bezelaxe arrituta, gora begira zegon bati kopetako ederra eman ere.

Nik ez nuan ikusi, baiña esan zutenez beste neskatx bat erori eta il egin omen zan ondorengo San Inazio jaietan.

Mundu txikitik irten eta mundu aundira joan bagiña bezela ibilli giñan betiko goguan izango ditugun jai aietan.

Urrengo urtean Azpeitiko enparantzan Leon Salvador kastordun gizon beltzaka ari begira geundela euri tanto lodiak erortzen asi ziran. Besoak jasoaz, zerura begira, zion gizon orrek:

–Pero, pero, San Ignacio glorioso, ¿no me jodas! ¿Por qué no echarás melocotones y no estas gotas de agua?

Aiek parreak guk.

Berritsu eta parre-eragille purrukatua zan eztarri garrazdun gizon mutur beltz illun ura. Esan oi zuten oso biotz on eta esku zabaleko gizona zala Leon Salbador ospetsu ura. Alegia, dirua errez biltzen bazuan ere on asko egiten zuala. Donosti oso maitea omen zuan; erruki-etxe, itsu eta ume-zurtzak zeuden etxeetara eskua sarritan luzatzen bai omen zekian.

Ainbeste trepete zegon Azpeitiko Enparan deritzan etxe-inguru artan... Guk diru gutxi xamar. Iru txakur txiki ordaintzen zan jira-bira bakoitza *Tio bibo* zoragarri artan. Gero limonada kanikadun oietakoa, sudur eta begiak txinpartaz erreaz. Orra iru errealekin gauzia pranko ikusi, erosi eta egin.

Andik egun batzuetara, Errezillen zear Tolosara igaro zan zirko ikusgarri ura. Ganbelu eta zaldiak oiñez, beste abereak, karioletan. Karro gurdi-antzeko aundiak kaiola eta tresnaz beteak. Etxea zirudian kamioi aundi bat, tximini eta guzi. Gaiñean tximuak saltoka eta atzegiñaz.

Baserrietatik ere jende asko inguratu zan bidez-bide zi-joan zirko ospetsu ura bazterretik ikustera.

Errezillen goiko plazan elizaren itzalean gelditu ziran, ordubete inguruan, ain bero zan egun artan...

Guk sagarrak eman gienduan²⁶ abereei, eta tximuak artu eta bota. Gu parrez. Ganbelu lepo luzeak Maria Patxaren bal-koiko loreak jan zituzten. Andre aren ixtilluak, bada!

Ala joan ziran Goenaga aldean gora. Noizbait iritsiko ziran Tolosa aldera.

Gaurko aldean bizitza zailla eta latza izaten zan aientzat ere, ainbeste karromatokin batetik bestera ibilliaz. Ala ere, munduari alaitasuna eskeintzea zan aien egitekoa, eta guri beintzat ekarri ziguten.

Badirudi oraindik ere ikusten nagola.

26 Genizkien

Kabuania

Kabuania zeritzan etxetxo batean bizi ziran Exteban Kabua, kamiñero nagusia izandakoa, eta bere emazte Matea. Bazuten seme bat ere Moixex zeritzona, bizkor, biurri oietakoa, Kabuaneko Moixex.

Exteban zegamarra zan izatez; Matea, berriz, zeraindarra. Orra zearo goierritarrak biak, oso zoriontsu bizitakoak.

Goguan det Extebanek nola esaten zituan Akategiko damearen istoriak. Izugarrizko aize-zurrunbilloa eta odoi beltzez bildutako trumoiak sortu oi omen zituan dama onek Akategiko arkaitz-zulotik Aralarko leizera joaten zanean.

Ardoa poliki samar edatean, neskatxaren inguruan eta anka biurrika dantza imintzioak egiñaz, onela abestu oi zuan, bakarren bati elduta:

Hay algunas madamitas
ziudade oietan,
que salen a paseo
jai arratsaldetan.

Con el pelo muy grizado
pomadaz beterik.
Aunque si estén de hambre,
ortzak zuri zurik...
Aupa chulapona, pona, pona, moñoña

Beste au ere bustialdietan esaten zuan:

Esas que van,
qué majas que van.
Cuando van al baile,
asi, asi andan.
Esas que parecen y no son,
Kyrie eleison.

Gizon dotorea eta txukuna zan. Txapel eta txaleko gorria, botoi eta txapeleko txaplata oria urrea bezin disdiratsu ibilliko zituan beti, bere andre Mateak surtako autzarekin ondo igurtzita ipiñiak.

Andre bedeinkatu bat zan Matea, ttenttea, garbia, mataxa utsa. Askotan esan oi zuan:

–Zea, zereko zea zereko zerarekin zertzen omen da; oiek biak zertzen badira, zereko zerean zertuko dira.

Abesti au ere aren aotik ikasi genduan noizbait:

Toto pintotxo, goazen etxera
al dan lasterrena emendik,
bakaillao ona ekarrizera
Bilboko Barrenkaletik.

Azken urtetan auxe erakutsi zigun gure zoritxarrerako:

Kaletarra, tirri-tarra,
iretzat puzkarra,
neretzat sagarra.

Gero izaten ziran kontuak. Alkarri arrika ibilli oi giñan. Maiz oi genduan kopetan koskorra edo zuloa. Kaletar eta baserritarren gora-beerak, bada.

Soldarutza

Errezildar mutil kankaillu bat iritsi zan kuartelera, soldarutza egitera; Azpeitiar bat lagun. Errezildarrak erderaz ere nere antzean.

Sarjentoak:

–A formar! Firmes!–eta rau!

–Zuzen jarri adi –dio azpeitiarrak aldamenetik.

Sarjentoak:

–Tú, ¿de dónde eres?

–Errezil.

–¿Qué Errezil? –dio berriz ere.– ¿Qué chapurreas tu?

Azpeitiarrak:

–Quiere decir que es de Régil.

–¿De Régil, del pueblo de Uzkudun?

Dunba!, ukabillak alkar joaz, dio:

–Si!

–Para, para –dio sarjentoak–. ¿Con que de Régil?

–Si!

–¿De nacimiento?

–De nacimiento y asimiento, jotzen ba aut okozpean...

–¡Habla cristiano!

–Ixillik ago, motell, gure gaztaiñadi zaarrean arrapatuko baintuzket erakutsiko nizekiz astruzik.

–¡Que no chapurrees, que te zurro!

–Jo egingo au orrek, ixildu adi –dio azpeitiarrak.

–Ez dek geiago altxatuko.

Urira irten dira bi euskaldunak mokau goxoren bat jatera. Jatetxe apañean sartu dira. Neskaxa, mantal zuriarekin:

–¿Qué van a tomar?

–Tortilla –dio azpeitiarrak.

–¿Cómo quiere, a la francesa o a la española?

–Lo mismo me da, como no voy a hablar con la tortilla...

–¿Y usted? –errezildarrari– ¿a la francesa o a la española?

–A mi a la Matxinbenta, con mucho huevo y mucho lukainka.

–Que le entienda su tia! –eta ipurdia dantzatuz dijoa neska.

–Nik mototsetik eltzen badiñat igarriko dion, alu orrek!

Ardo puskat edan ondoren, alkarri bizkarretik eldu eta kuartelera berriro bi bertso auetxek abestuz:

Errezildarrak:

Neskatxa ori izan bear dik

itxuraz beintzat mikatza.

Guk zer erru zeukagu bada

ez badaki gure izkuntza?

Ipurtestua, moko igarra,

zitala ta mutur beltza.

Ori onduan artzen duanak

izango dik negu beltza.

Azpeitiarrak:

Errezil eta Azpeititikan

etorri gaituk onera.

Izardun gizatxar oietatik

iges diagu kalera.

Aiek prestuak bazeudek ere

obe al dek tabernera?

Gu berriz onuntz etortzerako

ikas bearko dik euskera.

Altxuru

Azpeitiko Altxuru jauna sendagille zegon Errezillen. Goiko plazan eguneroko berriak irakurtzen ari zan. Agure aundi batek, egun on, esanaz parean igarotzean izugarrizko puzkarrari jaregin zion. Eta Altxuru jaunak:

–Aizu gizon, miñik artu al dezu?

–Eeez.

–Ala ere, atzea osorik badaukazu ez da ezer.

Aitona zabal onek, begira jarrita, bertso au bota zion Altxururi:

Aizea degu osasungarri
gure goiko mendietan,
txistu gozuak ibiltzen ditu
Ernioko arkaitzetan.
Osasuntsu ta ongarri bada
or goiko zear oietan,
zergatikan ez du izan bear
gure beeko zuloetan?

Eta agurtu zuan sendagille ori, abestuez:

Baserri baten onduan
nik nuan ikusi;
gutxienez bazituan
zortzi arrua ta erdi.

Urxaxe mokordua
gustora egiña.
Luzea ta lodia,
gutziz atsegiña.

Altxuru parrez...

Txoperra

Kamioikada lastorekin etorri zan txoper gizen, jale aundi bat Napparroatik. Borondegin bazkaltzen gelditu eta izugarritzko babarrun jana egin zuan. Kapea artu eta purua ezpaiñetan duala sartu eta abiatu da bere trepete ortan berriro Nappar aldera.

Gizon batek beatza jasoaz:

–Tolosaraiño eramango al nazu?

–Sartu, sartu.

–Eskerrik asko...

Eta badijoaz, tur-tur-tur, otsa eta lurruna dariola. Babarrunak asi dira bigarren irakiñaldian. Txoper orren soseatu eziña. Egiten du ikaragarritzko trumoi-puzkarra. Usaia ere ez intsentsuarena, noski. Laguna larri, baiña ixillik.

Aranguren-berriko buelta artu ezinda dabillega, berriz ere babarrunak, bada. Jare egin dio leengoaren aazkarriari. Ura aize-laiñoa jarri zuan!

Lagunak:

–Aizu, zenbat zaldiko motorra dauka kamioi onek?

–Eunda irurogeita bikua...

–Gelditu zaite, gelditu, zaldiren bat akatua dagola uste det-eta.

Alako kiratsa, izan ere, etzan gutxiagorako.

Mateo Paxiegua

Azpeitiko gizon ezagunenetakoa zan Mateo Paxiegua. Milloika eta milloika oinkada gure erri eta bideetan egin zituan oial eta jantzi saltzen. Errena zan bera.

Beti eramango zituan bere bruxa luzea, txapela txorrokatua, zaldi edo asto eta zalpurdi oialez itxia. Zalpurdi edo karro barrua zapi eta jantziz ornitua. Aurre-aurrean, bere emazte lodi gizen-gizena. Andre mardula benetan. Beti edo geienetan lokuluxkan, lepo motz aren gainean buruari eutsi eziñik.

Pozez egon oi giñan beraiek Larrate inguruan azaltzeko. Karropean zeramaten txakurtxo gorria zirikatu eta andre moztza errietan jarri, ori zan gure ametsa.

Mateoren zigorrak berotu oi zizkigun anka-zaiñak aldika. Ez gaiztoa zalako, ez, gu deabrutxoak giñalako baizik.

Antzuzko baserri kaxkarrean senar-emazteak bizi ziran. Aal zuten bezela bizi ere, noski... Mateori erosi zizkieten oialen batzuk gero ordaintzekotan, baiña ordainketa ori etzan iristen.

Urruti xamar zegon Antzuzko, eta aldapa gogorra gaiñera. Eta Mateo errena ezin zan igo, eta zorduna etzan jaisten.

Astazulotik, tuut, tuuutt... tuturutua joko zion, eta besteak goitik, tarari, tarari erantzun.

Amorrazi zion Paxiego orri, eta onek euskal gaiztoz:

–Nikolo, Nikolo!

–Tarari, tarari –ark berriz ere.

Makilla jasoaz:

–Etortsen banais etorri, biskar-esurra apurtuko deus atso eta agure.

–Tarari, tarari –ark.

Baserritarretatik bizi zan batez ere Paxiegua. Erdelduna, belarri motxa bazan ere euskera poliki tajutzen zuan.

Bein Mateo igarrak, Egurbide-bidean ezagun batekin topo egin zuan; eta:

–Mateo, orain ere okela gutxi dezu, igarra zaude.

Mateok onela erantzun zion:

–Andrea bai gisentsen, Mateo es gisentsen; fiña es gisentsen, ustela bai gisentsen...

Amaika ibillaldi eta anka-tarraka egindako gizona, piña gizona. Andrea baapo. Oiñez ez genduan egundaiño ikusi. Luze ainbat zabal zan Paxieguaren andre loti ura.

Illuntze batez Bidaniko Toki-Alai ostatura iritsi omen ziran; bai turuta jo ere inguruko andreak bildu zitezen. Bere emazte ori orduan ere karroan, bein bear eta, lo seko omen zegoen. Mateok, emaztea lo ikusirik, onela omen zion Toki-Alaiko Antonio aundiari:

–Begira, begira, Antonio, nere andrearen planta, koño: buruas beera eta ankas gora, koño.

Gaur deritziot mundualdi osasuntsu eta alaia igaro zutela senar-emazte paxiego alkar-maite aiek. Beren sorterrria utzi, gure lurrera etorri eta ogibideari eldu txintxo-txintxo, erriz-erri danekin artu-emana zutela, beren zaldi, asto, txakurtxo, karro eta turuta.

Andre ari erregiña ere deitzen zioten. Gurdi apaiñean gutxiago egurastutako erregiñaren bat izango zan mundu zaba-lean.

Azpeitiarrak

Jai arratsaldetan Errezilla etorri oi ziran Azpeitiko mutil bana-ka batzuk. Geienak erriraiño beren txirrinduetan. Arkupetan pelotan jarduten ziran askotan. Sarritan neskakin jokuan, zazpiko urrean eta abar. Dantzan ere bai iñoiz txuntxun-txis-tulari eta guzi.

Zurruntzola alde ortan oi zituzten billerak geienetan. Arro xamar zetortzenean, otsan-otsan buruak beeran zituztela joaten bazekiten Azpeiti aldera.

Neska-astinketan asi ziran illuntze batez. Neskatzak alkar artu eta larri xamar ibilliak izango ziran mutillak gero. Jipondu ederra eman ere. Mutil bi galtza gabe etxeratuak izango ziran.

Igande batzuetan etziran azaldu Errezillen. Gerora, neskak parre egiten omen zuten. Au zala buru, bertsoak ere aterra zizkien azpeitiarrei. Auetxek ditut goguan:

Xapotarrak etor zaizkigu
burua goian dutela.
Zurruntzolan asi dirade
beste askotan bezela,
Errezilko neskatz ederrak
jolastu bear dituztela.
Sagar goxua zalakuan
irten diete ustela.

Errezilko neskatz ermoak
danak artu dute alkar,
Azpeitiarrak datozenean
batzeko guztiak azkar.
Eskarmentua ematearren
pormalidaden ditzan sar,
ondorenean errespetatu
ditzaten gazte eta zar.

Erri aunditik txikira etorri
nagusi jarri naiean.
Astindu ederrak artu dituzte
ipurdi eta egalean,
buru-aurpegik arrastaturik
burruskaldi bitartean.
Praka berriak utzi dituzte
Zurruntzulako keizpean.

Dana, ala ere, etzan burruka izaten.

Baziran neska bi bikaiñak, aundi eta egokiak. Bat auzo-koa genduan; bestea, erri-inguruko baserri batekoa. Oso ziran lagunak. Illuntze aldera alkartzen ziran neska biak Zuazketako etxeburuan, sagasti-ertzean.

Neska ederrak ziranez, mutillak ere inguratzen zitzaizkien. Sasoiko gauzak bada, orratx.

Apaizaren neskamea eta beste neska eldutxo bat oiek nundik zaituko. Ondo maxiatzen zituzten. Nazkatuta zeuzkaten. Arrats batez, galtza, bruxa, txapel eta guzi mutil jantzi eta etortzen dira bi neska aundi eder oiek. An daude sasi-ondoan gordeta sorgin zai:

–Ara, emen dittun!

Txitxi-potxoan ari dirala, irten bi mutillak eta eltzen diete neskazaar maixiante oieri, ondo eldu ere. Ipur-masaillak sasion urratzeraiño astinduak izango zituzten.

Zelatariak karraxika eta larri. Ez omen ziran geiago illuntzetan sagasti aldera agertu. Izutu zituzten betiko.

Gero agertuko ziran mutillak eta bai neskak ere lasai, aldatu eta pakeak egin ondoren.

Garaian garaikoak

Errezillek badu kirten otsa; bearra ere, askotan. Eta, zer arraiot!, gaiñera kirtena izaten dan lekuan izaten da arta-burua ere.

Garai batean, begirune, bildur, lotsakizun edo orrelako zerbait zala eta etzala, mundu ontara aurrak nola etortzen ziran bear zan bidetik jakin gabe gelditzen ziran gaztetxoak. Geienean sasi-ikasketak izaten ziran gero.

Orrelako gauzak entzuteak erne jarri oi zizkigun gure belarri kokkorrak. Dotriña baiño leenago ikasi ere.

Nunbaitetik jakin nai izaten genduan zerbaiten sustrai, zantzu, aztarrena. Prankotan jostundegiko ate-txuloan oi zan belarria, zer entzungo edo adituko.

–Bai, orrela omen zegon, ederra gertatu zaion, ezagun din, alakorena ote duan edo... Sinistek ere... Min emango zionan etxeoandre zaarrari. Bestegatik jarduten bazekin ark ere eta... Aittak jipondu ederra emana izan bear zionan. Etziñan giro izan bear etxean, noizbait aitortu zuanean.

Jostunak txitxi-potxean, parre txikiak egiñaz. Besteren gaitza askotan pozgarri oi degun bezela, etxeo etorkizuna ikuskizun.

Izan ere, oker orrek bazuan ixtilu eta ezkutapenik. Gero zetortzen etortzekoak: ez dakit nora joan zana, badakit nun egin zuana. Etxeko danak lotsatuak, mundu guztia galdu balute bezela. Alako pekaturik!

Itzaldiak ere zorrotzenak eta zalapartatsuenak lizunkeri eta aragikeriak astintzeko izango ziran. Gu, berriz, ia kukurruku garaian eta kontu oietzek entzun nai elizan ere, orratx, naiz eta kezkatu xamar egon.

Guraso zintzo aien erregu eta kezkek ere etziran nolana-

koak. Ezarri ala ume ekarriko ziran mundura. Jaunak eman aalan egin, azi eta ezi, kristau, gizon egin eta bizibidean jarri, zekiten apurra erakutsiaz.

Beti nekepean umeak azitzeko eta, ala ere, beti zorretan. Bildurrez esku-utsean beste alde ortara joateko. Ain estu ziran gauzak...

Gaur, berriz, lasaiegi. Zoaz, esaiezu. Zoaz ia leen aiña sasiko edo sasikume beatzakin izendatzen dituzun.

Garai-giroak, bada.



Paxiego senar-emazteak

Daniel

Erriko beste gizon atsegin bat Izagirre-Saletzeko Daniel genduan. Errian artu-eman aundia zuan *Izar-Saletzek*. Edozer gauzetan ere egoki eta leial beti ura. Elizako lanetan ere asko sartzen zana, eta, batez ere, don Inazio bikario zaararen azken urteetan laguntzaille berezi izana.

Baserri-lanari eutsiaz goiko mina-zuloetara lanera joaten zan, ango zuzenketa zerbait eramanaz.

Itzal aundiko gizona izan arren, bazituan ark ere umore-izpiak. Bein apustutxo bat egin zuan: Meatzetik kobre-koxkorrak jasten zituzten ontzi oietako batean beeko Egurbide baserri ondoraiño jatsi baietz. Minako buru zan Bizar Aundi-ekin egin zuan apustutxo ori.

Goitik beera zetorrela gelditu egin zituzten ontziak, parre egitearren. An goian, gero esaten zuan bezela, larri xamar egona izango zan.

Arrantxotxo bat zan jokua. Onen berri jakin zutenak Egurbiden bildu ziran, eta naiko parre egiña izango zuten. Norbaitek bertso kaxkarren batzuk atera omen zizkion. Gero aoz-ao ibili ziran bertso oiek.

Auetxek ditut bilduak.

Minako Bizar Aundi orrekin
Danielek du apustu,
baietz Odria ta Egurbidera
kablean lasai bajatu.
Abiatu da beera begira,
bidean, tapa!, gelditu.
Nai baiño leno beaje ori
etzaio oni amaitu.

Komeri ori ikus naiean
inguruan jendea du,
izan ere guztiak dar-dar
Danielek jarri ditu.
Irabazi du apustu ori,
danak ziraden testigu.
Litro ardo bat, libra bi ogi,
galdu duanak kastigu.

Egurbide aurrean zeuden
Bizar Aundi ta lagunak:
Burruno, Xanti, Kaxkatxuri ta
gizon bi kastordunak.
An goian larri ezkutatuta,
Danielen estuasunak!
Jatsi zanean zeuzkan koloreak
etziran oso sanuak.

Goi oietan ez uan egongo
gaur oso aize epela?
Buru-utsean etorria aiz,
nun erori zaik txapela?
Ontzi orretan sartu aiz bada,
kobrea baintz bezela...
Lenbailen gora anka egin zak,
txapel gabe aiz bestela.

Izar-Saletxe gizon potxolo
opizio askokua,
minako balde sakon orretan
pizkor ibillitakua.
Gaur bezela ikusten badek
eure buru estutua,
laster utsera etorriko zaik
aurreko zilbor zakua.

Neri begira parrez egon da
gaur jende asko lurrean.
Irabazia sartuko det nik
alai nere sabelean.
Txapela berriz gordea daukat
alkandora egalean.
Mokau gozua jan nai duana
ibil dedilla airean.

Roman sakristaua

Antziña-antziñatik zetorkion Sakristaueneko sendiari eliz-morrontzarako leialtasun berezia. Leen aitatu dedanez, eza-gutu nituan jatorri ontako Meliton sakristau zaarra, eta ondoren, Xanti. Onen seme Roman ere bai, orain dala urte gutxi arte sakristau izan zan. Eliz-lanetan egokia eta zuzena.

Eliza barruan aldakuntza aundiak egiten ari ziran garai aietan Errezillen, eta lan aundiak egin bear.

Ezkillak jotzeko dorrera igotzen zan. Mailla asko bear izaten ziran, eta sarritan igo ere. Erlojuaren arriak jasotzeko ere bertaraiño igo bear. Aurrekoak baiño ere zintzoago, maikiña bat gora-beera egin zuan Roman sakristau egoki ark.

Bera zuzen ibiltzen zan, eta iñoiz apaizeri ere zuzentasuna erakusten zien. Apaizak gogor egiten bazioten, berak ere bazekian arrazoiari eusten.

Xaguxarrak eta ontzak nun lo egiten zuten ere jakiñean egoten zan. Eta askotan eskuan artu eta erakutsi oi zigun gau-txori oietakoren bat. Bein ekarri zigun bere buru aundi, begi zabal, moko kako eta guzi txori oietako bat. Guk eliz-barre-nean gu baiño arretatsuago zegon emakume bati buruan ipiñi gionduan txori atzapartsu ori. An gelditu zan ontza atzaparrak ermo erantsita. Guk iges. Ez dakigu ontzaren berririk.

Sakristian zerbaitetan laguntzen giondunean ardo goxua eman oi zigun Romanek. Oso biotz ona zuan.

Pelotari egokia eta, batez ere, dantzari arin eta txukuna. Amaika aldiz bezpel-ondoren Matias zaarrak *tturruku-ttukut-tun* jo eta dantzatu zan auzoko Margarita lagun zuala.

Utsune ederra utzi zuan Romanek erritik joan zanean. Ain maitea zuten danak... Azkenengo lau-bost urte Donostian igaro zituan bere sendiarekin. Errian omenaldi berezirik etzitzaion eskeiñi. Jaunak zeruan sarituko zuan.

Errezilko duntziñeroak

Txit ezagunak izan dira Euskalerrian Agerre-beeko iru anaiak. Aditze aundiko duntziña eta danbor-jole izan ziran txiki-txikitatik Alejandro, Joxe Mari eta Joxe Manuel.

Beren txapel aundiak jantzi eta erriz-erri an izango ziran pestak bizkortzen eta biotzak alaituaz euskal jai-giro eta kutsuak indartzen.

Eztai, auzo, erri eta uri nagusietan ere antxe ikusiko ziñuzen Errezilko iru gizon jator oiek, matraillak puztu-puztu egin eta auspoa bete-bete zutela doiñu biziak ateratzen ordu zaarretan kale eta enparantzetan. Birika zabal eta ermoak zituzten gizon aietzek.

Diotenez, oso neketsua eta zailla izan bear du duntziña soiñu-jotze orixe.

Oso maiteak ziran Errezillen. Guziak gorestu eta aintzakotzat artzen zuten iru anai oien doiñu eta lan pozgarri ura.

Beroien ondorengoak ortxe daude Urantzun, Irunen alegia, seme eta illobak. Enbor onak ezpal ona, esan oi da, eta ortxe ere ikusten da zeñen bikain jarraitzen dioten beren gurasoak ezarri zieten adur-doaiari Konstantino, Eugenio eta Iñakik.

Jarrai dezatela.

Senargai erdelduna

Esaten dutenez, Aia-Zarautz inguru ortan gertatua izan bear zuan. Sendo asko azi zan mutilla, gaur aiña pesta-gela eta gaupasa egin gabe iñolaz ere. Etzan garai aietan orrelako dantza-zulo gorri illunik ere, eta lasai. Zozo abi billa eta ibilli ondoren, abere-lanak egin.

Amak jarri dio ogi-koskor galanta gantxarrarekin, eta or dijoa, brux zurixka botoiduna jantzi, ezpartin txuriak eta arin arin pestara.

Naiko sagardo edan ondoren, sortzen zaio berealdiko dantzagurea. Auts artean aztarrika puskat, kriskitin eta abar egin ondoren, etxerako garaia.

Neskatxak dio:

–Nik etxerako laguna artuko nuke ba oraintxe...

–Lagunduko dizut ba –dio mutillak.

Joan eta joan, igo eta igo, noizbait iritsi dira Aia goen-goeneko basetxera.

–Emen gera ba, auxe da gure etxea –dio neskek.

–Joño, urruti bizi zera.

Txerritegi txikiko ate-ondoan kontu-kontari biak, jator asko. Neskak:

–Onaiño etorri zeran ezkerro, zer edo zer naiko dezu ba?

–Ez, ez –bi eskuak zabalik mutillak–, oolakoxe ogi-zati bat janda etorri naiz gantxarra apur batekin. Eskerrik asko.

Ama ateko leio-zulotik erne:

–Pelixa...

–Zer, ama?

–Or al zaudete?

Etzan asarre ama. Eta mutilla, sudurra ikutu ere egin gabe or dijoa beeko Aiara.

–Zein uanan ori? –dio amak.

–Zea, Urtetako Artagose izango zan.

Urteak aurrera neskari, zaldizkoaren zai egon zan baiña badaezpada ere oiñezkoari eltzen dio. Eta egin du senargai erdelduna. Jai batez etxera dakarki, oi dan bezela gurasoei erakustera. Iritsi dira:

–Erdelduna da, ama –dio neskak.

–Motxaillea al den azkenian, motxaillea?

Amak itz batzuk besterik etzekizkian erderaz. Aurkeztu dio senargaia amari:

–Este es mi novio; au da nere senargaia...

–Juu, mutil bapua den.

–Eta ona, ama, oona... –neskak.

–Ori geroak esango din. Euskeraz erakutsi bear dion orri, bestela ez din ondo emango gure etxean.

–Bai, ama, bai...

Amak:

–Tú ¿qué tal, chico, mayorazko o qué?

–No, señora, soy quinto; somos once hermanos.

–Zer esan din orrek? –amak alabari.

–Amaika senide dirala.

–Jesus, neska; ori ontza bi txokolotaren jabe ere ez den izango, eta zer itxaro den ortik?

An ari da zaartagia zar-zar duala, lukainka eta arrautza prejitzen, euskal andreak oi duten bezela.

–Ala, poner mesa, tu zizellu asienta, arrima...

Blasta!, txalira jaki goxoak. Amak mutillari:

–Come, come sin verguentza, etxeko partez come sin verguentza.

Mutillak kopeta zimurtzen du

–Comer caserio una vez y no decir de hambre.

Alegia, bein etorriko eta goseak joan dala ez esateko.

–Yo poco hambre y tú poco euskera. Entender alkar, aitu?

–Poco si, si.

–Aizan, ez den jale makala izango. Nundarra den?

–Pregunta a ver de dónde eres.

–Yo, señora, de la provincia de Salamanca...

–Ez den izen ederra, etzekiñak zer izango dan baiña... Y nombre, ¿cómo?

–Timoteo.

–Bueno, come sin verguentza –berriz ere amak.

Amorrarazi dio mutillari:

–Tanto sinvergüenza –asarretu da mutilla, ia zergatik esaten dion sin vergüenza, alegia.

Neskak esaten dio luxintxatuaz esan nai diola ez lotsatzeko jaten, jan egiteko. Orregatik ere, bere onera ekarri zuten mutilla.

–Zer din orrek? Etorri aiñean bazijoan, ba, alajaiña!

Doktor Asuero

Ospe aundikoa zan nere koskor-garaian Asuero zeritzan sendagille ura. Mirari antzera gaixoak sendatzen zituala eta Donosti aldeko bazter guztiak aztoratu ziran albiste orrekin. Eta ez Donosti aldean bakarrik, atzerrietan ere jakin ziran berri zaratatsu aiek.

Bazter guztietatik jendetzak barra-barra zetortzen, kaleetan barrena, gaixoak eta gaixo etziranak txanda zai illara izugarriak egiten zituztela. Egunkariak erruz mintzatzen ziran sendagille ospetsu orretaz. Milla gora-beera ekarri oi zituan. Alako eta olako sendatuak izan zirala, eta istilluzko pesta jarri zan.

Gerritatik gaizki zebillen aitona bat eraman omen zuten Goierritik Asuero jaunarengana, ala etzegola bizitzerik eta zerbait egingo zion ustean.

Goizean goiz jaiki eta jantzi dute aitona txukun-txukun. Alabari zion:

–Gaur sargori edo eguraldi aldaketaren bat bazegon, bestetan baiño okerrago negon. Bestetan pixka bat zutitzen naun; gaur, berriz, zearo okertu naun ni, neska.

Sartu dute leengo auto Ford sastar oietako batean eta lurruna dariola or dijoaz. Noizbait iritsi dira Donostira. Usandizaga kalea bete jende ageri zan.

Aitona larri:

–Itto egingo naun...

Okotza belaunetan duala:

–Ez nagola ondo –arnaska, estu gizona.

Jendeak, bikunde eginda kera artan ikusirik, batek bes-teari esanaz erabaki dute aitona orri txanda ematea. Eta

or dijoa danen begiak beregan dituala sendagille miraritsu orrengana.

Ain makur ikusirik, jaso mai gainera eta zer gaitz arraio ote zeukan ikusteko asi zaio jantziak kentzen. Ara or, askatzen dio alkandora-lepoko botoi-zuloan lotuta zeukan praketako botoia, eta baita zuzendu ere gizona.

–Au den atsedena –dio–. Zer, zer mirari egin zidan neri onek?

Nunbait jazterakoan etxean lotu zioten praken botoia alkandorari, eta okertu bearko aitona gizajoa.

Berealaxe iritsi zan aitona kalera, poliki zuzenduta irten ere. Aldaketa ura ikusi zutenak aztoratu ziran. Leenaz gain sona izugarria zabaldu zan bazter guztietara. Gertaera au izan omen zan Asuerori izen aundiena eman ziona, Goierriko aitona zala eta etzala.

Ala esaten zuten, nik ez nuan ikusi. Entzundakoa esaten ari naiz. Txiste edo ateraldi bezela esan bazituzten edo ez bazituzten, nik or uzten det.

Gerora erabat ixildu zan doktor Asueroren sona. Ameriketara joan zan otsa izan zan.

Ark izan zuan bere bolara, eta on egin ere, ziotenez.

Komeri au ikusirik, beste sendagille batek onela omen zion, parre egiteagatik edo:

Itsuak badabiltza,
errenak ikusten dute,
gorrak mintzatzen dira,
itz gabeak entzuten dute,
besamotzak lapurretan ari dira...

Doktor Zikin

Gerora ezagutu nuan Errenderin petrikillo agure zabal bat. Pedro Petrikorena bere izen-abizenez, baiña Doktor Zikin esanda ezagutzen zan.

Koskor, txori, aunditu, erlakizten, txuntxur edo orrelako gaitzak olio, belar eta zuztarrez egindako bere ugendu beltzez leertu eta zikiñak ateraz sandatu oi zituan. Millaka kristau sendatu zituan gizon napar ark.

Bein batean emakume bat eraman omen zuten meningitis edo buruko gaitz txar ori zeukala-ta. Ikusi orduko lurrezko eltze zaar batean zeuzkan marraskillo edo karakolak atera eta buruan ezarri omen zizkion, buru guztia kokoteraiño esaltzen ziotela.

Sendatuta etorri omen zan etxera. Oraindik ere bizi da emakume ori. Esan oi zan doktor Zikin ekarri zutela neskatz gazte bat etsita gaizki zegon baserri batera, ikusi zezan.

Gizon au mutilzaar egonik, neskatzak esan omen zion, zin egiten zuala baldin sendatzen bazuan, berarekin ezkonduko zala. Eta bai sendatu ere neska eder ura. Eta esan bezela, itza bete zuan neskatzak. Pedro petrikillo naparra bere aldean zaarra bazan ere, berarekin ezkondu zan. Orra biak pin jokatu.

Ezagutu nuan andre sendoxka eder ura.

Bein neri ere sendatu zidan ederki doktor Zikiñek aundituta neukan besoa.

Bere sendagairik berezientakoa kaka zaarra zuan; ontzietan gordeta euki oi zuan.

Goguan det nola ataundar batek egunetan kaka zaarra lepuan ibilli zuan; bai sendatu ere lepoko koskorra. Andrea igeska ibillirik izan bear zuan ugendu ura an zebilkian bitar-

tean. Gizon au bizi da; eta geiago ere ezagutzen ditut orrela sendatuak.

Sendagai au, gizon, abere eta egaztiena izaten zan.

Zaartagian kaka, simaur, gorotz eta ziriña olio apur batez naastuaz oreka egin eta talo baten antzera ezartzen zuan, bero-bero, gaitza zegoen lekua.

Euskalerrri osoak ezagutzen zuan petrikillo sonatu uraxe.



Uzkudun aizkoran Errezilen

Asteasuko adarra

Esan oi da, antziña, Asteasun adarra jotzeko makina asmatu zutela. San Pedro batzuetan Asteasura pestara mendiz-mendi iritsi omen ziran errezildar mutil kankailuak zer ikusiko, zer egingo, zer asmatuko.

Arratsean larrean zebiltzen asto bi eraman dituzte errira, besada bat pagotx eman ere bai. Elizpeko zokora eraman eta zintzilika bazterrean zeuden ezkil-sokak lotu ermo-ermo asto oieri buztanetik eta ankatik, eta an utzi dituzte bi astoak, pagotxa jan eta pagotxa jan.

Alde egin dute mutillak; etxeruntz dijoaz aldapan gora.

Pagotxa jan ondoren aspertu dira zokoan astoak, eta asi dira igesi. Atzean lotuak, izutu dira. Batek tira eta besteak tira, ostikoka. Eliz-torrean ezkillak dinbiti-danbala, ia gauerdian.

Egundoko estuasunak. Batzuek su-kanpaia izan bear zuala, eta ur billa eta su billa. Iñun su-erraiñurik ez ordea. Basetxetan leio-zuloetatik begira, Erroma alde ortan santuren bat egin ote zuten edo... Aita Santua ilko zala, eta danak errezoan. Sorgiñak izango zirala ere esaten zuten. Alako ix-tillurik! Bitartean, astoak indarka buztanak eten bearrean, taka, taka ots batean. Mutillak Ernio atzean parrez eztanda egiten...

–Gaurko ontan etzegok lorik inguru oietan...

Alako batean, errizaiak, illunpean naiko bildurrez erriari deitzeko zeukan idi-adarrez izugarrizko tuturutu orrua jo eliz-ertzean eta ango anka-ots eta ezkil-soiñuak ixildu izango ziran. Ondorenean, argizari argiz inguratu eta askatuak izango zituan astoak.

Gerora jakin omen zan Asteasun zer gertatu zan. Nortzuk izan ziranik ez, ordea, adar-jotzailleak alegia.

Pelikula

Udara, belar ondu garaia. Filma edo pelikula bat egin zuten Errezillen. Etxe batzuk astebeterako artu zituzten.

Gure etxe ondoko estarte edo bide zaarrearan gora-beera pranko egin zuten egun aietan. Lapur eta gizon-iltzaille itxura egiten zutenak zaldiz ibiltzen ziran kale eta mendietan zear.

Gizonak eta andereño dotoreak leioetatik txintxilika, alkar arrapatu eziñik eta orrela askotan egiten zituzten gezurrezko itxurak.

Bikariua asarre zan, umerik ez etxetik ateratzeko esanaz, gauza txarrak ikusten zituztela artista jende aien inguruan eta.

Pipa luze batzuetan erretzen zuten tabakua.

Neska burugorri iar batzuek zaldi batetik bestera saltoka. Pelix Aundi eta Txilibixtrok esaten ziguten gomazkuak zirala artista begi aundi aiek.

Bein esan ziguten iru asto bear zituztela, eta ondo ordainduak izango zirala. Laster giñan asto billa. Xebastianek Armenditik ekarri zuan asto zuria; Pelaiok, Iruretik; eta nik, Otegitxotik.

Orrela osatu ditugu iru asto, eta or guaz Iturburuko barrutietara. Ipursalto ederrik egin zuten, bai zilipurdika ba-poak ere.

Gu pozik, eguneroko saria irabazten genduan, limonada kanikadunetik edanaz. Asto bakoitzaren saria amar pezeta. Ordurako asko zan. Illuntze aldera, astoak biurtzera. Duro bat gorde eta bestea asto-jabeari eman:

–Ara emen astoaren saria –eta duro zillarra.

Otegitxoko Joxe Mari etzan asarre:

–Kollo, kollo, gure astoak ez dik oraindik orrelako saririk etxeratu. Biar ere eraman ezakek.

Orrelaxe iru egunetan ibilli giñan. Aste motxa izan zan ura.

Zaldi dotoreak bazeuzkaten arresi eta langak pizkor lau-koan saltokatzen zituztenak.

Belamendiko Joxe eta Gurutzeagako Maria ere gurdi belar aundi banakin an ibilli ziran, beiak txukun eta dotore uzartu, kopetako lits gorridunak, burukote berriak jarri eta itzai, egun bi osoan.

Sartzen ziran neska-mutillak belar tartean eta beste gizon kastordun bizar luze batzuek aien billa komeriak egiten. Noizbait billatuko zituzten, eta baituta eraman.

Parre egiteko izango zala komeri edo pelikula ura esango nuke gaur. Plazan jartzen zituzten eguzkiari begira urre koloreko xpillu aundi batzuk dris-dris egiteko, eta orduan argazten zituzten lanak.

Ango luma, ezpata, trepete eta aundikeria!

Gero ziran kontuak, Belamendiko Joxek eta Gurutzeagako Mariak gurdi, bei eta lan-sariak eskatu zizkietenean. Geiegi zala, *esajerau!*, zioten, ez zietela ordainduko ainbeste diru.

Itzaiak ere, bidezko zanez, etziran gozoak: Ez uste izateko gero astoekin ibilli ziranik, beiak zirala, eta aiek biak baserriko lan danak utzita diru asko zala?

Maria, Pauliño Uzkudunen arreba zan, erderaz ere ondo zekian eta:

–Venga dinero, si no, palo –esaten zien nagusi txotxeko aieri.

Indarra ere puskat bai eta, eskuan zeraman akulua jasoz, ankartetik eltzen bazien Urrakiraiño botako zituala zion. Eta:

Venga dinero, si no, palo. Aquí no se trabaja de regalo

Jale-goseak

Baserrian eta artzantzan ibilli oi ziran aita-semeak goiko basetxetik jatsi ziran errira bikario jaunarengana, zerbaitetara, noski.

Mutilla, gazte ikaragarria zetorren, azi eta azi, inguruko zuaitzak bezelaxe, gora, arraiua! Baiña buruz ezin jantzi; izan ere, danak batera ezin egin.

Txistuka, saltoka, moxal egiñik zebillen lasai, bertsoak lardastuaz eta bapo.

Aita eta biak iritsi dira errira. Etzan esku-utsean etorria izango aita bikariuarengana, ez. Neskameak ipiñi dizkie ardoa eta ogia gazta-erdi batekin maian; bai mutillak, rasta!, pusketa bapua kendu eta jan ere; oartzerako ogia ere geient-suena ia jan zuan. Aitak, lotsatuta, oiñarekin oiña ikutzen dio maipean mutillari, naikoa duala esanaz. Baiña onek, rasta!, irugarren zatia.

Irtetzerakoan aitak eskillaretan:

–Motell, motell, lotsakizun ederra eman didak!

–Zer bada?

–Ainbeste gazta jatea, motell... Ankakin esaten nian ba ez geiago jateko.

–Ara, nik uste nuan geiago jateko esan nai zidazula.

–Utzi dekan pusketiagatik dana jan ezakean.

–Aa, emen det poltsikoan gelditu dana, gero jateko.

–Baiña, baiña, azkenian pusketia ere artu egin al dek ba? Irekin etzegok iñora joaterik. Lotsatu? Lotsatu bear ire jan bearrarekin.

Lardaska batean abestu oi zuan:

Dagonean bon bon,
ez dagonean egon.
Sabela betea daukat eta
besteak or konpon.

Beste bein, bere anai txikia eta biak elur lapatsetan arbi-
tan ari dirala sukaldeko leiotik arrebatxoak oju:

–Atozte gosaltzera!

Gazteentxoena:

–Zein ari den taloak erretzen?

–Amona ari dek –dio arrebak.

–Kaka arentzako! Bana besterik etzigun erreko-ta. Ama
nun den?

–Ikulluan.

–Geroxeago joango gaittun orduan. Amak iruna talo tala-
mantenuan ipintzen dituanean deitu igun!

Amonak irin-zakuari begiratzen zion, xurkerian-xurke-
rian iraun araziaz.

Matxinbentako gertaera

Matxinbenta ibar sakan ortan maltzuckeriz poliki jantzita-ko aita zaar bat bizi omen zan. Beti bere burua itotzekotan, baiña potzuan gutxi xamar sartzen zan.

Seme bat etxera ezkondata zeukan errain zintzo pin batekin. Beste semea, mutilzaarra, arrobian lanean zebillena. Ura ere aitarekin bizi zan. Etzegon, bada, utsean egoteko.

Asiko zan aita zaarra:

–Bai, ni emen alperrik negok eta gaur izango dek nere azkena; banuala, banuala nere burua potzura botatzera.

Or dioa lixiba jotzeko zeukaten potzu edo uraska aldera. Seme-erraiñak atzetik ojuka:

–Baiña, aita, ez dezazula orrelakorik egin!

–Bai eta bai –aitak.

Erraiñak, eutsiaz:

–Ez, aita, ez. Goazen etxera eta oilloa ilko degu; eta ardo goxo eta pastelak berealaxe ekarriko ditugu.

–Ni banuala...

–Ez, aita, konejua ere ilko degu-ta. Nai dezuna emango dizugu.

–Orrela bada, goazen etxera.

Oilloa jan, ardo goxoa edan eta aita zaarra bapo. Baiña berriz ere babak asi ziran, eta:

–Gaur bai, gaur bai itoko naizela... Banuala.

–Jesus! Burugabekeriren bat egin bear du onek.

Or dioa berriz ere potzura.

–Burutik egin al zaigu, aita?

Berriz ere eldu besoetatik eta:

–Ez bada, aita, oraintxe bertan auntsxumea ilko degu; goazen etxera, maite zaitugu-ta.

–Ea ba, orrela bada...

Nola edo ala aitona orrek beti mokaru goxoa bear izaten zuan. Burutik etzegon ura oso makal.

–Au da lanbidea daukaguna aita onekin.

Egun batez, auzo-erri batera joan bearra gertatu zitzaien seme-erraiñeri, illeta batera. Eta anaiak anaiari:

–Gaur etxean gelditu bearke dek, aita zaitu bearra zegok. Orain oera kapesnia eramaioek eta gutizi batzuk egizkiok potzura joan ez dedin. Eutsiok ezegitekoren bat egin ez dezan.

Erraiñak:

–Jesus, Jesus! Orrek bere burua itotzen badu bai al daki-zute zer lotsa! Jendeak zer esan bear duan ere...

–Bai, bai, zoazte lasai, eutsiko zioat nik aitari eta.

Or dioa mutilzaarra kapesniarekin oera:

–Ara emen kapesnia, aita, artu; babak ere egosten daude eta gaur ez dago oillorik.

Jaiki eta or dioa alkandora utsean potzura aita:

–Gaur dek ba nere azkena, gaur...

Mutilzaarra igo da ganbarako leiora:

–Ju, arraiok ezpaitu, ito bear badek, aukera ederra izan bear dek gaur –zion semeak berebaitan.

Aita gizon aundia zanez, –Banuala mundu ontatik! –eta sartu da potzuan. Belaunetaraiñoeko uretan an dago zutik; eta mutillak ganbarako leiotik:

–Alperrik zaude orrela, aitta. Orrela etzera ittoko; buru ori beera sartu bear dezu. Orrela ittotzea uste al dezu?

–Oraintxe izurratu nauk –dio bere buruari aitak.

Potzutik irten eta laster zan etxean, oian sartu eta baba eske. Andik aurrera babak ere gozoak, eta ixil eta apal aita zaarra.

Seme-erraiñak arriturik. Anai ezkonduak mutilzaarrari:

–Zer egin diok aittari, motell?

–Nik ezer ez. Or joan uan askotan bezela potzura, eta an zegoan belaunetaraiño uretan sartuta zutik, eta ganbarako leiotik deadar egin zioat ala eztala ittoko eta burua beera sartzeko. Laster uan etxean baba eske. Ez dek berriz potzuraturako, ez.

–Motell, motell, pake ederra jarri diguk; lasaitu gaituk!

–Zeok gaizki oittu zenduten, bateko oilloa eta besteko auntsunia. Ez dek potzuan ittoko, ez.

Ez omen zuan berriz ito bear zuanik esan aita zaar kutixizale ark, eta pake santua, orratx.

Palankariak

Gure aurrekoak esan oi zuten palankari iaioak bazirala Errezillen; eta leku geiagotan ere bai, noski.

Bi eratako palankariak izaten ziran. Batzuek, palankaz goitik beera joaz arria zulatzen jarduten ziranak, eta besteak, burni barra botatzen zutenak.

Arri-zulatzailleak ordu askoan kaska-kaska mendiko oiartzunak entzuten zuala jardungo ziran arrobietan, edo etxe-inguruan ere bai, arri aundiak puskatzen eta zulatzen.

Lan ontan alkarri erronka aundiak botaz asten omen ziran, abestuaz edo marmartuaz:

Indarra erruz degu
eskuz eta ankaz.
Ernio eten liteke
olako palankaz.

Eta, rau! eta, kask!

Etxeberri inguruan batez ere laukitu eta lau aldetan zulatu oi ziran apustuetan arri aundiak.

Apustuak sarritan tranpak ere, joku geienetan oi diran bezela. Laguntzaillea erosi eta arri-zulora ura botatzerakoan burni-pusketak sartzen zizkieten. Palankak ezin bear aña zulatu burniari ikutzean, eta orrela apustua galdu arazi ere bai.

Beste palanka-jokua, zeñek bide geiagoan bota izaten omen zan. Palanka edo burni-barra alde batetik lodia eta borobilla, beste aldetik meea.

Mantxinbentako Zuaneta baserrikoa omen zan palanka botatzen entzute aundiko oietako bat. Errezillen, Artxiola, au ere palankari onetakoa.

Gure aitonen garaian palanka-joku asko izaten zala entzun izan da.

Zortzi libra inguruko burni-barra jira-biraka erabilli ondoren, indar guguz airean bota; amar eta amabost librakoak ere izaten ziran. Palankak mutur lodi aldetik jo bear zuan lurra neurria emango bazuan.

Apustu bateko bertso osua ez bada ere, zerbait ikasia nuan perratoki inguruan:

Ni naiz palankaria Artxiolakua;
kontrariua, berriz, Zuanetakua.
Orain sei illabete zan erronka jua,
palanka izateko zortzi librakua,
nai duanak irtetzeko probintziakua...

Nik entzun ditudanen artean ospetsuena Bidaniko Labakaserriko mutilla izan da. Ikaragarrizko indarrak berekin, eta ez indarra bakarrik, palanka botatzen ere iaioenetakoa. Arrika ere izugarria omen zan. Errezildarrekin maiz izaten omen zituan erronkak. Burrukak ere bai, noski.

Mutil koskorra zala, Trintxera gainean egin omen zuan leenengo burruka-saioa errezildarren aurka; bai menderatu ere.

Albizturren amar librako palankaz egin omen zuten apustua, eta eun eta berrogei oin eta beatz batzuk bota omen zuan burni ori Labakak; bai apustua irabazi ere. Ez daukat goguan noren aurka jokatu zuan.

Geroztik erri koskor askotan egiten zituan orrelako saioak. Mutillak emezortzi urte besterik etzitian artean, eta sona aundia artzen ari zan.

Urte batzuetara, Ameriketara joan zan, Uruguay-ra. Montevideon palanka-jokua oso errikoa zuten, eta illabete baiño leen apustu bat gertatu zioten Labakari. Kontrarioa ere gipuzkoarra, leenago joan eta an zegona.

Iru eratara bota bear zan barra ori, amabost librakoa:

Leenengoan, aurrez-aurre etorrita.

Bigarreanean, jira-biraka etorrita.

Irugarreanean, anka geldian.

Udazken garaia zan. Igande goizez txoriak kantari asi orduko or datoz gizonak erri txikienetatik ere. Bazter guztietaraino zabaldua bait zan apustu onen berria. Gurdi, zalpурdi, automobil eta oiñezko, amarrak alderako zezen-plaza jendez beteta arkitzen zan, txingurri-kabia zirudiela.

Eun milla duro urre jokatu omen ziran egun artan. Etzan txantxa.

Ordua iritsi orduko irten dira bi palankariak.

Leenen Labaka asi zan. Amar bat jira-bira eman ondoren jaurti zuan barra, eta mutillak eun eta ogei oin eta gexeago...

Jende guztia zoratuta, ezin sinisturik gelditu omen zan. Aurkalari edo kontrarioa bera ere marka arrigarri ura ikustean mututu, eta ez omen zuan barra bota nai izan. Labakari eman zioten apustu-txapela, baiña urre asko jokatua zegon bietako batek ogei eta emezortzi kana bota baietz eta ezetz. Orregatik, Labakak berriz ere bota egin bear izan zuan, eta urrengoan dotore bota ere: Berrogei kana eta beatz batzuk, alajaiñetan! Barra, lurrean sake egin eta plazako abe batean sartu omen zan, aldenik alden pasaz, erdi-erditik printzatzen zuala.

Jende guztia txaloka, eta bere lagunak bizkarrean artu eta kalez-kale ibilli omen zuten.

Gure gazteak ogeita bat urte zeuzkan. Egintza arrigarri arekin mundu guziko nagusitza irabazi zuan, ez bait zegon lurbira osoan marka au ausiko zuan prakadunik.

Garai aietan Gipuzkoako txapeldun zanak lurbira osoko barra-jaurtitzailleei edozeiñen aurka jokatzeko prest zegola

adierazi nai izan zien bertso batzuen bidez; baiña inortxo ere etzan agertu. Ameriketara etziran nunbait bertso aiek iritsi.

Onela zioten, oker ez banago:

Erronka botatzeko
badet arrazoia,
palankaz neurtzen baidet
indar ta sasoia.
Joxe Mari det izena,
ezizen, Betroia.
Uztaren birako det
epea jarria.
Kontrariorik ez det,
naiz alegin saia.

Amabost librakua
dala palankia,
eun duro, ontzako bi,
nai badu etxia.
Beste kondiziorik
nai badu jartzia,
betor bi testigukin
seiñak botatzia.
Lekua izango da
Zarauzko plazia.

Garai aietan askok oi zuten bezela, ura ere Amerikara joan zan, eta Labakarekin topo egin zuan. Bereala egin zuten apustua. Amar librako barra eta lege berrira, au da, barra busti eta jira-birak airean emanaz.

Asi ziran, eta Gipuzkoako txapeldunak, 163 oin; Labakak, 174.

Ain zuzen ere, geixeago bota zezakean Labakak, baiña oitura zuan bezela, indar apur bat gorde egin zuan, bai baze-

kian besteak ere zerbait geiago bota zezakeala, eta berak ere alperrik nekatu gabe irabazteko aiña bakarrik bota zuan.

Labakak etzuan aren izenik eta aztarrenik eman nai izaten.

Kontrariorik gabe zegoan, eta urte batzuetara berak ezer txo ere etzekiala, lagunak beste apustu bat gertatu zioten Gabriel Arrizabalagaren aurka. Lege zaarrean, au da, anka geldian metro erdi ingurutik irten gabe, eta ogeita bost librako barra.

Jende talde aundia bildu zan orduan ere, baiña etzan apusturik jokatu, ordua iritsi zanean seiñaleak galdu bait zituan Arrizabalagak. Arrezkero ez omen zan iñortxo ere Labakaren aurka jartzen ausartu. Izutu zituan ark bazter guztiak. Ikusten danez, etzan nolanaiko mutilla.



Errezilgo jokalaria. Erdian Larraingo errena

Azpilla

Oso ezaguna zan errian gure garaian Iñaxio Mari. Azpillaga baserrikoa izanik, Azpilla deitzen zioten, Euskalerrian askotan oi dan bezela.

Maiorazkoa bazan ere etzan baserria bere gain artzeko nor izan. Langille gogorra, ori bai. Ala ere, zurruta maiteago zuan etxeko maiorazkotza baiño. Leiala mutilla, lepatotz indartsua, baiña ardoak gaiztotzen zuan.

Zirikatzailleak ere oi dira inguruan, eta lagundu bearrean, kinterkeriak. Parre egiteko lagun asko oi zituan Azpilla gizajo ark inguruan. Eskerrak Argindegiko Bartolo auzoko gizon jator bikain ari. Geienez alkarrekin ziran.

Arrebari esan omen zion bein:

–Ik ezkondu bearke den baserrira. Ni ez naun gauza. Badakin nere berri, nik ez diñak gauza onik egingo, eta eutsiozue baserriari. Ni emen ibilliko naun.

Alaxe, arreba ezkondu zan etxera, emakume jatorra ala ere. Eta etorri zan landare maiorazko berria. Arrebak Iñaxio Mariri aitaponteko izan bearke zuala esan zion:

–I aiz zaarrena eta euk jaso bearke dek bataiuan umia.

–Nik ez diñat jasoko umerik –erantzun zion–. Adur txarren bat erantsiko zionat, mozkorra izango uken eta or konpon zaitzete.

Etzuan aurra jaso Azpillak. Gerora etorri ziran aur geiago ere, eta semetxo bat jasotzeko itza eman zuan, mozkorra irtezen baldin bazan aitzakirik ez ematekotan. Or dijoa aitaponteko Iñaxio Mari:

–Ala Jainkua, eman bear zionagu gatz!

Apaizak, bataioa asterakoan:

–Zer dakartzue ba?

Eta Azpillak:

–Ixkua, ala Jainkua, ixkua!

Apaizak purrustara; sakristaua parreari eutsi eziñik ixkua aditu zuanean.

–Abrenuntzio eta bolo...

–Eman gatza, ala Jainkua!

–Ixo –dio apaizak.

Orrela egin zuten kristau kokkor berria.

Osasun ikaragarriko gizona zan Azpilla, mozkorrek mozkor. Zenbat gau txar, zenbat bustialdi eta lokatza... Jaunak orrelako osasuna, indar-kemena, etxea, senideak eta guraso onak eman eta ala ere ezin zuzendu. Nundik osasuna galduko eta ezin ondatu. Orra zer geran.

Etzan biguna Azpilla, baiña menderatu zuan gaitzak. Etzan zaartu, gizajoa.

Urtean bein, arbi-lore garaian, elizako lanak egingo zituan zintzo, ori bai, asmo onak artu ere; baiña berriro Napar salda beltzak burrukatuko zituan aren asmoak.

Bein arbitara sorora joan zan, askotan bezela. Arbi-loreak ikusirik, ekiten dio:

–Alu demoniok, orain ere emen al zaarete txoro zikiñok? –esanaz, igitagiaz rist eta rast!, ebaki zituan loreak.

Izan ere, arbi-loreak Pazkoazkoa egiteko garaia adierazten, eta larri mutilla, urteko zekortzarra astindu bear.

Eskua txapelpean sartu eta kaskarra azkatuaz asiko zan atxurak kontatzen etxeazpiko pikupean: Jaiegun danetan, eta periegunen batean ere.

–Errekoiño, ala Jainkua! –oiek zituan biraorik errexenak, baiña zerrepeltzen zanean gizenagoak ere esan oi zituan, ortzakin kirri-marra otsa ateraz. Argindegiri galdetu zion:

–Zu, Martolo, konpesio legia egin bearrian naiz eta zenbat mozkor arrapatu ote dittudan edo.

–Motell, motell, berreunen bat izango dittuk.

–Ainbeste bai, e? Eta biraoak ere izango ziran ba, Martolo?

–Bai, gurdika bi bai, gutxienez.

–Errekoiño, jornada aundia det orduan. Makurra naiz gero ni, e?

–Ori nik zekit ondo, Iñaxio Mari. Lenguan esan izkidan ederrak, Borondegín gaiztoa jartzen aiz-eta.

Txapela erantzi eta negar egiñaz:

–Barkatzen al didazu, Martolo? Zure bearra izaten det ba nik.

–Bai, baiña mingain txarra jarri zitzaikan, eta gaiñera jo-tzeko kiñu ere egin idaan.

Belauniko jarrita:

–Ori ere egin al nizun bada, Martolo? –Negar egin oi zion.

Berez ustela eta arta-pusketa utsa zan, gizajua. Garizu-mako larunbat arratsalde batez or dator kolkua beteko ko-rapilluarekin aitortzera. Eta nun billatzen dituan iru apaiz alkarrekin egurasten, goiko plazan. Txapela jasoaz dio:

–Zoazte irurok elizara eta sar zaitezte zeuron kaxernatan, irurontzako aiña lan badakarkit nik eta.

Don Pedro sartu da; eta Azpilla or dijoakio, “Ni pekatari” mardul esan ondoren. Sartzen du kaxernako leiotik bere bu-ru-motz lepo lodia:

–Jornada aundi xamarra dakarkit, don Pedro!

–Emen danak sartzen dittuk; bota.

–Badakizu nik mozkorrak sarri eta aundiak arrapatzen dittudala.

–Baai...

–Ba, urte guziko aleak emen dittut.

–Zenbat bezela izango ote dittuk, alde alde?

–Errejudas!, ez dago kontatzerik. Martolok dionez, berreun inguru izango dira.

–Ez ago pattala.

–Biraoak ere aundiak botatzen omen dittut, ez baidakit zer esaten dedan mozkortuta nagonian.

–Eta gutxi gora-beera, zenbat?

–Martolok esan duanez gurdi bi bai, gutxienez. Eta aurten pekatu berria ere badakarkit.

–Ja esan.

–Aitzetako amonari musu eman nion.

–Zergatik eman ioan ba, griña txarragatik ala?

–Bai, jauna, orduaren griña zan orduan ere. Apustu egin nuan amonari musu eman baietz, eta irabazi.

–Ori uan orduan pekatu berria?

Nunbait parre egiteagatik apustu egin zuten, zirikatzaileak ere bai eta...

Urteko zekorra saldu ondoren etxera zijoala, San Jose aldean galdetzen dio Arabeko Pernandok:

–Gaur nolaz ua alde ontatik?

–Don Pedrok Paneokoan zintzurra busti gabe joateko esan dit-eta.

Izan ere, askoz bide luzeagoa zegon San Jose aldetik Azpilagara.

Gari-lanetan ittattan eta ibilli oi zan Azpilla, beste asko bezela. Igita edo iitta-garaian lan aundiak izan oi ziran baserrian. Auzoak txandatuaz alkarri lagundu oi zioten; gaur emen eta biar an, taldeka, lasto-txapelak jantzi eta rik eta rak!, zabal-zabal garia apur bat igartu ondoren, ziri bat eskuan zala azaoak egingo ziran, erraskia lotuaz. Gero, azaoak

txorrokatuaz, meta txikiak eta aundiak, galburuak gora zira-
la jarriko ziran. Meta aundiak baba beltzez inguratu oi ziran.
Igartzeko, noski.

Galburu biltzea izaten zan gaztetxoontzako lana; amonak
iru adarreko opilla egingo zuala, eta pozik. Gaiñera, ardo go-
zatua eta arrantxoa.

Bein Arabeko soroan ittan ari ziran, Azpilla ere bai. Etxe-
koandreak galtzarpean pitxarreko botilla aundia artu eta gi-
zoneri ardoa emango zien sarri xamar. Ez, noski, Iñaxio Ma-
rik nai bezin sarri. Edontzia erdi beterik zala:

–Tira, Iñaxio Mari, egin zak tragotxoa.

–Mararikatuu, oraintxe larri nengoan...

Erdiraiño antoxiña ikustean:

–Ana Mari, ontziari zorua beteko ez badiozu ere beteiozu
goia!

Ark muturreraiño nai ardua, eta etxeakoandreak beetxo
uzten.

Beste batean, Izarre-Saletxen garijotzen, sist! eta sast!,
metak zabaldu mandio-inguruan, azaoak gurutzatuaz lu-
rrean ez ezkotzearren. Eguzkitu eta onela jaulki oi ziran gal-
buru mardulak, arri zabal leunak joaz.

Gu pozik ibiltzen giñan jo-lekura eramaten kontuz-kon-
tuz, galburuak autsi gabe.

Izarre-Saletxeko Dominikak gixaru goxua prantatu zuan
giza-saillari emateko. Gozoaren gozoz danak geiago jango zu-
tekenian. Eta Azpillak jan-edan egin ondoren:

–Oso ona zegoan, Dominika; baiña pixka, ala Jainkua,
pixka, amorratu pixka!

Udazkeneko Ernioko jaietan Azpilla Zelatunen izango zan,
ale bapua illuntzerako berekin zuala. Batek eman eta besteak
edan arazi, danak kalte egiteko, eta iñor gutxi laguntzeko.

Argindegiko Bartolo il zan. Etzion gutxi erasan Azpillari ain maite zuan Bartolo iltzeak.

Gau batez, an, saletxe-bazterrean garo-zakar batzuen gainean etzanda zeukan mozkorrarekin lo gelditu izango zan, gizajua. Zer egingo eta, astakirten gaiztoren batzuek zakarri su eman zioten. Eta, jakiña, Azpilla oartzera bere jan-tziak su artu eta gorputz aldea naikoa erre zitzaion. Gaizki egon zan oso. Zauriak gerotxo ere sendatu eziñik ibilli zan.

Ara zer nolako axiua egin zioten.

Ni ordurako erritik irtena nintzan. Ez dakit jakin zan zeintzuk izan ziran ari su eman eta iges egin zutenak. Baiña, ziranak zirala, aiek bai merezi zutela zigortzea, ondo ala ere... Gizatasun arrastorik etzuten aiek. Gerora izango al zuten. Gaur oraindikan, egia esan, nere amorruan madarikatzen det egintza uraxe. Erriko edo erbesteko, abere izatera ere etziran irsten kirten aiek.

Etzan zauri aietatik il, baiña bereala eraman zuan ainbat jenderi azkena erantsi dion Napar-salda orrek.

Udazkena

Urteburuan lanik geiena izaten dan garaia udazkena da. Uz-tak etxeratzetik asi eta inaurkiñetaraiño. Babarrun, sagar, intxaur, gaztaiña biltze eta abar eta abar.

Sagardo egitea

Egur-mazoz sagarra jo eta tolarean estutuaz zukutu eta ateko zitaion muztirio guztia kupeletan sartu eta irakin arte antxe egongo zan. Irakingo zuan pitsa kupelaren gaiñeko zulo-tik irtetzen zitzaiola, sagardoa garbitu arte. Ondoren, tolarean gelditutako patsa bilduko zan eta pixkana beieri emango zitzaien.

Garo-etxeratzeak udazkenean bazuten bere giro-kutsu ona. Usai gozoa banatuaz urrutiko mendietatik ekarri oi zituzten gurdi eta lerakada mardulak, neguan ikuilluko abereen etzauntza egiteko, azpiak egiteko alegia; baita txerria erretzeko ere garoa izaten zan.

Egoaizea pil-pil, pagausoak fii-fiii-fiii dijoaz goietan. Eiztariak ez daude lo. Borondegiko Manueltxo eguna zabaltzerako Zelatunen izango zan, beste askoren artean. Bazekian usosorta ederrak erakutsiaz etxeratzen. Bai bere emazte maratz²⁷ Leandrari eizak saltsa gozoan jartzen lan ederra ematen ere.

Udazkeneko beste gertaera berezi bat etxe-aldaketa degu. Baserri batetik bestera aldatu bearrak izaten ziran. Geientsuenak maizterrak izanik, nagusiak berak bear zuala, edo salgai jarri zuala eta erosi, teillatua erori, edo etxe-azpiko orma zintzilik, irten egin bear. Naigabe latzak izan oi zituzten gure aurrekoak aldakuntza oiek zirala-ta. Abereak, simau-

27 Arretatsu, langile

rrak, lanerako tramankuluak, gurdi eta golde, laia eta atxurak artu eta oso goibel ikusi izan nituan guraso zaarrak.

Ganbarako kutxa, arto, gari, belar ondu eta abar ibiltzeak lan aundiak ematen zizkieten. Noizko etxeko tresnak etxebizitza berriari ezarri?

Aittajaun zaarrak muin egiñaz atariko ate zaarra utziko zuan. Sartzen zan baserriko ateari berdin egingo zion, txapela erantziatz. Ziñatu eta sartuko ziran etxeko danak bizileku berrira.

Oitu eziñak, asmatu eziñak eta abar ere izaten ziran; baiña Jaunak laguntzen zien kristau langille on aieri.

Eztaiak ere garai ortan oi ziran, naiko loa egiñaz eta negua lasai igaroaz bizibide berriari asera emateko, landaretxo berriak udaran etorri zitezen bapo.

Aal bazan, San Martin aurretik lurak azpikoz gain jarriko ziran. Zortzi, amar edo amabi gizon-emakume laiak artu eta illaran jarriko ziran soro-ertzean. Aitaren egiñaz ziñatuko ziran lan gogorrari ekiterakoan. Rast! gora, eta, rast! beera, laiak gogor sartuaz orduetan antxe.

Danak berdin egin bearreko lana zan laiaketa; besteeri jarraitzeko indarririk edo aalmenik ez bazan, taldetik irten egin bear.

Gaurko tresnak eta erreztasunak ikusi edo leengo lagintza neketsuak ikusi, badago alde ederra. Sinistea ere ez da erreza.

Gizaseme talde laiari orren erdi-inguruan emakumeren bat ikustea etzan arritzekoa, gona aundi aiekin aizea sortuaz; laian egin ere berriketa gutxirekin...

Gertatu izan da andre aurduna egunez laian jardun eta gabeen aurra izatea. Emakume bat ezagutzen det, gaur zaarra, aurra oialetan bildu, saskian utzi soro-bazterrean eta laian gizon artean jarduten zana, aldian bein titia ematera joanaz.

Auzoak alkarri lagundu oi zioten lurgintza-lan oietan. Gaur gurea, biar zuena, etzi beste ura, eta etzidamu alako soro...

Ondoren zoi-austea, sokor-mazoz sokorrik aundienak autsi eta gari-babak erein. Lotan aziak jarri eta erne arte zai.

Aziaren lo ortatik datorrela esango nuke gabonilla edo abenduari lotazilla deitze ori.



Roman Arruti sakristaua

San Martin bezpera

Iritsi zaigu erriko zaindari Martin deunaren jai-bezpera. Pesta-aurrea izaten zan bazter guztiak astindu, autsak kendu, txukundu sukalde, leio eta ate-ertzak karez zuritzeko, ate gainean gurutze aundi bat zuri gelditzen zala. Suillak eta eltze-gaiñekoak surtako autsez garbituko ziran disdiratsu jarriaz. Apala eta tximinietako papertxo loretsuak ogiriñez erantsita apaindu oi zan etxe xaarra.

Neskame zeuden arrebak eta morroi zegon anaia etorriko ziran, eta danok amaren inguruan bilduko giñan. Gu txikiok, zer ekarriko ote ziguten zai.

Pesta-usaiak asi dira, suziri, ezkil eta abar. Udaletxeokak elizara joango ziran kapa beltz aundiak jantzita. Alkate jaunakastor eta guzi, eskuan zigorra zuala, txanboliñak alkate-soiñua joaz. Salbea abestu eta pestari asera emango zitzaion.

Gu danok Tolosatik datorren korreo autobusaren zai. Goenaga aldean azaldu da, tur-tur-tur. Gure poza! Nortzuk ote datoz, eta zer ote dakarte? Iritsi da. Zenbat jende! Gu begiluze... Lasterka amarengana:

–Ama, ama, Martxeliña eta Anita badatorz, Mari Aundiñean sartu dira. Erkiziko Rosario ere etorri da...

–Dotorea etorriko uan?

–Etxeaundiko don Juan Mari apaiza ere or da. Joakin ere bai...

–Ara, Paristik etorriko dek?

–Joakin Talo ere etorri da, ama. Ezuitzara etortzen dan Anttoni edo ura ere bai.

–Neska eder askua etorriko uan oraintxe ere?

–Braxillieneko Juan Joxe ere emen da, oso dotore jantzita.

–Orduan biar meza nagusian ederki abestuko dik.

–Eta beste bi neska aundi eta apaiñak, Aita Santuaren alabak dirala esan dute.

–Jesus, Aita Santuaren alabak?

–Bai, ama, bai.

–A, Galsoroko Aita Santua deitzen dioten orren alabak izango dittuk, aspaldian Bartzelonan ituan-da. Ez dek jende gutxi gutxi etorri.

–Praille aundi bat ere etorri da, galtzerdi gabe eta burua zuri-zuri soilduta duala.

–Sermoilaria izango dek.

Orrelaxe, kanpoan ziran guztiak errira bildurik, bakoitza bere etxeko pesta-giroan sartuko gñan, San Martiñen ome-
nez sendiartea berrituaz.

San Martiñak

Iru eguneko pestak izaten ziran San Martiñetan. Goizean goiz, ezkillak eta suziriak. Meza nagusia eta otordu bapauk

Eskusoiñu-joleak pranko ezagutu ditut Errezillen egun oiek dirala-ta. Luzatu eta moztu, zabaldu eta itxi, irrintzia ateraz, fii eta faa auspoak zituztela; aitona atzapar oker aiek abestu oi zituzten pandero-narru zaarra joaz:

Oraingo neskatillak
zer dute merezi?
Errekan beratu ta
lixiban egosi.

Nere amak ezkontzeko
nere moduko batekin,
dotea emango'idala
oillaloka bost txitakin.

Akordatzen al zera
zer egin genduan,
Urkiola gaiñeko
paguan onduan?

Artajorrara nua
luberrri berrira.
Belarra jorratu ta
artua sasira...

Orrelaxe, beatzak ezpaiñetan maiz bustiaz, astinduko zituzten pandero zaarrak. Eta neska-mutil gazteen zanko -oiñak, "Jo, Pello", eta "Aupa, Iñaxi", nekatzeko kupira gabe dantzatu ere. Zanko-koskorrak gogor-gogor egin eta neska

muxu-gorrixka ederrak, eguzkia bazan, euria edo lanbroa bazan, jo eta kia dantzan, abarketa edo ezpartin zuriak apurtu arte.

Dantza-soka ere iru egunetan dantzatuko zan, dantza -aurrenak txapela neskari emanaz. Neskak larri egon oi ziran billa joango ote zitzaizkien.

Bein, mutil bat neskaren billa joan eta etzuan irten nai izan; ondo ikusten ez nunbait mutilla. Ondorenean alkar ikusi zutenean, mutillak dio:

Zergatik diazu
kalabaza neri?
Ez al det bada nik
planta on ageri?
Begira zaude zu
kaletar oieri,
baiña obe zenduke
luza begi ori
gure Beltxan goizeko
balde esnari.

Parre egin zuten, eta neska gorri-gorri, lotsatuta gelditu zan.

Dantza-soka ondoren, erromeri ederra txistu, txanbolin eta dultzaiña. Orrela igarotzen ziran iru eguneko San Martin pesta aiek.

Urte batean apustu egin eta erren bi jarri zituzten aizkoran. Alako pestarik... Ez bat eta ez bestea ez ziran enbor gaiñean zuzen jartzen. Landarraingo errena zan bat; bestea, Basabil-txiki ote zan ez nago ziur...

Dana dala, bat oso errena bazan, bestea zero anka-biurri baldarra. Enbor gaiñean beren burueri ezin eutsi eta lurretik egin zuten aizkora-apustu ori, ezpal batzuek kenduaz.

Bukatu gabe utzi zuten lana. Ango orrua, eupadea eta pa-rreak! Gozatu zan jendea.

Idi-demak ere oi ziran. Mendiola izaten zan askotan na-gusi.

Koskol-joku, eltze-puskatze, aari-joku onak, oillasko-jo-ku, lasterkari eta burrukari, jolas pranko oi zan iru egun oie-tan. Eta gero, pesta berritzea, urrengo domekan.

Ondoren, pake-alaitasunean etxera, ontzarekin batera irrintzika, mendietan oiartzuna galtzen zala.

Entzun izan nuan, *San Martin, negua gertu din* esaera. Baita bertso auetzek ere; ez dakik nork jarriak izango diran:

Ongi nai badezu negutu
uzta beltzean osatu.
Udazkenean garai danean
bizkor lanian saiatu.
Gari berriak kutxatu,
ganbarak artoz okitu.
Lastok sapaian, pillan gaztaiñak;
garo-iñaurkiñak metatu.

Beiak guri ta esnetsu,
txerria laster gizendu.
Arrautza epelak, sagar ta intxaurrak,
ardi-okela sesindu.
Negu bildurrik ez dezu
uzta on egin badezu.
Supazterrian, sasoi onian,
egun guriak dauzkatzu.

Nundik norakoak gera?

Antziña, orain bezelaxe, baziran artu-eman arrigarri xamarak giza-emakumeen artean.

Baserri batean seme bakarra omen zuten. Senar-emazteak abere batzuekin, egazti mota, oillo, aate, uso, antzar eta abar, beartsu baiña poliki bizi omen ziran.

Seme bakar ori, lasaia mutilla, arta-pusketa utsa, ona... Aita-amak beren sasoian lo egonak ez baziran ere, mutillak etzeukan orrelakorik. Amak nai bezain bizkorra etzan. Bein baiño geiagotan esango zion:

–Motell, ua pestara, neska ederrak izango dittuk gaur erromerian. Dantzan eta neska-laguntzen asi inteke.

Senarrari esango zion:

–Gure seme onek egundo ez digu andrerik etxeratuko!

–Zaude lasai, emakumea! Asiko da bai; garaian dago oraindik.

–Garaian, bai, garaian; gu zaartzen ari gera, eta orain zan garaia.

Udaberrian goiz, intza kendu baiño leen an ari da mutilla gerizak kolkora biltzen, tarteka ale batzuk janaz. Ain zuzen, gaikaldeko bidetik, txist!, egiten dio astoarekin errotara dijoan auzoko neskatxak:

–Zakua okertu zait; lagunduko al zidazuke²⁸?

–Bai, zuzenduko degu... Garratz xamarak daude, oraindik ez dira ondo eldu baiña... –esanaz neskatxarengana iritsi da.– Otsi, probatu itzatzu.

–Eskerrik asko.

28 Zenidake

Zakua zuzendu ondoren murkatzean²⁹ exeri biak eta leen-gerizak janaz kontutxoak dituzte; txoriak lagun eta kukuotsez inguraturik zeru batean daude.

Mutillari alakoxe xarraxtada bat sortzen zaio ain lasai eta gozo lo zegon biotzean. Esan ere bai zerbait neskari:

–Polita zaude, Jexuxa.

–Ala iruditzen al zaizu?

Urrengo egunean toki eta ordu berean alkartzekotan or dijoa bikotea bakoitza bere aldera.

Ia egunero gerizak bilduaz, eta apatx egin eta janaz, an dabilta. Azkenean ezkontzeko mandatu egin dio pin asko mutillak. Musua gerizatu zaio neskari. Bai ia baizkoa eman ere.

Amak, zerbaiten zuzmurra artuta, onela dio aitari:

–Aizu, Miel Mari, gure mutil au apurren bat bizkorrago dabil egun auetan. Kukuaren etorrera izango du.

–Zure irudipena –dio Miel Marik.

Goiz batez artajorran ari dirala, mutillak aitari, lotsaz:

–Aitta, zerbait esan nai nizuke.

–Aa, ik esango dek.

–Zea, zea... –burumakur mutillak.

–Ez adi lotsatu. Okerren bat egin al dek? Esan zak, motell!

–Ezkontzeko asmua dek.

–Bejondaikeala, motell! Sasoi oberik ez uan aukeratuko. Nor dek andregai ori?

–Lartaietako Jexuxa...

–Ene! –atxurrak eskuetatik iges egin dio aitari, itzik gabe gelditzen dala.

29 Pendizean

–Zer, ez al zaizu ondo iruditzen, aitta?
–Motell, ez dek begi txarra euki, baiña... baiña, ez nauk estuasun txarrean jarri oraintxe...
–Zer bada?
–Iñori esan gabeko zerbait aitortu bearrean jarri nauk.
–Zer dezu ba, aitta?
–Lotsa gorrian arkitzen nauk, motell.
Biak itzik gabe. Alako batean aitak:
–Joxe, ezin itekek Jexuxarekin ezkondu.
–Zergatik ez?
–Ixillean zegok, baiña Jexuxa nere alaba dek, anai-arrebak zerate. Amak etzekik eta ixillik gorde bearko diagu.
Mutilla zearo jota utzi du berri txarrak.
–Ez adi estutu, besteren bat izango dek...
–Eztaaa! Ez det besterik nai! –Malkoak parra-parra darizkio mutillari, eta aitak ere ez ditu urruti.
Eguerdian bildu dira maira; otoitza eta babak... Ixillik gizonak. Amak:
–Zer, zer aizek jo zaituzte gaur? Ez al dezute itzik?
Mutillak anka, igesi; eta amak:
–Zer du orrek?
–Aa, berak jakingo du –dio aitak.
–Gure mutillak zerbait izan du. Okerren bat eragin arazi dio mutillari baten-batek.
–Bai, zea egingo zuan!
Illuntze aldera artu du amak mutilla, otsan-otsan artu ere.
–Joxe, zer gertatzen zaik? Murgil xamar ikusten aut...
–Ezer ez, ama.

–Bai, zerbait badabilkizute zuek. Aittak ez dik ezer esaten. Ik zerbait badek, ez jan eta ez edan, goibel ago. I ez aiz aurreko egunetako Joxe. Okerren bat egin al dek?

–Ezetz, ama.

–Okerrak gero azaltzen ditut, eta garaian ibilli ezkeru zuzendu ere bai! Aittari esango ez badiok ere, esaidak neri, ama nauk-eta. Amak estali oi dizkik makiña bat gora-beera.

Ixillik mutilla.

–Joxe, neskaren bat?

–Bai, ama, bai.

–Dana dala, zer dek?

–Andregaia egin eta...

–Ederki! Zein dek ire maite-min ori?

–Lartaietako Jexuxa.

–Ara, neronek begiz jota neukana. Ori dek neska, ori!

–Bai, baiña...

–Zer bai baiña gero?

–Aittak esan dit Jexuxarekin ezin nintekela ezkondu.

–Zer dala-ta?

–Zea, bere alaba omen da Jexuxa, eta senideak omen gera.

–Ju! Ori esan al dik aittak? Ba, esaiok aittari Jexuxa aren alaba baldin bada, i ere ez aizela arena, nik dakidala i zein semea aizen. Joan eta esaiok! Etzerate anai-arrebak, etzerate senideak, aittak ala uste baldin badu ere; ori nik zekiat ondo, ez aittak. Beraz, ezkondu zindezteke lasai. Guk merezi aiña-ko mutilla ba aiz i, eta ekarri zak leenbaileen andrea etxera, ondo artua izango dek. Eta ez adi goibeldu. Gure okerrak jakin dituk eta barkazioa eskatzen diat. Lotsatu egin bear nizek, baiña ire zoriona dek emen orain mami, giar, berantzagi eta legami...

Jakiñak jakin, mutilla etzan asarre: Jexuxa bear zuan ark eta etzegon eragozpenik. Orra or nun askatu zan korapillo latza.

Zoriona etxean sartzen zala uztartu zan bikote maitatia. Eztaiak egin ziran etxe dontsu artan.

Andik aurrera, bazan landare ugari teillape artan. Eta aiton-amonak etziran asarre izan aingeru txiki aien artean, bati mukiak kendu, besteari ziñatzen erakutsi, ari ipurdia garbitu, seaska drangalandu... Talo erretzen lanak ziran an.

Esaera zaarrak ala dio: Amak jakiten du aurra norena dan.



Uzkudun bere ama eta lagunekin (GureGipuzkoa)

Udazkeneko eskaleak

Negu-sarreran baserriz-baserri ibilli oi ziran eskean praille eta lekaima edo mojak. Babarrun, sagar, intxaur eta abar negurako jakiak etxeratu bear...

–Abe Maria Purisima!

Etxekoandreak emango zien mantal erdikararen bat gauza:

–Gure Pelixa ere or da nunbait eta, ark ere jan bearko du -ta...

Nagusiak zearka xamar begiratzen bazien ere etziran utsik joango ate-ondotik.

Bein goi-goiko baserrira praillea iritsi zan:

–Eup! –dan dan, atea.

Zakurrak jan bear duala...

–Ixo –zien prailleak zakurrei.

Neska koxkorra ethezai utzi eta soro-lanetara joanak ziran etxeoak.

–Nor ote da ate-ondoan?

–Eup! –berriz ere.

Neska koxkorra irten da. Etzekian zer zan edo nor zan. Izutu da neska, eta sukaldeko leiotik:

–Ama, ama, etorri azkar!

–Zer ote du?

–Zein den? –dio aitak.

–Ez dakit...

–Albaiteroa?

–Ez.

–Eskale edo jitoren bat al den?

–Ez.

–Zein den bada?

–Ez dakit, asto kolorekoa da.

–Praileren bat izango da. Zoaz, zoaz; baiña emaiozu or nolana... Guk egin baiño errezago eramaten dute oiek.

–Zaude ixillik, gizona.

–Bai, zuek emakumeok munduan zeraten arte praille eta apaiz arraio oiek ez dira gaizki ibilliko.

Urrengo urtean joan zaie praille moztaka bat zakua erakutsiaz babarrun eske. Dirua naiago, baiña urri izaten ziran txanponak... Etxekoandreak or dakarkio mantalean babarruna lekak aletu gabe, zerbait ugariago izan zedin. Prailleak muxin:

–Zurea bezelako mantalkadakin aurtengo neguan ez degu puzkarrik botatzen lan aundirik izango. Leka-utsean joan bearko genduke.

Gero, etxekuanian:

–Eup!

–Ara, berori al zan? Pasa bedi, pasa bedi! Berealaxe kape pixka bat epelduko diot.

–Ez det nik kaperik artzen.

–A, berri-berria egingo diot ba.

–Ori bai, oori bai. Kapetxo berriari utzi bearra dago. Nere amonak esan oi zuan:

Kapetxo berri, barru pozgarri.

Kapetxo zaar, zillean ez sar...

Pattar apur bat ere bota asi ezkerero.

–Praille presko auekin...

Malkarreko etxe kaskar batean, ezer gutxi zeukan atso koittaduak eta arrautza bat eskeintzen dio.

–Onaiño etorri eta arrautza bakarra al dakarkizu? Lagunak izango zituan ba onek?

–Bai, baiña... Ara, gaur goizean oillalokia jarri det eta arixe jarri dizkiot ba, orratx.

–Ori ere sartu egiozu bada oillalokari azpian, arrautza bakarraren bearrik ez det nik-eta.

Andre gaixoa lotsatuta.

Txintxurretako Markoxek zion arrats batez bere emazte Mariari:

–Zu, Maria, aurtengo txerri-belarriak biok jan bear dittugu gero... Aittu? Beti or prailleari ematen jardun gabe...

–Eta ari datorrenian zer eman bear diogu ba?

–Prailleari? Dijoala urdai-zati batekin. Guk zerriak gizendu baiño errezago eramaten dituzte oiek, alazankua!

–Bada, praillea datorrenian zerorri konpondu, ni ezkutatu egingo naiz.

–Bai nai badezu, baiña biar bertan jarri neri txerri-belarriak azakin.

–Zerearekin irten bearco dezu bai, kaskaillu orrek.

Jan zituzten txerri-belarri oiek eta egun gutxi barru anzan praillea zakutoarekin. Dan, dan, dan, atea.

–Abe Maria, eup!

–Ara, praillea da –dio Mariak–. Orain zoaz bada zerorri.

–Zer, zer egingo degu bada... Zer degu? –dio Markoxek.

–Ementxe, urtero bezela txerri-belarri billa netorren...

–Ba, aurtengo txerri-belarriak atzeko leiotik joanak dira gure etxean.

–Aizu, neronek ere ortarakoxe nituan.

–Orduan, kitto! Aurtengoak onela bearco du.

Pedro Deunaren pestak Asteasun

San Pedro-bezperan txukunketan ari da ama seme-alabekin; sukalde eta leio-ertzak karez zuritu eta pertz, suil, eltze-tapak eta abar garbituaz an dabilta jo eta ke.

Etxekoandrea galtzaduna zan etxe artan, bearra ere bai eta... Nagusia gaitzak mendean artuta zeukan aspalditxoan. Seme bat zeukaten eta alaba, au txaldan³⁰ xamarra.

Goizik jaiki dira.

–Tira, mugi zaitetze! Joxe Ramon, egin itzak ganau-janak, biarko ere ekarri ugari xamar, elizara eta pestara ere joan naiko dek-eta; moittu gaur.

–Baaiii!

–Martíña, ezkaratzeari garbitu legea emaion, eta ganbarako armearma-sareak eta belar-izpiak jo, eta maiak zuzendu... Biar konbiraru jendia begi luzeekin etorriko den, eta ondo txukundu bazterrak!

Aita gaixo zegon aspaldian, gaur ilko, biar ilko.

–Martíña –dio amak ojuka–, aitari kapesnia eramaion, onezkero plakezi eginda egongo den-eta.

Or dijoa neska aitari gosaria eramatera.

–Egun on, aita; ara emen gosari bero-beroa.

Itzik ez aitag, geldi, ain geldi ere... Ene, izutu da Martíña:

–Ama, ama, aitag ez du itzik egiten!

–Jesus, Maria eta Joxe, auxe bear diñagu berriz orain!

Igo da azkar ama; eta:

–Manuel, Manuel, baiña, Manuel!

30 Txolina, leloa

Ixillik Manuel.

–Baiña, Manuel, il egin al zera? Jesus milla bider! Baiña urteetan iltzen, eta gaur ilko ziñan ba, gizajo ori! Au da atarmentua! Biar San Pedro, ganbaria bete bazkaldar, eta gaur ilko ziñan ba, Manuel! Au da, au beargitea! Utsa zan etzi il baziña ere...

Neska nagarrez.

–Ixillik ago, neska. Onena ikusia zegonan, baiña gaur il bear ziñan. Jasss! Otsegi Joxe Ramoni.

–Aita il dek eta ua errira, eta esaiek bikarioari eta... Iñor azaldu baiño leen jantzi dezagun, gizajoa. Ago ixillik, Martiña. Ua eta irin-gelako ate-atzian txintxillika dauden galtzak ekarri itzan.

–Auek, ama?

–Bai... Oraindik ere onak zeuden ba auek... Ua ganbarara eta azkenengo abian uztarri zaarraren azpian txintxilika entengan daudenak ekarri itzan.

–Ara emen, baiña auek ez dira gauza.

–Bai, atze-aldean urratu xamarrak zeuden, baiña onek eraman bear duan biajerako etzeuden gaizki, naikoa badi-tun...

Jantzi dute gizona.

–Ondo ederki zegon, gizajoa. Il ez baiña piztu egin den au, piztu. Ipiñi itzan ur bedeinkatu eta kandela; nik sukaldeko burubidea zuzendu bear diñat.

Iñor etortzerako bazterrak zuzenduaz marmarrean dabil ama:

–Noiz ilko eta gaur... Auek dira lanak jarri dizkiguzuna, Manuel. Aita gurea, zeruetan zaudena...

Or datoz auzoko Bernardo eta Mikela zaarra:

–A, Manuel, Manuel, burruka aundirik jarri gabeko gizona; egun berezian il aiz –mixkili-muxkulu, Mikelak–. Bai,

Manuel gizajoa, arta-pusketa utsa zana. Baai, azken-epaiko egunean Josepateko zelaian danen erdian gora akatsik gabe irtengo dan gizona...

Izutu da neska, laster zan sukaldean:

–Ama, ama –dio larri.

–Zer den?

–Mikela zaarra etorri da, eta aita ikustera joan eta esan du aita azken-epai egunean zelaian danen erdian gora irtengo dala.

–Eta zer?

–Baiña ama, bai al dakizu zer atzealde daramakian galtza urratu oiekin?

–Ixillik ago, tuntuna. Ire aita ez den orren geldoa. Ezkutatuko din arek atzealdea, inguratuko den baten-batengana. Orrek estutzen al au? Egon adi lasai. Otoitz egin dezagunan... Zeruan ikusi dezagula, gizajua. Amen.

Lezoko promesa

Kristauon artean oitura aundia degu, batez ere larrialdi edo estuasunean arkitzean, Lezoko Kristo Deunari ikustaldi, limosna edo orrelako zerbait agindu eta eskeintzeko. Albizturren ere orrelakoren bat gertatua izango zan.

Txomiñek esan omen zion andreari:

–Lezora noa, Joxepa.

–Zer? Zerk eldu dizu zuri Lezora joateko?

–Ba, poliki bizi gerala eta Lezoko Jesukristori eskerrak ematera noa.

–Aizu, norenek ere promes egiña det, eta zu joateaz, nik ere joan bear det.

–Promesa?

–Bai, promesa, eta bete bearrekua gaiñera.

–Bai, zuek, emakume txatxuok, katuak egin bear baditu ere, promesa egin bear izaten dezute. Beti joan-etorrian ibilliko ziñakete.

–Ixillik ez bazaude, kaskaillu ori...

Or dijoaz makilla-muturrean pardeltxoak dutela, taka-taka, Pasaian barrena. Nun euri-zaparradak arrapatzen dituan. Txomiñek bruxa burura jasotzen du.

–Ara, zuk egin dezu zerea –dio Joxepak.

–Ba, zuk ere egin beste orrenbeste.

Eta andreak artu atzeko aldetik gonak eta, rasta!, jasotzen ditu burura. Jaso bear baziran jaso ere, gonakin batera ez du ba atorra ere jaso?

Jendeak parre egiten zien, isekatuaz. Andreak:

–Auxe da jende txorua dagona emen. Ez ote dute iñor bein ere ikusi?

Txomiñek begiratzten dio atzeko aldera.

–Buuu –umeak atzetik iseka.

–Jende iñozoagorik ementxe baiño, guri parrez jarrita...

–Parre egingo ez dizute ba, Joxepa?

–Zer bada?

–Zea, ipurdia agerian zoaz beintzat-eta.

–Ni?

–Ez, zea.

Eskua eramanaz ipur-masailla otz-otza, plast!, ikutzen du Joxepak. Jesusss, ia negar egiñean:

–Au da lotsagarrikeria! Nun ziñan zu leenago nola nijoan ez esateko?

–Nik bai al nekian orrelaxe joateko promes egiña bazenduan ere?

–Ez dizut beñere barkatuko gaur egin didazuna. Mundu guztiaren aurrean era ortan, au da nabarmenkeria!

–Zuk egin dezu, zuk, ez nik, nabarmenkeri ori...

Negarrez andrea.

–Etxean egon baziña etzizun iñork ipurdirik ikusiko.

–Parre egiten al dezu, parre? Nik ez daukat parregurerik. Baiña, baiña, au da lotsakizuna!

–Etzaude orren zatarra, emakumea...

–Demorrio zoroa!

Iritsi dira Lezora, gonak ondo ipiñita.

–Aitortu bearrean gaude bideko erakutsi txarra.

–Nik ez daukat zer ikusirik zure okerrarekin, or konpon zaitetz zeure atzearekin.

–Jesus milla bider ere, au da lotsa!

Ango lanak egin ondoren zerbaitxo jan eta etxera datoz. Pasaitik etzala geiago igaroko andrea, eta Txikiertitik barre-

na, Astigarragan sagardoa edanaz etorri omen ziran Albiztura.

Adarra jotzearren, Txomiñek bidean:

–Euria da, Joxepa –zion.

–Ixillik ez bazaude...

–Urrengo zaparradan gonak jaso itzazuke, baiña ez atorra. Oztu egingo zera, Joxepa –parrez leertzen gizona.

Mokua luxa-luxa egin eta Joxepa asarretuta. Damutxo zuan andre ark Pasai aldean ipurdia erakutsia.

Oraingoak lotsatuko ote lirake?

Basabil

Errezil sakan mardul orren erdian txondar baten antzera jaikitzen da Mutxategi deritzan mendi tontor lurtsua, pago, aritz eta sagarrez ornitua. Belardi ederrik ere badu bere egal aldapatsuetan, gaur piñua ere bai.

Mendi koskor onen bizkar-alboan Basabil baserri bikaiña. Gizon indartsua ezagutu nuan etxe artantxe; bertako nagusia, noski. Bai etxekoandre maratza ere. Ondorengoak ere ermoak. Esan oi dan bezela, nolako zuaitza alako igalia.

Sona aundikoak izan dira Basabil etxe onetatik irtendako ostalari eta sukaldariak. Apaiza ere ortxe degu.

Basabilla, txerri-iltzetan eta, amarekin joan izan oi giñan; bai jolas ederrak egin ere. Doi-doian oartzen naizena da, arrats batez Basabil erre zala, eta Iturbe aldera nola amak eramán ginduan ikustera.

Su-ekzkillak, ango karraxi eta abere-orroiak; su eta garrak izutu eta ez genduan lorik egin gau artan. Oso txikia banintzan ere begien aurrean daukat gertaera mingarri uraxe.

Etxe erre eskean ibilli ziran gero. Belar, arto, artille, gari, diru eta abar lagundu oi zitzaion etxe gabe gelditutako sendiari. Ate-ondora iristean au esanaz emango zion laguntza etxekoandreak, eskean zetorrenari:

–Otsi, otsi, eta ez dedilla ordaiñetan izan; ematea obeizango da artzea baiño. Tori, tori, eta Jaungoikoak lagun!

Inguru artantxe bertan beste baserri kaskar bat bada, Basabil-txiki deritzaiona. Andretxo alarguna semearekin etxe ortan bizi zan. Seme au bakarra, eta gaiñera anka biurria, elbarria zan, baiña ez makala. Amazulo utsa.

Santu aundiak oialetan bildu eta kutxan euki oi zituan lotan.

–Etorri zaitetze, etorri! –esango zigun atso orrek, eta zapiartetik aterako zituan irudi eder aiek, eta poliki erakutsiko zizkigun Karmengo Ama, San Antonio eta San Roke, Aitaren eta Semearen egiñaz. Muxu bana emanaz berriro eunezko maindira artean ipiñiko zituan, txukun.

Otoitz asko zekizkian ama ark. Auxe det oraindik go-goan:

Jauna, ni orain nator illen oiera bezin esperantzan; lau Ebanjelista santuak, lagun egidazue oian lau kantoietan: Jesuskristo gure jauna, oiaren burukoan; Maria Santisima, oiaren barrenean; San Prantxisko Serafingo, oiaren erdian; Aingeru guardakoa, oiaren aurrean. Ni gaur gauean iltzen banaiz, entregatzen diot nere anima Maria Santisimari, arek entregatu deiola bere seme Jesusi. Nere Ama Birjiña Santisima, zuk egindako semea, zeruko eta lurreko Erregea, orain ematen dizut nere anima; orain eman, gero presentatu; erakutsi egidazu zeruko iskillara. Jesus, Jesus, entzun nazazu, biurtuko naiz arantzekin, kordelekin, llegekin, urteak dituan ostiral-larunbat guzietan. Zeruan izar, lurrean belar, itsasoan ondar ainbeste pekatu baditu ere, Maria Santisima izango duala barkadore. Orazio santu au aditu eta ikasi nai ez duanak, berak jakingo duala zer kastigu izango duan.

Gero, eliz-ingurura etorri ziran bizitzera ama-seme oiek. Bei bi eta astoa, eta esnea salduaz eta aldian txaaletan bat kenduaz poliki bizi ziran.

Ots, zuzmur berri bat zabaldu zan errian eta marmarrean zioten erriko atsoak:

–Bai al dakizute Basabil txiki ezkontzen dala?

–Tira, tira, Basabil txiki ezkondu? Ixillik zaude, ixillik.

–Baietz bada.

–Zeiñekin?

–Ernio-atze ortakua omen du andregai.

Batek besteari esanaz, zabaldu da ezkontza otsa. Baietz eta ezetz apustuak egin ere.

–Zea etorriko dek orren ondora –parrez jendea.

Ezkonduta ere arekin etzuala aurrik izango beiñepein eta kontu bakoitzik bazebillen... Beraren belarrietara ere iritsi zan zuzmurra amorra erazteko aiña. Ala esan omen zien zirikatzaille batzueri:

–Zer, zer uste dezute, nik anakak biurriak ditudala eta ezkontzeko ez naizela gauza? Ba, anka okerrak izan arren gaiñontzeko tresnak zuek bezain zuzenak zeuzkat nik.

Ixildu zituan adar-jotzailleak, eta bai gero laian ondo egin eta landareak ekarri ere. Orduan bukatu ziran ango txitxi-potxo eta berriketak. Erri koskorretako gora-beerak orrela oi ziran eta dira.

Sarritan zelatatu oi genduan sendi ori sukaldeko leio-zulotik, amona txiki xaarraren errosario eta otoitz luzeak entzunaz. Arrats batez, sutondoan zeuden irurak, alegia, ama, semea eta errain berria. Zerbait esan bear, eta senarrak:

–Bai al dakizu neretzat mundu ontan onena zer dan?

–Zer? –galdetzen dio andreak.

–Eskusoiñua. Eta zuretzat, Lontxa?

–Neretzat, kitarra.

–Eta, ama, zuk ere esan bearko dezu bada...

–Neretzat onena, biboliña.

Orra or supazterreko orkesta.

Gurdipeko pertza

Pello itzaia joan zan Pazkoazkoa egiteko asmotan aitortzera. Luzea zan oso Pello mutilzaarra. Kortiña gorriak jasoaz dio apaizari:

–Ba al geunden?

–I bezelako kirtenak baldin badatoz egon bearko diagu be-
rriz ere.

Rau!, sartzen zaio burua aruzko bazterreraiño eramanaz. An-
kank atzera beiak perratzeko bezela luzatuaz, etzan zaio ate-
-erdikaren gaiñean.

–Noraiño ua, motell? Esan pekatuak azkar!

–Ba, urteko zekorra dakarkit, eta tratu on xamarra egingo
al degu?

–Zer tratu eta zer... Zenbat pekatu larri egin dituk?

–Ez dakit ba.

–Ogei?

–Aida!

–Berrogei?

–Esti!

–Ogeita amar?

–Ooo. Ortxe nunbait.

–Eta zertan uts egin dek?

–Aa, gure bei zapo oiek mugituko badira berebiziko bi-
raoak bota bear izaten ditut, bestela ez dira mugitzen-da.

–Jesus, Jesus! Erakutsi ederra eman diek beraz, kaiku
orrek!

–Aurrez ikasita etorri ziran Napar aldetik, eta bota bearko
mugituko badira.

–Barkatzekoa ere ez dek, motell. Eta birao oietan Jaungoikoaren izena aipatu al dek?

–Bai Maria Xantiximea ere.

–Eta zenbat bezela, danera jota?

–Nere gurdipean zintzilika dagon pertza bete bai.

–Ba, orain ordaiñetan, pertz ori amar aldiz bete bear dek Abemariaz.

–Joño, eta nola antzeman bear diot pertzari noiz betetzen dan?

–A, leenago antzeman diokan bezela; bete zak, ondo bete, aditu al dek?

–Aditu egin det, betetzeko ez dakit nola ibilliko naizen; leengo oietatik betetzea errezago izango da berriz ere.

–Kaskaillu ori!

–Jesusekin ibiltzea beiekin bide zaar oietan ibiltzea dala uste al dezu?

–Damutu adi ondo bai, eta ua emendik, biok zoko ontan ito baiño leen. Eta esan Jesukristo nere Jauna ondo.

–Urrengo arte.

–Ua, ua, kaiku ori!

Bildotsa

Ijito atzapar beltz oietako bat joan zan bein Pazko-garaian aitortzera. An ari da:

–Bigarren aginduan?

–Ezer ez, jauna.

–Irugarreanean?

–Ezta ere.

–Lau eta bosgarrenean?

–Paso.

–Seigarrenean?

–Ez, jauna, ez. Joan zan urtean bezain pin nabil ni gauza oietan.

–Zazpigarrenean?

–Kontuz ementxe!

–Ezer ostu al dezu?

–Ostu, ostu... Bai eta ez.

–Zer da ori? Erabaki ezazu bai ala ez.

–Bildots guri-guri bat artu nuan langa-ondo batetik; kezka orixe, bada, jauna.

–Bere jabearen baimenik gabe artu al zenduan?

–Bai, ba, jauna.

–Orixe da lapurtzea.

–Baiña...

–Zer baiña?

–Ezaguera gabe egin nuan.

–Etzera ba zu oso zoroa ere...

–Ez, baiña janariñean maiz ibiltzen gera, eta ttantta bat

edan orduko ezaguera galtzen degu, eta ez dakigu zer egiten degun.

–Orduan ezjakiñean artu zenduan bildotsa?

–Bai, jauna; bai, jauna.

–Zer asmorekin artu zenduan bada?

–Ara, jauna, bildots gixen-gixena ikusi nuanean, zirikal-dia ba... Badakizu zerorrek ere aokada-mokau goxoak noizik beinka ondo etortzen dirala, eta guk ere zerbait nai ba...

–Eta mozkortuta ere bazenekian bildotsa goxoa zala?

–Ba, orixe, doi-doian orixe...

–Beraz ezaguera guzia etzenduan zearo galdua?

–Apurtxoren bat doi-doian izango nuan.

–Doi-doian, e?

–Bai, jauna.

–Ba, orain egin bear dezuna da doi-doia utzi eta bildotsa ordaindu bere jabeari, bestela ez dago barkaziorik.

–Ezin dezaket ordaindu beste nunbaitetik ostu ezian.

–Zer, zer, zeeer?

–Urrengo urtera arte. Banoa!

An joan zan atzapar beltza asko estutu gabe. Gerora kon-turatu zan apaiz jauna kolkoan zeraman erlojuaren arrastorik etzala. Ori esanda, bikario jaunak auxe abestu zion apaiz oni:

Zerura joango bazera kantari,

barka gaizki egin dizunari.

Bai, bai, bai... Jum!

Amenabar

Azpeitiko gizon aundi bat, txit ezaguna genduan gure artean Amenabartar Joxe argazkilaria, Loiolan bere izena zeremakian *Amenabar* ostatuko nagusia. Nork etzuan ezagutu zapi beltzaren azpian sartu gorputz osoa eta beso bat gora luzatuaz?

–Geldi, buru ori jaso, anka oiek zuzendu!

Egurrezko txoritxo bat jaso eta "begira oni" esango zigun.

–Parre apur bat egin orain... Ainbeste ez; zabaldu oin oiek, anka oiek geldi, ixtutu... –noizko asmatu!

Gure leenengo jaunartzean ere amorra arazi genion; noizbait zuzentzen baginan ere, ezin geldi egon. Zapi artetik irten, etorri eta astinduko ginduan, "ume arraiok!" esanaz.

Zezen beltza zirudiela, noizbait egingo zuan klikatekua. Pazientzi ederra gurekin bear izaten zuan, eta beste geiagorekin ere bai, noski, gizon luze, ospetsu, argazkilaria iaio ark.

Billera ospetsuren bat edo eztaiak zirala eta an izango zan, beti argaztu bear zuan taldea antolatu eziñik, pin asko. Bein baiño geiagotan puskatu ere zapiz eta anka betetako tresna ura. Apustua zala, jokua edo ostikua, beti zerbait.

Bein, gogoan det trepete orri ari beltz luze bat anka bate-tik erantsi ziotela, bera oartu gabe, noski, eta burua zapi artean sartu zuanean tira egin eta nola anka gora bota zioten. Beti parre egiteko zerbait sortzen zan gure erri ortan. Ala ere, begirune aundiko gizona zan Amenabar.

Uzkudunen ukabilka garaian ere lan asko egin zuan; sega -apustu, aizkol-joku eta abar.

San Martin jaiak zirala eta aari-jokua antolatu zuten beeko enparantzan. Trepete beltzaren azpian argazkia ateratzen ari zala, aariatako batek iges egin eta, dunba!, irau-

li zion iru ankako zezen beltza, eta bera ere bai ia ia. Ura zan pesta jarri ziguna beeko plazan. Bertsolariak onela zion, oker ez banago:

Mundu ontan badira
amaika komeri,
gaur ere ikusi degu
Amenabar larri.
Aariak ez du nai
argazkian jarri.
Jo ta puskatu dio
makina zar ori.

Azpeitiko zezen-plazan lan aundiak egin zituan Amenabarrek. Aizkolari, lasterkari edo apusturen bat ia igandero izaten zan garai artan. Inazio Deunaren jaietan zezenketa berezia oi zan, eta bera zezen, torero edo zezenlari aien ondoan, klisk! eta, klask!, an izango zan.

Inguru guztian billatuko dituzu gizon arek egindako argazki-aztarrenak, ederrak gaiñera. Loiolako ibildeun, gotzai, eliztar bertako eta atzerritarrak, kastordun dotore pranko eta emakume parpaillaz beteak. Leengo auto-berebil kurpil mee aien argazki politak gaur ere badaude Amenabarrek aterata.

Urolako trenaren inaugurazioko jai aundiak zirala-ta, Maria Kristina, Alpontxo errege txikia zeritzaiona, Primo de Ribera, Aldundi eta erriko agintarien argazki gogoangarriak ere ortxe dira.

Zumarragako hotel Urola ospetsuan egin zuten bazkariarenak ere bai. Zumarragatik, Urretxu, Aizpurutxo, Azkoiti, Azpeiti, Zestua, Iraeta eta Zumairaiño iritsiko zan bide ortako geltoki apaiñak, guztiak iru ankako trepete artan sartuak. Batez ere, aserako egun gogoangarri artan bide oso osoa argaztu zuan.

Udazale, erromes eta abar, millaka eta millaka argazki ateratako gizona. Zenbat gauza etzitian jarri gure Amenabarrrek Loiola berdingabeko bikain ortako argazkietan!



Prozesioa Errezilen, 1926 (GureGipuzkoa)

Ageda deun bezpera

San Bizente otza, neguaren biotza. Kandelario, elurra dario; San Blasek lagunduko dio.

Inguru ortan oi da San Anton ere. Esaera danez, bixigu -garai ona izan bear du onek.

Bixigu-ezurrez ez genduan eztarririk urratu oi gure etxean, baiña dana dala, Errezillen San Antonen irudia, San Migel Goikoa deritzon baselizatxoan dago, antxe Iburguren inguruan.

Abereen zaindaria degu San Anton. Bere irudia makilla luze bat eskuetan eta txerri bat ondoan duala agertzen da, bai elizetan eta, abere-zaindari danez, ikullu geienetan ere bai. Meza eman oi da San Anton egunez, au da, ilbeltzaren amazpian, baselizatxo ortan, abereentzat gatz bedeinkatua mezetan banatzen dala.

Elur eta izotz bapuakin joan oi giñan meza lagunduaz eta... Iburgurenen talo eta esnea jan eta etxera bero-bero.

Gatza ekarri eta katuari emango genion, oilloei ere bai, zai eta arta-iriñez naastu eta oreka eginda, gozo-gozo, gatz bedeinkatua.

Ageda Deun goizean eman oi da beste meza bat baselizatxo ortan bertan. Santa onen irudia ere antxe dago San Antonen alboan, Mikel Deuna erdian dutela. Irudi onek bularrak txalian dituala bere martiri-eriotza nola izan zan adierazten digu. Meza ontan ere gatz bedeinkatua ematen da, suak etxea erre ez dezan. Ke-zuloan, au da, tximiñi-zuloan toxatxoan txintxilika ipiñi oi zan gatza.

Ageda Deun bezperako abeslari-taldeak etxez-etxe, atez -ate Ageda doatsuaren bertso politak abestuz eskean ibilli oi ziran. Erriko agintariak, etxeko nagusi, etxekoandre, maio-

razko eta batez ere damatxoak aipatzen zituzten abesti-ber-
tso oietan, bakoitzari zegokiona esanaz.

Izugarrizko poza eman oi zuten bertso-abeteslari oietxek;
gazteen artean ospakizun berezia, zaarren alaigarri eta au-
rren pozgarri: pesta, soñu, oju eta orru.

Oean zeuden zaarrak ere ezin egonik, ezur zaarrak leio
-zuloraiño nolabait ere ekarriaz:

–Ara, nortzuk ote dira, Matias?

–Jakin ezazu.

–Oiek sasoia, oiek, ez guk.

–Ara, guk ere izan genduan eder askua. Bai, gaur baiño
leunagoa zeunden zu ere, Pantxika.

–Bai zerorri ere. Ara beste argioillarra emen!

–Zaartze onek lan gogorrek dittu, Pantxika: ezurak go-
gortu, mamiak bigundu, azalak zintzilikatu...

–Ara, zer uste dezu ba, beti gordin, demorrio kaiku?

–Bultza idazu apur bat sartu nadin berriz oean; goazen,
goazan, otz dago-ta.

Gurdia aiñeko oera or dijoaz. Egin dio atximurkadaren
bat:

–Zaude geldi, traketsa! –dio Pantxikak.

–Zerbait egin al dizut?

–Orain nik nola igo bear det? Zuri bultza egin dizut...
Emaidazu esku ori.

Eman dio eskua, eta, ranga!, igo da; sartu dira oe aundi
ortan.

–Otz dago.

–Anka beroak dakartzu...

Lastaidan zarra-zarra-zarra biak.

–Ixillik zaude, gizona; ori da ezur-otsa dabilkizuna.

–Zuk ere, ba, ez dezu txitxi-okela aundirik.

–Egin dezagun lo...

Laster ziran zurrunkaka biak, amets goxoak egíñez.

Etxe geiagotan ere lotarako gogo gabe. Sasoiko mutillak baillara batetik bestera irrintzi luzeak egin oi zituzten, aldika lastazuziak astinduez. Etxe batzuetan korta edo larraiñean neskatxekin dantza-saio gogorak, bertsoak abestu ondoren. Amak emango zien saria eta kaixo, motell!, beste baserrira orruka eta irrintzika. Zakurrak zaunkaz, amonak leio-zuloe-tatik zerbait ikusi naian... Sasoi-garaia amets.

Atsoren batek bere etxeko atea zabaltzen ez bazien:

–Bertsoak abestu ondoren aterik zabaldu ez?

Bearbada, etzuan ezer izango emateko ere eta... Onela abestu io zioten ate-txulotik:

Mendirik mendi lainoa,
pagorik pago usoa.
Arkakosuak ittoko al dik
etxe ontako atsoa.

Azken agurra abestu oi zuten abiatzerakoan:

Limosna ere artu degu ta
orain abia gaitean;
adiosikan ez degu eta
agur ikusi artean.

Onela ibilliko ziran oillarrak kukurrukuka asi arte, erri guztia zaratatu eta alaituaz. Zorioneko Ageda Deun bezpera!

Ezkillak ere jo oi zituzten egun ortan, alegia, Ageda Deun bezpera arratsalde, dorretako ezkil danak txandatuaz Ma-txinbenta, Errezil, Beizama eta Azpeiti inguruko erri oietan.

Ez dakit nundik nora sortutakoa dan egun ontako ezkil -doiñu aundi eta oiartzuntsu au.

Atsoaren aitortza

Bein atso bat larri joan omen zan bijili-egunez apaizaren-gana, apaiz kaskaillu batengana aitortzera. Belaunikatu da egurrezko txulodun esi ura apaizaren bitarteko duala:

–Tira, esan azkar –dio apaizak.

–Jauna, zea, zea... Au da lotsa!

–Zer lotsa?

–Jauna, lagundu bearko didazu ba...

–Zer egin dezu, zer?

–Ezin det ba esan, jauna; lotsatu egiten naiz.

–Norbait il al dezu?

–Ez, ori baiño aundiagoa, okerragoa.

–Zer okerrago gero? Esan bear badezu, esan; bestela, alde emendik.

–Ara, jauna; gaur goizean komunera joan naiz eta zea, an papera zegon mantekaz kutsatua.

–Eta, eta zer?

–Manteka, bai, jauna; eta bijili gaur, bijili...

–Zer bijili? Aldegin zazu emendik, bijilirik ez da ipurditik austen-eta, txolin arraioa! Joan zaitetz emendik.

Ala joana izango zan ba atso ori.

Supositorio deritzan ziri koipetsu oiek artu bear izan babilu, zer esango ote zuan emakume kezkatu ark? Zaitan zur eta iriñetan ero, esan oi du esaera zaarrak; alegia, gauza txiki edo uskerietan kezkatu ibiltzen gerala eta gauza aundi edo garrantzitsuetan, ajola gutxitxorekin.

Ama baten kezka

Etxe batean mutil bakarra zeukaten, maiorazko edo etxeari jarraipena eman arazteko asmotan. Baiña etzitzaion sortzen neskatako griña edo kezkarik eta ezkontza-arrastorik etzegon arengandik. Amak alegiña bultza egiten zion:

–Ua pestara, Joxe Mari; Errotako Terexa eta an izango dituk erromerian. Dantzan egin eta zerbait edan, erroskillatatzuk janaz eta etxera laguntzen zaietek.

–Ni ez noa iñora. Egin itzazu taloak.

Mutilla potoka esnea baiño lasaiago zegon. Amak aitari:

–Batixta, gure mutil tutulumendi onek ez digu andrerik inguratuko; zaardadea bakardadean ez igarotzeaz, zerbait asmatu bearrean gaude.

–Zer egin bear degu, bada?

–A, norbaiti esan edo...

–Bai, zeak artuko du ori, buruaundi ori; a zer nolako zutikoa etxeke abeari eusteko!

–Ori guk egin genduan bezelakoxea da, eta zuk ere nik aiñaxe zati dezu. Zuek beintzat etzerate bereala moittuko, ez aita eta ez semea!

–Era ortako artu-emanetan zerorrek konpondu bearko dezu ba.

Xapi!, katuari kopetakoa burruntzaliarekin. Egun gutxi barru itz egin dio amak Errotako etxekeandeari; alegia, Manuelarekin itz egin du:

–Gure mutilla mantso xamarra dezu, Manuela –dio elizara bidean–, baiña ona, ona mutilla; osasuntsua eta aitagai jatorra.

–Bai, bai –dio Manuelak.

–A, eta gaiñera gure kutzak ez uste izan xagu-zulo utsez beteak daudenik.

–Ez, ez, ez.

–Zuen Terexa litzake gure mutillarentzat aukera aukerakoa, Manuela.

–Bai, bai; itz egingo degu.

Etzaio gaizki iruditu Manuelari ere. Laster zan andrea etxean. San Antonio gloriosua! esanaz, piztu dio kandela.

Igande goizez elizara bidean zaindu du mutillaren amak Manuela, eta onek baiezkoa eman dio. Etzan asarre ama, baiña mutilla nola tajutu? Esan dio onez onean senargai orri:

–Errotako Terexa zer iruditzen zaik, Joxe Mari?

–Zer ba?

–Terexakin ezkondu bear uke.

–Ez, ni ez naiz iñoiz ezkonduko.

–Joxe Mari, gu zaartzen ari gaituk, eta andre berria ondo etorriko dek gure etxean, umeak ere bai, eta... ondorengoak bear dizkiagu. Begira, Joxe Mari; galtza berriak eta bruxa ere botoi txuriduna egingo diat, bada.

Ezkontzeko konporme mutilla. Antolatu dute ixil-ixillean ezkontza. Or dijoaz goiz batez egunsentian elizara, galtza berriei maiz begiratuaz mutilla.

Uztartu ditu apaizak goiz asko. Eguna zabaltzerako ia etxera bidean ziran. Etzegin eztaipestarik, ez, etzegin Palma Mallorkara joan bearrik ere; etxera azkar, talo-esne jan bat bapua egin eta soro-lanetara dijoaz laurak, aita-amak eta senar-emazte berriak.

Amak Terexaren ondora arrimatu zedin bultzatzen zuan Joxe Mari, baiña alperrik, mutil ezkonberria amazulo utsa.

–Ama, orrek etxera noiz joan bear du?

–Ez dik orrek geiago etxera joan bear, motell; ori guretzat dek, ire andrea dek ori.

–Juuuum, eta nun oeratu bear du orrek?

–Motell, irekin lo egin bear dik Terexak.

–Ez det nik orren ondoan lo egingo!

–Bai, motell, bai. Aitak nerekin lo egiten duan bezelaxe, ik Terexarekin egin bear dek lo.

–Nik bakar bakarrik ondo lo egiten det.

Ura berean zegon.

–Ara, motell, apalondoan katillu berritik esnea emango diat, ba. Ortara oeratuko aiz, ez dek?

Mixkili-muxkulu, baiña konpormatu da.

–Ondo lo egin ezazute –esanaz, zaarrak an eta gazteak emen lotaratu dira.

Ama erne:

–Batixta, gure mutillak dauzka zurrunkak. Anka sartu orduko lo dago ori.

–Zer itxaro zenduan ba ortik, zer uste zenduan?

Goizean, naiko lo egin eta jaiki dira danak batera.

–Ea, lanari ekin beariko diogu ba...

Gosaldu, ikuilluko lanak egin eta berriro sorora. Etzegen bultza bearrik Terexaren ondora joateko. Ama pozik:

–Ikusten dezu, ikusten dezu? –dio Batixtari.

Goizeko amarretarako asi da Joxe Mari:

–Ama, lotara noiz joan bear degu?

–Ara, loguretu al aiz bada, gizajo ori? Bazkalondoan loku-luxka bat egingo diagu, egon adi lasai.

Etzan asarre ama. An zan zoriona, bai amarentzat eta bai beste guztientzat. Alaxe sendia osatu zan eta andik aurre-ra bazan sukalde artan lana. Amona ere laster zan bigarren umealdia azitzen.

Ezertarako balio ez duanik ez dala diote.

Bola jokua

Bolalekuko nagusi Nikasio Kuleto ibiltzen zan, eta ango bola eta berlak berak tornuan egiten zituan. Bai txintxo jaso ere ibilli ondoren!

Bolaleku, bola eta berlak ibiltzeagatik diru apur bat kentzen zuan, eta opari oni *baatoa* deitzen zitzaion.

Bola eskulekuduna, sagar-egurrez egiña; berlak ere gai beraz zuzenduak. Pitzatu edo arindu etzitezen uretan gordezen ziran, gaur bezelaxe.

Bederatzi berla izaten ditu bola-jokuak, iru illaretan arlo-sa aundi baten gainean antolatuta. *Goeneko*, *erdiko* eta *barreneko illara* deitzen zaie. Goeneko illaran leenengo egoten dan berlak *eskua* du izena, eta iru arrasto ezaugarri bezela euki oi ditu. Bigarrena, *guarda*, ura bi arrastokoa; eta *goena* illaran azkena egoten dana, arrasto batekoa. Gero, *lauko berla*, *bosteko*, *seiko* eta abar, bakoitzari bolariak bere izenez deitzen diete.

Bola botatzen dan tokian ool lodi eta zabal bat egoten da lurrean sartuta, eta bolak nai eta nai ez an jo bear du balio-koa izango bada. Oolari bolak ikutzen ez dionean *zula* egin duala esan oi da.

Ooletik berletara bitartean erdi inguruan egoten da beste berla txiki bat, *txaparro* deritzaiona. Arezaz goitik joan bear du bolak ontzat emango bada.

Iru eratara bota oi da bola ori: Leenengoa *eskugain*, au da, eskulekuan eskua sartu gabe botatzen danean; bigarrena, *azpijanean*, eskulekutik eldu eta zut-zutik, eskuleku ori ezker aldera duala; irugarrena, *egieran*, eskulekua goraxeago begira duala, etzan xamar bola joaten danean.

Trabesak ere egin oi ziran txanpenez bolatoki ingurua esaltzeraino: txanpon beltzak, pezeta zillarrak eta iñoiz duroak

ere. Iru baietz eta ezetz, irun-par lau baietz, laun-par bost baietz, goeneko illara baietz, eskua eta lau baietz, eta abar eta abar.

Erdi-erdiko berlari *erdiko zilla* askok esaten diote.

Txapelketa gogorrek egin oi ziran. Neronek ez det ikusi, baiña batek bein bederatzi berla bola batean bota zituala entzuna det. Ura zaparrada!

Eztabaidak eta asarreak ere sortzen ziran. Batek berlak gaizki jarri zizkiona, bestak zakarren bat bolaleku zorura bota zuana...

Oso gogoan daukat Kuletok bola botatzen zuanean, oker-oker eginda, anka eta besoak joaz okotza luzatuta nola bolari begiratzen zion berlataraiño joan arte. Berak nai zuan tokira eramango zuala bola uste zuan nunbait, anka, beso eta gorputzez eragiñaz.

Berla ondoan egoten dan bolari *pasa-oola* deitzen diote, eta ondo berlatu, edo batek berla asko bota nai baditu, bola ool orren eta berla tartean sartu bear du.

Txapelketaz gaiñera joku asko egin oi zan, bakoitzak ainbesteko bat botata. Sarritan batek besteari esaten zion:

–Ezarria bai al zijoak?

Ezarri orrek urrengo jokurako sarrera nork ordaindu adierazten du, alegia, berla gutxiena botatzen dituanari ordaindu bearra ezarriko zaio.

Erri guztia goiko orma-gaiñetik ojuka eta lepoak oker-oker eginda. Txiki erdi batzuk noiznai, eta pitxarreko botillak ere bai iñoiz.

Neroni begira nengola, bein eztabaida zala eta indartsu gora bota zuan bola kaskaillu batek. An zan zalaparta bolaren igesi, buruan joko ote ginduan bildurrez.

Burruno errizaiak sarritan jaso bear izaten zuan makilla ango zakarraldiak zuzenduko baziran.

Antziña-antziñatik datorkigun jokua degu auxe euskaldunon artean.

Errezill

1964'ko Malatzaren 17'an

EIZMENDI'tar IÑAKI



"BASARRI"

- Bertsolari ospetsu ta sakonari,
- Olerkari argi ta bikaiñari,
- Euskeraren laguntzalle zintzoari:

BREZIL'DAR GUTIAK POZET ETA MAITAGINEZ EGHEINTZEN DIATE

OMENALDIA

Bei pinttoa

Sendia mantendu eziñik zebillen aita bat. Mendi sakan batean larrean zebillen etxekoneko esnebei pintto bat. Ixil-ixilik, bere baserri kaskarreko ikuillu bazterrean ipiñi zuan. Ume asko eta nolabait ere mantendu bear, eta ortara beartu zan gizona. Ez lapurra zalako, ez, sendia salbatzearren baik. Sendia apur bat xuxperten zitzaionean, bazuan beia bere jabeari biurtzeko asmoa, bai orixe.

Pazko-garaia iritsi zan, ordea, eta bere barruko kezkek atximur egiten zion gizonari. Pin asko egin oi zituan elizako lanak gizon ark; eta or dijoa Pazkoazkoa betetzeko aitortzera. An ari zan gizona, esan eta esan:

–A, jauna, bei pintto bat daukat ikuillu-bazterrean gorde-ta, bere jabearen baimenik gabe ekarria.

–Nolatan ekarri zenduan bada? Ostuta ekartzea da ori, lapurtu egin dezu beia, eta gaur bertan biurtu bear diozu bere jabeari, bestela ez dago barkaziorik.

–Sendia puxka bat koskortzean badet nik bere jabeari beia biurtzeko asmoa daukat, esne pixka bat kenduaz eukita gero; bestela illak gaude.

–Ba, bei ori jabeari biurtzen ez badiozu inpernuaren erdi-erdian zaude.

–Obea izango da inpernuan kixkaltzea sendi osoa goseak akatzea baiño, eta banoa.

–Et, et, et! Ixo. Azken-epaiko egunean Josepateko zelaian danen aurrean zeure bei pinttoa sokatik dezula lapur lotsagarri agertuko zera.

–Aizu, eta bei orren jabea ere an izango al da?

–Bai, dan-danok antxe izango gera.

–Orduan, antxe itzuliko diot jabeari bei pinttoa, bitartean gure etxeko bizia izango da-ta. Zerorrek ez bada, Aita betikoak barkatuko al dit.

–Zoaz emendik, kaskaillutzarra!

–Bai, urrengo arte. Eta aitortzako gauzak ixillik, e! Eta egun artan alkarrekin baldin gabera, ikusiko dezu bei pinttoa jabearen eskuetan.



Mutiko baten besarkada. Zegama, 1985-11-10

Urraki

Ia mutil koskortuak, lagunak alkarrekin joan oi giñan gerizak jan eta onddo beltz, gibelurdin eta gaztaiñak biltzera bere garaian; galburuak bildu eta orrela alkarrekin ibilli oi giñan. Jana eta poltsikorakoa ere zerbait nai eta, txanpontxo bat nun irabaziko ibiltzen giñan.

Bein Eitzeta baserrira joan giñan aran garaian, aranak jatera. Klaudia edo, ale ederrak jan ere. Buztinzurin beste aran gorri jan bikain bat egin genduan. Puztu gera bapo. Beroak edo, etzigun onik egin: kaka-beerakoarekin egon giñan egun batzutan danok.

Elosia, Eizmendi, Artxiola eta Lasturretan barrena etorri giñan etxera. Etzigun egun arek kalte aundirik egin, baiña egun bi edo iruan ez giñan ondo ibilli aran beroak janda. Eskerrak inguruko artasoroeri.

Urrakiraiño ere igo izan giñan iñoiz igande eta jaiegunen batean. Urraki gaiñean gure txiki-garaian egin zuten, oker ez banago, eibartarrak edo Zuloagatar Inazio berak arri utsezko etxetxo polit bat, gaur eibartarren mende dagona. Zuloagaren etxea deitzen zaio gaur ere. Etxe txiki bat, ermitta antzeko bat.

Margolari ospetsua izan zan eibartar gizon aundi ura, guztiok dakizuten bezela. Zuloaga etzan gero edozein.

Urrakitik amilduta bezela arkitzen da Errezil; Ernio, Gazume, Ernataitz, Treku eta aldapa izugarriak, baserriak zintzilika, sakan itzal aundia beeran dala.

Zuloagak, bere lauki edo margo ospetsu oietan, oso gogoko zituan itzal, mendi-sakan illun, malkar, laiño beltz ekaiztsuak. Ez Euskalerrian egin zituan lanetan bakarrik, baizik Gaztel-erriko irudi eta ango lurraldetako margoetan ere bai, asarre, illun, laiño zintzilikario, arkaitz ori-gorri eta more-

tsuak dirala. Andereño mantanilla aundi eta beltzez jantziak. Euskal-gizon bulartsu eta Gaztel-errikoak, kapa aundiekin; baita ere zezen zaleen margo bikaiñak.

Ezur zabal, bekoki illun xamarrekoa zan Inazio bera ere, Zuloaga alegia. Guda aurretik egin zituan Zuloagak Bermeon batzokiko ormetan margo ikusgarriak, arrantzaleen bizitza geienbat aurkeztuaz.

Arrateko Andre Mariren elizan beste lau lauki eder-ederak noizbait egin zituan Zuloaga jaunak, lauki edo kuadro ederrenetakoak.

Zumaian bera bizi izan zan jauregian eta bertako elizaxoan lan aundi eta ugariak daude gaur bertan ere.

Leengo ariari elduaz goazen Urrakira. Etxetxo museo antzeko ura ikusi ondoren, Otsabiagan barrena joko genduan Ixpilla Goiazko baserrira. An sagardo edan bat, eta Bidani-Trintxeran barrena iritsiko giñan gure kabi goxora.

San Martin eta deabrua

Leengo zaarretatik entzun oi genduan sarritan ipui au.

Garijotze ondoren, gari-pilla baten inguruan antxe gertatu omen ziran nunbait San Martin eta deabrua; bai apustu egin ere gari-pilla ori pasa baietz salto eginda.

Deabruak egin du leenengo saltoa, gari-txondarra pasa eta aurrera, –Ja, ja, ja. Egin zak orain ik!–, esanaz.

Martiñek bazekian zer egin. Oiñetako luze eta zabalak zebilkian, eta ziñatu ondoren egiten du indar guztiz salto itxura, eta or sartzen da, blasta!, gari-pillaren erdi-erdian iztarretaraiño.

Deabruaren poza! Leer egin bear duala parrez:

–Makal astaputza –zion Martiñi.

Au ixillik.

Berriz ere egin dute salto, eta bai bapo gariz bete ere oiñetakoak Martiñek.

Eta gero, zaldi gaiñera igo eta aurrera. Deabrua atzetik siñuka. Martiñek gari-mordoxka polita arrapatu zuan oiñetakoetan. Beabrua azkarra izango da, baiña an gelditu izango zan, bere baitan zerbait egin izango zualakoan.

Baiña garia noiz erein ez zekian Martin deunak. Oroitu zan deabruak abestu oi zuala:

Ostroak lurrera, garia lurrera;
ostro erortzea, gari ereitea.

Ala ekarri omen zuan Euskalerrira garalea, eta bere garaian landuta zegon Ataungo soro-zelai batean gauez rasta-rasta zabaldu omen zuan. Zaarrak esan oi zutenez, bai uzta galanta jaso ere. Ataundarrak zer belar ote zan ibilli baziran ere, burutu eta eldu zanean, ebaki, jaso, jo eta pillatu egin zuten.

Txoriak ere laster antzeman omen zioten janaririk onena garia zala. Andik zabaldu omen zan inguru eta urrutietara ale zoragarri au.

Esan oi da antziña-antziñatik ataundarrak soro-zelai or-tantxa jaso zutela geroxeago ermo-ermo an arkitzen dan Martin Deunaren eliza eder ura.



Mendiola aizkolaria. Eskubian, Napoleon

Guda-ostea

Euskaldunok ondotxo dakigu guda-ostea, au da, guda-ondorena nolakoa izan zan: ez patata bat, ez irin apur bat, ez azukre, ez errekiñik eta, batez ere, jakirik inun etzan ageri.

Donostiarrak beren jaiak zituzten. Inauteri-jai aundiak ospatu oi zituzten leen garai batean. Zerbaiteri eutsi nai zioten, baiña etzegen ez zomorro jazterik, ezta...

Mutil-talde batek erabat inauteriz aaztu eziñik, apari bat egiñaz zerbaitxo ospatu nai zuan. Baiña apari ori zerekin eta nola egin?

Joan dira Asteasura, nolabait ere billatu dute txerri gizen bat. Ixilka egin dute beren tratua bai, eta erosi dute txerri ori: Il eta jarriko zutela olako egunetarako eta ez dakit zenbat sendiren artean apari ori ospatzekotan.

Baiña txerri ori nola ekarri Asteasutik Donostira? Or zegon kokxa.

Baiña asmatu zuten zerbait. Artu dute taxi bat iru lagunek bai, eta or dijoaz Asteasura beren txamarra eta inun ziran jantziak artuta; baiña ez zomorro jazteko, ez, baizik zomorroa jazteko, txerria jazteko alegia.

Iritsi dira. Txerri ori gertatua zegon erre eta barruak garbitu ondoren esola batean gora begira jarrita ikuilluko atez barrutik, inork ez ikustearren. Jantzi dizkiote galtzak, txamarretia, txapela sartu eta jarri dute taxiaren barruan, atzeko eserlekuan ondo jandako txerria, noski. Bi lagunen erdian ederki antolatu dute: Txapela txorrokaturra, puru-zuztarra muturrean sartu eta muturra luze-luze duala, txamarra lotu leporaiño, eta nolabait ere beintzat giza-itxuran jarri dute.

–Joño, dotore zegok –zioten alkarri–. Bizarra ere ederki kenduta ez badago gero...

Bidean naiko oztopo bazegon eta, mozkor-itxura egin bearko zuten. Or datoz *Carrascal, Carrascal*, abestuz. Txikiardi alde ortan gizaiak:

–Alto, salvoconducto!

–Aiba! Carrascal, Carrascal... –berriro ere.

–Buen humor, eh? Hagan el favor de callarse. ¿De dónde vienen?

–De Asteasu.

Bitartean, begira eta begira zeuden gizaiak, ikusten zutena sinistu eziñik, zer mutur arraio ote zeukan erdiko ark...

–Con que, ¿de Asteasu?

–Si, de Asteasu; teníamos cena de quintos, humor y un poco piripis...

–Si, si, ya se ve. Y ese del medio, ¿qué?

–Ese, mozkorra bueno. Mucho beber y dormido.

–¡Ju! ¿A dónde van?

–A Intxaurrondo.

–Sigan, pero callando.

–Izurratu diagu, seguru gaittuk...

Gerora abestu zuten apur bat, baiña etzegon mozkor-itxura egin bearrrik. Ala, alde egin dute, eta gizai batek besteari:

–Oye, ¿te has fijado qué cara de cerdo tenía ese del medio?

–Si, si. Menuda borrachera llevaba ¡Vaya tajada!

Eraman dute txerri ori. Aien istillua! Nolabait ere sartu dute etxeren batean, eta bai jan ere bapo. Alako inauteri ederrrik... Betekada bikaiña egiña izango zuten. Kanpotik ez, baiña barrutik jantziko ziran aiek zomorro.

Iturriotz

Iturriotz deritzan basetxe zaarra nork ez du ezagutzen, Gipuzkoan batez ere? Bere antziñako kondairaz gaiñera, beti izan da aditze aundiko baserri-ostatu zaarra Iturriotz.

Bidariak ortik zuten, diotenez, bidea itsas-ertzetik, Iturriotz –Gomisolatza–Etumetan barrena, Bizkai eta Araba aldera.

Iturriozko sukaldea galtzadaz egiña zan; neronek alaxe ezagutu nuan koskor-garaian. Atari eta ezkaratzeko zuroa bezelaxe sukaldekoa ere arriz egiña. Sukaldea, erdi-erdian sua zala. Bere inguruan eltzeak gal-gal-gal... Etzan salda pal-tarik izango Iturriozko sukaldean, ez orixe.

Idiakin sartu oi zituzten pago enbor-besangak eta pagaburu izugarriak supazterrean utzi eta puxkana bultzaz erre-tzen zirala, beti sutan, gau eta egun sua.

Geletan esizko ormak ziran, baiña gaiñontzeko etxe dana bat zan; beien ganbelak ere sukaldera begira. Zizeillu eta aulki beltzak. Sukalde berezia benetan uraxe, gaur iñun billatu ezin liteken sukaldea.

Beste bat alakoxea ezagutu det Naparroako Lezaetan. Erri txiki bat da Lezaeta, eta antxe ikusi det orrelakoxe sukaldea.

Gerora berritu zuten Iturriozko sukaldea, eta galdu zuan bere antziñako jatorri eta kutsua. Ango zutabe, angoo zurrun eta abe beltzak. Noizbait bazan indarra antxe ere.

Kea etxe guztian zabaltzen zan, danak ketan onduak. Orra zein en osasuntsu bizitzen ziran. Elurte ikaragarriak izan arren, antxe guztiak. Giza-emakume, gatzetxo, ume, idi, bei, katu eta txakur, danak batean ke-usai gozoan. Egaztien kota ere antxe zegon bazterrean.

Gure arbasoak orrelaxe izan ziran: Kupela, irin-gelan; oremai, imi, lakari, errota-zaku, bae, galbae, eltze, lapiko-krixpi

eta tanbolin, lixiba-ontzi, lixarri, perrote, neskamealper, talaburni eta talamantenu, katillu eta gatzontzi... Guztiak antxe, irin-gela zaarrear.

Aittona ezurtsua pipea erreaz suaren inguruan. Ipuiak, sorgin-kontuak, aize eta odoi-otsak, dur-dur-dur! Amona zabalak elteak astinduz eserleku txikian, errietan ari ez zanean bertso zaarrak abestuz. Danak suari begira, etxearen erdi-erdian zegon-eta... Mundutxo bat zan guztientzako be-roa eskeintzen zuan sukalde ikusgarri ura. Gaur museo bat litzake Euskalerrirako, osorik balego, eta ez parregarria ere: sakona, ederra, ermoa.

Ez dezadan utzi basetxe onek bere sabel-sabelean gordezten duan Juan Deunaren ermita-txuloa aipatu gabe, iturri otza bere azpian duala. Erromeri politta oi zan San Juanetan. Burua busti eta ur otza edan gabe etzan geldituko iñor. Segapustu aundiak ospatuko ziran, jendetza ugaria bildu ere.

Orain kotxe-berebil oietan zoaz gain oietan barrena.

Iturriozko San Juan erroskillak bazuten zerbait antziña, galdu bear ez luteken kutsu berezia. Aaztekoak ez diran gauzak, alegia. Denboraz-denbora, urratu egiten baidira guztiak, orratx.

Aita gurea

San Martin erriko pesta-bezperan amak bialdu ninduan Etxeaundira, dendara alegia, txanponak emanda:

–Otso txanponak eta Joxepa Antoniri esaiok erreal baten fideoa eta txakur txiki baten kanela-zotza emateko.

Or noa antxintxika:

–Aimaria!

Eskilburutik Joxepa Antonik:

– Zer, zer bear dek?

–Zea, amak esan dit, zea, kanela-txotxa eta zea emateko, zea, zea...

–Zer dek, ba, beste zea ori?

–Zea...

–Kapea?

–Ez.

–Txikurii?

–Ez.

–Azukrea?

–Eeez.

–Zer arrane dek ba, motell, zer demontre...

–Aa, zea, Aitagurean esaten du gure amak.

–Jesus, auxe dek ba... Aita gurea, zeruetan zaudena –esanaz Joxepa Antonik– Nun dek ba, motell?

–Aurrerago, aurrerago...

–Abe Maria, graziz betea...

–Aurrerago.

–Santa Maria...

–Aurreratxeago.

–Gloria Patri eta Filio...

–Orixe, fidio, fidio, fidio... Fideoa alegia.

Orregatik ere asmatu genduan zerbait.

–Ume auek, auek! –parrez Joxepa Antonik.

–Otso, otso eta oa leenbaileen.



Errezilgo udala. Erkizoko Amo, kastor eta guzti

Auzolana

Zaarrak esan oi zuten urte batez erriko mutillak zer egin zuten San Martin pesta gau batean.

Goiz illundu eta arrats luzea nola moztu? Sasoia, indarra eta mutillak zer soma; gaiztakerirako gogoa ere bai, zer egingo eta ura egingo; txanpon gutxi, baiña nun bota aundirik ere ez. Azkenerako ostatuak itxi zituzten noizbait mutillak atera ezinda ibillita gero. Etxera joateko gogorik ez, urrengo goizean lantokiko adarrak etzuan joko, eta zertarako jaiki naiko lo egin gabe?

Bildu dira elizpean eta bururatu zaie kirtenkeriren bat egitea baiño obe izango dutela zerbait zuzena noizbait somatzea: Alako baserri batean andrea dagola alargundu berria, sendi koskorra lanerako, ume asko eta soroak laiatzeko auzolanaren zai zegola andre alargun ori...

Laiak artu eta berriz elizpean alkartuaz, soro-lurrak azpikoz gain jartzea erabaki dute mutillak.

Pozik artu zituzten beren etxeetatik laiak eta urrengo goizerako soro osoa laiatu omen zioten andre alargunari. Ala joanik izango ziran bakoitza bere etxera.

Goizean jaiki da andrea eta ikusten du soroa azpikoz gain jarria dala:

–Ixidro deunaren aingeruak izan ote dira?

Negar egin omen zuan andre gaixo ark soroa laiatuta ikusi zuanean. Ez omen zan jakin nortzuk izan ziran laiari jator aiek.

Orra or kirtenkeri sasoitsu eta ongarrria, jatorra. Nik aoz-ao entzuna det gertakizun txalogarri auxe:

Urkoaren maitasuna
erriaren osasuna.

Elurte aundia

Esan oi zuten berrogei eguneko elurte ikaragarri bat izan zala, eta beargite izugarriak egin zituala elurte aundi eta luze ark.

Pozik bai, baiña kupittuta egon oi giñan entzuten, begiak zabal-zabal ginduala. Eun urte inguru izango zirala zioten gure zaarrak. Gizona beteko baiño elur aundiagoa omen zegon Euskalerrian zear.

Gure galderak, eta txoriak zer jaten zuten, ia gure ate-au-
rrea nola zegon...

Elurte ura zala-ta bertsoak ere atera zituzten. Txirritaren bertso bat datorkit burura:

Milla ta zortzireunean
izan zan kortia
emen ikusi zana
negu bat fuertia,
orma beltzak egiñaz
luzaro Nortia.
Berrogei egunean
gero elurtia,
ijitoak amona
jan zuten urtia.

Au entzunda galdetu oi genduan, ia amona nola il zuten, erreta ala egosita jan zuten...

Amak esan oi zigun astoa jan zutela, amona ez zutela jan. Kuletok, berriz, baietz zion, zearo jan zutela amona. Naiko jakin-min izaten giñan koskorrok.

Ijitoak saletxe kaskar batean zaudela, elurteak arrapatu zituala egundoko ijito-taldea. Ume-sail aundia, gurasoak, amona zimurra, astoa eta txakurrak. Egunak, gauak, asteak elurpean, eta gosea nagusi. Astoa il zuten, jan ere belarrieta-raiñoeko guzia. Txilborrak eske, elurrak geldi.

Eztabaida gogorak izan ondoren, erabaki dute ixillean amona iltzea. Zail xamarra egongo ote zan, baiña goseak iltzea baiña obe izango zala, lapurretarako ere makalduta zegola-ta... Lokuluxkan kuxkurtuta dagola, jo eta eratsi dute amona beltza. Bera egongo zan xamurrena...

Gau artan bertan ara nun jaiotzen dan beste neska txiki atxapar beltza, amonaren ordekoa eta antz-antzekoa gaiñera; bai ugari izan ere ori eta...

Ez zekian gaixo ark nora zetorren; elur txuriaren azpian, beltz-beltz negarti, begiak zabaldu eziñik, txiro.

Elurra urtzen asterako jan zuten astoaz gaiñera amona ere. Txongo-ezurren bat besterik ez omen zuten utzi. Zain eta azal, zearo ezkutatu izango zuten atso beltza. Erreta eta egosita, xamurtu zuten bapo.

Elurrak urtzera, laster inguratu zituzten oillo zaarrak; astoa ere bai, eta kaixo, motell!

Gure poza ipuia eta bertsoak entzuten.

Esan oi zigun amak, urrutiko basetxetan ildako kristauen gorputzak aste osoetan elizara ekartzerik ez eta etxean euki bear izaten zittuztela, presko-presko, otz izugarria eta usaindu bildurrik gabe.

Irin-zakuak ustuak, errota-bideak itxiak. Astoen leporaiñoko elurrak eta ezin ibilli. Orra naiko buruauste.

Abereak erruz mendi eta saletxetan gosez illak. Udaberrian agertu omen ziran abere-ezurak ugari bazterretan. Gero urte ona izan zala diote, uzta ona, alegia.

Negu beltza gogorra da, baiña badu bere indarra, zomorro eta gaitz txar asko galtzen baiditu. Esaerak dionez:

Negu gogorra goiz,
uzta oberik noiz?
Negua berandu,
uzta eraman du.

Esker-eskariak

Oiartzundik Lesakara dijoan bide menditsu ortan bada aspaldiko baseliza bat; sakan-mendi zulo batean San Anton dertizan beseliza ortan egundoko erromeria egiten zan, promesa asko, erromes ugari Gipuzkoa eta Naparroatik biltzen zala.

Baserritar aita zaar bi alkartu dira erromeri ortan. Bakoitzak bere etxean, oitura zanez, bazeukan ikuilluko abean Anton Deunaren iruditxo, euli-kakaz betea, ikuillua zaindu zezan, napar-aire eta gaitz izurri guztietatik gordeaz. Kandela-mutur bedeinkatua piztu ere benetan.

Amaiketakoa alkarrekin egiñaz gizon biak lagun egin dira:

–Ni promes eginda etorri naiz, etxeko beirik bikaiñena ezin umatu, gizona, ezin ernai jarri, eta San Antoni kandela ipiñiaz esker orixe eskatzera etorri naiz.

–Ba, ni ere alatsu nator. Nik ez det bei-arazorik, baiña, arraioa!, bost alaba dittut, zaarrena etxera ezkonduta, eta ondorengorik ez etortzen; ezin, arraioa! Baserrian aurrak parra-parra egin eta azi oi dira. Moztadea da ume gabeko etxea, eta ume-eske etorri naiz. Badakizu, aittona egiteak badu bere pozbidea...

Ala agurtu ziran biak, ikusi arte!, alkarri esanaz. Urrengo urtean nun egiten duten topo berriz ere.

–Kaixo –dio batek.

–Joño, kaixo, kaixo...

–Ondo joan al zaizu aurreko urteko eskaria?

–Oso ondo, txaal bikaiña egin zigun eta berriz ere ernai daukagu. Eskerrak ematera etorri naiz gaur. Eta zuri ondo al dijoakizu?

–Nik ez det orrelako pozik izan.

–Zer bada?

–Zea, eztakit nik gaizki eskatu nion, otoitz gutxitxo egin edo bestela San Antonek etzidan ulertu. Alaba ezkonduak ez baiña besteak, urrenagoak egin dit umea.

–Neskak ala?

–Bai, bai. Au da gauzak erabat oker etortzea. Kontuak garbitzera nator; ia gaur gauzak zuzentzen dittugun, ia bear bezela agertzen dan urrenagoa.

 An sartu ziran biak elizan santu bizar aundiari esker-eskariak egitera:

 –Ia oraingoan zuzen ulertzen didazun, San Anton! Alaba bigarrenak ez baiña alaba zaarrenak egin bear zuan aurra. Ia leenbaileen zuzentzen dezun oker ori.

 Besteak eskertu zuan txaal bikaiña egin eta bestea bidean zeukala-ta, kandelak ipiñiaz.

 Izan ere onela oi da. Ez daukana, zai; duanak, ez nai.

 Ondoren amaiketakoa eta kaixo, motell!

 Bixkiak egingo al zizkion alaba doakabe ark.

Senar eske

Antonio Deunaren jaiak inguratzean amak esan oi zigun gertaera au.

Neska bat beti ezkondu otsetan eta ez omen zan bein ere ezkontzen; ez omen zion inork ezkontzeko mandaturik egiten. Gezurrak esaten omen zituan, ezkontzen zala esan zezaten. An ere ezkurra amets.

Antonio Deunaren irudi koskor bat omen zeukan gelako mai txikian argi eta lorez apainduta. Egundoko eskari xamurrak, muxu laztanak emanaz egiten omen zizkion otoitzak, senargai aberatsa, ona, dotorea eskatu ere. Baiña, San Antonio txikiak ez ematen. Egun batez, gogor xamar esaten dio eldu xamartzen ari dan neskatx orrek:

–Begira, San Antonio: Bederaitzurrena egingo dizut, baiña neri oraingoan lagunik billatzen ez badidazu, jipoi ederra artzeko zaude!

An ari da egunero argizari eta erregu. Egunak aurrera, eta senargai-arrastorik ez; ametsetan millaka azaltzen zaizkio, baiña esnatu eta neskaartzeko bildurra.

Iritsi da bederatzigarren eguna. Aundiak esan dizkio santu txikiari, jiponduaz. Eta bere amorrazioan leiotik beera bota du.

Alabearrez, mutil bat parean gertatu, eta jo du buruan eta puskatzen da San Antonio gixaixoa. Mutilla zaurituta, odoletan.

Ai, ene, ai ene!, izutu da neska: Jesus, Jesusss! Eraman du etxera mutilla. Zauria legortu eta lotu dio ozpin eta gatzez igurtzi ondoren. Arren baiño arren barkatzeko eskatzen dio, naita ez duala jo-eta. Esaten dio egiaz eta benetan gertatu zaiona: Urteetan eske eta eske, eta ez ziola senargairik ema-

ten, amorra egin eta leiotik beera jaurti zuala. Barkatzeko eta barkatzeko...

–Ori orrela bada, ni ere ezkongai nago, eta nai baldin badezu nerekin ezkondu... –dio mutillak.

Ene!, mintxuria eginda itzik gabe neska. Masaillekoak emanaz bere onera ekarri omen zuan mutillak; bai baiezkoa pozik eman ere neskak. Berealaxe ezkondu omen ziran, eta bai zoriontsu izan ere urte askoan, zaar-zaar eginda il arte.

Orra mirari bikaiña.

Antonio Deunaren irudi berria Tolosatik ekarri eta ez omen zan argi gabe bein ere egon etxe artan.

Neskazar eta gazte,
eduki buruan
mutil asko daudela
zuen inguruan,
maitemiñez beterik
zeuetxen moduan.
Esker txarrik ez eman
dartortzen orduan.

Zartzen asten danean
bakarrik ageri,
zimurrak aurpegira,
ia buru zuri.
Amodiuak baditu
amaika komeri.
Kandela piztu bear
San Antoniori.

Arakiña

Ezer gutxi zuten senar-emazte batzuek ondorengorik ere ez zuten eta, zintzoak ziranez, poliki alkarrekin bizi ziran, oso alkar-maite.

Emazteak, eutsiaren eutsiaz ez zuen etxerik galduko, ez orixe. Xurra, xurra, arraioa!

Biaramonean Jose Deunaren eguna zala eta arkume puxkaren bat etxeratu zuan andretxoak. Bazkari on xamarra egin nai ba... Gizonak, zer zati ekarri zuan ikusirik:

–Emakumea, ez gera arkumez ittoko! Zoaz, otsi dirua bear badezu, eta ekar zazu arkume koskor bat. Zoaz Joan artzaia-rengana eta ekartzazu azkar arkumea bizirik, arkume osoari pusketa asko kentzen zaizkio-ta.

–Bai, eta nork il bear du?–andre gaixoak.

–Zuk ekartzazu bai, eta neroni konponduko naiz.

Ia negar egiñean or dakarki, igurtziaz-igurtziaz, maitekiro arkume txikia.

–Ara emen nun dezun arkumea. Aizu, Xixilio, au ezin ilko dezu ba...

–Il gabe nola jango degu ba? Eramaiozu Martin arakiñari, eta il eta narrutu dezala esaiozu.

Atso biozbera arkume gixaixoa beeka besoetan duala joan da arategira.

–Gure Xixiliok esan du iltzeko au, eta narrututa jartzeko; ni bitartean elizara noa, ez det iltzen ikusi nai-ta –negar intziriz dijoa.

Rist, eta rast, il eta narrutu du arkumea arakiñak.

–Ara, ementxe dezu –dio atsoari.

–Zenbat da?

–Ezer ez –dio arakiñak.

–Ezer ez?

–Ez, lan auek narru-truke egiten ditugu.

–Ene! –burumakur, lotsa-lotsa eginda dijoa gaixoa etxera, arkumea eskuan txintxilika duala, odol tantanak darizkiola, negar zotiñez.

Gizonak:

–Baiña zer dezu negarrez, emakumea?

–Ez naiz ni berriz gizon orrengana joango. Ez eta ez!

–Zer arraio egin dizu ba?

–Ezer ez.

–Zer esan dizu bada, emakumea?

–Ez dizut esango. Lotsagabe alena! Ez naiz berriz joango ez.

–Jakin bearako degu bada zer gertatzen dan.

Or dijoa senarra arategira:

–Aizak, zer esan diok gure andreari?

–Nik ezer ez.

–Ba, negarrez joan dek bere arkumea txintxilka duala; lotsatuta, geiago ez dala iregana etorriko esanaz gelditu dek.

–Ara, motell, guk egin ditugun itzak auexek izan dittuk. Zenbat dan galdetu zidak, eta nere erantzuna auxe izan dek: Ezer ez, guk lan auek narru-truke egiten ditugula esan zioat. Oitura degun bezela, ik badakik arkumea iltzea narru-truke egiten degula.

–A, rekoño! Bai, nik bazekiat, baiña arek ez; beste era batera jaso dik ire itza.

–Bai zea...

–Olakoxea dek ba, gaixoa.

Bi gizonak naiko parre egin zuten.

Gorrotoa

Erri txiki batean, gaur ere alatsu gabiltza-ta, etengabeko burrukan omen zebiltzan, oso asarre. Zazpi milla deabruk artuta zegon erri ori, noski.

Ostiral Santuko itzaldia egiteko iñor ezin billatu zuan bertako erretore jaunak. Bere itza eta atariko aizea, berriz, berdintsu ziran erri artan. Auzo-errietako apaiz eta prailleak etzuten etorri nai erri artara, bai baizekiten erri ortako berri.

Nunbaitetik inguratu du kaputxino bizar luze oietako bat. Erriko berri eman dio erretore jaunak. Esan dio jendea nolakoa dagon, danak alkarri zearka begiratuaz dabiltzala...

Iritsi da elizkizuna. Eliza deabruz bete da. Batek bestea-gatik onela zion berebaitan:

–Zerri ori, i ere elizara? Lapur ori, i ere bai?

Danak bazuten zer bait alkarrentzako; guztiak maltzurkeriz beteak. Igo da kurpittora praille bizar luze ori. Asarre ari da, plasta!, joaz. – Nik zuzenduko zaittuztet! –berekiko esanaz, onela dio:

–Alkarrentzako bekozko illuna eta gorrotoa nagusi duan erriak ez dauka salbaziorik, inpernu bidean dago. Akerrak dira oiek, ez kristauak! –asarre–. Emen burua makurtzen ikasi bear da, burua makurtzen. Ia nerekin batean makurtu burua danok.

Rast, kaputxinotzarra zintzilikatzen da. Jesus, ango istillua buruak lurreratu eziñik, alkarri leku eman ezinda.

–Pontzio Pilato, beera, beera buru ori!

Ia ez zekiten buruak noraiño jatsi. Agure batek:

–Madarikatu, kaputxino zaarra, emengo autsak jasoko dizkiagu.

Besteak:

–Ortara etorri al dek ori, alu ori!

Danak nekatu zituan burumakurka; andre bat baiño geiago erori ere zalapartan zebiltzala. Onela zion berriz ere:

–Esaera zaarrak dion bezela, abere gaiztoa da gorrotoa. Maite ezazute alkar otsoak bere umeak maitatzen dituan bezela.

Ala, bere latiñezko itzak esanaz “Consumatos diabolos... ignem eternum...” eta abar bukatu du itzaldia. Baiña ez ditu asko ikaratu; leengo lepotik zegon an burua. Gero, elizkizun ondoren:

–Praille auntz arraioa, orrek gorriak erakutsi zizkiguk...

Alkarren arteko itza ekarri zieten baiña, gu askotan bezelaxe, leengo antzean irten ziran eliztar deabru aiek, leengo lepotik burua zutela.

Zezenia deuna

Berezia genduan benetan Zezenia deunaren eguna; oso zai egon oi giñan egun pozgarri au iristeko. Musikalari, soñu-jole eta, batez ere, abeslarien zaindari eguna.

Abesti-lanetan asko saiatzen zan erria, eta urtean jai bat ospatzea egoki zan.

Goizean egunsentian ttuntun-txistulariak egunaren berri adierazten zuten. Meza nagusia abesti bereziz, eta illuntzean aparia Paneokuan. Ura poza! Abeslarien urteko saria uraxe izan oi genduan, azukre-koxkor edo txanpon txikiren bat ez bazan.

Lañriak eta txikiak guztiok mai batean, eta gure poza gizonen artean naasten giñanean: Migel Joxe, Altamia, Joxe Ramon eta abar...

Pilarrek apari politta jarriko zuan. Matildek eta Maritxuk bero-bero eramango zuten maira, eta bai guk muturmintzak berotuaz zakuratu ere bapo.

Apalondo politta oi zan, bakarren bat edo beste apurren bat gaiztotzen giñanean, "Altza, Felipe, trulalai...".

Piano ederra bertan zegonez, Kantoiko Karmelek, mutil gaztetxo bazan ere ederki asko jo oi zuan. Kontzierto gisan joko zizkigun dantzatzeko pandangoak ere.

Don Axintxiok, "Ara nun diran mendi maiteak, ara nun diran zelaiak" abestuko zuan dotore, tenor ona bai zan.

Joxe Migel Belamendikoak, "Giltzapian sartu naute poliki poliki, negar egingo luke nere amak baleki", abots lodi eta mardulez ederki asko gozatuko zuan.

"Neska zarrak joaten dira Madalenara", "Maritxu, nora zoaz, eder galant ori", "Andre Madalen...".

Txilibixtro ere kape-garairako inguratuko zan, imintzio biurriak egiñaz. Prailletarako ikasten eguna zan eta ark bazekizkian iñungo azti eta sorginkerizko jolas guziak. Aoa zabaldua egon oi giñan ari begira. Belaunean ukabilla jarri eta beatz aundiarekin sudurra ikutuaz, anka baten gaiñean ir-tengo zan, artean ez zegola edanda adieraziaz.

Dantza puskat egiñaz eta bukatu oi genduan gure zaindari Zeziliaren egun alai ura.

Aulku bezela esango nuke, berrizko ere batu eta indarra ematen zigula pesta aretxek abes-lanean jarraitzeko.



1927-7-18an Domingo Erkiziaren omenez

Eranskina

Barkatu, jauna

Milla bederatzireun larogeita bata,
ilbeltzaren iruan, gaur da larunbata,
gizon on alai bati nai nioke kanta.
Ez du orrek ipuirik iñoiz ere palta.

Errezilko semea Inazio Mari,
Zegaman bizi dala jakindu det ori.
Olakoak gustatzen zaizkit erruz neri.
Dotore badakizki ipuiak ugari.

Errezilko seme da, beraz, Atxukarro.
Baditu iru gurdi ta beste bi karro
ipuiak ibiltzeko lumaz arro-arro,
txantxangorri ta txepetx, zozo, bigarro...

Lagunartekoa da, gizon atsegiña.
Santo Tomas egunez nago itz egiña.
Gure jakinduria ain da ezberdiña:
Nerea beltz-beltza da, orrena urdiña.

Apal ta gizalegez nai du errespeta
antziñako asaben euskaldun izketa,
txit komeni dan gauza derizkiot-eta.
Ez dakianarentzat zer erakusketa!

Berrero ere ori bearko det zaitu.
Oraindik ipui danak etzaizkio aitu.
Aitona zarrak iñoiz aitaturtzen ditu,
malkarrik txarrenetan ikusi nai gaitu.

Aitona zarrak anka trabatu lepotik.
Beeko txillardegira amildu da goitik.
Erbia or irten da laisterka kabitik
txinparta dariola belarrietatik.

Segundo Kalonje
El Diario Vasco, 1981.I.11
AUSPOA 255 (1998), 214-215 or.

Kalonjeren esku-idazkietan Atxukarrori eskeiñitako beste sei bertso auek ere aurkitu zituen Antonio Zavalak, bere Auspoan esaten duenez.

Donostitik begira nago Zegamara
Atxukarroren ipui polit oietara,
aztu gabe larunbat illunabar gaba.
Zu bai iztun apaiña iñor baldin bada.

Euskaldun zarren antzera, gurdi eta karro,
parra eragiñarazten ipui edo lerro.
Etzera nabarmentzen aizetsu ta arro.
Len bezelaxe apal jarrai, Atxukarro.


Mereziak dituzu askotan txaluak.
Eskeintzen dizkigutzu kontu pontxoluak.
Nik erne jartzen ditut belarri-zuluak.
Gau erdirarte ez nau errenditzen luak.

Zer esan nezake nik orain Atxukarroz?
Ardo onak eskeintzen asiko naiz txarroz,
etxera ekarriak gurdiz eta karroz.
Ordainduko al dizkit ipuiz edo lerroz.

Kanta nai badituzu bertso auek ortik,
askatasun osoan jartzen zaitut gaurtik.
Ez baldin badituzu nai, deus ez dit inportik.
Ez nezake biali beste ipui sortik.

Orra sei bertso kaskar Kalonjerengandik;
apur bat tentatzea gogoak eman dit.
Euskaldunak gera gu orain baiño lendik,
naiz alkar ez ikusi sekula oraindik.

AUSPOA 255 (1998), 215-216 or.



Karmelo Otaegi, Loiolako Irratiaren saria
ematen. Zegama, 1985-11-10

Aurkibidea

Atarikoa.....	7
Aurkezpen bat egin asmoz	23
Atxukarrori bertsoak.....	31
Sarrera	37
Erria, sendia, izurdia	39
Ama.....	43
Gabonak.....	45
Eguberri eguna.....	47
Aitonon esaerak	48
Erregeak.....	49
Ilbeltza.....	50
San Blas.....	52
Errekondo	54
Ibarzabal	56
Oitura zaarrak	58
Oillarra eta sugelingara.....	61
Neskazaarrak.....	64
Sorgiñak	65
Santu ipuia.....	68
Eztaia–Añoi.....	69
Otegitxon	73
San Jose bezpera	74
Il-jantziak.....	75
Eskolan eta akolito	77
Bikario txikia.....	79
Elizakoak.....	81
Meliton eta emaztea	82
Eliz-griña.....	84
Irure-aundin.....	86
Leenengo jaunartzea eta arrebak	88

Xantiñean.....	91
Kabadas	92
Puzkarrak su	93
Neskatx illa.....	94
Argindarra	95
Bildain – Landarrain – Mendiola	97
Erriko zurgin edo arotzak.....	99
Nikaxio anaia.....	101
Erdoizta baillara	102
Itsasontzi aundiarena	103
Irratia – Pauliño.....	104
Errege Alpontxo	108
Ostatu	111
Errizaia edo agoazilla	113
Mutillen indar sasoiaren	115
Pauliño Uzkudunen indar neurketa bere aitarekin ..	118
Gurutzeagako aitona.....	122
Apustu-griñak	124
Sega apustua.....	126
Txikuri eta Korreo zarra.....	127
Ernio	128
Bidaniko San Bartolomeak	132
Erkizia, baserri bikaiña.....	136
Ezagunak	137
Gozokiak	138
Arbi-lora garaia. Garizuma deuna	141
Ostegun, Ostiral, Larunbat deunak.....	143
Sendotza.....	146
Azentzio ipuia	148
Azentzio eguna.....	150
Egazkiñak.....	151
Azken epaia	152
Kaletar eiztaria	156
Josetxo	158

Talo gozoa.....	162
Bi begibakarrek alkar jo.....	164
Ardia eta intxaurrak	166
Zepairen ateraldi batzuk	169
Antonio donearen eguna	173
San Juanak	176
Kamiñerua eta bere emaztea	178
Ernioko leize-zuloa	180
Mateo Txistu.....	181
Errezilko aizkora-apustua.....	182
Muatseko gertara.....	184
Don Kandido apaiza.....	191
Mikeleteak	200
San Inaziok.....	203
Kabuania.....	206
Soldarutza	208
Altxuru	210
Txoperra	211
Mateo Paxiegua.....	212
Azpeitiarrak	214
Garaian garaikoak	216
Daniel.....	218
Roman sakristaua	221
Errezilko duntziñeroak.....	222
Senargai erdelduna.....	223
Doktor Asuero	226
Doktor Zikin	228
Asteasuko adarra.....	230
Pelikula	231
Jale-goseak.....	233
Matxinbentako gertaera	235
Palankariak	238
Azpilla	243
Udazkena	249

San Martin bezpera.....	252
San Martiñak.....	254
Nundik norakoak gera?.....	257
Udazkeneko eskaleak.....	262
Pedro Deunaren pestak Asteasun	265
Lezoko promesa	268
Basabil	271
Gurdipeko pertza	274
Bildotsa	276
Amenabar	278
Ageda deun bezpera.....	281
Atsoaren aitortza	284
Ama baten kezka	285
Bola jokua	288
Bei pinttoa.....	291
Urraki.....	293
San Martin eta deabrua	295
Guda-ostea	297
Iturriotz	299
Aita gurea.....	301
Auzolana	303
Elurte aundia	304
Esker-eskariak	306
Senar eske.....	308
Arakiña	310
Gorrotoa	312
Zezilia deuna	314
Eranskina.....	316

